



BILDUMA



BILDUMA:

Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzuaren aldizkaria. Erreterriako Udala.
Revista del Servicio de Archivo y Publicaciones. Ayuntamiento de Erreterria.

Erredakzio Batzardea / Comité de redacción:

José Ramón Cruz Mundet
Leonor García Vázquez
Juan Carlos Jiménez de Aberasturi Corta

Argitaratzen du / Edita:

Erreterriako Udala. Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzua.
Ayuntamiento de Erreterria. Servicio de Archivo y Publicaciones.

Idazlanak, harpidetzak eta administrazioa / Redacción, suscripciones y administración.

Erreterriako Udal Artxiboa. Erreterriako Udala.
Archivo Municipal de Erreterria. Ayuntamiento de Erreterria.
Herriko plaza, z/g. 20100 Erreterria
Tfno: 943 44 96 10 - Fax: 943 44 96 60
E-mail: artxiboa@erreterria.eus

I.S.S.N: 0214-624X

BILDUMA (Erreterria).

Maketazioa / Maquetación:

Esaten Comunicación y Publicidad, S.L. (Erreterria – Gipuzkoa).

Inpresioa / Impresión:

Leitzaran grafikak.

Atzeko azala / Contraportada:

Kilometrolak, Erreterria, 1984. Agustín Lojo-ren argazkiak. Fotos de Agustín Lojo.

Aldizkari honek Creative Commons lizentzia du
Esta revista tiene licencia Creative Commons:



Creative Commons BY-NC-SA: Aitortza – Ez-komertziala -Partekatu berdin 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

Aitortza: argitalpen hau erabiltzeak, sarbide librean eskuragarri dagoenak, honako datu hauek izan beharko ditu: egilearen izen-abizenak, argitalpenaren jatorrizko izenburua, argitalpenaren identifikazio-zenbakia (ISSN) eta argitalpenaren lizentzia-mota.

Ez komertziala: argitalpen honen edukia ezin da helburu komertzialetarako erabili.

Partekatu lizentzia berarekin: argitalpen hau aldatzen edo eraldatzen badu, edo obra eratorri bat sortzen badu, sortutako obra Creative Commons lizentzia berdinarean banatu beharko du.

Creative Commons BY-NC-SA: Reconocimiento – No Comercial -Compartir Igual 3.0 (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

Reconocimiento: cualquier uso que se haga de esta publicación disponible en libre acceso deberá incluir los siguientes datos: nombre y apellidos del/de la autor/a, título original de la publicación, número identificativo de la misma (ISSN) y la mención al tipo de licencia abierta bajo la que se publica.

No comercial: el contenido de esta publicación no puede utilizarse para fines comerciales.

Compartir bajo la misma licencia: si altera o transforma la presente publicación, o genera una obra derivada, deberá distribuir la obra generada bajo una licencia Creative Commons idéntica a ésta.



BILDUMA



2018an hasitako lankidetzak berriari esker, Errenteriako Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) elkarlanean Koldo Mitxelena Ikerketa Bekaren XIV. deialdiaren helburuak berriro zituen euskarazko ikerketa sustatu, emakumeek egindako ikerketa bultzatu, Errenteriako udalerriari buruzko ezagutza areagotu eta bekaren izena daraman filologoa omentzeko asmoz.

Bildumaren ale hau modu monografikoan eskainia dago Udalak bi urtean behin ematen duen Koldo Mitxelena Ikerketa Bekaren 14. deialdiko ikerlanaren argitalpenari.

“Zeinek esango zigun... Errenteriako helduen alfabetatze-euskalduntze prozesua 1960-1980 hamarkaden artean, bizi izan zutenen diskurtsoen azterketatik” izenburupean argitaratzen den lana 2018ko abenduaren bukaeran hasi eta 2020ko irailean amaitu zuen Beatriz Gallego Muñozek.

Bi ataletan antolatzen du egileak aldizkariaren 30. zenbaki honen edukia. Lehenengoan Euskal Herrian aztergai dituen urteetan bizi zen egoeraren deskribapenean oinarritzen da bigarren zatian, Errenteriako egoera eta historia, osatzen duten testigantza-aleak kokatu eta ulertzeko. Berriemaileen hitzak lotuz aurkezten duen errelatoak Errenteriako testuinguruaren irudi erreal eta konplexua islatzea lortzen du.



“Zeinek esango zigun...”

Erretereriako helduen alfabetatze-euskalduntze prozesua 1960-1980ko hamarkaden artean, bizi izan zutenen diskurtsoen azterketatik

Beatriz Gallego Muñoz

XIV. Koldo Mitxelena Ikerketa Beka

Asko izan dira modu batean edo bestean ikerlan hau posible egin dutenak. Eskerrak eman nahi dizkiot Errenteriako Udalari ikerketa hau egiteko aukera eman zidalako, eta, bereziki, Leonor Garcíari, bere adeitasunagatik. Nola ez, nire eskerrik beroenak elkarriketetan parte hartu zutenei. Aipamen berezia merezi du Iñigo Bengoetxeak, modu hain eskuzabalean lagundu zidalako. Azkenik, nire familiari, bikotekideari eta lagunei, eskerrik asko beti han egoteagatik.

Laburpena

60ko hamarkada aldera, euskararen egoera minoritarioarekiko sentsibilitatearen ondorioz hizkuntza balioan jartzera eta berreskuratzea bideratutako ekimen ezberdinak sortu ziren, hizkuntza euskal nortasunaren funtsezko ardatz bihurtuz. Batuarekin batera, euskara irakas-hizkuntza gisa zuen eskola-eredua abian jartzea eta helduak euskalduntzea eta alfabetatzea izan ziren frankismoak emandako kanonetatik urrun zegoen nazio-mailako proiektu berri bat artikulatzen saiatzeko tresna nagusiak. Osagarri horiek funtsezkoak izan ziren 80ko hamarkadan gauzatuko zen eta, ondorioei dagokienez, oraindik eztabaidagarria den hizkuntza-normalizaziorako bidean.

Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea benetako herri-mugimendu bat izan zen, milaka gizon eta emakumeren banakako borondateak bildu zituen, eta beste gizarte-eragile batzuk ere inplikatzeko lortu zuena, batez ere kulturaren eta elkarteen esparrukoak. Sare horri esker, gau eskolen arrakasta kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa ere izan zen, eta horrek espazioaren okupazio sinbolikoa ekarri zuen.

Lan honek Errenteriako gau eskolen fenomenoaren ikuspegi etnografikotik jorratzen du, 60ko hamarkadaren erdialdean agertu zirenetik 80ko hamarkadaren hasieran euskaltegiak sendotu ziren arte. Oroitzapen indibidualen bidez memoria kolektiboari ekarpena egin nahi zaio, herri mugimendu horren ezaugarriak islatzeko eta herrian euskarak duen ikusgarritasunean izandako eragina aztertzeko. Era berean, tokiko beste fenomeno batzuek helduen euskaldutze-alfabetatze prozesuan eragina izan zuten, AEKren eta HABEren arteko gatazkak, esaterako.

Gau eskolen eremu eksklusiboaz haratago, arreta jarri zaio gau eskola horiek sortu eta eboluzionatu ziren testuinguruari, beste aldaketa-eragile batzuekiko konexioak bilatuz (fenomeno isolatu gisa aztertu beharrean) eta arreta berezia jarri emakumeek euskararen transmisioan duten rolari.

Hitz gakoak:

Errenteria - helduen euskaldutze eta alfabetatze mugimendua - gau eskolak - emakumeak - transmisioa

Aurkibidea

SARRERA	13
Ikerketa esparrua	13
Helburuak	14
Informazio-iturriak.....	15
Metodologia	15
Ikerlanaren antolakuntza	16
1 ABIAPUNTUA ETA AURREKARIAK	17
1.1 Abiapuntua	18
1.2 Aurrekariak	21
2 SAILKAPENAK ETA KONTZEPTUALIZAZIOAK: ARAZO TERMINOLOGIKOAK	23
2.1 Alfabetatzea eta euskalduntzea	24
2.2 Euskaldun vs. erdaldun.....	25
2.3 Diglosia	26
2.4 Elebitasuna	26
2.5 Neurketak eta irakurketak	27
3 ATZERAPENETIK NORMALIZAZIOA	31
3.1 Atzerapen prozesua	33
3.2 Kontserbazio prozesua	35
3.3 Berreskuratze prozesua	36
3.3.1 Berreskurapen-jarrera eta familia	37
3.3.2 Etxetik kanpoko bizitza: kuadrilla, elkarteak, Eliza, kalea	38
3.3.3 Ikastolak.....	40
3.4 Normalizazio linguistikoa	41
3.4.1 Instituzionalizazio prozesua	41
3.4.2 Euskara gizarteratzeko modu berriak.....	41
3.4.3 Argitalpenak	42
3.4.4 Egunkariak	43
3.4.5 Musika	44
3.4.6 Irratia	45
3.4.7 Telebista.....	45
3.5 Normalizazioaren ondoren, zer?	46
3.5.1 Normalizazioaren diskurtsoa	46
3.5.2 Normalizazioaren ondorioak	46
3.5.3 Normalizazioaren argi-ilunak.....	47
3.5.4 Euskararen aldeko mugimendu soziala.....	47
4 HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE MUGIMENDUA.....	49
4.1 Mugimendu soziala.....	50
4.1.1 Ezaugarriak	51

4.2	Garaiak	52
4.2.1	Alfabetatze murritua	52
4.2.2	Alfabetatze hedakorra	54
4.2.3	Garai instituzionala: AEKren eta HABEren arteko gatazka	56
5	HELDUEN GAU ESKOLAK GIPUZKOAN.....	59
5.1	Gau eskoletatik euskaltegietara egindako bidea	60
5.1.1	Zer suposatzen zuten gau eskolek?	61
5.1.2	Fenomenoaren ahuleziak eta aztertzeko zailtasunak	61
5.2	Metodoak, materialak, didaktika	62
5.2.1	Ikasmaterialak	62
5.2.2	Material propioa eta osagarria.....	63
5.3	Bilakaera	65
5.3.1	Txinpartetatik sutzarretara.....	65
5.3.2	Gau Eskolen Elkartea	66
5.3.2.1	Antolakuntza, taldeak.....	66
5.3.2.2	Ikasle kopurua eta mailak.....	68
5.3.2.3	Lokalak.....	69
5.3.2.4	Finantzaketa	69
5.3.2.5	Eskolez gain, bestelako ikastaroak	70
5.3.3	Ikasleriaren ezaugarriak.....	71
5.3.3.1	Sexua	71
5.3.3.2	Adina	71
5.3.3.3	Jatorria.....	72
5.3.3.4	Motibazioa.....	72
5.3.4	Irakasleriaren ezaugarriak	72
5.3.4.1	Sexua	73
5.3.4.2	Adina.....	74
5.3.4.3	Titulazioa, lanbideak	74
5.3.4.4	Lan baldintzak	74
5.3.4.5	Motibazioa.....	74
5.3.5	Alfabetatze instituzionala	75
6	EUSKARAREN TRANSMISIOA ETA GENEROA.....	77
6.1	Etxeko transmisioa eta generoa.....	79
6.2	Eskola eta generoa.....	79
6.3	Etxe-eskolak	80
6.4	Etxe-eskoletatik ikastoletara	81
6.5	Andereñoen arteko belaunaldi aldaketa	82
7	HAURREN ALFABETATZE EZ-FORMALA.....	85
7.1	Umeen aldizkariak.....	86
8	ERRENTERIAKO TESTUINGURUA	90
8.1	Errenteriako testuinguru orokorra	91
8.1.1	Egoera politiko gatazkatsua	91
8.1.2	Lan mundua.....	95

8.1.3	Errenteriako testuinguru kulturala	97
8.1.3.1	<i>Prentsa, irratia, aldizkariak, liburugintza</i>	97
8.1.3.2	<i>Herri-ekimenak</i>	100
8.1.3.3	<i>Musika</i>	104
8.1.3.4	<i>Identitatea eta sinboloak</i>	105
8.2	“Atzerapen fasea”	109
8.2.1	Atzerapena eta generoa	110
8.3	“Kontserbazio fasea”	112
8.3.1	Errenteriako testuinguru soziolinguistikoa	112
8.3.2	Eskola eta kalea	114
8.3.3	Espazioak	115
8.4	“Berreskuratze fasea”	116
8.4.1	Familien kontserbazio lana eta berreskurapen jarrera	117
8.4.2	Errenteriako elkarte-sarea	119
8.4.2.1	<i>Elkarte gastronomikoak. Txepetx, Urdaburu, Gautxori, Elkartasuna</i>	120
8.4.2.2	<i>Elkarte kulturalak, Ereintza, Hibaika, Ibai Alde</i>	120
8.4.2.3	<i>Elizaren rola</i>	122
8.4.2.4	<i>Auzo-elkarteak</i>	122
8.4.3	Euskara lan munduan	124
8.5	“Normaltasun fasea”	125

9 HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZE MUGIMENDUA ERRENTERIAN.

BEGIRADA DIAKRONIKO BAT	130
9.1 Hasierako gau eskolak	132
9.2 Gau eskolak AEKn integratzen dira	133
9.3 AEKren gau eskoletatik AEKk kudeatutako Udal Euskaltegiaren sorrerara	134
9.4 AEK vs. HABE, instituzionalizazio prozesua eta bere isla Errenterian	136
9.4.1 Udal euskaltegian haustura	138
9.5 AEKn haustura: Xenpelar eta Ortzadar euskaltegiak	141
9.6 Egindako ibilbidearen inguruko hausnarketa batzuk	142

10 GAU ESKOLAK ERRENTERIAN

10.1	Hastapenak	147
10.1.1	Elkarte mugimendua eta gau eskolak: sarea eginez	147
10.1.2	Elizaren eta JOC-en papera	151
10.1.3	Orereta ikastolaren rola	152
10.2	Harremana, giroa... oroitzapenak	152
10.3	Ikasleen profilak	154
10.3.1	Sexua, adina	154
10.3.2	Jatorria	156
10.3.3	Motibazioa	156
	10.3.3.1 Euren burua alfabetatu nahi zutenak	157
	10.3.3.2 Euskal kontzientzia, motibazio politikoa eta kulturala.....	157
	10.3.3.3 Integrazioa	158
	10.3.3.4 Seme-alaben motibazioa	159
10.3.4	Euskalduntze-alfabetatze prozesuaren eragina euren bizitza pertsonalean	159

10.4 Irakasleen profilak	161
10.4.1 Sexua, adina	161
10.4.2 Motibazioa	162
10.4.3 Taldeak: antolakuntza, kopurua	163
10.4.4 Metodoak, baliabideak	165
10.4.5 Eskolen prestakuntza	167
10.4.6 Bestelako zailtasunak	169
10.4.7 Katebegiak, erreferenteak	169

11 EUSKARAREN TRANSMISIOA ETA GENEROA ERRENTERIAN.....172

11.1 Etxean eta etxetik kanpo	173
11.2 Etxe-eskolak	174
11.3 Etxe-eskoletatik ikastoletara	175
11.4 Gau eskolak eta generoa	175

12 HAURRENTZAKO EKIMENAK ERRENTERIAN178

12.1 Haurren euskal jaiak	179
12.2 Haurren alfabetatze ez-formala	180
12.2.1 Aldizkariak	180
12.2.2 Dotrina	180
12.2.3 Eskolaz kanpoko ekintzak	181
12.3 Haurren gau-ikastolak	182
12.3.1 Lokalak, baliabideak, adinak, irakasleen ikuspuntua	183
12.4 Haurren udalekuak	184

13 ERRENTERIAKO GAU ESKOLEN ETA IKASTOLEN MUGIMENDUEN ARTEKO PARALELISMOAK.....188

13.1 Fenomeno osagarriak	189
13.2 Biak hezkuntza-sistema ez-formalaren parte	190
13.3 Gabeziak	190
13.4 Zailtasunak eta haien aurreko erantzuna	191
13.5 Irakasleen jarrera militantea	192
13.6 Borroka nazionala, identitatea eta antifrankismoa	193
13.7 Biak herri-mugimenduak	194
13.8 Beste eragileen inplikazioa	194
13.9 Sarea	196
13.10 Fenomeno aurrerakoiak	197
13.11 Barne hausturak	197

ONDORIAK200

ERANSKINAK205

I. Berriemaien zerrenda	207
II. Bibliografia	209
III. Ahotsak	221
IV. Resumen, Résumé, Summary	223

0.

Sarrera

O.

Sarrera

Ikerketa esparrua

Errenteriako Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, 2018an zabaldutako XIV. Koldo Mitxelena ikerketa bekaren deialdiaren testuinguruan, Errenterian¹ 1960-1980ko hamarkaden artean izandako helduen alfabetatze- eta euskalduntze-mugimendua ikertzeari ekin zitzaion, lekukoaren diskurtsoen azterketa oinarritzat hartzen duen metodo etnografikoa erabiliz eta genero-ikuspegiari arreta berezia eskainiz.

Ikerketaren planteamenduak honako hipotesi hauek zituen abiapuntu:

- Frankismo garaian euskara eremu pribatura murrizten zen. Errenterian, Euskal Herriko beste zenbait lekutan bezala, bazegoen euskararen aldeko mugimendu isil bat.
- Isila izatetik, kaleak hartu bitartean egin zuen ibilbide kolektiboa, espazioaren okupazio fisikoarekin batera okupazio sinbolikoa ere lortuz.
- Mugimendu horren osagarri bat helduen gau eskolak izan ziren, ondoren euskaltegiak izango zirenen hastapenak.
- Gau-eskolen ezaugarriak direla eta, gertakari igarokortzat hartzen dira, inorena ez den lur batean geratuko balira bezala: klandestinitatea eta legalizazioaren artean; inolako azpiegiturarik ez izatetik, koordinatuta egotera; helduek euskara ikasteko eredu bakarra izatetik (erakundeetatik at), erakundeetan sartuta egotera... Hain zuzen ere, gau eskolen ezaugarri eta bilakaerak fenomeno berezia bihurtzen dute berau.
- Gau-eskolek euskararen aldeko mugimenduan zeuden beste zenbait osagarrirekin lotura estua izan zuten, batez ere ikastolen mugimenduekin.
- Mugimendu hori posible izan zen jende askoren lan eta esfortzuengatik, zeinak garai hartako egiturek uzten zituzten zirrikituak aprobeitzatzeko gai izan zen, elkarrekin errealitate berri baten oinarriak jartzeko.

¹ Ikerlan honetan zehar, herriaren izen ofiziala erabiliko da. Lekukotasunetan, ordea, berriemaileda bakoitzak erabiltzen duena errespetatuko da.

Helburuak

Ikerketak planteatzeko zituen helburuak hauek ziren:

Helburu orokorrak

- **Metodo etnografikoa** jarraituz eta lekuko diskurtsoen azterketan oinarrituta, XX. mendeko 60-80ko hamarkadetan Erreterian izandako alfabetatze-prozesuan sakontzea.
- Erreterian garatutako alfabetatze-ekimenei buruzko **datu kuantitatiboak** aztertzea: noiz hasi ziren; zer motatakoak izan ziren; zenbat lagun inplikatu ziren hasieran; zenbat izatera iritsi ziren; nola eta nondik zabaldu ziren ekimenak...
- Berdin **informazio kualitatiboari** dagokionez: alde batetik, euskara ikasteak berekin zekartzen aldagaiei erreparatuz (identitarioak, hizkuntzalaritza zein kultur arlokoak, politikoak, eta abar); bestetik, ekimen horiek beste arlotan izan ahal zuten eragina aztertuz (enpresa pribatuetan, erakunde publikoetan, gaur egun jarraitzen duten ikastolen edota euskaltegien proiektuetan, inguruko beste herriren batean...).
- Mota horretako esperientziek Erreteriarako jendartearen **izandako harrera ezagutzea**, tokiko beste erakundeekin eta gizarte-eragileekin (udaletxea, eliza, joera ezberdineko elkarteak...) zeukaten harremanei erreparatuz.
- Erreteriarako **helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua ikertzea**, abian jarritako proiektu ezberdinen arteko loturak zein hausturak azpimarratuz: noiz, non eta nola sortu ziren, zeinek bultzatu zituen (partikular batek, elkarte batek...), nolakoak ziren partaideen profilak eta aldatzen joan baziren ala ez...
- Alfabetatze-prozesua **posible egin zuten lagunen lana nabarmentzea**. Bereziki, genero-sistemak hizkuntzaren eta kulturaren transmisioan ezarri ohi diren paper bikoitza dela eta, **emakumezkoek** bertan gauzatutako eginkizun garrantzitsuari erreparatuz.

Berariazko helburuak

- Frankismoaren amaierako testuinguru orokorrean, Erreteriarako alfabetatze-prozesua aztertzea, tokiko **ezaugarri zehatzak** aintzakotzat hartuz: egoera sozio-ekonomikoa, hiritarren profil demografikoa (sexua, adina, bertakoak eta etorkinak, euskaldun eta erdaldunen arteko proportzioa...), euskararen onarpena zuzendutako erakundeak eta legeak sortarazitako iritziak, etab.
- Mota ezberdinetako sareei erreparatuz (besteak beste, lokarri familiarrak, gizarte-egiturak, elkartze-ehuna, enpresa-multzoa, eta abar) Erreteriarako alfabetatze-esperientziaren hedapena ezagutzea, izandako **erraztasunak zein gainditu beharreko zailtasunak** ezagutuz.

- Prozesu horretan parte hartu zuten **irakasle, ikasle edota antolatzaile horiek hobeto ezagutzea**: datu demografikoak (sexua, adina, jatorria...), sozio-ekonomikoak (ikasketa-maila, lan-arloa...), partaide izatera bultzatutako arrazoi eta motibazioak, itxaropenak, norberaren alfabetatze-ibilbidea, aurkitutako zailtasunak, bere bizi-gertakarietan izandako eragina (lan-aldaketa, seme-alaben eskolatzeta...), eta abar.
- Alfabetatze-prozesua posible bihurtu zuten irakasle, ikasle edo antolatzaile **horien ahaleginak aitortzea**, kasu askotan itzalpean geratzen baitira.
- Lagun horien alfabetatze-prozesuari buruzko **hausnarketa pertsonalak jasotzea**: haien ustez izandako lorpenak, akatsak, emaitzak, aurrerapausoak edota atzerapenak, eskualdean sumatutako eragina...

Informazio-iturriak

Informazio-iturri nagusiak bibliografia eta elkarrizketak izan dira. Ikerketaren hastapenetan, gainera, Ahotsak proiektua kontsultatzea (<https://ahotsak.eus>) bereziki lagungarria izan zen gaiarekiko hurbilketa egiteko. Prentsa eta bestelako osagarriak ere (argazkiak, garai hartako materiala...) erabili diren arren, bigarren mailako garrantzia izan dute.

Metodologia

Ikerlanaren protagonistak, 60-80ko hamarkadetan Errenterian gertatu zen euskalduntze-alfabetatze mugimendua ezagutu zutenak dira. Ikerlana metodo etnografikoan oinarritu da, eta egindako elkarrizketa erdiegituratuak Errenteriako Udalak proposatutako izen-zerrenda batetik abiatu ziren. Guztira, 1933tik 1974ra bitartean jaiotako 38 lagunek hartu dute parte eta haien testigantzak izan dira errelatoaren ardatza osatu dutenak.

38 ahots horiek 29 elkarrizketetan jaso dira. Haietako gehienak (20) elkarrizketa sakonak izan dira, banakakoak. Zenbait kasutan, ordea, eta berriemaileek hala eskatuta, elkarrizketatu bat baino gehiago zegoen: horrela, lau kasutan elkarrizketa bikoitzak egin dira. Bi kasutan talde-elkarrizketak egin dira (batean lau lagun zeuden eta bestean hiru). Elkarrizketa guztiak aurrez aurre egin ziren, bost izan ezik, COVID-19aren pandemiak eragindako alarma-egoerarengatik: horietako lautan bideo-dei bidez izan ziren, eta bi kasutan, telefonoz (eta soilik gai zehatz batzuetan fokuratuz). Parte-hartzaileen identifikazioei dagokienez, euren nahiak errespetatu dira, eta norberaren arabera izen osoa, laburtua edo asmatua agertuko da. Haiekin hala adostutako kasuetan, elkarrizketan hartutako oharrak posta elektronikoz pasatu zitzaizkien, bueltatu aurretik zuzenketak egiteko aukera izan zezaten.

Elkarrizketen helburu nagusia informazio kualitatiboa lortzea izan da. Horrek esan nahi du hainbat kasutan datu eta data gordinak baztertu ez diren arren, bigarren maila batean jarri direla berariaz. Kontuan izan behar dugu gizarte mugimendu batean datak orientagarriak izan daitezkeela baina prozesu dinamikoez ari garenez gero, egoera baten mugarria identifikatu arren prozesuak berak bere

erritmoa daukala. Horrez gain, elkarriketatutako lagun bakoitzaren bizipena eta perspektiba ere (hitz batean, subjektibotasuna) aintzat hartu beharra dago historiaren protagonismoa kolektibotasunari emateko.

Kronologia hutsean ez gelditzeko, nolabaiteko **genealogia** egiten saiatu da. Ez zentzu literalean, baina bai figuratiboan. Hain zuzen ere, familiak garrantzia handia izan duelako euskarara hurbiltzeko zein euskaran edota euskal mugimenduan sakontzeko unean: bizitza eta sozializazioaren hasieran (gurasoak, anai-arrebak, aiton-amonak, izeba-osabak...); beranduago, bikotekideak, seme-alabak eta bilobak. Testuinguru familiarrean topatzen ditugu askotan elkarriketatuen lehenengo erreferenteak.

Sozializazioan garrantzitsuak izandako beste arloak ere aintzat hartu dira elkarriketetan: kaleko giroa, lan-mundua, herriaren ezaugarriak, testuinguru sozio-ekonomiko eta politikoa, zaletasunak... Guztia, elkarriketatu bakoitzaren kasuan alfabetatze-euskalduntze prozesuaren ezaugarriak eta bizipenak ezagutzeko asmoz. Eta, horrekin batera, euskarak beren bizitzen edota nortasunean izandako eragina, bai eta herri-mugimendu horren inguruan egin dituzten hausnarketak ere.

Ikerlanaren antolakuntza

Ikerlanean zehar bibliografiatik eta elkarriketatetik lortutako informazioa uztartzen dira. Dagokigun kronologiako euskalgintzari buruzko informazio orokorra erakusten duten atalak bibliografiatik ateratako informazioan oinarritzen dira eta agertzen diren lekukotasun bakarrak berriemaileek egindako aipamenetatik aterata daude, lagungarri izan daitezkeelakoan. Erretereriako kasua lantzen duten horietan, ordea, bibliografia eta ahozko iturriak orekatuago agertzen dira eta, zenbait arlotan, herriko helduen alfabetatze eta euskalduntze prozesua azaltzeko orduan, lekukotasunek hartzen dute protagonismoa.

1.

Abiapuntua eta aurrekariak

1.

Abiapuntua eta aurrekariak

1.1 Abiapuntua

1960-1980ko hamarkaden artean Euskal Herrian jazo zen helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimendua aztertzeko, arlo linguistikoaz gain, beste zenbait osagarri aintzat hartu behar dira (Mujika, 2007: 40).

Hasteko, benetako mugimendu soziala izan zen heinean (Agote, 1984) fenomenoak kokatzen den testuinguruari ere erreparatu behar zaiolako. Euskal Herriko egoera konplexuari erreparatuz gero, gainera, egitura “makro” eta “mikroen” arteko dialektika esparru orokor batean planteatu beharra dago horien arteko artikulazioa hobeto ulertzeko, lehenengoak bigarrenaren errealtatea baldintzatzen dituen hainbat tresna baititu; besteak beste, banaketa administratiboa, legeria, hedabideak...² Gizarte-baldintzapen horiek sortzen dute Bourdieuren *habitus* kontzeptua, modu berean sozializatu izan direnek partekatzen duten egitura mentala (hortaz, indibiduala zein kolektiboa dena) (Bourdieu, 1997). Eta hain zuzen ere, hiztunen *habitus*a (“hiztunak sakoneko aztura gisa barneratuta dituen hizkuntza-praktika inkontzientea”) aldatu nahian aritu dira euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak eta mugimendu horien eragileak, esparru kulturalak eta politikoak hartuz (Larrinaga, 2008: 97).

Horregatik guztiagatik, euskararen azterketan beharrezkoa da diziplina askoren ikuspuntuak erabiltzea. Denbora luzez, soziologoak izan dira gai hau gehien aztertu dutenak (Arratibel, Azurmendi eta García, 2001). Mikel Zalbidek hizkuntzaren soziologian garai ugari kokatzen ditu XIX. mendearen bukaeratik 1990eko hamarkadara bitartean. Haietako azkenengoa, 80ko hamarkadan hasi zena, izan zen berritzaileena, eta bertan José María Sánchez Carrión ‘Txepetx’en ekarpenek berebiziko garrantzia izan zuten (Zalbide, 2010:30)³.

² Jose Manuel Odriozolari egindako elkarrizketa, 2019-12-14.

³ Izan ere, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren azterketan hainbestetan erabiliko diren “diglosia”, “elebitasuna” “euskaldun osoa” eta bestelako kontzeptuak berari zor zaizkio (Sánchez Carrión, 1972, 1980, 1981, 1987, 1991).

1987an ‘Txepetx’ek euskararen berreskurapenaren teoria soziolinguistikoa eta hizkuntzen teoria soziala azaldu zituen. Haren ustez, teoria psikolinguistikoak edo soziolinguistikoak hizkuntza hitzunarekin (psikolinguistika) edo hitzuna gizarte-taldeekin erlazionatzera iristen ziren, baina beti linealtasun bati jarraituz; beraz, teoria bidimentsionalak ziren. Hizkuntzaren teoria soziala, ordea, dimensioanitz da eta hitzunak, hizkuntz komunitatea eta hizkuntza lotzen ditu. Ikaskuntzen teoriatik abiatu zen, “hizkuntza baten jabetze edo ikaskuntzako baldintza subjektiboak hizkuntza baten funtzionamenduko baldintza objektiboekin aglutinatzeke ongien kokatua dagoena” delako. Hizkuntzen ikaskuntzak motibazioa (“hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza horretan irautera eragiten duten arrazoiak, desirak edo interesak”), ezagutza (“bere funtzionamendua atzemateko ahalmena eta prozesua”), eta erabilera (“komunitateak historiako une jakin batean dituen hizkuntz funtzioetako edozeinetan erabiltzeko iharduera efektiboa”) aintzat hartzen zituen, besteak beste, lehen mailako (edo naturala) eta bigarren mailako (edo kulturala) ikaskuntzak desberdintzeko eta bien arteko harreman osagarria azaltzeko. Hizkuntzen teoriak hornitzen dituen konexioek maila ezberdinetako inplikazioak sortzen dituzte: indibidualki (hizkuntz moten tipologia zehatz bat ezartzen laguntzen dute), gizarte mailan (hizkuntz komunitate baten izaera eta egitura ulertzen laguntzen dute) eta hizkuntzen mailan (Sánchez Carrión, 1987: 36-41).

Euskara aztertzeke erabili daitezkeen diziplina bateragarrien artean dudarik gabe soziolinguistika dago:

“hizkuntzen, hizkuntza komunitateen eta hitzunengan gertatzen diren aldaketak aztertzen dituen zientzia. Aldaketen baldintzetan eta faktore eragileen ezagutzan oinarriturik, etorkizuneko aldaketak aurreikusteko eta bideratzeko eredu teoriko eta metodologikoak eskaintzen ditu soziolinguistikak” (Azurmendi et al., 2000).

Arratibel, Azurmendi eta Garcíak ikuspegi psikosoziala eta psikosoziolinguistikoa ere aldarrikatzen dituzte euskararen normalizazioan eta berreskurapenean sakontzeko. Gainera, helduen euskalduntzea ulertzeko ikuspegi psikologikoa zein psikopedagogikoa eta didaktikoa ezinbestekoak dira (Arratibel et al., 2001: 8-9).

Ikuspegi psikosoziala psikologiaren eta soziologiaren artean kokatzen da. Maria Jose Azurmendik azaltzen duenez, ikuspegi hori baliatuz *psikologikoki*, gizabanakoan gertatzen direnak aztertzen dira, *soziologikoki*, gizartearen gertatzen direnak eta *psikosozialki*, gizabanakoaren eta gizartearen artean gertatzen direnak aztertzen dira. Ikuspegi psikosozialaren barruan, bi tradizio daude: alde batetik, *psikosozial psikologistak*, gizabanako bakoitzaren baitan gertatzen direnak modu autonomoagoan edo independenteagoan aztertzen dituztenak; bestetik, *psikosozial soziologistak*, gizabanakoaren baitan gertatzen direnak modu interaktiboagoan aztertzen dituenak, gizartearen kokatuta egotea eta gizartearekin harremanak izatea azpimarratuz (Azurmendi, et al., 2008: 84). Ikuspuntu psikosozialetik, taldea dinamikoa da, soziala sinbolikoa da, gizarte-interakzioa testuinguru kulturean eta testuinguru sozialean ezartzen da eta gizarte-interakzioa sozialki kokatuta dauden indibiduen arteko etengabeko negoziazioa da (Azurmendi, 1999: 292).

Arratibelek, Azurmendik eta Garcíak euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziolinguistikoa proposatzen dute. Alde batetik, Euskal Herriko egoera sozio-historikoa aintzat hartu behar delako,

testuinguruak gizabanakoen hainbat ezaugarriengan eragiten duelako (adibidez: komunikazio-sare sozialarengan, hautemateengan, jarrerarengan edota identitatearengan). Bestetik, sare sozialean, pertsonarteko eta taldearteko harremanak garatzen direlako eta horien bitartez, egoerako ezaugarriak bateratzen direlako. Azkenik, barneratzeak prozesu psikosozial bat sortzen duelako, testuingurua birmoldatzen duena. Horren ondorioz, portaerak aldatzen dira eta horien artean hizkuntz aukeraketa (Arratibel et al., 2001: 152).

Azurmendik, psikolinguistikaren baitan hiru perspektiba bereizten ditu, gaiak, teoriak, helburuak eta perspektibak ikusita: psikologiara bideratuta dagoena (prozesuetan, kognizio soziala, informazio-prozesaketa, pertzepzioa, emozioak eta abar, eta portaerei dagokienez pertsona arteko hitzezko komunikazioa aintzat hartzen dituen); soziologiari bideratuta dagoena (prozesuei dagokienez, identitate etnolinguistikoa, kulturazioa, nazionalismoa eta abar, eta portaeretan hitzezko akomodazioa, talde arteko komunikazioa, eta abar aintzat hartzen dituen); eta linguistikara bideratzen den psikosoziolinguistika (prozesuetan, kategoriak eta hizkeraren markadoreak aintzat hartzen dituen) eta portaera, hizketako egintza, elkarriketa eta diskurtsoa) (Azurmendi, 1999: 130-131).

Martínez de Lunak, komunikazio politikoaren eta komunikabideen eragin kognitiboaren teoretatik abiatuta, momentu ezberdinetan euskararen errealitatearen hautematea eta irudikapenak gidatzen zituzten egitura kognitiboak edo *framing*-ak aztertzen ditu (60 eta 70eko hamarkadetan, "Garai Gogoangarria", 80 eta 90eko hamarkadetan, "Argi-ilunak") (Martínez de Luna, 2010). Artzak, berriz, garai ezberdinetako diskurtsoak aztertuz hizkuntza gutxitu batek dakarren pesimismoa adierazten duten hainbat ezaugarri errepikatzen direla ikusten du (Artza, 2017:115-128).

Identitate etnolinguistikoari dagokionez, euskal testuinguruan euskara identifikazio etnikorako kategoria garrantzitsua da (Arratibel et al., 2001: 139).

Azurmendi, Larrañaga eta Apalategi hizkuntzalariek identitate etnolinguistikoa aztertzen dute. Ikuspegi psikosozialari jarraituz eta identitateak prozesu psikosozialen artean betetzen duen zentralitatea aintzat hartuz, egileek identitate etnolinguistikoa eraikitze eta mantentzeko orduan ildo afektiboa esanguratsuen (kognitiboa baino garrantzitsuagoa) dela uste dute. Egile hauen ikuspuntutik, identitatea prozesu psikosozial berezia (eta konplexua) da, arrazoi ugari direla eta. Alde batetik, prozesu bat izanik, identitatearen eraikuntzan bestelako prozesu psikosozialek ere parte hartzen dute: kognitiboak, motibaziozkoak eta afektiboak. Bestetik, beste prozesu psikosozialetan ere kualitatiboki parte hartzen duelako eta identitatea hainbat prozesuren aurrekari zein ondorio gisa jokatze baliagarri delako. Hirugarrenik, identitatea prozesu psikosozial interaktiboa dugu, prozesu eta portaeren arteko lotura ziurtatzen duena eta gizabanako eta gizartearen arteko harremanak gidatu eta adierazten dituen (Azurmendi et al., 2008: 132).

'Txepetx'ek norberaren eta gizartearen arteko lotura azpimarratzen zuen, gizartea aldatzeko kontzientzia pertsonala eta kontzientzia pertsonala sortarazteko gizartea aldatzea beharrezkoa zela esaten zuenean (Uriá, 1990: 78).

Baina kontzientzia pertsonaletik sozialera doan bideak gainerako kategoriak zeharkatzen ditu, eta aldi berean beste kategoriek zeharkatzen dute norberaren identitatea. *Habitus*-ek berak biolentzia

sinbolikoa dakarren heinean ezin ditugu beste kategoriak alde batera utzi, bereziki generoa (Losada, 2016: 102). Eta gaur egun identitatearen paradigma aldatu da, bereziki antropologia feministatik, ez delako aurrez emana zaigun ezer baizik eta egiten dugunaren emaitza (Artetxe, 2014: 15). Feminismoak egindako ekarpenen artean, identitatearen deseraiki eta berriro eraiki daitekeela, identitatetik abiatuta justizia sozialera hel daitekeela eta identitate pertsonala politikoa ere badela daude, eta horiek guztiak hiztunaren eta hizkuntzaren planora eraman daitezkeela (Agirre eta Eskisabel, 2016).

Bestaldetik, mugimenduak testuinguru sozialak diren heinean, emozioz josita daude. Ezin dira mugimendu horiek ulertu emozioek mugimenduen barnean duten eginkizuna aztertzen ez bada: identitatea, diskurtsoak, narratibak (Larrinaga, 2018: 319-320). Azken aldi honetan, afektua eta emozioa gizarte zientzietan nagusitzen ari dira. “Affective turn” deritzon korrante honek, sentitzen dena erdigunean jartzen duenak, besteak beste, teoria psikoanalitikoa, ikerketa feministak, geografia kulturala eta teoria postestruturalista bateratzen ditu. Ikuspuntu hori lagungarria izan daiteke bitzta soziala aztertzeko, norberaren eskarmentu pertsonaletik abiatuta gizabanakoen eta gizarte-prozesuen arteko harremana azaltzen laguntzen baitu (Lara eta Enciso, 2013).

Illo beretik, Ane Larrinaga ere emozioetan oinarritu da 80ko eta 2000ko hamarkadetan Euskal Herriko mugimendu linguistikoaren diskurtsoak aztertzeko. Emozioak bitzta akademikotik baztertu izan dira, nolabaiteko estigma zeramatelako. Horrela, zenbait mugimendu sozial (emakumezkoena eta mugimendu linguistikoak, kasu) “emozionalegiak” izateagatik gizarte mugimenduen analisisetatik kanpo geratu ohi ziren. Azken boladan, ordea, emozioari irrazionaltasuna atxikitzen dion lotura hori hautsi egin da, eta frogatu da kognizioaren (hau da, arrazoiaren) eta emozioaren artean lotura bat dagoela. Teoria kognitibistek diote emozioen egiturak sinismenaz, iritziez edo kognizioaz osatuta daudela eta ez bakarrik desioz. Hortaz, emozioek badaukatela izaera soziala, baita historikoa ere, giza-konstruktoak direlako. Emozioak, beraz, gizarte talde baten errepertorio kulturalaren baitan daude. Egileak dioenez, indibidualki aldaketak egon daitezke, baina sozializazio emozionala ere badago (Larrinaga, 2018: 321-323).

1960-1980ko hamarkaden artean Errenteriako helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua aztertzen duen ikerlan honek ikuspuntu etnografikoari jarraitzen dio. Hizkuntz komunitatea ardatz hartuz, bitzta pertsonala eta helduen (batez ere, baina ez bakarrik) euskararen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuekin lotuz, mugimendu baten historia osatzen laguntzeko asmoz. Horretarako oso lagungarriak izan dira gaiari, garaiari edota lekuari lotutako aurrekariak, bereziki ahozko iturriak erabili izan dituztenak. Hasierako bibliografiatik abiatuta, elkarrizketen galdetegia antolatu zen. Aldi berean, elkarrizketek beste mota batzuetako galderei eman zieten bide, eta zenbait elkarrizketaturen gomendio edota hausnarketek bibliografia berrira bideratu zuten ikergaia.

1.2 Aurrekariak

Helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruz, adibidez, *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990). Kronika laburra* (Elkarlana, 1990), edo *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzaileraren ahotan (1960-1990)* (Aldekoa-Otalora, Basterretxea, Gorostiaga, Juaristi, 1997). Baita “Helduen euskalduntze

alfabetatzearen herri mugimendua” (Iñigo, 1992), “Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizaturia (1981-1990)” (Zabaleta, 1993), *Euskalduntzearen atakan. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea: 1956-1986* (Larrea, 2005), “La alfabetización y el aprendizaje de euskera en adultos del País Vasco en la segunda mitad del siglo XX” (Larrea eta Maia, 2013) edo “ ‘Ez dago sinisterik, zenbat kanbiatu den’: Gasteizen 1950-1975 garaitik hona, euskarak izan duen euskararen bilakaeraren inguruko testigantzak” (Garaio, 2015).

Esperientzia zehatzei dagokionez, Goierriri buruzko lanak (Amundarainen 1991ko “Goiherriko euskal eskola eta euskararen irakaskuntza” eta Sarriegiren 1999ko *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin. Aurresaioak eta 1967tik 1975erakoak*). Gauza bera Elgoibarri dagokionez: *Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren. 1956-2000. 44 urteko historia* (Arrizabalaga eta Larrañaga, 2001)

Erreteriarri buruzko informazio zehatza bilatzen hasteko, ezinbestekoa izan zen *Oretera: herri borrokalaria baten historia (1976-1983)* (Iriarte eta Elberdin, 1997). Hortik abiatuta, herriaren bilakaera historikoa eta linguistikoa ezagutzeko eta genero ikuspuntua txertatzeko oso erabilgarriak izan ziren “Erreteriarriko euskararen kokagunea” (Del Rio eta Aduriz, 2009), “Erreteriarri, pueblo industrial: una historia que contar” (Fernández eta Maceira, 2015) edo Losadaren *Ez ogirik ez askatasunik. Euskal antifrankismoaren garaiko feminitatearen birmoldaketa* (2016).

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduak beste herri-ekimenekin eta batez ere ikastolen mugimenduarekin izandako loturagatik, gai honi buruzko bibliografia ere oso lagungarria izan da. Besteak beste, Fernándezen *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975* (1994), Dávila, Eizaguirre eta Fernándezen “Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria (1860-1990)” (1994) edota Paulí Dávilak koordinatutako *Lengua, escuela y cultura: el proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX* (1995), “La cuestión de la formación del profesorado de las ikastolas navarras de postguerra (1967-1983)” (López-Goñi, 2008), “Emakumea eta irakaskuntza” (Irazabal, 2008) Izaren 2011ko *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010* edo Ametsak *egi bihurtuz: San Nikolas Ikastolako lehen andereñoak (1963-1969)* (Rincón eta Anzizar, 2014).

Elkarrizketen bidez, norberaren esperientzia pertsonaletik abiatuta, egitura mikro eta makroen irakurketa pertsonalek zein hausnarketek diskurtso propio eta partekatuak adierazi dituzte. Emozionaltasuna edota afektibitatea, beraz, agerian dago.

2.

Sailkapenak eta kontzeptualizazioak: arazo terminologikoak

2.

Sailkapenak eta kontzeptualizazioak: arazo terminologikoak

1960ko hamarkadan abiarazi zen “helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua” deritzona aztertzeari ekin baino lehenago, komenigarria litzateke normalizat hartzen ditugun zenbait kontzeptu aztertzea.

2.1 Alfabetatzea eta euskalduntzea

Alfabetatzea eta euskalduntzea bi kontzeptu desberdin izan arren estuki lotuta daude, eta bi prozesuen bultzatzaileen artean, euskaldun zahar eta berriak ez ezik, erdaldunak ere egon ziren. Kuantitatiboki, hirietan eta herri handienetan euskalduntzea alfabetatzea baino gehiago lantzen zen arren, kronologikoki euskaraz alfabetatzea izan zen lehenengo eta geroago hasi ziren erdaldunak euskalduntzen (Larrea, 2005: 140-141).

Lehenik eta behin, euskarazko helduen “**alfabetatze**” kontzeptua bere testuinguruan kokatu behar da. Gainerako helduen alfabetatze prozesuekin gertatzen ez den bezala (kasu horietan irakurtzen edota idazten ez dakiten pertsonak izaten baitira), euskararen kasuan normalean maila kultural ertain edota altuko pertsonen ari gara, oro har lehendabiziko alfabetizazioa gazteleraz edo frantsesez gauzatu dutenak (Larrea eta Maia, 2013: 30). Dionisio Amundarainek zehazten zuen moduan, “euskalduna ez da analfabetoa (...) baina euskaraz ez da alfabetatua: euskaraz ez du ikasi alfa-betarik, ez du ikasi «letrarik»”. Helburua ez zen, beraz, heldu bati idazten edo irakurtzen irakastea, baizik eta, euskarari dagokionez, O.H.O.ko ikasle batek lau komunikazio gaitasunetan (mintzamina, entzumena, irakurmena eta idazmena) lortu beharko lukeen mailara helaraztea. Horretarako, alfabetatzeko metodologiak bi ariketa mota uztartzen zituen: alde batetik globalak (adibidez, irakurgai bat hartuta edukiez jabetzen laguntzeko) eta bestetik analitikoak (kontu gramatikalak lantzeko) (Amundarain, 1991: 39).

Helduen alfabetatzearekin batera, **euskalduntzera** bideratutako ikastaroak sortu ziren, hizkuntza i(r)a)kastera bideratuak, hain zuzen. Hala ere, zenbait kasutan, mota bateko eta besteko ikastaroak

ezberdintzea zaila da, bien antolakuntza, metodologia edota ikasleen profilak oso antzekoak zirelako. Gainera, bazeuden egoera nahasiak ere, non euskaldun zaharrek (euren burua euskaraz alfabetatu nahi zutenek) eta euskalduntzen ari ziren ikasleek talde mistoak osatzen zituzten (Larrea eta Maia, 2013: 30).

Kepa Larrearen ustez, “alfabetatzea berreuskalduntze bat bezala uler daiteke, alfabetatu diren euskaldun heldu guztiak, euskaraz gain, beste hizkuntza baten jabe ere baitziren”. Zentzu berean ere, “euskalduntzea erdaldunen alfabetatze mota bat bezala uler daiteke, erdaldunak ez baitira beti hutsetik euskara ikasten hasi” (Larrea, 2005: 142).

2.2 Euskaldun vs. erdaldun

“ (...) ‘Euskaldunak gara, eta nola... euskaldunak gara euskaraz jakin gabe’, ezta? Eta orduan hor zegoen gure kontraesan hori” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Gure jakin minak eramaten gintuen aitari galdetzeraz, 7-8 urteren bueltan: ‘aita, ¿cómo se dice ‘vasco’ en vasco?’ (...) Klaro, guk hitz egiten ez genuen hizkuntza bat entzuten genuen auzoan eta eskolan” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

“Haiek euskaldunak ziren (...) ni ez, ni euskaldunberri nintzen. Ez dakit noiz utzi nuen euskaldunberri izaten, ezta? Zeren badirudi euskaldunberri zarenean bizitza osorako dela [algarak] (...). Gainera nik erreibindikatzeko nuen euskaldunberri nintzela (...) euskeraz aparte ikasi dut” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Egun euskal herrietan edozein hiritar euskalduna da, Euskararen herrietan, osteraz ez; euskalduna euskara duena baita (...) Euskarak eta euskal kulturak ez dute labelik” (Isasi, 1994: 28).

Hain zabalduta dauden “euskaldun” eta “erdaldun” terminoen inguruan, bi hitz. Ulergarriak badira ere, oro har erabiltzen baitira, kontuan hartu behar da ez dutela errealitatearen konplexutasuna guztiz islatzen. Martin Ugaldek azpimarratu zuen bezala, bereizketa sinplea eta azalekoa zen, honako ezaugarri hauetan oinarrituta: Euskal Herriko eremu guztiak ez direla euskaldunak; eremu euskalduneko biztanle guztiak ez direla euskaldunak; eta euskaldunaren jardura linguistiko guztia ez dela euskaraz egiten, zati txiki bat baizik. Baina, sinplea izateaz gain, “euskara euskaldun gutxi batzuren bizitzaren hesira kondentatzen da, eta hori ere herri osoaren zati minimo bat besterik ez den zona euskaldunean. Murritzaren murritzaz, hutsean uzten gaituzte” (Euskaltzaindia, 1979: 16-17).

Izendatzearen garrantzia, kontzeptualizazioak berak daraman karga positiboa zein negatiboa ezin dugu alde batera utzi, dagokigun gai honetan. Izan ere, Artzak 1980ko hamarkadako euskararen egoerari buruzko diskurtsoa aztertu zuenean azpimarratzen zuen moduan, “lehen eta orain, euskaldunen euskaltzaletasun eza edo euskaltzaleen euskalduntasun gabezia azpimarratzen da” (Artza, 2017: 128).

Odriozolak ere “euskaldun berri” eta “alfabetatu” kontzeptuen arteko argi-itzalak azpimarratzen ditu. Bere ustez, euskaldun berriak nolabait teorikoak dira, “beroiak euskaldun berritasuna ere ez dago

garbi: gauza gaitza baita euskaldun berri noiztik aurrera den jakitea, zein hitz jariotasun eta espresio-kemenen jabe izan behar duen” (Odriozola, 1980: 13). Datuak berak ere oso modu kritikoan aztertzen zituen: urtero 414 euskaldun berri sortuz, “Gipuzkoa ez da sekula euskaldunduko” esaten zuen. Eta alfabetatze-kopuruari dagokionez, 519 bat izanda, zera zioen: “kopuru horrek zer inplikatzan ote du euskal liburugintzan, kazetaritza eta oro har irakurlegoaren -eta baita idazle goarenean ere- alorrean? Ezer gutxi zalantzarik gabe (...)” (Odriozola, 1980: 13).

2.3 Diglosia

“Eskolatik ateratzen zinen eta esparru guztiak euskaraz genituen. Eta orduan erdera hizkuntza hegemonikoa zen, hizkuntza ofiziala zen baina arnasmuneetan ez zuen gaitasunik gu erdalduntzeko (...) Eskolaz gainerako sozializazio gune guztiak euskaldunak genituelako (...) Orain gauzak erabat alderantziz dira, baina (...) euskararen [ezaugarri] diglosiko hura potentea zen alderdi orotik (...) eta euskaraz ez zegoen idatzizko kulturarik baina ez genuen beharrik ere. Gure gurasoek ez zuten horren beharrik izan eta gure gurasoek bizi izan ziren betidanik ahozko kultura diglosikoan eta erdera ez zuten ikasi” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Diglosia” terminoa, Charles A. Fergusonek lehenengoz erabili zuen hizkuntza baten erabilera funtzio eta betebeharrak zehatz batzuei ezartzen zaionean. Diglosiak bi hizkuntzen arteko harreman mota bat azaltzen du, non bietatik bati “goikoa esaten zaio, komunikazio formalean erabiltzen dena hura delako; eta besteari behekoa, famili barruko elkarrizketan bakarrik erabiltzen delako” (Euskaltzaindia, 1979: 36). Euskarari dagokionez, ez da nagusitasunezko posizioan egon (ez latinarekin, ez eta hizkuntza erromantzeekin ere) eta mantendu bada Foruek emandako autonomiari esker izan da, baina menpekotasun egoeran. Eta elebitasun sozial iraunkor batean bi hizkuntzetatik bat gailentzen bada, egoera degradatuz doa azkenean elebakartasun batera heldu arte, hau da, hizkuntza batek bestea desplazatu arte (Euskaltzaindia, 1979: 15).

‘Txepetx’en ustez, diglosia estortsio edo erbesteratze paradigmari dagokio, lurraldeko hizkuntzaren kultur transmisioa eten egiten denean eta espazio sinbolikoaren suntsipena gertatzen denean. Osagarritasun paradigmari, lurraldeko hizkuntzaren zaintzak hiztunak “ikaskuntza oso baten bidez” lurraldeko hizkuntzara lotuko ditu, harreman hizkuntzen erabilera berrezarritik. Azkenik, normalizazio edo aberriarpen paradigmari, hasieran minorizatu estatusa zeukan hizkuntza bere hizkuntz komunitatea artikulatzera pasatzen da hizkuntzaren ikaskuntza kulturala instituzionalizatuz, hizkuntza eta hiztunak prestigiatuz eta espazio sinbolikoa berreginez (Sánchez Carrión, 1987: 54). Koldo Mitxelena diglosia egonkoraren aldekoa zen eta funtzio-esparruen nolabaiteko banaketan ikusten zuen euskararen etorkizuna (Odriozola, 1993).

2.4 Elebitasuna

“Nahi nitek botila erdi hutsik edo beteta egotea. Gertatzen dena da ez dagoela erdi beteta, ez da egia, botila ez dago erdi beteta. Ez dago euskaraz erdi beteta, esan nahi dut” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

Elebitasunaren definizio klasikoa, Martin Ugaldek zehaztua, honako hau izango litzateke: “pertsona edo gizatalde batek, ezagutzen dituen bi mintzairerarik edozeinez erraztasun berdinez baliatzeko duen ahalmenari” (Euskaltzaindia, 1979: 17). Elebitasuna prozesu iragankorra izango litzateke, historikoki bi trantsizioen arteko epea: elebiduntzea lehenbizi (“beste” hizkuntza ikastea) eta elebakartzea bigarren (jatorrizko hizkuntza galtzea). Elebitasun-fase horretan honako urrats hauek eman behar dira: beste hizkuntza ikasi, beste hizkuntza kolokializatu, beste hizkuntza jatorrizko bihurtu, jatorrizko hizkuntza baztertu eta, azkenik, galdu (Amonarriz, 1995).

Baina Ugalderen ustez ikuspegi linguistikoa gain psikologikoa eta sozio-kulturala ere aintzat hartu beharko lirateke eta zentzu horretan “elebitasun” fenomeno hori (“ekilinguismo” edo “anbilinguismo” bezala ulertuta) ez dator bat Euskal Herriko elebitasunarekin, ez maila indibidualean ezta kolektiboan ere. Alde batetik, ez delako aukeratutako egoera bat eta bestetik elebidun bakarrak euskaldunak direlako (eta ikusi beharko espainolez edo frantsesez duten maila) (Euskaltzaindia, 1979: 17). Zentzu berean, Torrealdairen ustez ere elebitasunaren ideia edo ideologiaren azpitik asimilazioa zabaltzearen asmoa dago, diskurtso neutro batez baliatuz (Torrealda, 1982: 71).

‘Txepetx’en teoriaren arabera, komunitate minorizatuen kasuan “gizarte-elebitasun aldebakar edo diglosiko”a gertatzen zen. Egoera normalizatuak ordea, “lurralde elebitasunaren ezarpena eramaten du (...) Euskara hizkuntz lurralde homogeen bateko hizkuntza nazional bakarra izatera” iraganez (Sánchez Carrión, 1987: 60).

2.5 Neurketak eta irakurketak

Ikerlan honek aztertzen duen kronologiari begira, 1960-1980ko hamarkadetakako tarteari alegia, euskararen bilakaera aztertzeko datu ofizialak urriak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1981eko zentsura heldu arte ez ziren euskararen ezagutza neurtzeko oinarriak ezarri, urte horretan euskararen ezagutzari buruzko galdera batzuk sartu baitziren. Bost urte geroago, 1986ko erroldan, ama hizkuntzari buruzkoak gehitu zitzaizkion eta 1991ko zentsuan, erabilpenari buruzkoak. Nafarroan horrelako neurketak 1986an hasi ziren; Ipar Euskal Herriari buruz, ordea, ez dago garai hartako daturik (Agirre, 1994).

Datuak eskasak izateaz gain, batzuetan metodologikoki edo kontzeptualki zailtasunak izaten dituzte. Agirrek agerian uzten zuen moduan, iturri batetik bestera egondako irizpide aldaketak sailkapen-kategoriak biderkatzen zituen eta, bestalde, tartean egon zitezkeen egoera bereziak ez zituen saihesten. Adibide gisa, 1981, 1986 eta 1991ko iturri horietako galderen bidez euskararen ezaguera mailan oinarritutako sailkapena egin zitekeen. Horren arabera, zazpi kategorია izango genituzke: 1- euskaldun alfabetatuak (euskaraz ondo ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dutenak); 2- euskaldun partzialki alfabetatuak (euskaraz ondo ulertu eta hitz egin, baina nekez irakurri eta idazten dutenak); 3- euskaldun alfabetatugabeak (euskaraz ondo ulertu eta hitz egin baina ez dakitenak ez irakurtzen eta ez idazten); 4- ia-euskaldun alfabetatuak (euskaraz ondo edo nekez ulertu, nekez hitz egin eta ondo edo nekez irakurtzen eta idazten dutenak); 5- ia-euskaldun alfabetatugabeak (euskaraz ondo edo nekez ulertu, nekez hitz egin eta ez irakurtzen eta ez idazten ez dakitenak); 6- ia-euskaldun pasiboak

(euskaraz ondo edo nekez ulertu eta batere hitz egiten ez dutenak) eta, azkenik, erdaldunak (euskaraz ulertu edota hitz egiten ez duten pertsonak).

Baina lehen esan bezala, 1986. urteko udal erroldetan ama hizkuntzari buruzko galderak sartu ondoren hiztunen sailkapena jatorrizko hizkuntzari erreparatuz egitea posible zen, eta horren arabera hiru multzo aurkituko genituzke: jatorrizko euskaldunak (3 urte baino lehenago euskara bakarrik zekitenak), jatorrizko elebidunak (3 urte baino lehenago euskara eta gaztelera ikasi zutenak) eta erdaldunak (3 urte baino lehenago gaztelera bakarrik ikasi zutenak). 1991ko zentsuari dagokionez, etxean maiztasun handienaz erabilitako hizkuntzan oinarritutako sailkapena agertzen zaigu, 3 multzo osatuz: euskal hiztuna (etxeko euskaldunak, hau da, etxean maiztasun handienaz euskara erabiltzen dutenak), hiztun elebidunak (etxeko elebidunak, hau da, etxean maiztasun handienaz euskara eta gaztelera erabiltzen dutenak) eta erdaldunak (etxeko erdaldunak, hau da, etxean maiztasun handienaz gaztelera erabiltzen dutenak) (Agirre, 1994).

Agian horrenbesteko kategoria eskaintzak ekar zitzakeen interpretazio arazoak ekiditeko eta kategoriak sinplifikatzeko, sailkapenik hedatuena eta erabiliena Soziolinguistikazko Maparena bihurtu zen (Isasi, 1994: 27-29). Horren arabera, hiztunak hiru multzotan banatuta geratzen ziren: euskaldunak (euskaraz ondo hitz egin eta ongi ulertzen dutenak osatua, beraz hemen sailkatzen dira ongi, nekez edo batere irakurri ala ez; ongi, nekez edo batere idatzi ala ez, ondo hitz egin eta ulertzen dutela dioten guztiak. Multzo horren barruan, hiru azpimultzo daude: alfabetatuak, partzialki alfabetatuak eta alfabetatugabeak); ia euskaldunak (nekez hitz egin eta ongi edo nekez ulertzen dutenak osatzen dute ia-euskaldunen taldea, nahiz eta ongi, nekez edo batere ez irakurri eta / edo ongi, nekez edo batere ez idatzi. Horren baitan: alfabetatuak, alfabetatugabeak eta pasiboak) eta erdaldunak (batere hitz egin ez eta nekez ere ulertzen ez dutenak. Horiek ez dute hitz egiten, ez dakitelako, eta ez dute deus ulertzen).

Datuak aztertuz (urteka, lurraldeka, adinka...) Joxe M^a Agirrek 1981 eta 1991 bitartean euskararen bilakaeraren ezaugarriak azpimarratzen ditu: euskaldunen eta ia-euskaldunen kopuruaren igoera, hain zuzen ere euskaldun alfabetatuak % 46,5 izatetik % 67,8ra igo ziren; partzialki alfabetutako euskaldunen eta alfabetatugabeen kopuruek behera egin zuten bitartean; adin tarteei dagokienez, belaunaldi gazteetan zegoen euskalduntze dinamikarik bizkorrena, gazteen artean euskaldunak erdaldunak baino gehiago baitziren eta orokorrean, 20 urtetik gora hasten baitzen nagusitzen erdaldunen taldea. Datuei erreparatuz, 1981. urtearekin alderatuta, 95.461 euskaldun eta 109.651 ia-euskaldun gehiago zeuden 1991n, euskaldunen % 68 eta ia-euskaldunen % 64 “euskaldun alfabetatuak” ziren, erdaldun elebakarrak % 23raino jaitsi ziren 1977 eta 1978an jaiotakoen artean. Hala ere, 81-86 eta 86-91 epealdiak alderatuta, bazirudien bigarrenean abiada motelagoa zela bai euskaldunen bai ia-euskaldunen artean (Agirre, 1994: 15).

Xabier Isasi kritikoagoa zen bai emaitzekin baita kontzeptualizazioarekin berarekin ere. Haren ustez, “ia-euskaldun”en multzoak hizkuntzaren arteko mugimendua baino ez du adierazten. Zentzu horretan, berreuskalduntzea bi norabidetako prozesua da, non zenbait kasutan hiztunak irabazten (erdaldungoaren bizkar) eta bestetan galtzen baitiren. Eta datuak aurkezten ditu: 1981-1986 bitartean helduen euskalduntzeak irabazitako euskaldunetatik % 34,15a ekarri bazuen ere, 1986-1991 epealdian irabazitako 28.583 hiztunetatik helduen euskalduntzeak % 6,97 (1991 heldu euskaldun berri) baino ez du azaltzen, “helduen euskalduntzeak berreuskalduntze prozesuan indarra galdu” zuela nabarian utziz.

Hala ere, Isasik positibotzat hartzen zuen euskaldunak gero eta gazteagoak izatea, horrek euskara zaharren hizkuntza izatetik gazteen hizkuntza izatera egindako aldaketa erakusten baitu, baina euskaldun gazteen alfabetatze-lana Hezkuntza Formala bere gain hartzearen ondorio bezala ikusten du. Hala ere, hezkuntza sistemaren diseinuak berak alde batetik euskaldun kopuruari mesede egiten bazion ere, aldi berean hizkuntzaren berreskurapena prozesu jarraikorra izan beharrean (Kataluniako ereduan bezala) atzera egiteko arriskua zekarren (Isasi, 1994: 27-49). Egileak adierazten zuen belaunaldi berriek aurrekoek baino lehenago ikasten zutela gaztelera eta elebitasun goiztiar horrek eragin negatiboak izan zitzakeela euskararen erabileran. Izan ere, gazteen artean jatorrizko euskaldunen proportzioa gero eta txikiagoa izanik, euskararekiko berezko joera galtzen ari zela azpimarratzen zuen. Horrekin lotuta, haurtzaroko eta nerabezaroko hizkerak euskararen kasuan galtzeko arriskua ere aipatzen zuen, gazteek euren hizkera propioa erabiltzeko erdarara jotzen baitzuten (Isasi, 1991).

Kike Amonarriz ere 1991ko erroldan oinarritu zen kontzeptualizazioaren kritika egiteko. Datuen arabera EAEko euskaldunen % 68 eta ia-euskaldunen % 64 alfabetatuak ziren, euskaldunen artean beren burua alfabetatugabetzat jotzen zutenak % 9 zirelarik. Baina egilearen ustez, datu horiek “alfabetatu” kontzeptuaren anbiguotasuna erakusten zuten: harrigarria egiten zitzaion hainbeste euskaldun eta ia-euskaldun izatea euskaraz ongi irakurri eta idazteko gai (aldiz, “alfabetatu gabe”ko kopuruak altuegiak iruditzen zaizkio). Hala ere, gutxiago ziren beren jarduera guztiak euskaraz (idatziz eta irakurriz) garatu zitzaketen pertsonak eta gainera neurria non jartzen den arabera alfabetatzearen kopurua asko alda daiteke. Horrekin batera, euskalkiei erreparatuz, bi ondorio nagusitu ziren: alde batetik, norbanako gazte-heldu asko ikasketa-prozesu baten bitartez euskaldundu da eta prozesu horretan ez dira euskalkiaz baliatu, euskara batuaz baizik; bestetik, familietan euskalkia ikasitako zenbaitek bere euskalkia eta batua nahasten zuela eta bere euskara “nahasitzat” jotzen zuela (Amonarriz, 1996: 70).

OSKARA
ARIKETAK

io ta
fitxa osagarriak

JOSE JOAN G. de TXABARRI

EUSKARA **IRAKASLE ENTZAKO**
MATERIALE
OSAGARRIA

io ta Ke

4

JOKE JOAN G. de TXABARRI

IRAKASLE ENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

JOSE JOAN G. de TXABARRI

INCIDENTES EN LAS FIESTAS DE LA "MUGAMARRA"

EL DIARIO VASCO

EUSKALDUNTZE
EUSKARA BATUAZ

IRAKASLE TALDE BATEK

JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA

EL DIARIO VASCO

IRAKASLE ENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

IKASLE ENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

BIZKAIA 1979.eko URRI

NERE BORDATXOTIK
Per Basarri

EL DIARIO VASCO

ATERIA: suspendidas las fiestas

Jale

IRAKASLE ENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

BIZKAIA 1979.eko URRI

IKASLE ENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

BIZKAIA 1979.eko URRI

3.

Atzerapenetik normalizaziora

3.

Atzerapenetik normalizaziora

Joshua Fishmanen teoriaren arabera, egoera diglosikoaren barruan hiru jarrera posible daude: a) lehenengo taldea (gutxiengoa) bigarrenera (nagusira) pasatzen da eta asimilatu egiten da; b) talde minorizatuak bere hizkuntzaren desagertzea sumatzen du eta hizkuntza nagusiaren aurkako erreakzio bat izaten du; d) talde minorizatuak hizkuntza esparru familiarrean erabiltzen du, ez sozialean (Egia, 1991: 44-45; Artza, 2017: 131). Aukera horien artean bat ala beste gailentzea, zenbait faktoreren esku egongo da.

Bestetik, 'Txepetx'en hizkuntzen ikaskuntzaren teoriak dioenez motibazioa, ezagutza eta erabilera dira prozesu horretan parte hartzen duten elementuak. Ikaskuntzak bi motatakoak izan daitezke, lehen mailakoa edo naturala eta bigarren mailakoa edo kulturala; lehenengoa gizarteratzeko prozesu bat da eta norabidea erabileratik motibaziora doa; bigarren mailakoa, ordea, ikaskuntza indibiduoaren prozesu bat da, non norabidea motibaziotik erabilerara doan (Sánchez Carrión, 1987: 36-47).

Ikaskuntzen teoriak lotzen dituen hiru planoak azaltzeko (indibiduo mailakoa, gizarte mailakoa eta hizkuntzen mailakoa), 'Txepetx'ek "hizkuntz espazioen, paradigmen eta axiomen teoria" garatu zuen, hizkuntza baten oinarritzko zazpi funtzioak ezagutzeko bidea ematen duena (Sánchez Carrión, 1981). Funtzio horiek, txikienetik handienera identitate-funtzioa, funtzio familiarra, funtzio profesionala, funtzio lokala, funtzio nazionala, zibilizazio-funtzioa eta internazionala izango lirateke. Paradigmak hizkuntz-desplazamenduaren eredu sozialak lirateke, "zeintzuei doitzen zaien hizkuntz komunitate baten barnean gizabanakoen portaera eta zeintzuek mugatzen baitute hizkuntzaren aldian aldiko estatusa eta horren egoera ondorengo denboraldi historikoan" (Sánchez Carrión, 1987: 51-54).

Oinarritzko hiru paradigma identifikatzen zituen: estortsio- edo erbesteratze- paradigma, osagarritasun- paradigma eta normalizazio- edo aberrirapen- paradigma. Lehenengoa espazio sinbolikoaren suntsipenari lotuta dago, non hizkuntzaren minorizazioa eta hizkuntz komunitatearen desartikulazioa dira osagarriak; bigarrena lurraldeko hizkuntzaren zaintza eta harreman-hizkuntza baten ikaskuntza batera eramaten dituen da; azkena, "lehendik minorizatua dagoen hizkuntzaren estatusa, bat-batean, normalizatu eta bere hizkuntz komunitatea artikulatzen duen hura da, hizkuntzari ondorengo historialdian jarraitzeko bidea emanez" (Sánchez Carrión, 1987: 54).

Normalizazio-paradigma horrek hizkuntz komunitate batean “haustura-tentsio” puntuei hasiera ematen die. Horrela hasten da nagusitasun ordena inbertitzen eta hizkuntz minorizatua oreka berreskuratzen, espazio sinbolikoa muinoa delarik (Sánchez Carrión, 1987: 54-70).

Espazio sinboliko horretara heltzeko, errealtatearen alderdi sinbolikoaren eta alderdi objektiboaren arteko loturatik abiatu behar da. Errealtate horretan, kulturak daukan botere sinbolikoak (eta, hortaz, ezarri dezakeen biolentzia sinbolikoak) pertzepzio-eskema jakin batzuk barneratzera eramaten du gizartea. Aldi berean, gizartea (mundu soziala) bere baitan gertatzen diren borroka sinbolikoen emaitza eta agertokia da (Larrinaga, 2007: 88-92).

Euskararen kasuari dagokionez, osagarri horiek guztiak aurki daitezke Siadecok Euskaltzaindirako egindako diagnostikoan, non lau urratsen bidez azaltzen baitzen hizkuntzak XX. mendeko hasieratik eta ikerketa egin zen arte (1979. urtean) jarraitutako ibilbidea: atzerapen prozesua, kontserbazio prozesua, berreskurapen prozesua eta normalizazio prozesua (Euskaltzaindia, 1979: 191-192). Denbora luze horretan zehar, Alfonso Pérez-Agotek lau belaunaldi bereizten ditu: “gudarena”, hau da, 1920. urtea baino lehen hasi zirenak eta dramatizazio-ardatza gerra zibila zuena; “gerraosteko belaunaldia”, 1920-1940 bitartean jaiotakoak eta ardatza gerraren oroimena eta gerraostea izan zutena; “frankismoaren belaunaldia”, 1940-1960 bitartean jaiotakoak eta frankismoa dramatizazio-ardatz izan zutena; azkenik, 1960tik aurrera jaiotakoak, eta 1970eko hamarkadako aldaketa soziopolitikoak oso gaztetan ezagutu zituztenak. Egilearen ustez, azken belaunaldi hori izan zen frankismoak iraun bitartean kontzientzia nazionalistaren areagotzea bizi izan zuena (Pérez-Agote, 1987: 148)⁴.

3.1 Atzerapen prozesua

Siadecoren ikerketak erakusten zenez, alde zurreko garaiekin alderatuta 70eko hamarkadako euskara atzerapen prozesuan zegoen. Egoera horren oinarri nagusia menpekotasun sozio-ekonomiko eta kulturala zen eta hezkuntzan, komunikabideetan, Administrazioan eta Zerbitzu Publikoetan argi islatzen zen. Gauzak horrela, euskara “gero eta familia giro eta lagunartera murriztuago (...) ahultze-prozesu etengabe batean barrena” joan zen, egoera diglosiko batera heldu arte. Prozesu hori aspalditik bazetorren ere, latina eta ondoren hizkuntza erromantzeekin alderatuta euskara ez da inoiz nagusitasuneko posizioan egon, Foruek emandako autonomiari esker hizkuntza mantendu ahal izan zen; hori bai, beti menpekotasun egoeran (Euskaltzaindia, 1979: 18).

Gerra aurreko testuingurua itxaropentsua zen euskararentzat: 1936ko Euskal Estatutuak, besteak beste, Eusko Jaurilaritzak euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna erregulatuko zituen neurriak (eskolan, administrazioan, bizikidetzan...) zehazten zituen eta euskalgintza momentu oparo batean murgilduta zegoen. Baina frankismoak ezarritako neurri nazio-bateratzaileek politikaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren alorrean ondorio latzak ekarri zituzten, “euskarazko kultura eta euskaltasunarekin lotutako alderdi sinboliko guztiek” (Garaio, 2015: 96). Hau da, frankismo garaian euskararen menpekotasuna areagotu zen.

4 Belaunaldi ezberdinek bizi izandako egoera soziolinguistikoaren eragin zuzena, ez bakarrik euskararen transmisioan eta erabileran, baizik eta hizkeran beran ere bai, Josep del Riók eta Itziar Adurizek Errenteriako kasuan aztertu zuten bezala (Del Río eta Aduriz: 2009).

Torrealdai “zapalkuntza” kontzeptua erabiltzen du prozesu hori azaltzeko eta erregimenak ezarritako euskal genozidioan oinarritzen da hizkuntz jokabideak aztertzeko, batez ere frankismoaren hasierako araudien eta kanpainen eragina luzaro mantendu zelako eta hizkuntz politikan ondorioak izan zituelako. Berak azaltzen duen moduan, frankismo garaian gaztelaniaren monopolioa izan zen eta horren inguruan ugaritu ziren kontsignen eta jarrerren bidez euskara gizartearen esparru guztietatik ateratzeko eta etxe-esparrura baztertzeko ahalegin guztiak egin ziren. Azken finean, “Euskarak, frankismoarentzat, konnotazio politikoa du; euskara eta separatismoa bat dira” (Torrealdai, 1982: 33). Horretarako, neurriak hartu ziren eta debekatu ziren euskarazko pertsona-izenak, gizarte tituluak, negozioen izenak... Bizitza ofizialari dagokionez, debekuak erregistro zibiler, Industria Jabegora, Itsas-tribunalera edo Notari Arautegira ere heldu ziren. Izan ere, esparru publikotik ezabatze gogoak Eliza ere ukitu zuten, errosariotik, bederatziturretik, sermoi, prediku eta hitzaldietatik, dotrinatik edo elizaren argitalpenetatik ere ateraz. Gainera, eskola akulturatze-tresna gisa baliatuz, prentsa kontrolpean izanda eta argitalpenei zentsura ezarri, Erregimenaren eragina hizkuntzari dagokionez txoko guztietara hedatzen zen. Frankismoak euskararen aurka eta espainolaren alde erabiltako argudioak era guztietakoak izan arren, oparoenen artean soziolinguistikoak eta kulturalak zeuden, euskararen baliogabetasuna azpimarratu eta espainolaren ahalguztiduntasuna aldarrikatzen zutenak: besteak beste, euskarak ez zuela komertziorako edota zientziarako balio, mendi-hizkuntza zela, munduaren eboluzioak hizkuntza handi bat eskatzen zuela eta espainola zela hizkuntza hori... Baina argudio politikoak ere bazeuden, eta garrantziazkoak gainera: espainola hizkuntza bakarra izatearena, aberriaren batasunarena, hizkuntza periferikoak aberriaren minbizia eta separatismoaren hizkera zirela eta hizkuntza horiek entzute hutsa iraingarria eta mingarria zela (Torrealdai, 1982: 33-59).

Debekuek, euskarari buruzko mezu despektiboek, hizkuntza etxeko esparrura mugatu beharrak, elementu sinboliko propioak askatasunez ezin erabiltzeak, partekatutako espazio eta erakundeetan lekurik ez izateak (plaza zein eliza, administrazioa zein komunikabideak edo kultura, besteak beste) egunero pairatu beharreko marjinazioa dakartzate. Horrekin batera, “hizkuntza anomia” gertatzen da, hau da, zure hizkuntza komunitatearen eremu geografikoan egon eta arrotz sentitzearen sentsazioa (Garaio, 2015:94). Eta egoera hori areagotzen da mekanismo sinple batengatik:

“Hizkuntza nagusia ‘neutro’ moduan ikusten da, hizkuntza minorizatua aldiz ‘markatua’ da (zentzu peioratiboan). Mekanismo psikosozial gehienek beraz ‘marka’ hori gordetzera eramango dute, azkenik inertziaz ‘konturatu gabe’ beti hizkuntza nagusia erabiliko delarik” (Amonarriz, 1991: 46).

Egoera horren aurrean, adina eta batez ere generoa, aintzat hartu beharreko osagarriak bihurtzen dira, hizkuntzarekiko portaeran daukaten eraginagatik (Egia, 1991; Amonarriz, 1995).

Ruiz de Olabuenagari jarraituz, euskarak izandako minorizazio-mailaren ondorioz, ezaugarri bereziak sortarazi ditu. Alde batetik, euskarak ez duelako “espazio sozio-geografiko propiorik, aitzitik, geografikoki eta sozialki zatikaturiko espazioa da okupatzen duena” eta irla zabal baten itxura eduki beharrean “hizkuntz irlatxoaren artxipelago” batena izatera eramán izan duena. Bestetik, hiztun kopuruarengatik euskara “hiritarra da baserritarra baino gehiago; baina baserritarragoa da hiritarra baino bere presentzia sozialarengatik” (hau da, euskaldun gehienak 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi dira, baina bertako herriar gehienak erdaldunak dira); hirugarrenik, “euskaldunek

(gehienak hiritarrak) ez dute euskara ohiko hizkuntza beren eguneroko bizitza sozialean”, hizkuntzaren ahultze soziala are gehiago minorizatzen eta larriagotuz (Ruiz de Olabuenaga, 1991)⁵.

3.2 Kontserbazio prozesua

Certaera sozial guztiek badituzte beren erreprodukzio sozialaren mekanismoak. Hizkuntza bat mantendu eta transmititu ahal izateko bermatu beharreko erreprodukzio mekanismoek alde bikoitza daukate: batetik, leku edo eremu pribatua (etxea) eta bestetik publikoa (kalea, zentzu zabalenean), bakoitzari lotuta dauden osagarri sinbolikoak barne. Kalearen kasuan, adibidez, kale-erabilpenaren neurketak, mugatuak izan arren, hizkuntzaren erabilpen erreala eta egoeraren diagnostikoa egiten lagundu ahal zutela pentsatu zen. Hori izan zen, hain zuzen ere, 1989an Euskal Kulturaren Batzarrak egindakoaren helburua, besteak beste ezagueraren eta erabilpenaren arteko lotura azaltzen zuena (Txillardegi, 1991), edo 1993an egindakoa, aurrekoarekin alderatuta emaitza hobeak erakusten zituen (Iñigo, 1994)⁶.

Zehazki transmisioari dagokionez, bi eratakio izan daiteke: formala (hizkuntza modu kulturean jasotzen delarik) eta informala (familiar, auzoan eta gertuko komunitatean gertatzen dena). Azken kasu horretan, “familia bidezko transmisioa” ere deituko zaio, erdigune nagusia familia delako; izan ere, ez dago familiaren eragina ordezkatzetik, familiako hizkuntza sentimenduen eta norberak barneratzen duen mundu sinbolikoaren hizkuntza delako. Horregatik, egilearen esanetan transmititzeko “bide nagusia eta, gainera, garrantzitsuena, errazena, merkeena eta eraginkorrena” familia da (Zinkunegi, 1995).

Euskararen kasuan, lehen aipatutako erreprodukzioarako mekanismo horiek ez dira beti bermatu. Larrañagaren ustez, hainbat lekutan arrazoa ez da tresna horiek galdu izana, baizik eta inoiz eduki ez izana, administrazioan edo kapitalismo modernoko lan-munduan gertatzen den bezala, adibidez. Horregatik, eta frankismoak ezarritako egoera gehituta, gizartea deseuskalduntzeko arriskua benetakoa zen faktore erdalduntzaileen presentzia eta garrantzia aintzat hartuta: eskola, merkataritza, banketxeak, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, komunikabideak... (Uria eta Zumalabe, 1990: 54-57). Egoera larri horretan, euskararen kontserbazioa posible izan zen familia bidezko transmisioari esker (Euskaltzaindia, 1979: 192-193).

Baina euskara familiar egotea ez da nahikoa transmisioa bermatu ahal izateko. Izan ere, esan dezakegu transmisio-haria ez dela beti mantentzen, ahultasunak edota hausturak ere erakutsi

5 Ruiz de Olabuenaren ikerketaren hainbat puntuekin ez dago ados Xabier Isasi. Bere ustez, erabilitako metodologiak zenbait aukera posible baztertzeko dituen, ikerlanak jasotako ondorioek ez dute benetako “hizkuntzarekiko leialtasuna” erakusten (Isasi Balanzategi, 1992). Gaur egun, eta azken hamarkadetan izandako bilakaera soziolingüistikoaren ondorioz, orokorrean ingurune erdaldunenak euskalduntzeko eta ingurune euskaldunenak erdalduntzeko joerak antzematen dira. Lurrebasok 1981 eta 2011 bitarteko datuak aztertuz honako hau ikusi zuen: alde batetik, euskera gero eta hizkuntza hiritarragoa bihurtu zen, hau da, euskaldunen inguruneak gero eta gehiago identifikatzen zirela hiri-giroarekin nekazari giroko herri txikiekin baino; bestetik, zenbat eta udalerrri txikiagoak izan, orduan eta euskaldunagoak dira eta zenbat eta handiagoak, orduan eta erdaldunagoak (lurrebaso: 2015).

6 Neurketa horren arabera, % 11,6 erabiltzen zen euskara Euskal Herrian. “Elebidunak %23 inguru direla kontutan harturik, estatistikoki espero zena baino nabarmen altuagoa da ehuneko hori. Azken lau urtetan gainera % 17,5 igo da euskararen erabilera, igoera orokorra da gainera: lurralde gehienetan eta adin talde guztietan – zaharrak salbu-gertatu da” (51.orr).

ditzakeelako. Prozesua benetan bermatu ahal izateko osagarri hauek guztiak aintzat hartu beharra dago: lehenengo, familian bertan hizkuntz gaitasuna izatea; bestetik, gune soziolinguistikoaren eragina, bikote euskaldun batetik abiatzen den transmisioan emaitzak ezberdinak direlako euskal edo erdal gune batean; hirugarrenik adina, belaunaldi bakoitza aro soziopolitiko jakin bati lotuta dagoelako, hau da, belaunaldi horrek ezagutu dituen baldintzak eta giro soziopolitikoak eragin garrantzitsua izango dute hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko izan dituen aukeretan; azkenik, transmititzailearen sexua, gurasoen artean bakarra denean euskara dakiena, transmisioa hobeto ematen baita dakien hori ama denean. Osagarri horietaz gain, badaude kontuan izan beharreko beste zenbait aldagai ere, hala nola, familiaren jatorria (etorkin gutxi ikasi dute ondo transmititzeko moduan. Gainera, familiako kide euskaldunen proportzioak ere eragina dauka transmisioan) eta familiartekoen arteko loturak (zenbat eta sinpleagoak izan, orduan eta txikiagoa da hizkuntza ondo jaso duten seme-alaben ehunekoa) (Zinkunegi, 1995: 75-88).

Azkenik, edozein harreman pertsonalek zein familiarrek erakusten dituzten zailtasun eta konplexutasunez gain, beste mota batzuetako errealtate soziolinguistikoaren isla izango lirateke familiaren esparruan hizkuntzaren transmisioari eragiten dioten jokabideak. Euskaltzaindiaren ikerketak zioenez, 70eko hamarkadaren amaieran aiton-amonek euren seme-alabei egindako transmisioak ondo funtzionatu zuen arren, hurrengo transmisio-pausoan izan zen galera; hau da, belaunaldi berri hori guraso bilakatu zenean, euren seme-alabei egin beharreko horretan (Euskaltzaindia, 1979: 90-92).

3.3 Berreskuratze prozesua

Euskaltzaindiaren 1979ko ikerlanaren ondorioen artean, “azken hamabost-hogei urte hauetan berreskuratze-aldi berri bati ekin” zitzaiola adierazten zen. Erresistentzia eta berreskuratze prozesuaren eragileen artean euskalduntze kontzientziaren zabalkuntza zegoen, batez ere gazteen artean; helduen artean, aldiz, hizkuntzaren beraren balorazioa (Euskaltzaindia, 1979: 193-194 eta 54). Felix Basurkoren hitzetan, “Berreskuratze prozesu” horrek, euskara eta hezkuntza hartu zituen euskalduntasunaren zutabetzat, herritartasunaren ardatz (Basurko, 1993: 23).

Euskara Euskal Herriak daukan bereizgarri nagusia den heinean, frankismoaren jarrera eraso zuzentzat hartzen zen. Izan ere, erregimenaren debekuak ondorio paradoxikoak izan zituen, komunikazio tresna gisa euskararen erabilera funtzionalaren galera areagotzen zuen bitartean euskararen balio sinbolikoa handitu baitzen; diferentzialtasunaren logika indartuta, euskara gordetzea talde-lana bihurtzen zen eta hizkuntzaren ezagutzaz gain historiara ere jotzen zen. Euskal herriaren existentziari uko egitearen prozesu osoan zehar bortizkeria errealtate sozialean presente egon zen: hasiera batean, “gizarte ofizial”aren eta “isiltasuneko gizartea”ren arteko talkan. 60ko hamarkadaz geroztik, bortizkeria eta errepresioan. Isiltasuneko gizarteak sortu zuen bizitza kolektiboa familia, eliza, kuadrilla, elkarte, hizkuntza eta irakurketaren bidez 60ko hamarkadan modu ageri batean erakusten hasi zen. Halaber, hamarkada horrek beste hainbat fenomeno garrantzitsu ekarri zituen: politikoki, adierazpen berrien jaiotza; kulturalki, euskara aldarrikatzen zuen mugimendu baten sorrera; arlo sozio-ekonomikoan, hazkunde demografikoa, urbanizazioa, industrializazioa, lan-gatazkak... Horrela, Ander Gurrutxagak dioenaren arabera, kode nazionalistaren diskurtsoaren ildotik bi adierazpen garrantzitsu sortu ziren: ETA eta euskararen aldeko mugimendua. Biak ala biak kode nazionalistaren

eta Estatuaren sozializazio-eragileen arteko gatazkaren isla izan ziren eta biak bereizgarri gisa agertu ziren (Gurrutxaga, 1985: 430-432)⁷.

60ko hamarkadan izan zen benetako eklosioa “euskara gozo senti zitekeen egitura sozio-ekonomiko-demografikoa aspaldi irauli” zelarik, pauso garrantzitsuak eman zirenean: euskararen batasuna, ikastolak zein helduen alfabetatzea abian jartzea, euskal mugimendu kulturala... Hau da, hizkuntza galtzeko arriskua ikusita, gizartearen (edo behintzat gizartearen zati baten) erreakzioa eta erantzuna islatzen duten ekimenak (Artza, 2017: 132), non emakumezkoek eginkizun berezia izan baitzuten, batez ere irakaskuntzaren alorrean (Amonarriz, 1995: 89).

Iñaki Martínez de Lunak, 60ko hamarkadako testuinguru horretan kokatzen du berak izendatutako “Garai Gogoangarria”, euskaldunen inguruan sortuta eta “framing aldarrikatzaile” bati atxikita egotea ezaugarri nagusitzat dituen. Egileak dioenez, garai hartan erregimen politikoa aldatu beharra euskal gizartearen gehiengo zabal baten aldarrikapena bihurtu zen eta, ondorioz, ordura arte debekatua edo gaizki ikusia izan zen guztia, begikotasunez ikusten hasi zen. “Abertzaletasunak gidatutako euskal nortasunaren berpizkundea abian zen, euskararen aldeko mugimendua barne”. Ikastolen mugimenduak lagunduta, besteak beste, “euskal iritzi publikoa euskara deskubritzen hasi zen (...) pixkanaka, euskara modan jarri eta erdaldun askorentzat hizkuntza hori erakargarri bihurtu zen”. Euskal kanta berria hizkuntzaren erakusleho garrantzitsua zen, euskararen batasuna abian zegoen... Orokorrean, gizartea “erabateko ezjakintasun soziolinguistikoan murgilduta” bizi zen momentu horretan euskara-ikaste hutsak hizkuntzaren biziraupena ziurtatzeko nahikoa izango zela uste zen (Martínez de Luna, 2010: 54).

3.3.1 Berreskurapen-jarrera eta familia

Iñaki Larrañaga “berreskurapen-jarrera”ren garrantziaz mintzatzen zen hizkuntza baten ezagupena balio sozial gisa sentitzen (eta sentiarazten) denean, horrelakoetan motibazioa hizkuntzaren berreskuratze-prozesu horren motorra bihurtzen baita, “ez bakarkako fenomeno soziala, baizik eta fenomeno kolektibo bezala” (Uria eta Zumalabe, 1990: 53).

Baina aintzat hartu behar da euskal-kulturazio prozesuan eragile garrantzitsu izan zitezkeen hainbat osagarri (komunikabideak, argitaletxeak, prentsa eta aldizkarigintza...) oso murrizak zirela oraindik. Adibidez, euskarazko komunikabideak euskaldun kopuru gutxi bateraino heldzen ziren eta erabilienean irratia izanda ez zeukan benetan alfabetatzeko botere handirik; argitaletxeei dagokienez, zeudenak gerra ostekoak izateaz gain asko 1968tik aurrera sortutakoak ziren; aldizkarigintzaren kasuan, gai literarioak, erlijiosoak, kulturalak, politikoak lantzen zituztenak baziren arren (*Euskalduna*, *Jakin* edo *Zeruko Argia*, besteak beste) euskarazko hainbat eduki zituzten egunkari bakarrak *Egin* eta *Deia* ziren (Euskaltzaindia, 1979: 43-190).

Beraz, “mugimendu” izena hartuko zuen fenomeno horren sustraiak nonbait kokatu behar badira, familietan kokatu behar dira. Erakunde horren garrantzia sumatuz, Euskaltzaindiaren ikerlanak familia euskaldunen artean hizkuntzarekiko maitasuna bi eratara aztertu zuen: batetik, euskara

⁷ Egileak “sociedad oficial” eta “sociedad del silencio” kontrajartzen ditu.

jakiteak sortzen duen sentipena jasotzen saiatuz eta bestetik euskara jakiteak bere bizitzaren alor desberdinetan dituen ondorioak jakinez (Euskaltzaindia, 1979: 145-154)⁸.

Familiaren berreskurapen jarrera hainbat modutan islatu zitekeen. Haietako bat etxe barruko hizkuntz ohituren zainketan oinarritzen zen, seme-alabekin komunikatzeko euskara lehenesten edota gaztelera baztertzen zituzten dinamikien bidez, besteak beste. Era berean, seme-alabak eskolarizatzeko momentua heltzen zenean, euskararen aldeko hautua eginez, bai ikastolara eramanez edo bai, ikastolen hedapena baino lehen eta aukera izanez gero, etxe-eskoletara bidaliz. Azkenik, hezkuntza ez-formalean ezartzen ziren beste praktiken bidez (dotrina euskaraz bultzatuz, haurren gau eskoletara eramanez, umeen euskarazko aldizkariak erosiz, eta abar). Familiaren ezaugarrien zein garaien arabera, aipatutako estrategia edo tresna horietako bat baino gehiago eman ahal ziren.

3.3.2 Etxetik kanpoko bizitza: kuadrilla, elkarteak, Eliza, kalea

Hurrengo hamarkadetan ugaritu baziren ere, 60ko hamarkadan hasi ziren herri-mailan euskara sustatzeko elkarteak eta taldeak sortzen. Haien artean joera eta ezaugarri ezberdinak egon arren, Koro Zumalabek hainbat ezaugarri orokor azpimarratzen ditu: a) herriko bizitza euskalduntzea helburu izatea, alde batetik euskaldunek euskara erabili ahal izateko herri bizitzako esparru berri eta zabalagoak irabazten eta bestaldetik erdaldunak euskara ikasteko erakartzen zituen prozesu integratzaile baten bidez; b) euskararekiko motibazioa eta hizkuntzaren ezaguera eta erabileraren dinamizatzaile izatea; d) euskararen aldeko lanean bat egitea, politikaren alorreko desberdintasunak albo batera utziz; e) elkartearen formula hartutakoak “euskaldun kontzientzia handiena dutenetik hasi dira eta ahalik eta euskaltzale gehien biltzen” saiatzea, beste batzuek “ongi trinkotutako talde batetik” herriko euskal bizitzari eragiten zioten bitartean (Zumalabe, 1992: 53-54).

Baina euskara sustatzeko elkarteen papera ulertzeko, hizkuntza eta sozializazioaren arteko harremana azaldu behar da. Horrela, lehenago familiaren eragina “berreskurapen jarreran” aipatzen bagenuen, oraingo honetan bizitza soziala (eta politikoa) izango da jarrera horren eszenatokia, eta horrekin lotuta, kalea; izan ere, bizitza soziala gero eta gehiago hara zuzendu baitzen.

Familiarekin batera Eliza ere garrantzitsua izan zen kode nazionalistaren mantenuan: hasiera batean, frankismoaren lehenengo garaian, Elizak oraindik ere prestigioa mantentzen zuelako familia nazionalisten baitan; ondorengo belaunaldian, erlijioarekiko atxikimendua desagertzen joan arren, Elizak eginkizun garrantzitsua izan zuen gazteriarren “esnatze parte-hartzailean”. Alde batetik, Elizak lokalak izateaz gain egitura bat zelako eta gainera immunitate poliziala zeukalako, beraz zenbait ekintza klandestinoetarako kanala eta tresna bihurtu zen. Bestetik, Elizak jarduera ugari sustatzen zituelako garai hartan (eliztarren taldeak, elkarte kulturalak, mendiari zein folkloreak lotutakoak...) eta haien inguruan gazteria euskal kontzientzia sozial eta nazionalistan sozializatu zen. Horrez gain, kleroak (zati batek, behintzat) ere dinamika politiko-ebanjeliko garrantzitsua gauzatu zuen, bai aldizkariak sortuz (besteak beste *Anayak*, *Egiz...*) baita frankismoari aurre eginez

8 Hizkuntzarekiko maitasunaren azterketak emaitza itxaropentsuak ekarri zituen. Bestalde, familia erdaldunen artean euskararekiko balorazioa oso positiboa zen ere bai, nahiz eta familia euskaldunen kopuruetara ez iritsi. % 87,3rentzat euskara jakiteak poza zorrarazten baitzuen, erdia baio gehiagok hizkuntzaren balioa Euskal Herriaren errealitatearekin (nortasuna, espresioa) parekatzen zuelako (ia heren batek, gizarte guztiari dagokion aberastasuntzat) eta etorkizunari begira %70ren ustetan Euskal Herri osora hedatuko zen.

ere (Zamorako konkordatu-espetsuean egon ziren elizgizonetan gorpuztuta, adibidez) (Gurrutxaga, 1985: 425-426).

Frankismoaren garaian, non politika eta egunerokotasuna elkarrekin baitzihoazen, kuadrilla, poteoa, mendi-taldea, gizarte gastronomikoa eta abar bezalako sozializazio-ohiturek berebiziko garrantzia hartu zuten harreman pertsonal zein kolektiboen artekoak trinkotzeko. Modu natural batean, kuadrillak elkarteetan sartu ziren eta elkarteetatik abiatuta kuadrillak sortu ziren. Gainera, kuadrillen poteoko errituala aldi berean erritual kolektibo bihurtu zen, beste kuadrilla batzuekin edota elkarteekin harremana izatea eta sustatzea zekarren heinean (Pérez-Agote, 1987: 93-94). Elkarte sare hori, beraz, frankismoak ukatzen zuen espazio publikoaren ordezkia bilakatzen zen, pertsonak bizipenak elkartrukatzeko eta euren kodea birbaieztatzeko edo aldatzeko esparrua zelarik: elkarteetan hitz egin edo eztabaidatu egiten zen, eta aldi berean elkarteek nazionalismoaren funtzionamenduaren kodea islatzen zuten, “Gu” eta “Beste”en arteko muga zehatza jarritz (Gurrutxaga, 1985: 426-428). Pérez-Agoteren ustez, elkarte saretze hori oso garrantzitsua izan zen kontzientzia nazionalistaren zaintzan, erreprodukzioan eta erradikalizazioan, elkarte bakoitzaren funtzio esplizituarekin batera bazeudelako ezkutuan geratzen ziren beste batzuk ere. Modu horretan, frankismoaren garaian, (eta beranduago ere bai) elkarte-sare trinkoari esker nazionalismoaren unibertso sinbolikoa mantendu eta areagotu egin zen: Komiteak, Amnistiaren Aldeko Batzarrak, Lemoizko nuklearraren aurkako mugimendua... (Pérez-Agote, 1987: 93-94 eta 169).

70eko hamarkadako bigarren erdian herri-mugimenduak anitzak eta gero eta espezializatuagoak ziren, eta bertan aritzea militantzia- (konpromiso osoa bezala ulertuta) kutsu garrantzitsua zeukaten, nahiz eta kasu askotan pertsona batek aldi berean kolektibo ezberdinetan parte-hartu (Tejerina, 2018: 75-78). Euskal Herri osoan aktibismoa kausa bati atxikitzen zitzaion edo, zeharka, kausa ezberdinei, egoera pertsonaletik abiatuta eta lelo feministari jarraiki pertsonala politiko bihurtuz. Esate baterako, hamarkada horretan sortu zen Ipar Euskal Herrian EEBA (Euskal Emakumeak Beren Askatasunaren Alde) talde feminista, Angela Davis erreferentetzat hartuta “feminismoa eta abertzaletasuna uztartuko zituen lehen taldea” izan zena (Agirre eta Eskisabel, 2016: 13).

Garai hartan abian zegoen bizitza kolektiboa kalera irteten zen mobilizazio handien bidez, frankismoaren aparatu politikoaren aurka eta ETaren alde. Zentzu honetan, kalea transgresio espazioa bihurtzen zen, espazio politikoa, non isiltasunaren aktoreek beren kodea erakusten zuten euskal ikur eta sinboloen bidez. Isiltasunaren gizartea gizarte zibila bihurtu zen, frankismoarentzat arazo bilakatuz, bizitza politikoa eta bizitza kolektiboa bereiztea ez baitzen erreza (Gurrutxaga, 1985: 437).

Estatuak gerraren ostean ezarritako bortizkeriak erregimenaren aurkako edozein oposizio isilarazten zuenez, garaiko oposizio gehiena esparru pribatueta (familia, lagun-taldeak, elkarteak) eta nolabaiteko klandestinitate kolektibora murrizten zen. 1950eko hamarkadaren bukaera aldean, isilarazitako euskal nazionalismo hartan sozializatutako belaunaldia euskal kontzientzia nazionalista erradikalizatutakoaren protagonista bihurtu zen (Tejerina, 2015: 3).

Baina gizartearen aldaketa sozioekonomikoak eta antzinako nazionalismoa ez ziren ondo uztartzen. Aurreko belaunaldikoek zeukaten etsipen sentimenduaren aurrean (gerra galdu izana eta nazionalismoaren porrota, euskarak atzera egitearen errealitatea ikusita), gazteriak euskal gizarte

berrira egokitu ahalko zen abertzaletasun berri baten birformulazioari ekin zion. Ohiko nazionalismoak zituen gainerako elementuak (arrazaz, fedea, eta abar) alde batera utzi eta euskara agertu zen osagarri bateratzaille moduan. Osagarri hori ere oso garrantzitsua izan zen ETaren formulazioa, hizkuntza eta nortasun nazionala batera doazelako eta hizkuntza berreskuratzen zen neurrian bestea ere hedatzen zelako, autogobernua helburutzat izanik. Era horretan, hizkuntza komunitatearen sinboloa izatera pasa zen eta kontzientzia politikoa hizkuntzaren ezagutza eta erabilera sustatzen zuen eragilea (motibazioa) bihurtu zen (Tejerina, 1998: 280-290).

Euskal identitate kolektiboaren birformulazioak gizartearen arlo ezberdinak zeharkatu zituen eta gizarte-eferbeszentziaren testuinguruan, batez ere 1970eko hamarkadan. Estatuaren bortizkeriaren aurka, ETarena utopikoa eta urratzaile bezala agertzen zen. Gainera, kontzientzia berriak zein beste ezaugarriak (tartean, parte-hartzailea edo iraultzailea izatea) beste mugimenduekin loturak topatzea erraztu zuen: langileena, feministena, ekologistena, hizkuntza berreskuratzearena... Hainbat kasutan, hala ere, hasierako lotura horiek sortzen ari ziren gatazka berriak kontrolatu nahi izatea bilakatu ziren (Tejerina, 2015: 10).

3.3.3 Ikastolak

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduarekin batera, ikastolen mugimenduan daukagu euskararen berreskuratze prozesuaren beste oinarri nagusia, biek kuantitatiboki zein kualitatiboki izan zuten eraginarengatik. Hala, Basurkoren esanetan “Estatu administrazio eta instituzio politikoen aurrean gizarte zibilak euskaltegi eta ikastoletan zentratu zuen bere erresistentziarako borroka nazionala” (Basurko, 1993: 23).

Joxe Manuel Odriozolaren aburuz, ikastolen mugimenduan, helduen euskalduntze-alfabetatze jardunean eta beste zenbait ekimenetan gorpuztu ziren “Euskararen aldeko herri-mugimenduak bihotzaren bihotza izango lirakeke, hizkuntz nazioaren eraikuntzarako ezinbesteko indarra eta euskarria” (Odriozola, 1992: 25-32).

Helduen euskalduntze-alfabetatzearen fenomenoaren eta ikastolen mugimendua euskal kontzientzia berriaren isla ziren, eta kontzientzia horren hedakuntzarako tresna. Haien arteko loturak, sinergiak eta abar aurrerago garatuko baditugu ere, ikastolen mugimenduak berak jarraitu zituen urratsak esanguratsuak dira. Dagokigun kronologia aztertuz gero, Basurkok hiru garai zehazten ditu: klandestinitatea (gera ostetik 1960ra arte), hedakuntza eta legalizazioa (1960-1976) eta normalizazio juridikoa (1978-1988). Ibilbide horren bidez, ikastolaren eragina euskal gizartean zenbait esparrutan nabaritu izan da: alde batetik, hizkuntzaren beraren modernizazioan eta bat-egitean, ikerketa lerroak zabalduz, material berria sortuz, eta abar; bestetik, liburugintzan eta idatzizko zein ikus-entzunezko hedabideengan izandako eragin kulturalen; hirugarrenik, ikastolek bigarren hezkuntza eta unibertsitate mailako ikasketetan euskarazko lerroak zabaltzea ekarri zutelako; gainera, hezkuntza-sistemaren barnean kudeaketa eta antolakuntza demokratikoan eta parte-hartzailean oinarritutako eredu berria izan zirelako; eta azkenik, testuinguru familiarrean zein hurbilen dagoen testuinguru sozialean hezkuntza-dimentsioa sartzea ahalbidetu zutelako (Basurko, 1989: 143-153).

3.4 Normalizazio linguistikoa

3.4.1 Instituzionalizazio prozesua

1978tik aurrera egoera politiko-administratiboari dagokionez eman ziren hainbat pausok euskararen garapena baldintzatu zuten. Espainia 1978an Autonomia Estatu gisa eratzeak gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrera ekarri zuen urtebete geroago. Erakunde politiko-administratibo horretan kontaktuan zeuden hizkuntzak ardatz hartuta, legeak sortzeko beharra zegoen, 1982ko Euskararen Erabilpenaren Normalkuntzari buruzko legearen onarpena nagusitu zelarik (Azurmendi, 1998: 238-239). Horrekin batera heldu ziren hizkuntzaren ofizialtasuna, euskararen irakaskuntza, funtzionario publikoen eta zenbait profesionalen esijentzia, euskararen erabilera dokumentazio publikoetan... (Euskaltzaindia, 1978: 250-260).

Berreskurapen prozesuaren xedea normalizazio linguistikoa lortzea zen eta horrek bi atal zeuzkan. Alde batetik, hizkuntzari berari dagokiona, hau da, batez ere atal linguistikoa dena, *normak* edo arauak ematen dituen ezinbestekoa den batasuna lortzeko asmoz. Arlo horretaz hizkuntzalariak arduratzen dira eta, azken finean, Euskaltzaindia. Bestetik, hizkuntza egoera normalizatuan jartzera zuzentzen dena, “aho-idatzizko bere adierazpen-maila guztietan, eta heziketa-atal guztietan eskolaratua”, elkarrekin bizi diren hizkuntza guztiak berdintasuneko egoeran egon daitezzen. Azken eskakizun hori bete ahal izateko Administrazio publikoaren ekintza behar da, transmisioa bermatzeari begira (familian, hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan bertan) baliabideak jarritz. Hau da, normalizazio linguistikoak hizkuntz plangintza baten beharra dauka eta dagokion esfortzua (ekonomikoa, azterketa eta antolakuntzaren mailan, etab.) (Euskaltzaindia, 1979: 194-197). Hau da, herri batek ezin du indibidualki erabaki euskalduntzea, normalizatzea. Erabaki kolektiboa den heinean, gertaera sozialek eta euren mekanismoek, erabaki hori erraztu edota baldintzatzen dute. Hor garrantzia handia dauka herri mugimenduaren eta alderdi politikoen edota agintearen arteko harremanak (ez bakarrik keinu sinbolikoetan edo diru-laguntzetan adierazten dena, baizik eta harreman dialektikoetan ere bai), hortik aterako baitira euskararen alde joka dezaketen erreprodukzio-mekanismoak, euskararen aldeko inertiak (Uria eta Zumalabe, 1990: 58-59).

Instituzionalizazio prozesuaren marko horretan, euskararen berreskurapen prozesuan sortu eta garatutako ikastolak eta euskaltegiak bezalako dinamika herritarrak, besteak beste, erakunde ofizialen eskuetara pasa ziren. Hau da, normalkuntza instituzionalizazioaren bidean jarri zen eta 1982/10 legean izan zuen abiapuntu juridikoa: irakaskuntza arautzeko hizkuntz ereduak ezarriz (A, B eta D), helduen irakaskuntza arautzeko eta homologatzeko erakundeak sortuz (HABE eta IRALE) edo hizkuntz gaitasuna normalizatzekeo agiriak eta tituluak eratuz (GUMA, IGA, B edo Sakontzeko hizkuntz ziurtagiriak eta EGA, EIT, Hizkuntz Profilak), adibidez (Basurko, 1993: 23-24).

3.4.2 Euskara gizarteratzeko modu berriak

Aldaketa politiko eta administratiboekin batera, hizkuntzaren beraren eboluzioa zetorren. Bi norabideko bidea izan zen: euskararen gizarteratzea (besteak beste, ikastolen eta helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimenduen bidez) ezinbestekoa izan zen hizkuntzaren normalizaziorako; eta instituzionalizazioarekin batera, euskara gizarteratzeko aukerak zabaltzeko ziren. Arlo kulturalak,

bestelako gertakizun politikoen isla den heinean, aurreko garaiekin alderatuta izugarrizko aldaketa izan zuen.

Alde batetik, 60ko hamarkadaren bukaerak euskara batua ekarri zuen, eta ondorioz, arautzearen beharra ere bai: ortografia, aditzak, deklinabideak eta gainontzeko gramatika-osagarriak. Horrekin batera, batez ere hurrengo hamarkadatik aurrera, profesio-elkarte gisa sortutako erakundeak: idazleen elkarte, itzultzaileen elkarte, aktoreen elkarte..., zenbait kasutan euskalgintzako gizarte-mugimenduari oso lotuta egon zirenak (Agirrebaltzategi, 1995: 20).

Bestetik, garai berean euskararen sendotze eta zabaltze-lanek ahalbidetutako zenbait ekimen eta erakunde aipatu behar dira: 1972an Donostiako Ingeniari Eskolako EKTk (Euskal Kultura Taldeak) Elhuyar sortu zuen eta bi urte geroago, *Elhuyar* aldizkaria. 1974an ere Udal Euskal Unibertsitatea sortu zen Donibane Lohitzunen; 1977an, *Jakin* taldearen eskutik, UZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) hasi zen (Sarriegi, 2009).

3.4.3 Argitalpenak

Euskararen funtzio komunikatiboaren galera eta hizkuntza berreskuratzearen beharra, ikastolen sorrerarekin eta helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduarekin batera, euskarazko argitalpenen areagotzean islatu zen (Tejerina, 1998: 285).

Liburugintzari dagokionez, gerra ostetik, euskarazko ekoizpen literarioa oso eskasa izan zen. 1940-1960 bitartean, 25 liburu argitaratu ziren; 1960-1975 bitartean, 554. Haien artean sakelako liburuak, haurrentzako eta gazteentzako liburuak, euskara ikasteko metodoak... 1968-1969tik aurrera argitaletxe berriak sortzeaz gain, eta gehienbat Rikardo Arregiren eraginari esker, euskal editorialak kultura politikoa hartzen hasi ziren. Ondorioak hiru esparrutan ikusi ziren: kultur zabalkunderako oinarrizko liburuen argitalpena, itzulpenak eta saiakera laburretan eta azkenik sorkuntza literariozko obretan. Berehala editorial horiek espezializazioaren bidea hartu zuten, batua nagusitu zelarik (Euskaltzaindia, 1979: 177).

Euskal liburugintzak ekin zion hedakuntza prozesua helduen euskalduntze-alfabetatze fenomenoari lotu zitzaion, ordura arte inoiz ez bezala ikasketa prozesuan erabiliko ziren manualak eta osagarriak (hala nola, gai ezberdinak jorratzen zituzten aldizkariak edota idatzizko prentsa) plazaratzen hasi baitziren. Zentzu horretan, euskarazko ekoizpen literarioa euskalduntze eta alfabetatzerako bidea egin ahal izateko baliabide izan zela esan daiteke.

Baina horretaz gain, obra horiek barneratu ahal izatea ikasketa prozesuaren beraren ondorioa zen. Hau da, euskaldundu zirenentzat zein euskaraz alfabetatu zirenentzat, euskaraz sortutako lan horiek (eleberririk, entseguak, artikulak, bertsoak, irratsaioak...) euskaldun osoak bilakatzearen helburua lortu izanaren emaitza ziren. Eta hizkuntzarekin batera kultura, informazioa, kontzientzia, sormenarako gaitasunak garatzeko ahalmena, etab. zetozen.

Beste mota batzuetako argitalpenei erreparatu gero, aldizkariak eginkizun garrantzitsua izan zuten euskal literaturak eta euskarazko prentsak bete ezin zuten hutsunea arintzen. Gerra osteko hasierako urteetan Hego Amerikara eta Erdialdeko Amerikara joandako intelektualen eskutik heldu zen: 1950.

urtearen inguruan aro bat markatu zuen *Euzko-Gogoa* jaio zen Guatemalan, han Orixe eta Hego Euskal Herriko idazle gazte batzuk baitzeuden. Ondorioz, 1954an *Egan* (Donostia) indartu zen aldizkari literario gisa; 1956an, *Jakin* jaio zen Arantzazun eta *Euzko-Gogoa*, Miarritzen. 1960ko hamarkadan, kultur mugimendu hasiberria indartzeko eta egituratzeko prozesuaren testuinguruan, ikastolen eta alfabetatze-euskalduntze mugimenduen eskutik, argitalpenek eta informaziozko aldizkariak bultzada bat ezagutu zuten, batzuk jaio eta beste batzuk berritu zirelako. Euskarazkoen eta elebidunen artean, gai sorta zabala hartzen zuten argitalpenak ziren: literarioak (*Egan*, *Olerti*, *Kurpil*, *Ustela*...), erlijiosoak (*Othoizlari*, *Jaunaren Deia*...) edo arlo ezberdinak (kultura, politika...) ukitzen zituztenak (*Zabal*, *Karmel*...) (Euskaltzaindia, 1979: 175-182).

1976tik aurrera aldaketa kualitatibo bat nabaritu zen. Erlijio-ordenek sortutako aldizkari gehienak sekular bilakatu ziren eta gehienbat ezker abertzale ideologiarekin lerrokatu ziren. Espainian arrakasta handia zeukan *Cambio 16* moduan, *newsmagazines* edo informazio orokorreko astekariak bihurtu ziren, aldarrikapenez josia zegoen momentu batean: euskal unibertsitatea, amnistia, Lemoitz, erreferenduma... Horrela sortu edo berritu ziren *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Jakin*, *Goiz Argi* edo *Zehatz* eta 1978 inguruan *Gaiak*. Elebidunen artean, *Punto y Hora de Euskal Herria*, *Garaia* eta *Berriak*. 1979an *Zeruko Argia* langile-kooperatiba bilakatu zen eta *Argia* izena hartu zuen. Urtebete geroago, *Anaitasuna*, *Jakin*, *Saski Naski* eta *Herriarekin* batera Prentsa Euskaraz kanpaina abian jarri zuten, “Euskal prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk” leloarekin. Helburua harpidetza hauspotzea bazen ere, bakarrik *Argiak* lortu zuen bizirautea (Díaz Noci, 1998: 443-446.orr).

Horrelako argitalpenek izandako eginkizuna ezinbestekoa izan zen zenbait zentzutan. Alde batetik, hizkuntzari dagokionez idatzizko euskarari leku bat eman ziotelako (ez zen makala, aintzat hartuta euskararen inbisibilizazio egoera orokorra); bestetik, eguneroko prentsa ofizialek kanpo beste mota bateko informazioa eskuratzeko tresnak zirelako, iritzi kritikoa hauspotuz oso garai gatazkatsu batean; hirugarrenik, aldizkari horiek jorratzen zituzten gaiak (politikoak baina baita literarioak edota erlijiosoak ere) jakintza esparru ugarian sakontzeko aukera zirelako, erregimenak euskararen balio gabetasuna azpimarratzeko erabiltzen zituen argudioak (mendi-hizkuntza zela, ez zuelako adibidez zientziarako balio...) indargabetuz; azkenik, sormenaren ikuspuntutik euskal kazetarien eta idazleen gaitasunak profesionalki garatu ahal izateko esparrua izan ziren. Izan ere, Koldo Mitxelenak bere lan linguistiko eta filologikoez gain, kritika literarioari ere ekin zion. Horrela, 30 urte baino gehiago eman zituen euskarazko zein mundu mailako egileen obrei buruzko erreseinak eta azterketak egiten (Etxepare, Axular, Oihenart, Lizardi, Txillardegi, Cela, Oscar Wilde, Tchejov, Paul Claudel), besteak beste, *Egan*, *Zeruko Argia*-n edo *Anaitasuna*-n (Lasagabaster, 2007: 238).

3.4.4 Egunkariak

Prentsari dagokionez, Hego Euskal Herriko argitalpenak erregimenaren kontrolpean zeuden eta ez zioten kritikari lekuri txikiena ere eskaintzen. Gipuzkoan goizeko bi egunkari zeuden, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España* (1936an *La Voz de Guipúzcoa* inkautatu ondoren sortu zena); eta arratsaldeko bat, *Unidad* (Euskaltzaindia, 1979: 183). Betidanik goizeko bien artean lehia zegoen arren, bai salmentetan baita eragin sozialean ere, 1970 eta 1980ko hamarkadetan *El Diario Vasco* gailendu zen.

1977. urtea euskal kazetaritzari dagokionez ezinbesteko mugarritzat dugu. Ordura arte Euskal Herri osoan zeuden zortzi goizeko egunkariei Madrilgo gobernuaren bozgorailu izatea egotzen zitzairen, xede hori betetzeko “gertaerak isildu, ukatu; zurrumurru faltsuak letra handitan zabaldu, hurrengo egunetan txokoren batean gezurtatzeko; gertakarien bertsio ofizialak bakarrik” eta antzeko taktikak erabiliz (Pagola, 1977). Hiru hilabeteko tartearekin bi argitalpen berri kaleratu zirenean, biak korronte ideologikoren batean baino gehiago zuzenean alderdi zehatz batzuei atxikita zeudenak: ekainean, *Deia* (EAJri atxikituta) eta irailean, *Egin* (HBri) (Díaz Noci, 1998: 445). Lehendabiziko aldiz bazegoen euskararen hutsune bat eguneroko prentsan, baina biak gai honen inguruan hasieran zeuden itxaropenen azpitik gelditu ziren (1984an testuen % 4,3 eta % 12,8 bakarrik baitziren euskaraz hurrenez hurren) (Díaz Noci, 2012: 182-202). Estreineko aldiz euskara osotasunean egunero argitaratuko zuen baliabidea *Euskaldunon Egunkaria* izan zen 1990. urtean, bere sorreran euskal gizartearen babesa izan zuena “Egunkaria Sortzen” proiektutik abiatuz (Lizartza, 2003)⁹.

3.4.5 Musika

Larrinagaren ustez, euskararen eta euskal kulturaren alde osatutako euskalgintza mugimenduak ikuspuntu linguistikotik begiratzeaz gain maila intelektual batean gune kognitibo gisa funtzionatzen duen esparrutzat har daiteke, baliabide sinboliko asko sortu eta mobilizatu baitzituzten:

Euren helburua betetzeko, alegia, errealitatearen interpretazio marko alternatiboak eraikitzeko (...) hizkuntzari buruzko irudikapenak sortzearekin batera, hizkun-komunitatean zabaltzeko ahalmena erabili dute etengabe (Larrinaga, 2008: 96).

Kulturgileek euskalgintzan kultur zein politika mailan izandako eragina aintzat hartuta, hiru garai ezberdintzen ditu Larrinagak: Eusko Pizkundearena, 1960-70 hamarkadako kultura-pizkundea eta 1980 hamarkadako instituzionalizazio autonomikoarena (Larrinaga, 2008: 96-99).

Zentzu horretan, eta bereziki frankismoaren azken urteetan izandako kode nazionalistaren birdefinizioaren testuinguruan (Euskal Herria nazio gisa ulertzeko hizkuntza ardatz hartzen zuena) Dávilaren eta Albizuren ustez, musika mugimenduak alfabetatze mugimenduarekin izandako loturaren ikuspuntutik aztertu behar ziren, eta euskararen erabilera sozialean eragina izateaz gain askotan euskal nortasunaren birdefinizioarako kode ideologikoak izan ziren:

Lehenengo, 50eko hamarkadan hasitako Euskal Kantagintza Berriarekin, euskal kultura tradizionalen oinarritu arren modernizatu egiten zuena, besteak beste, letretan ardatz kultural-etnikotik aldenduz eta aldarrikapen linguistikotik politikoetara mugituz. 60ko eta 70eko hamarkaden artean, *Ez Dok Amairu* bezalako mugimendu interdisziplinarrak berrikuntzaren olatuak zabaltzen lagundu zuen. Izan ere, geroago sortuko zen rock mugimendua printzipioz Kantagintza Berritik oso aldenduta bazegoen ere, pixkanaka-pixkanaka euskal kultura tradizionalari (instrumentuak, eritmoak, bertsolaritza...) edota euskal kultura adierazteko gune berezituak (jaiak, euskara eta euskal kultura hauspotzeko ekitaldiak...), hurbilketa prozesu bat egon zen (Dávila eta Amezaga, 2003-2004: 221).

9 Izan ere, 2003an itxiarazi zutenez *Berria* proiektua gauzatu zenean jende askoren borondatea eta laguntzari esker izan zen.

Beranduago, 70-80ko hamarkadetan Euskal Rock Erradikalaren etiketapean sortu ziren musika taldeek beste mota bateko identitate sinbolikoa sortzen lagundu zuten, etnizitatetik urrunago (izan ere, euskara ez zen beti erabiltzen zen hizkuntza) eta beste mugimendu kontrakulturaletatik gertuago kokatzen zena. Gazteriaren arlo garrantzitsu batek krisaldi ekonomiko sakonak, demokraziaren normaltasunera iristeko zeuden oztopoak (ETA, GAL...) eta garaiko beste arazoak (droga...) sortarazitako frustrazioa identitate kolektibo berria adierazteko beste modu bat topatu zuten konfrontazio sinbolikoan (letretan, estetikan, dantza egiteko moduan, eta abarreko osagarrietan irudikatzen zena) oinarritzen ziren *punk* eta *underground* mugimenduetan (Roman, 2018).

Ezker abertzalearen eta musika talde horien artean nolabaiteko ulermen interesatua sortu zela adierazten dute hainbat egilek: HBk talde horiek promozionatu zituen punk-ak kultur hegemonikoaren errefusa adierazten duelako, bere errebeldia, aldarrikapena eta jarrera ihardukitzailera aintzat hartuta (eta beste hainbat osagarri alde batera utzita) nolabait hautesleria gaztea bereganatzeko asmoz, 1985eko “*Martxa eta Borroka*” lelopean, jaietako giroaren politizazioaren adibide izan zelarik; besteek, agian irati edo prentsa tradizionalen topatzen ez zuten promozio baliabideetaz baliatzeko aukera ikusi zutelako (Euskal rock Erradikalaren etiketa *Egin*-eko musika saileko arduradunek sortzeaz gain, 1984 “Egin Rock”, 1985eko “Eskualdeko Jaia”, “Gernika 37-87” ekitaldia) (Mota, 2017; Roman, 2018; Mota, 2018).

3.4.6 Irratia

Irratiari dagokionez, eta edukien aldetik, benetan zer gertatzen zen jakiteko beharrezkoa izaten zen atzerriko irratiak sintonizatzea (Pagola, 1977). Horretaz gain, euskararen presentzia oso mugatuta zegoen. Gerraren ostean, eta oraindik ere 60ko hamarkadan euskarazko programazioa folklore eta baserriar arloari oso lotuta zegoen (musika folklorikoak, arrosarioak, eskelak, disko eskainiak...) (Euskaltzaindia, 1979: 184). Gipuzkoa arloan baina Estatuko irratiaren esparruan, euskarak bazeukan presentzia txikia *Radio San Sebastián* eta *La Voz de Guipúzcoa*-n; 1956 eta 1962 bitartean hainbat herri-irradi sortzen hasi ziren, gehienbat elizari lotuta (Seguran, Iruñean, Eibarren, Bilbon, Loiolan eta Donostian) hizkuntza baserri girotik atera eta giro industrialera zabalduz (Díaz Noci, 1998: 446). Baina “elebitasunaren maila, gaietan eta forman euskarari gaztelaniaren maila berbera emanez” oraindik urrun zegoen eta 1976ko martxoaren 27an “24 orduak euskaraz” Anoetako Belodromoan Donostia, Loiola eta Bilboko Herri irratiak antolatutako jaialdia helburu hori lortzeko egiten ari ziren esfortzua adierazten zuen (Euskaltzaindia, 1979: 184-185).

3.4.7 Telebista

1970eko hamarkadan zehar, espainiar telebistak lurralde-zentroak sortu zituen eta 1975ean lehendabiziko aldiz Bilbokoatik astero euskarari minutu batzuk eskaintzen zitzaizkion “Telenorte” albistegiaren baitan. Saio hori bi urtez mantendu zen, 1977ra arte eta, besteak beste, Manu Oñatibiaren parte-hartzea izan zuen. Baina euskararen presentzia ez zen benetakoa izan 1982. urtera arte, Eusko Jaurlaritzak euskal hizkuntza eta kultura babesteko asmoz Euskal Irrati Telebista (EITB) sortu zuen legea onartu zuen arte (Díaz Noci, 1998: 445-446).

3.5 Normalizazioaren ondoren, zer?

3.5.1 Normalizazioaren diskurtsoa

Normalizaziorako bidea, euskara herri-mugimenduaren markotik atera eta erakundeetan sartzea ekarri zuena, hasieratik eztabaidagarria izan zen eta zalantzak gizarte zibiletik instituzioetara egondako indar aldaketak ekarriko zituen ondorioetan oinarritzen ziren.

Lehenik eta behin, Franco hil ostean sortutako marko administratibo berriak eta normalizazioa bermatu beharko lukeenak ez zuelako aintzat hartzen Euskal Herriko errealitate administratibo konplexua (Hego Euskal Herriari dagokionez, Euskararen legeak EAEn eta Nafarroan momentu eta ezaugarri desberdinak izan zituen). Hainbaten ustez, normalizazioaren bidez etorriko zen ustezko elebitasuna, Hego Euskal Herrian euskara eta gaztelera parekatuko zituen eta maila guztietan (kalean zein erakundeetan, erabileran zein prestigioan, etab.) oreka islatuko zuena. Hau da, elebitasunaren ideia horrek, neutraltasunaren diskurtso horrek, asimilazioa hedatzeko balioko zuela. Hori zioen, adibidez, Torrealdai, batez ere aintzat hartuta “hizkuntz borroka” kontzeptuak zeukan prentsa txarra eta hainbat sektoretan politikak eta ikusita euskarak osatutako binomioak zekarren kezka handia (Torrealdai, 1982: 7-8 eta 71). Larrañagaren ustez ere, “normalizazio” kontzeptua “hitz tranpa” izan zitekeen, benetako egoeraren desoreka desdramatizatzen zuelako, hizkuntzen arteko gatazka ukatuz “berdin elebitasun orekatua, berdin legeztatzea, berdin ofizialdikidetasuna” lortzera abiatuz. Bere aburuz, egoera horrek konformismoa zekarren eta egoera minorizatuan egonda konformismoa suizidioaren parekoa zela abisatzen zuen (Uria eta Zumalabe, 1990: 60). Basurkoren iritziz, protagonismoa herrigintzan utzi beharko litzateke eta Administrazioaren papera subsidiarioa izan, “herritarrak diren dinamikak erraztu nahian araudi juridikoak eta bestelako baliabideak sortzeko duen ahalmena” erabiliz (Basurko, 1993: 24).

3.5.2 Normalizazioaren ondorioak

Kike Amonarrizek azaltzen duenez, bi pertsonak euskara erabil dezaten honako hau guztia gertatu behar da: hitz egiten duenak euskaraz jakitea; euskaraz jakinda ere, euskaraz egin nahi izatea; aurrean duenak euskara jakitea (eta bat baino gehiago badira denek jakitea); hitz egiten duenak besteak ere euskaraz badakiela jakitea (gehienetan zalantzarik egotekotan automatikoki erdara erabiltzen da); gaia arrunt xamarra eta ez teknikoa izatea, bestela hizkuntzaz aldatu egingo baita (gaitasun faltaz edo zehaztasun gehiago lortzearen); azkenik, ahozko harremana izatea (Amonarriz, 1991: 40-41)¹⁰. Irizpide horiei jarraituz, eta gaur egungo euskarazko ezaguera maila aintzat hartuta, ez dirudi euskaraz egiteko aukerak topatzea zaila denik. Baina oraindik ere normalizazio prozesuaren ostean den gizartea euskalduntzeko helburua ze punturaino lortu den gai eztabaidagarria da. Ezaguerak eta erabilerak batzuetan egoera paradoxikoak sorrarazten dituztela hizkuntzaren erabilera neurtzeko egiten diren ikerketek edota euskara suspertzeko abian jarritako ekimenek (Euskaraldiak, besteak beste) hala adierazten digute.

¹⁰ Egilearen esanetan, eta 1989ko datuak aztertuz, egoera larria baina itxaropengarria iruditzen zitzaion kontuan izanda sozializazio-esparruak oso mugatuta zeudela (familia, eskola, auzo edo jardueraren arteko lagunak, batez ere). Sozializazio-esparru horiek zabaltzen diren heinean, indizea jaitsiz doa eta galera garrantzitsuena gazteen artean gertatzen da.

Normalizazioari atxikitako espektatibak bete ez izanaren arrazoia, hein batean, motibazio aldaketan egon daiteke. Hizkuntza berreskuratze prozesuan motibazioak izandako garrantziari buruz ez dago zalantzarik frankismoan, euskararen ezaguera eta batez ere erabilera oso murriztuak zirenean. Garai hartako pentsamendua zera zen: zenbait urte pasa ondoren jendea naturalki euskaratzea hizkuntzaren erabilpen aktiboaren ondorioz. Baina euskara galtzearen arriskua pasatu ondoren, motibazioa ahuldu zela adierazgarri gertatu zen, euskararen erabilera jaitsiz eta garai bateko motibazio kapitala galtzearekin batera euskara ikasteko motibazio instrumentala indartzera pasaz (Uria, 1990; Uria eta Zumalabe, 1991: 53)¹¹.

3.5.3 Normalizazioaren argi-ilunak

Martínez de Lunaren ustez, “Garai Gogoangarria”ren ostean, 80-90eko hamarkadetan, “Argi-ilunak” etorri ziren. Aurrekoan ez bezala, garai honen ezaugarri nagusiak erdaldunen inguruan sortu eta “*framing herabea*”n kokatuta egotea ziren. Egilearen hitzetan, “euskararekiko lilura lurruntzen hasi zen, abertzaletasunaren kanpoko sektoreetan batez ere”: hizkuntzarekiko atxikimendua zalantzan jartzen hasi zen, euskara ikasteko ahaleginak egiten zituzten askoren artean frustrazioa zabaltzen zen, eta “euskararen defentsan ordura arte gotorleku izan ziren giro politiko abertzaleak autonomiaren hautuak banatu zituen, baita euskalgintzari zein hizkuntza-politikari dagokionez ere”. Hala ere, Martínez de Lunaren ustez euskara suspertzearen ardura bakarrik alderdi politiko abertzaleen agendetan gorde izan zen modu sinesgarri batean “estrategia zatitu baten bitartez bazen ere” (Martínez de Luna, 2010: 56-57).

3.5.4 Euskararen aldeko mugimendu soziala

Udalerrietako euskararen aldeko mugimendu soziala 70eko hamarkadaren bukaeran hasi zen: esanguratsua da, zentzu horretan, *Euskal Herrian Euskaraz* (EHE) Euskal Autonomi Estatutua onartu eta bi aste geroago Durangoko azokan aurkeztu izana. EHE taldeek “euskararen aldeko borroka sail eta eremu guztietan aurrera eramateko elkarte gisa” funtzionatzen zuten (Agirrebaltzategi, 1995: 19). Talde zabal eta irekia izateko borondatean oinarrituta, Euskal Herriko udalerrietatik zabaldu ziren elkarte horiek, euskalgintza esparru guztietara zabaltzeko helburua zeukaten edozein alderdi politikoarekiko autonomoak izanik. EHEren izaera erreibindikatzaileria euskararen marginalizazioa eta egoera diglosikoa salatzen ekintza praktikoetan erakusten zen (itxialdiak, errotuluen ezabaketa, euskararen aldeko manifestaldiak, kanpainak...). Elebitasun egoera iragankorra izan zedin eta erdaldun elebakarrak elebidun bihurtzeari begira, eragin-esparru nagusietara (irakaskuntzara, administrazioa, komunikabideetara eta zerbitzu publikoetara) zuzendutako euskararen erabilpenaren dinamika bat sortu zuten. 1981-1984 bitartean, EHE taldeek “Euskara benetan Gure Udaletan” kanpainaren barnean Euskal Herriko Hegoaldeko udalei eta alderdi politikoei zuzendu zizkieten beren eskaerak (Arruti, 1995: 32-34).

Udalerrri mailan aurrera eramandako ekimenen artean, 1983an Arrasate Euskaldundu Dezagun (AED) erreferente bihurtu zen, herrietako euskara-elkarteen ildo garrantzitsua hasiz (Agirrebaltzategi, 1995: 19-20). Bere esparrua, izenak adierazten duen moduan, Arrasate zen; bertan, euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio lanari eta dinamikei ekin zieten, bereziki enpresaren eta lan-munduaren

¹¹ Ikastolei dagokienez, D ereduak Euskal Eskola Publikoaren aldeko eztabaida bigarren planoan utzi zuen.

errealitatera egokitzen ziren gabeziak eta beharrak aintzat hartzen zituztenak bultzatuz. Ekimen horrek udal-erakundeen, enpresen eta biztanleen arteko elkarlana erraztu zuen, eta eredutzat hartu zen ez bakarrik jarraipena emateko baizik eta beste udalerrietan ere frogatzeko (Etxeberria eta Arexola-leiba, 1993; Arburu, 1992; Herrarte, 2007).

Nolabait EHEren planteamenduetan oinarrituta, Euskal Kultura Batzarrea (EKB) eratu zen, 1983an. Bere sorrera euskararen berreskurapen osorako ikuspegi eta plangintza orokorrari zuzendutako aurrerapauso garrantzitsua izan zen, ordura arte euskalgintzako sektore ezberdinetan hainbat talde eta erakunde sortuz eta finkatuz joan ziren arren, askotan bakoitza bere sailari oso mugatuta zegoelako (Agirrebaltzategi, 1995: 19-20). Bere ezaugarrien artean topagunea, elkargunea, talde politiko nahiz sozialki lotu gabeko kultur erakundea eta “euskal kulturaren normalkuntza sustatzeko ekintza eta plangintza bateratuetaarako oinarri zabala” izatea zituen. Eginkizun nagusiak lau ardatz hauen inguruan zeuden: jabearaztea, ekintza bateratua, eskakizunak eta plangintza orokorrak. Ildo horretatik, ekinbideen artean Euskararen Egunak, sailez saileko topaketak, matrikulazio-kanpainak, egitasmo bereziak, Dokumentazio-Zentrua, *BAT soziolinguistika-aldizkaria*, aholkularitza juridikoa, ekarpen teorikoak (besteak beste, Euskararen Plangintzarako Oinarriak eta Hizkuntz Normalkuntzarako Ekinbideak Udalerrri mailan) izan zituen (Arruti-landa, 1995: 34-36).

Baina 80ko bigarren erdian herri mailan funtzionatzen ari ziren beste mugimenduen eta erakundeen arteko hutsune bat sortu zen. EKBren ikuspuntutik, euskalgintzaren mundu sozialaren aniztasuna eta aberastasuna, gehi Euskal Herriko zatiketa juridiko eta administratiboak, beste zenbait eragileren artean, elkarte eta erakunde ofizialen arteko koordinazioa zailtzen zuen (Agirrebaltzategi, 1995: 20). Azkenean, “mugimendu sozial euskaltzalearen ‘ghetizazioa’ eta maila batean (auto)marjinazioa eta erakundeek bide paraleloak eraikitzea” etorri zen. Gauzak horrela, 1985 eta 1989 bitartean zenbait talde desagertzeaz gain, EHE gero eta gehiago bihurtuko zen nazio-mailako jarduera eta kanpainak bultzatuko zituen talde bat. Horrela heldu zen Arruti-landak deituriko euskalgintzaren “atomizazio”ra eta, azkenik, elkarrekin jardun behar zuten euskalgintzako harremanen usteldurara. Egileak atomizazio horren eragile nagusitzat “alderdikarien transbertsalizazioa” dauka:

euskalgintzan ziharduten indar nagusiak alderdien diskurtsoetara belaunikatu” izana edo behintzat “hauen eskuetan erori dira, edo eskuetan erori ez direnean ez zaie utzi ihardun ez-alderdikoia garatzen (Arruti-landa, 1995: 34-36)¹².

12 EKBri dagokionez, adibidez, hasieratik Erakundeek EKB ezker abertzalearen inguruko mugimendutzat hartu zuten eta azkenean, bere partaidetzaren esparrua orokorrean esparru politiko-sozial jakin batera mugatua geratu zen. Antzekoa esan daiteke EHEri buruz, ikerlan honetan bere momentuan elkarte horri lotuta egondako bi lekukotasunen arabera.

4.

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua

4.

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua

Euskararen berreskuratze prozesuan, helduak euskalduntze-alfabetatzea helburutzat izan zuten herri-ekimenek ezinbesteko garrantzia eduki zuten, izen ezberdinak hartu arren:

“Izenari buruz, bi hitz. Nik Alfabetatze Euskalduntze Mugimendua deitzen diot. Herri mugimendua delako. Mugimendua koordinaturik dago eta koordinakunde hori batzorde batzuen bidez lortzen da. Hala ere, erabili dira beste izen batzuk” [Gau Eskolak, Alfabetatze Kanpainak, Alfabetatze Euskalduntze Kanpainak Euskal Eskolak, Euskaltegiak] (Legarreta, 1977: 108).

4.1 Mugimendu soziala

Imanol Agotek “mugimendu sozial” batek izen hori hartzeko izan behar dituen ezaugarriak zehazten ditu: bere helburua gizartean eragitea, gutxieneko egonkortasun eta iraupen bat izatea, lurralde oso batean hedatuta egotea eta gizartea identifikatzeko erreferentziak izatea “bai jarreretan, bai diskurtsoan, baita mundu sinbolikoan ere”. Deskribapen horren arabera, euskararen aldekoa mugimendu soziala izango litzateke, bere baitan botere estrategia duten taldeak eta kultur estrategia duten taldeak aurki daitezkelarik (Agote, 1995: 84).

Euskalduntze-alfabetatze mugimendua 1966. urtean sortu zen, zenbait herritan alfabetatze taldeak eratu zirenean. Hasieran Alfabetatze Mugimendu gisa hedatu zen arren, berehala euskalduntzearen indarra gero eta handiagoa bilakatu zen. Garai hartan, Rikardo Arregi izan zen aitzindari eta animatzaile nagusia (Iñigo, 1992).

Fenomenoa bera nola sortu zen oso esanguratsua da mugimenduaren izaerari dagokionez: Jose M^a Satrustegik 1965eko azaroaren 28an Baionako Euskal Museoan emandako hitzaldian, euskaltzaletasuna sustatzearen beharraz hitz egin zuen. Rikardo Arregik ideia hori hartu zuen eta apaizari eskutitz bat idatzi zion, “alfabetizazioko kanpaña” abian jarriko zuela jakinaraziz:

“Jaun apeza: Zuk Baionan esandakoak kontuan arturik laguntzaille gazte batzuek gure eginkizuna bete nai dugu Euskaltzaindiaren barruan. Ortarako gure adiskideekin batera euskeraz irakurtzen eta idazten ez dakiten euskaldunei ori egiten erakusteko jokabide batean pentsatu dugu” (Larrea, 2005, 214).

Arregiren eskutitzak berak oso jarrera proaktiboa erakusten zuten laguntzaile gazte batzuek hitz egiten zuen, zeintzuk ideia aurrera eramateko prest eta gogotsu baitzeuden. Anekdotikoa badirudi ere, 60ko hamarkadako euskalduntze eta alfabetatze mugimendua “belaunaldi berriak eragindako euskal adimenaren eta sentimenduaren berritze prozesu”aren testuinguruan kokatu behar da¹³. Bestaldetik, alfabetatze edo euskalduntze kontzeptuetan ezin ditugunez bakarrik arlo linguistikoak aintzat hartu, alfabetatze kanpainak antolatzean, euskaldunak bere hizkuntzan alfabetatzea zitezen bezain garrantzitsua zen euskal kultura euskaraz eskuratzeko beharra (Mujika, 2007: 40).

4.1.1 Ezaugarriak

Euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren ezaugarriak honako hauek lirarteke (Legarreta, 1977; Euskaltzaindia, 1979; Iñigo, 1992; Odriozola, 1992; Larrea, 2005; Larrea eta Maia, 2013):

- Euskal Herri osoan zabaldu zen eta, nahiz eta une ezberdinetan hasi eta erritmo eta intentsitate ezberdinak izan lekuen arabera, lurralde guztietan eman zen.
- Euskalduntzea eta alfabetatzea bi prozesu ezberdin izan arren, helburu bera zuten, hiztunek euskarazko hizkuntz gaitasun osoa izatea, alegia.
- Mugimendu berantiarra eta modernoa izan zen, XX. mendeko azken herenera arte guztiz ezezaguna baitzen.
- Mugimendu hiritarra dela esan daiteke, herrietan ere gertatu zen arren, batez ere hirietan garatu zelako.
- Gainerako helduen alfabetatze prozesuekin ez bezala (irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak direnean), oro har maila kultural ertain edota altuko pertsona izaten zen, normalean, lehenengo alfabetizazioa gazteleraz edo frantsesez jaso zuena.
- Parte-hartzaileen profilari dagokionez, orokorrean jende gazteaz osatuta zegoen, emakumezkoen presentzia nabaria zelarik, eta gehienbat (baina ez erabat) Euskal Herrian jaioetako lagunek hartzen zuten parte.
- Euskaraz alfabetatzearen edo euskalduntzearen arrazoiari erreparatuz, hein handi batean, kontzientzia nazionalak pizten zuen euskara ikasteko motibazioa.

¹³ Hala ere, 50eko hamarkadan zehar ere baditugu euskararen irakaskuntza-ikaskuntza sustatzeko ekimenak, besteak beste, Lazkaon eta Elgoibarren, bertako euskalduntze eta alfabetatze taldeei bidea irekiko zietenak (Sarriegi, 1999; Arrizabalaga eta Larrañaga, 2001).

- Herri-dinamikaren garrantzia: herritarren lankidetzaren ezinbestekoa izan zen, eta irakasleen zein ikasleen partaidetza bidez gainontzeko hiritarrak euskalduntze eta alfabetatze prozesuan barneratzen saiatzeko dinamikak sortu ziren.
- Auzolana: hein handi batean diru edo beste baliabideen falta zela eta, gizarte eragile ezberdinek elkarri laguntza eman zioten.
- Frankismoaren aurkako jarrera: ikastolekin bezala, helduen alfabetatze-euskalduntze mugimendua hizkuntz nazioaren eraikuntzarako ezinbestekoa zen.
- Ibilbidea: hezkuntza eta gobernu erakunde ofizialetik kanpo sortu zen. Hego Euskal Herrian, sortu zenetik 80ko hamarkadara arte ez zen arautu ezta diruz lagundu ere. Koiuntura politiko ezberdinetan zehar, legaltasun forma ezberdinak izan zituen (hasieran, ilegala; frankismoaren azken bi urteetan, alegala; trantsizioaren urteetan, paralegala; azkenik, Eusko Jaurlaritzaren sortu eta Euskararen Legea onartu zenean, legala).
- Dinamismoa: sortu zenetik 80ko hamarkadaren erdira arte izandako aldaketak ez ziren bat-batean gertatu eta, beraz, orokorrean ezin da data zehatzik jarri.

4.2 Garaiak

“Ez dago alfabetatzea eta euskalduntzea ulertzeko modu bakarra”, dio Larreak, eta horregatik “jarduera horien helburua zein zen kontuan harturik, planteamendu, aro, metodo eta ikastaldi ezberdinak antolatu izan dira”. Planteamendu murriztatetik (idazten eta irakurtzen ikastea) euskal gizartearen uztarturiko planteamendu zabal bateraino “aukera ezberdinak aurki daitezke: lehenengoa metodo tradizionalei atxikitzen zaie eta bigarrena, berriz, komunikazio jokabideari” (Larrea, 2005: 270).

4.2.1 Alfabetatze murriztua

Alfabetatze moduak, euskararen erabilera ofiziala eta kode ideologikoak aintzat hartuta, Pauli Dávila, 1940-1969 bitartean kokatzen du alfabetatze prozesuari dagokion lehenengo garaia, “Alfabetatze murriztua” deritzona. Ia hiru hamarkada horietan zehar alfabetatze modu literarioan oinarritu zen, erabilitako metodoak gehienbat gerra aurreko didaktiketan oinarritzen zirelarik. Garai honetan orden erlijiosoek, batez ere frantziskotarrek eta benediktarrek, alfabetatze-ekimenetan parte hartuko dute, besteak beste, ikastaroen zein argitalpenen bidez. Euskararen erabilpenari dagokionez, errepresioa eta klandestinitatea zirela eta, esparru pribatuan mantentzen zen eta testuinguru sozial murriztuetan. Hala ere, bazeuden nolabaiteko hedakuntza zuten argitalpenak (gai erlijioso zein akademikoak lantzen zituztenak), parrokia-irratia, diskoak... Epe honen azken urteei dagokie euskararen estandarizazioari zuzendutako pausoak, batuerari hasiera emanez eta hizkuntz-normalizazioa (ikastolen bidez) bideratuko duena. Ideologikoki, errepresiopeko ideia nazionalista tradizionalak edo sabinistak nabarmentzen ziren, adibidez erlijioan eta arrazan oinarritutakoak, baina 60ko hamarkadaren bukaeran kulturalki zein politikoki beste planteamendu erradikalagoek indarra hartuko zuten (Dávila, 1993: 155-156).

Horrela, Euskaltzaindiari lotuta jaio berria zen Alfabetatze Batzordeak (besteak beste Rikardo Arregik bultzatuta), alfabetatze kanpainak antolatzen zituen, euskaldunak bere hizkuntzan alfabetatzezen, eta horretaz gain euskal kultura euskaraz eskuratzeko beharra ikusten zuelako. Bestaldetik, Batzordeak arlo pedagogikoan ere ekarpenak egin zituen, adibidez, *Lehen urratsak* liburuxka, *Euskalduntzen metodoa* eta Eusebio Osaren *Pedagogia eta Gizartea* metodoekin (Mujika, 2007: 40). Euskaltzaindiak alfabetatzea bermatuta, Rikardo Arregik zuzendutako lehenengo alfabetatze kanpainak bere mugak apurtu zituen. Besteak beste, helduak helburu nagusia izan arren, umeentzat ere ekimen bereziak sortu ziren, hala nola *Kili-Kili* kanpainak (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994: 107).

Kepa Larreak eta Julian Maiak, ordea, lehenengo garai honen kronologia 1950-1971 bitartean kokatuz, Rikardo Arregiren eraginagatik eman zen kontzientziaren sorkuntzarekin lotzen dute. Rikardo Arregi eta Jarrai taldeak 1966an Euskal Herriko hainbat leku ezberdinetan abiatutako kanpaina zehatzek benetako bultzada eman zioten ordura arte sasiklandestinitatean jazotako ekimenei, iniziatiba solteei forma emanez. Kanpaina horien aurrekariak alde batetik Euskal Herrian zehar sakabanatutako helduen alfabetatze eta euskalduntze taldeak ziren eta bestetik Bigarren Mundu Gerraren ostean hainbat lurraldeetan antolatu ziren alfabetizazio kanpainak (Israelen, Txinan, Cuban...), Euskal Herriko mugimendu kulturalak eredutzat hartu zituztenak. Planteamendu existentzialetatik abiatuta (Heidegger, Sartre edota Camusen eskutik) Arregik helduen alfabetatzea gizakiaren osotasunaren eta auto-kontzientziaren eragiletzat hartzen zuen, kultur proiektu zabalago baten baitan kokatuz eta ohiko kontzepzioak eraldatuz. Modu horretan, motibazioak filologikoak, sentimentalak edo erlijiosoak izatetik osagarri ideologiko eta politikoak izatera pasa ziren. Horrekin batera, ikasle taldeak gero eta heterogeneoagoak izan ziren (maila kultural, sozial eta motibazio ezberdineko pertsonak) eta 70eko hamarkadaren hasieran batuak beste euskalkiak baztertu zituen klaseetatik (Larrea eta Maia, 2001: 31-33).

Garai hartako ezinbesteko mugarri gisa euskararen batasuna gauzatzeko ekimena dugu. 64an abiatu zen, “Euskal Idazkaritza” elkartearen itzalpean antolatu eta burututako Baionako Biltzarrean, “Euskara batua” deituko zen hizkuntz-ereduaren oinarriak ezarriz. 1968an, sortu berria zen “Idazleen Elkartea”k bultzaturik eta Euskaltzaindiaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzen artean, urriaren 3tik 5era egindako Batzar Nagusian hartutako erabakiak (“ondorengo urteetan eztabaida garrantz ugariaren iturri bilakatuko zirenak”) estandarizaziorako oinarritzko arauak ezarri zituen (Zuazo, 1988: 333-334). Arantzazuko Batzar horretan bultzatutako ahalegin horrek:

“hizkuntzalaritza hutsaren mugak gainditzen zituen. Euskararen batasun prozesuari ekiteak euskara eta euskaldun herria mende luzez zokoratzeko lagungarri izan zen oztopo bat gainditzea zuen helburu: diglosia” (Azurmendi et al., 2000).

Gertakizun horrekin batera etorri zen euskal literaturaren hazkundera, baita prentsarena eta argitalpenena ere. Bereziki azken horri lotuta, euskararen transmisioan emandako pausoei (bai lehen hezkuntzan, ikastolen bidez, eta bai helduen artean) sortarazitako irakaskuntza metodoak, hiztegiak, eta abar (Euskaltzaindia, 1978: 24-26).

4.2.2 Alfabetatze hedakorra

Dávila 1970-1980 bitartean kokatzen du bigarren fasea, “Alfabetatze Hedakorra”rena, hain zuzen ere. Bertan, dinamika aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: helduen artean, “euskaldunberri”en kopurua igo eta alfabetatzen zirenean, aldiz, jaisten joango zen, lehen alfabetatzea ikastolen esku geratzen zen bitartean. AEKren eskutik, Euskal Herriko lurraldeetan funtzionatzen zuten “gau eskola” eta “euskal eskolak” koordinatu ziren, didaktika aldetik ekarpen garrantzitsuak eginez (material berriak sortuz, ikasketa prozesuak eta hizkuntzaren erabilpenaren testuinguruak lotuz, irakasleria prestatuz...).

Ekimen horren helburu nagusia hizkuntzaren berreskurapena ardatz izango zuen proiektu nazional batean aldarrikapen berriei erantzuna ematea zen eta, horrekin lotuta, gizartean eragin handia izango zuten mota ezberdinetako kanpainak sortuko ziren. Haien artean, 1978ko “Bai Euskerari” izenekoak, hizkuntzaren egoerari buruzko kontzientzia hartzen lagunduko zuena eta Euskaltzaindiaren papera indartuko zuena. Euskararen erabilerari buruz, bizitza pribatuko zein publikoko hainbat esparru hartuko zituen, erabilera instituzionala eta erreibindikatioa era konplexu batean uztartuz. Ahozketasunari dagokionez, garai hartako Euskal Kantagintza Berria eta irratan euskarazko programazio zabalagoa aipatu behar dira. Irakurmenari dagokionez, jauzi kualitatibo zein kuantitatibo bat nabaritu zen urte haietan, euskarazko argitalpen (aldizkariak, liburu literarioak, zientifikoak, hezkuntzari buruzkoak...) eta argitaletxeekin. Gainera, estandarizatze-prozesuan alfabetatze teknikoan arituko ziren UEU eta UZEI agertu ziren, eta euskararen normalkuntza publikoa eskatzeari begira, Euskal Herrian Euskaraz (EHE). Azkenik, eta batez ere garai honen bukaera aldean, kode ideologikoaren birdefinizio bat jazo zen eta nazionalismo tradizional hegemonikotik euskal nortasuna hizkuntzaren aldarrikapenean oinarritzera pasa zen. Birdefinizio horretan, etorkinen integrazioaren aldeko jarrera erakutsi zen eta “Euskadi euskaldun” leloa behin eta berriro errepikatu zen. Testuinguru horretan, konstituzioaren bidezko egitura berriak eta autonomiaurreko garapenak izandako garrantzia aipatu behar dira (Dávila, 1993: 156-157).

Larrea eta Maiaren ustez, garai hartan hiru planteamendu berezitu behar dira: heziketa askatzailea (Eusebio Osa), alfabetatze literarioa (Euskaltzaindia) eta borroka aldarrikatzailea (AEK).

Heziketa liberatzailea Paulo Freireren ideietan oinarrituta zegoen, alfabetizazioa ikuspuntu marxista-kristau batetik ikusten zuen eta hezkuntzaz hitz egin beharrean heziketaz mintzatzen zen. Hain zuzen ere, “heziketa transformatzailea”z, eboluzio kulturean oinarrituta, bizitzan eta elkarlanean garatzen baita gizakia. Freireri jarraiki, heziketaren helburua gizakia askatzea da, hezkuntza eta alfabetatzea horretarako tresnak izanik (Larrea eta Maia, 2013: 33-34).

Alfabetatze literarioa 1972an hasi zen, mugimenduari nolabaiteko antolamendua eman nahian edo; Euskaltzaindiak bere baitan hartu eta jagon sailaren barnean kokatu zuen. Garai hartan, herrialde bakoitza bere kabuz antolatzen zen, hedakuntza eta erritmo ezberdinak izanda lurralde bakoitzeko ezaugarri soziolinguistikoen arabera (garatuagoa Gipuzkoan eta Bizkaian, Araban eta Nafarroan baino) (Iñigo, 1992: 187-188). Urte berean, Euskaltzaindiak, alfabetatzearen alde formalari erreparatu, *Alfabetatze Batzordearen Oinarri Arauak* argitaratu zituen. Xedeen artean, “euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea” eta horrekin batera “euskal literatura, euskararen batasuna, euskararen geografia

eta dialektologia”, eta abarreko gaiak sar zitezkelarik. Hau da, Alfabetatze Batzordea bakarrik alde literarioaz arduratuko zen, gainontzeko gaiak baztertuz (Larrea, 2005: 155).

Borroka aldarrikatzailearen eredu gisa AEK dugu. 1976an Euskaltzaindiaren babesean Alfabetatze Euskalduntzearen Koordinakundea sortu zen urte berean, *Anaitasuna* aldizkariarentzat alfabetizazioa “kontzientzien sortzailea” izatetik “borroka modu bat” izatera pasa zen, planteamendu iraultzaile batean barne (Larrea eta Maia, 2013: 33-34).

1974-1975 ikasturtean ikasle kopurua handitu zen, aldi berean alfabetatze eta euskalduntzearen garrantzia eta bestetik gabeziak (irakaslego kopuruan, azpiegituran, baliabideetan...) erakutsiz. Ikasturte berean, Gipuzkoako Gau Eskolen Elkartea sortu zen eta 1976an *Anaitasuna* aldizkariak aurrerapauso bat eman zuen alfabetatzea ez ezik, euskalduntzea ere aipatuz. Urte berean, Bizkaian Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea sortzea pentsatu zen, Euskal Herri osora hedatzeko eta arlo horretan ziharduten talde guztiak koordinatzeko asmoz. 1976-77 ikasturtean zehar, Bizkaia eta Gipuzkoa herrialdeen arteko bilkurak egin ziren. Bizkaiko euskal eskolen koordinazioan oinarrituta, *Alfabetatze Batzordea* izenaren ordezt *Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea* (AEK) izena hartu zuen (Iñigo, 1992: 187-188; Mendizabal, 1992: 18)¹⁴.

1977-1978 ikasturtean didaktika taldea eratu zen eta metodologian sakontzeko *Urraspide* aldizkaria argitaratzen hasi zen euskara irakasleen gida moduan. 1979an, sortu berria zen Eusko Kontseilu Nagusiak euskaldun alfabetatzea egituratzeko proposamena egin zion AEKri eta hark baldintza gisa bere barne funtzionamendua eta lurraldetasuna mantentzea jarri zituen, erantzunik jaso gabe. 1980an *Urraspideri* jarraipena emanez *Hormairudiak* metodoa atera zuten, komunikazioan oinarrituta eta lehenengo *Korrika* antolatzen hasi zen, Oinaitik abiatuta Bilbon amaitu zena (Mendizabal, 1992: 17-18).

Datu kuantitatiboetarako erreferentziatuz, 1978ko Siadecoren informeak zioenez, AEK-k 30.000-40.000 pertsonen ikaskuntza kudeatzen zuen. 1970eko hamarkadan zehar, beste talde batzuk ere baziren bitartean (Labayru, 1970; Euskerazaleak, 1970; Mendi Berri, 1971), 1976-1977 urtean Hego Euskal Herriko hiriburuetan euskaltegi nagusiak sortu ziren (hasieran AEKren barruan eta gero AEKtik kanpo: Ilaski, Donostia; Ulibarri, Bilbo Zaharra eta Gabriel Aresti, Bilbon; Arturo Campion, Iruñean...) eta 1981ean, Baionan (Larrea eta Maia, 2013: 33).

Kualitatiboki, helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesua geografikoki hedatzen ari zen, eta gainera, garrantzi handia hartu zuten zenbait ñabardura zituen. Ordurako Euskaltzaindia eta AEKren arteko desadostasunak (antolamenduan, finantzaketan, kontrol-sisteman...) nabariak baziren ere, 1980ko *Korrika* horretan askoz ere nabarmenago geratu ziren lekukoan Arregik Satrustegiri bidalitako testua galtzearen ondorioz Julen Kaltzadak Bizkaiko AEKren ordezkari gisa beste testu bat irakurri zuenean. Halako erritu kolektibo garrantzitsu baten testuinguruan (bertan ekintza, parte-hartzea, hizkuntzaren dimentsio sinbolikoa zein aldarrikatzailea eta hainbat osagarri elkartzen baitira) (Del Valle, 1988: 285) ez da hutsala AEKren eta Gobernuko Hezkuntza Sailaren arteko gatazka adierazi izana; are gehiago, antolatzen zen lehenengoa izanda.

14 Iñigok 1977an kokatzen du izen-aldaketa. Jon Mari Mendizabalek, aldiz, 1976an.

4.2.3 Garai instituzionala: AEKren eta HABEren arteko gatazka

1981etik aurrera hasiko zen Paulí Dávilak deitutako hirugarren garaia edo “Alfabetatze instituzionala” (Dávila, 1993: 158). Urte hartan hiru mugarri egongolirateke: alde batetik, AEK-k helduen euskalduntze-alfabetatzerako egitasmoa kaleratu zuen, nazio mailan herriaren parte hartzea kontutan hartuz eta kudeaketa demokratikoan oinarritutako zerbitzu publiko (beraz, doako) gisa; bestetik, Jagon sailak AEK Euskaltzaindiatik kanpo uztea erabaki zuen, hura erakunde autonomoa bilakatu zelarik; azkenik, bere koordinazioa Ipar Euskal Herriraino eraman zen, bertako gau eskolek AEKren barruan koordinatzeko erabakia hartu baitzuten (Mendizabal, 1992: 18; Iñigo, 1992, 187-188).

Aurreko garaian lehen alfabetatzea ikastoletan oinarritu bazen ere, oraingo honetan “D” ereduak eskola-sareetan sartzea mugarri bat bihurtu zen. Instituzionalki, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Legea (1982) eta Nafarroako Euskararen Legea (1986) izan ziren ardatz. Bi lege horien ondorioz, lehenbiziko aldiz, euskara ofizial bihurtu zen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako iparraldean; Nafarroako erdialdean (eremu mistoan), sasi ofiziala eta gainontzeko lurraldeetan, ordea, ez. Ikasleek sare publikoan euskaraz ikasi ahal izango zuten, eta administrazioak euskaldunen eskubideak bermatzeko konpromisoa hartu zuen (Artza, 2017: 116). Euskararen erabilerari dagokionez, esparru publikoko maila guztietatik zabaldu zen, administrazioetik komunikabideetara (1982an EITB, 1990ean euskal egunkaria...).

Helduei dagokienez, euskaltegiak zabaltzeaz gain, testuak, metodoak, eta abar ugaritu ziren; erabilera sozialen ordean, euskararen erabilera instrumentala nagusitzen hasi zen, gaitasun linguistikoak lortzea ezinbestekoa baitzen lanpostu bat eskuratzeko. Bi planteamendu aurkituko ditugu garai horretan, instituzionala (Eusko Jaurlaritzak hauspotutako HABEn gorpuztuta) eta alternatiboa (AEK). Hasieratik, bi erakunderen arteko harremanak konplexuak izan ziren, bakoitzak proiektu bat irudikatzen baitzuen eta laster bien artean gatazkak sortu ziren batez ere finantzaketa eta homologazioari dagokionez (Dávila, 1993: 158-160). Izan ere, 1978an Eusko Kontseilu Nagusia sortu zenetik, erakunde horren eta AEKren arteko desadostasunak hasi ziren eta horren ondorioz AEKren historia eta eboluzio oso baldintzatua egon da beti.

HABE (Helduen Alfabetatze-Berreusalduntzerako Erakundea) 1981ean hasi bazen ere, 1983an izan zuen sorrera formala, Euskal Elkarte Autonomoko legebiltzarrak HABESEA (azaroaren 25eko 29/1983) izeneko legea onartu zuenean “Helduen Alfabetatze eta Berreusalduntzerako Erakundea sortarazteko eta Euskaltegiak Araupetzeko” asmoz. Erakunde horren funtzionamendua eta gobernu-organoak zehaztearekin batera, bere zereginak ere arautu zituen: helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen sustaketa; hori lortzeko metodo eta baliabideak bilatzea eta ikerkuntzaren sustapena; material didaktiko eta pedagogikoa sortzea eta argitaratzea; “irakastegietan egitarau bereziak egitea; irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz ikastegiak sustatzea” (Zabaleta, 1993: 11). Hau da, euskararen irakaskuntzaren arlo formalera mugatuta gelditzen zen, kulturatze prozesuan jardun gabe, kontzientziatze edo post-alfabetatze beharrik planteatu barik (Larrea, 2005: 161). Bere osagarriak, beraz, kulturalki txertatuta egotea, apolitikoa izatea, arlo linguistikoan fokuratuta egotea eta batuan oinarritzea ziren (Larrea eta Maia, 2013: 36). HABEren ikuspuntutik, bere eginkizuna euskal gizarteari euskaldun irauteko laguntza ematea zen, belaunaldiz belaunaldi transmisioa mantentzeko gai izan arren momentu horretan beharrezkoak zituelako euskaltegiak (eta euskal eskola). Horretarako

saiatu zen uztartzen hizkuntz formen ikasketa eta lau hizkuntz trebetasunen garapena (ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmenarena), ezagutza eta erabilera lotzen eta “hasiera-hasieratik hasi ziren euskaltegiak eta barnetegiak euskaldun osoak sortzen” (Erkizia, 2007: 32).

Bestalde, HABESEA legearen beste ondorio garrantzitsu bat HABEren bidez Administrazioak euskaltegien kontrola lortzea izan zen. Hasteko, pribatuen eta publikoen artean sailkatu zituen eta azkenengo horiek “Jaurilaritzaren Dekretoz sortarazi eta HABEri eratzikitakoak eta Foru Diputazioek, Udalek edo hoi menpeko erakundeek sortarazitakoak” izango ziren. Pribatuak, aldiz, bi eratakoak izan zitezkeen: homologatuak (irakaskuntza-ahalmen osokoak) eta libreak (ziurtagiri ofizialik emateko gaitasunik ez zutenak eta herri-euskaltegi bati atxikita egon behar zutenak). Sailkapen horren arabera diru-laguntzak banatzeaz gain, eragin zuzena zeukan irakasleriarengan, euskaltegi publiko eta pribatu homologatueta aritzeko ezinbestekoa baitzen magisterioduna, diplomatua edo lizentziatua izatea eta EGA edo balio bereko beste tituluren bat izatea. Paraleloki, AEK-k kontsolidazio prozesu bati ekin zion. 1981ean, Zestoan eginiko mintegian, euskaltegien koordinatzailea izatetik benetako erakunde izatera pasatzeko lehenengo pausoak eman ziren Euskal Herri mailako proiektu bateratu bat aurrera ateratzeari begira. 1982an erakundea legalizatzeko prozesua amaitu zen, legalki asoziazioaren figura hartuz (Zabaleta, 1993: 12-13).

AEKren ikuspuntutik, HABESEA legeak eragin handia izan zuen haiengan: euskaltegi-sare oso sakabanatua sortzen zuen, euskaltegien arteko harremana sustatu gabe; euskara ikastearen doakotasun eza zekarren; ikerketa eta formakuntza arloak landu gabe gelditzen ziren; plangintza orokorraren gabezia sumatzen zen eta, ondorioz, gizarte osoa euskalduntzeari begira euskalduntze masiboaren planteamendu falta; azkenik, ikasle kopuru handiena izan arren, baztertuta egotea diru-laguntzak lortzeari begira, besteak beste, zentro libreetan irakasleriaren baldintzak gogortu zirelako, bai eskatzen zitzaizkien tituluei begira, baita taldeko gutxieneko ikasle kopuruari begira ere (Mendizabal, 1992: 19-21).

Horregatik guztiagatik, HABESEA legeak “Euskal Herria berreuskalduntzeko proposatzen den alternatiba bakarra desagertzeko arriskuan” jarri zuela ulertuz, AEK alternatiba gisa aurkeztu zen, “Euskararen herri-ikaskuntza bidez, nazio osoko pertsona nagusiak berreuskalduntzeko erakunde herritar” gisa. Horiek izango ziren bere ardatzak: irakaskuntzaren autonomia, kudeaketa demokratikoa, herri-dinamika, lurraldetasuna eta publikotasuna. Hilabete batzuk geroago, HABEri proposamen bat luzatu zion, lau puntutan oinarrituta: “helduen alorreko ikaskuntzaren doakotasuna, AEKn egindako ikaskuntzaren aintzatespen soziala, AEKren ageriko aintzatespena eta irakasleriaren homologazioa”, ezezkoa jasoz. Gauzak horrela, eta egoera diglosikoari aurre egiteko, 80ko hamarkadaren erdialdera bere estrategiak kulturgintzaren bidea hartu zuen, irakaskuntza “klaseetatik atera eta ahalik eta toki gehienetan intzidituz” (Zabaleta, 1993: 17).

Hau da, HABE eta AEK proiektu ideologiko ezberdinetan oinarritzen ziren. Alde batetik, lehenengoaren aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango zen eta bigarrenarena, ordea, Euskal Herria. Bestaldetik, helburuei dagokionez, HABESEA legeak gizarte-elebitasuna xedetzat hartzen zuen (beraz, hizkuntzaren erabilera instrumentala bultzatzen du; AEK-k, aldiz, ideia hori baztertzen zuen hizkuntza batek beti ordezkatzan zuelako eta, hortaz, helburua Euskal Herria berreuskalduntzea zen, euskara hizkuntza nazionala bihurtuz eta erabilera soziala bultzatuz (Zabaleta, 1993: 13). Estatusari

dagokionez, bata “ofiziala” zen (horrek zekarren aintzatespenarekin, tituluak emateko gaitasunetik finantziatziora) eta bestea ez, “alternatiba” gisa agertuz. Horrela, “AEK, nahiz eta izaera publikoa aldarrikatu, ekimen pribatu gisa funtzionatzera behartuta dago” (Mendizabal, 1992: 20). Zentzu horretan ulertu behar dira *Korrika* bezalako ekimenak, euskal hizkuntza eta identitatearen irudikapen sinbolikoak direnak (Dávila, 1993: 158-160).

Bi erakundeen planteamendu ezberdinak beste eremuetan ere islatzen ziren. **Didaktikoki**, erabilitako materialak ezberdinak ziren: AEK-k *Hormairudiak* argitaratu zituen 1982an (laminak, mintza-praktikara bideratuta) eta HABE-k, ordea, bere *Langaia*k (1984, fitxa-bilduma, zenbait material laguntzaile erabiliz) (Larrea eta Maia, 2013: 35-36)

Irakasleriari dagokionez, HABESEA legearen kontrako AEKren argudioak bikoitzak ziren: alde batetik, irakasle gehienek ez zituztenez legeak zehaztutako titulazio baldintzak betetzen, diru-laguntzak eskuratzeko eskubidea murrizten zen (mota bateko eta besteko euskaltegiek finantzazio iturriak eskuratzeko sarbide ezberdinek langileen lan baldintzetan, besteak beste, dakartzaten ondorioekin).

Bestaldetik, unibertsitate edo euskara tituluek ez dutela kalitatezko irakaskuntza ziurtatzen planteatzen zuen. Azken argudio horrek, hain zuzen ere, instituzionalizaziotik kanpo garatutako euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduari atxikitzen zaizkion hainbat ezaugarriekin lotura zuzena dauka: irakaslegoaren motibazioa eta boluntarismoa. Izan ere, hona hemen, HABEk irakaslegoaren profesionaltasuna bermatzeko beharra adierazten duen pasarte bat, non irakasle prestatua oinarritzko prestakuntza izateaz gain etengabe eguneratzen dena definitzen duen, honako hau gehituz: “nahitaezkoak ditugu irakasle amateurraren borondate ona eta sena, baina ez nahikoak; nahitaezkoak ditugu irakasle militantearen sua eta pazientzia, baina ez nahikoak” (Larrea eta Maia, 2013: 35-36; Erkizia, 2007: 34).

AEK eta HABEren arteko gatazkan **euskara patrimonializatzearen arazoa** islatzen da, hau da, nori dagokion hizkuntza zaintzea eta transmititzea. Lehenengoak bere antzinatasunean eta frankismo garaian bizi izandako egoerari eusten zion bere eskubidea defendatzeko, euskararen ikaskuntza-irakaskuntza klandestino eta arriskutsua zenean. HABEk, aldiz, bere sistema edonorentzat eskuragarria zela zioen, ez zegoela diskriminazio ekonomikorik edota linguistikorik eta bere funtzionamendua parte-hartzailea zela. Hau da, bata mugimendu sozial eta linguistikoan oinarritzen zen bitartean, bestea gobernuko egituraren txertatuta egoteak dakarren legimititatean eta profesionaltasun maila handian oinarritzen zen. Paradoxikoki, AEK instituzio pribatua eta HABE publikoa izanda, lehenengoak publikoago, herrikoiago eta ordezkagarriago bezala aurkezten zuen bere burua eta bigarrenak, ofizial eta legitimatzaile gisa (Del Valle, 1988: 286)¹⁵.

¹⁵ Bi erakunde horien borroka 1995ean eten zen, 5 urteko esparru-akordio bat sinatuz: AEK-k HABEren dirulaguntzetara sarrera izango zuen hainbat baldintza betetzen bazituen; horren truke, HABEk bere euskaltegiak disolbatuko zituen (baina ez udalenak) eta aitortuko zuen AEKk 80ko hamarkadatik aurrera eginiko esfortzua. Baina bestaldetik, AEKren planteamenduek irakasleen kopuru handi bat galtzera eraman zuten. 1989an, gainera, AEKren baitan eszizio bat izan zen, IKA, gehienbat Araban eta Nafarroan eragina izan zuena) (Larrea eta Maia, 2013: 35-36).

5.

Helduen gau eskolak Gipuzkoan

5.

Helduen gau eskolak Gipuzkoan

Orain arte helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua euskalgintzaren testuinguruan kokatu dugu, Euskal Herrian zein Estatuan gertatu ziren beste aldaketa eta fenomenoen testuinguruan. Atal honetan beste pauso bat emango dugu Gipuzkoako gau eskolen nolabaiteko egunerokotasuna (antolakuntza, materialak, logistika, ikasleria, irakasleria...) ezagutzen joateko Errenteriako kasu zehatzean sartu aurretik.

5.1. Gau eskoletatik euskaltegietara egindako bidea

Ikasleriaren profila aintzat hartuta, eskolak lanbidearekin, ikasketekin edota familiarekin uztartu beharrak iluntze aldera eraman zuen eskolen ordutegia, eta hortik dator “gau eskolak” izena. Baina egoera hori aldatuz joan zen. Lazkaon, adibidez, hasieran ikastorduak arratsaldeko azken orduetan izaten ziren, baina geroago bazkalondoetara ere eraman ziren, eta 1975ean udako ikastaro trinkoak ematen hasi ziren. Hortaz, 1977-78an Goierriko Gau Eskolak izena aldatzea proposatu zenean arrazoia oso argi zegoen:

“gauekoa baino gehiago delako, eta batez ere, gehiago izan behar duela uste dugulako: gauez ez ezik, egunez ere lan egiten du eta areago egin beharko du: lantegietan, iluntzeetan ezin duten guraso eta besterekin, eta abar; azkenean, Euskal Eskola izena hartu zuten” (Amundarain, 1991: 33; Odriozola, 1980: 11).

Edonola ere, izenaren bilakaerak berak ere sendotze prozesu baten berri ematen digu: eskolak ilunabarretara mugatuta egotetik (askotan utzitako lokaletan, non eskolak ahal ziren moduan ematen baitziren) egun osoan zehar funtzionatzen zuen leku fisiko egonkor batera eramaten gaitu.

5.1.1 Zer suposatzen zuten gau eskolek?

Joxe Manuel Odriozolak proiektuaren kitzikagarritasuna azpimarratzen zuen, dimentsio linguistikoarekin batera kontzientzia abertzalea eta nazio-identitatea baitzeuden: alde batetik, ezin zen euskal identitaterik gabeko euskararen ikasketa planteatu, hizkuntza bat normalki erabiltzeko hizkuntza horren herri-kulturan murgiltzea beharrezkoa baita. Bestetik, hizkuntza bat, nazio-identitatearen ikur nagusia den heinean, herri proiektu zabalago baten testuinguruan txertatzen delako, eta euskarari dagokionez euskal nazioaren markoan kokatu beharra zegoelako; azkenik, lehenengo urratsak ematen zituen euskara batuak identifikazio-mekanismo bezala jokatu zuen, batez ere bere idatzizko gaitasunaren lorpenari zegokiona. Gainera, Odriozolaren ustez, gau eskolen jardunbidea erdi ezkutatua eta erdi legala zenez, “abentura” bat suposatzen zuen, “ikastolen herri-mugimendua eta euskal kantagintza izan ziren zentzu bertsuan” (Odriozola, 2007: 50-51).

5.1.2 Fenomenoaren ahuleziak eta aztertzeo zailtasunak

“Gau eskolen fenomeno oso egitura ahul eta hauskorretan erne eta zurkaiztu zen. Oztupoz beteriko bide malkartsuan”. Horrela azaldu zuen Joxe Manuel Odriozolak “euskaltzaleen borroka” gisa deskribatzen duen fenomeno (Odriozola, 2013: 612).

Zailtasunak gelan bertan hasi eta kaleraino heltzen ziren, mugimenduaren beraren indarra zen boluntarismoa arrisku bihurtzen baitzen. Kepa Larreak adierazten duenez, zenbait kasutan ez ziren gutxieneko baldintzak betetzen irakaskuntza eraginkorra izan zedin “ez irakasleen aldetik, ez lokalen aldetik ez eta metodologiaren aldetik ere”. Gainera, ahalik eta ikasle gehien eta arinen euskaldundu ahal izateko ikasketa naturalari uko egin zitzaion egiturak erraztuz (adibidez, “zailak” edo “gutxi erabiliak” ziren horiek baztertuz). Bestaldetik, hizkuntza bat benetan ikastea eta menperatzea ez dator jardun akademiko hutsaren eskutik, baizik eta praktikaren eta sozializazioaren beharra daukan prozesu kognitibotik da. Baina ohikoena zen gelatik kanpo, ikasleak erdaraz eraturako giza harremanen sarean barneratzea, besteak beste, kalean (eta instituzioen laguntza-ezean) euskararen aurka zegoen giroak euskarazko harremanak oztopatzen baitzituen. Eta zorionez ikasitakoa praktikatzeko aukera edukiz gero, frustrazio maila altua izan zitekeen, kontutan izanda ikaslea egitura artifizialetan murgilduta zegoela; beraz, nahiz eta bere ikas-prozesua amaitutzat eman, askotan ez zen gai benetako giro euskaldunean moldatzeko ezin baitzien euskaldun zaharrei ulertu (Larrea, 2003: 14; AEK, 1982: 95; Odriozola, 2013: 612-613).

Aurreko guztiari gehitu behar zaio Administrazio ofizialetik kanpo sortutako ekintza izan zen heinean, herri eta auzoetako jendeari esker mantendu zena, oso dokumentazio gutxi sortu eta utzi zuela, batez ere erdi-klandestinitatean egon zireneko garaia dagokionez. Fenomenoa modu objektiboan neurtzeko zailtasuna “daturik ez delako izan eskuetan, edo eta nahi izan ez delako”, gau eskolen (eta bertan parte hartu zutenen) lana ez da behar bezala baloratu. Bestalde, datu faltak gau eskolen fenomenoaren “historia” osoa islatu ahal izatea zailtzen badu ere, ezinbestekoak bihurtzen ditu bigarren mailako iturriak, testigantzak batez ere (Larrea eta Maia, 2013: 31; AEK, 1982: 49).

Helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduak izandako eragina, batetik, eta bestetik aztertzeko dituen zailtasunak aintzat hartuta, ezinbestekotzat dugu ahozko iturrietara jotzea fenomeno honi buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko, beranduegi izan baino lehen.

5.2 Metodoak, materialak, didaktika

5.2.1 Ikasmaterialak

Kepa Larreak XX. mendeko euskara ikasteko metodoen bilakaera aztertu zuenean jakintza-esparru honen atzerapena agerian utzi zuen. Horrela, 1900-1986 bitartean argitaratutako 165 metodoetatik 27 mende hasieratik gerrara bitartean izan ziren; beste 10, 1936-1956 bitartean, eta gainontzeko 128ak, 1956tik 1986ra doazen berrogeita hamar urte horietan. Erabilienak, gramatika-itzulpenezkoak izan ziren: alfabetatzerako eta EGArako metodoak barne, materialaren % 74a osatzen baitzuten (Larrea, 2003: 8-9).

Euskalduntze eta alfabetatzearen hastapenetan, antolamendu maila txikia eta ikasle gutxi zegoen garaian, gramatika-itzulpenetan oinarrituriko metodoak nagusitu ziren, besteak beste, *Método para aprender y enseñar el idioma vasco* (Umandi, 1959). 1960ko hamarkadako metodoak egokiagoak ziren euskalduntzeko, alfabetatzeko baino: erdaraz idatzitako euskal gramatikak, hiztegiak, itzulpenak... Hamarkada bukaeratik aurrera argitaratu zirenen artean, ezinbestekoak izan ziren metodo eta aditz liburuak topatzen ditugu, haien artean: *Joxe Mari Aranbururen apunteak*; *Euskal Gramatika Llabur eta idazleen pusketa autatuak* (Aita Luis Villasante); *Método de euskera radiofónico* (Jon Oñatibiarena, erdaldunek euskara ikasteko argitaratu zen lehenengo metodoa, 1966koa); Patxi Altunaren *Euskera ire laguna* (1967, ingeleseko metodo batetik euskara baturanzko bidera egokitutakoa izan zen), hurrengo urtean zegozkion *Ariketak* eta 1969an *Euskera ire laguna 2* jarraitu ziona; 1971ko *Euskal aditza. Batua*; 1972ko *Euskera ire laguna 1 berritua* (euskara batuan); *Euskaltzaindiaren Apunteak*; *Euskaldunentzat Gramatika Euskeraz* (Mendizabal, 1969); *Deklinabide-ariketa programatuak*; *Lehen Urratsak Gramatika txikia Euskeraz*; *Euskara batua zertan den*; *Alfabetatzen 1*; *Landu Dezagun*; *Lehen mailako Alfabetatze-metodoa* (Joxe Manuel Odriozola, 1978 ingurukoa, Gau eskolen Elkarrekin argitaratua)... (Larrea, 2003: 12-14; Larrea, 2005: 142; Sarriegi, 1999: 111-112).

1970eko hamarkadaren bigarren erdialdean euskara ikasten ari zen ikasleria handituz zihoan, baina gramatika-itzulpenezko metodoek ez zituzten ikasleen ezaugarriak kontuan hartzen eta ikasleak ziren testuetara eta egiturara egokitu behar zirenak. Erronka berriak jende askori aldi berean eta oso denbora gutxian hizkuntza irakasteko metodo eraginkorrak eskatzen zituen eta egoera horri erantzuteko metodo zuzenen eta estrukturalen aldera jo zen. Horrela, metodo estrukturalista berriek, lehenbizi, eta funtzionalek, geroago, ikasleek hurbiletik ezagutzen zituzten egoerak aurkezten zizkieten.

Ordura arte, batueraz eginiko oso metodo moderno gutxi bazeuden ere, 1976tik metodo horien zabaltze handia gertatu zen, "batuaz edo baturanzko jokabideetan eginak eta, askotan, kasete eta irudi berezietz horniturik". Haien artean ezagunenak honako hauek ziren: *Euskera bizitik* (1976), *Euskara mailaka* (1976), *Método audio-oral de euskara básico* (1978), *Jalgi hadi* (1978), *Hitz egin* (1978), *Jo-take* (1979), *El vasco de hoy* (1981) eta HABEren *A mailarako langaiak* (1984). Garai hartako metodoek

berrikuntza metodologikoa ekarri zuten. Horretaz gain, irakasteko modua aldatu egin zen, euskara batuan eta “oinarrizko euskara”n eginak baitzeuden. Gainera, ikasleen garrantziari kasu egiten zioten eta “aurreko metodoak ez bezala, nola edo hala ikasleen eguneroko egoeretara hurbiltzen hasi” ziren. Azkenik, garai honetan nagusitzen hasi ziren hiztegi, gramatika eta euskara ikasteko liburu asko irakaslez osatutako lan-taldeek egin zituzten.

1980ko hamarkadaren hasieran planteamendu kognitibo eta komunikatiboen aldera jotzen hasi zen. Horrela heldu zen 1982an, AEK-k *Hormairudiak* bilduma argitaratu zuenean Komunikaziozko Jokabidea. Izan ere, esan beharra dago metodologia zehatz bat jarraitu beharrean, “*ordura arte pilaturiko esperientzien gainean teknika ezberdinak erabiltzen zirela, zeinetan era ezberdineko praktika kontrolatua eta praktika libre tartekatzen baitziren*”. Euskararen irakaskuntza jokabide hori euskalduntzearen arloan ez ezik alfabetatzearenean ere planteatu zuen.

Larrearen ustez berrikuntza metodologikoak berandu heldu ziren batez ere bi arrazoiengatik: alde batetik, “helduentzako material didaktiko berezi eta egokia” argitaratzen eta zabaltzen zuen argitaletxerik eza; bestetik, unibertsitate arloan ikasle helduentzako irakasleria prestatzeko, zein berrikuntza metodologikoen inguruan ikertzeko gabeziak (Larrea, 2003: 14-16; Larrea, 2005: 245).

5.2.2 Material propioa eta osagarria

Metodoez gain, euskaltegi, gau eskola edota euskara talde ugari (Gasteizeko Juan Bautista Gamiz Taldeak, Goiherriko Gau Eskolak, Deustuko Euskal Irakasleriak edo Labayru Ikastegiak) euskara ikasteko ariketak eta apunteak argitaratu zituzten, nahiz eta askotan “fotokopien bidez eta modu kaskarrean izan” (Larrea, 2003: 12). Era horretako materialek, baita 70eko eta 80ko hamarkadetan zehar argitaratutako zenbait “metodek” ere, ez zuten berez metodologia zehatzik jarraitzen eta askotan bakarrik material osagarria (ariketa-bildumak, gramatika azalpenak, zenbait teknika edo printzipioen erabilera) besterik ez zuten jasotzen.

Goiherriko Euskal Eskolan erabilitakoaren artean, 1969an Euskaltzaindiak euskara batuaren ortografia-arauak atera zituen eta ondorengo urteetan aditzak, deklinabidea eta beste gramatika-elementuei buruzkoak; *Euskal Aditzen Lorategia*; *Hegatsez*; *Euskarazko liburuak*; *Euskarri*; *Gramática Vasca*; *Euskal Aditza*; *Aditza*; *Batasunaren kutxa*; *Sustrai bila*; *Euskal aditza*. *Baturakoa*; *Euskera XVII*. *Aditz laguntzaile Batua*; *Diccionario vasco-castellano*; *Diccionario castellano-vasco*; *Lehen euskal hiztegi bateratua*; *euskera*. *Batasuna*: *Azken araudiak...* Bestalde, baliabide propioak ere landu zituzten: aditza, ortografia, fonetika, literatura, mintza praktikara zuzendutako material berezia (ariketak, ipuinak, irakurgaiak, berriak), euskal kantak, abestiak eta bertsolaritzaren ingurukoa aipatu daiteke, besteak beste. AEK-k, berriz, material osagarri bezala *Urraspide*, *Goi Mailarako ikasleentzat materiala*, *Udako Materiala* edota *Monopoli jokoa* erabiltzen zituen, besteak beste. Horiez gain, noski, eta aukera gutxi egon arren aldizkariak (*Jakin*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna...*) irakurri eta Herri Irratian igortzen ziren euskarazko saiok entzun zitezkeen (Larrea, 2003: 13-14; Sarriegi, 1999: 113-116; Arrizabalaga eta Larrañaga, 2001: 10; AEK, 1982: 103-112).

Hau da, materialari dagokionez, argi dago gabezia egoera batetik abiatuta lortutako aukera aniztasunera egindako ibilbide ikaragarria egin zela, nahiz eta lortutako emaitzak beti guztiz



64

eraginkorrak ez izan. Argi dagoena da, helduen alfabetatzearen ezaugarrietako bat dela beharraren aurrean iturri ezberdinetatik edatea eta materialaren sorrerari ekitea. Dionisio Amundarainek aitortzen zuen moduan, “ez dakit inon ere erabiltzen ote den, hizkuntzaren irakaskuntzan, metodologia puru-pururik. Goiherriko Euskal Eskolan bederen, ia haseratik, metodologia aski eklektikoa darabilgu”, beti ere maila bakoitzari egokitzuz (Amundarain, 1991: 35).

5.3 Bilakaera

5.3.1 Txinpartetatik sutzarretara

1960ko hamarkadan Rikardo Arregiren eskuz abian jarritako Alfabetatze Kanpainak gaur arte dirauen helduen euskararen irakaskuntza-ikaskuntzaren sistemaren hastapenak izan ziren. Baina euskaraz alfabetatzea oraindik antolatu gabe egon eta oso pertsonala izan arren, lehenago ere baditugu bide desberdinak jarraitu zituztenak: autodidaktak izan zirenak (Orixek eta Mitxelenak eragin handia izan zuten arlo horretan), EUTGk antolatutako eskoletara joaten zirenak edota alfabetatzeko prest zeuden irakasleak aurkitu zituztenak. Azken horien artean Plazido Mujika aipatu beharra dago, baita Elbira Zipitria ere, “helduentzat eta umeentzat” Lazkaon eta Donostian eskolak eman zituenak (Aldekoa-Otalora et al., 1997: 100-102).

Horrelako ekimenek batzuetan luzaroko proiektuei hasiera eman zieten. Hain zuzen ere, 50eko hamarkadan Goiherriko Euskal Eskolaren aurrekariak ditugu. Izan ere, 1952-53 ikasturtean zehar Elbira Zipitriak “ezkutu-antzeko alfabetatze ikastaro bat eman zuen Lazkaoko Beneditarren monastegian”, ikasgaien artean aditz-ikasketak zirela. Eskolak igandeetako meza ostean egiten zituzten eta ikasle bakarrak beneditar gazteak ziren. Haien arteko bik, Isidro Baztarrikak (1968an *Aditza* liburua argitaratuko zuena) eta Joan Balerdik, 1954an aditza irakasten jardun zuten Ordizian. Ia hamar urte geroago, 1962-63 ikasturtean eta agian 1964an Antonio Azkuerekin batera, herritarrez osatutako alfabetatze-talde bati klaseak eman zizkioten Lazkaoko beneditarretan (Sarriegi, 1999: 17-18).

Bestaldetik, 56. urtean Elgoibarren estreinako helduentzako gau eskola zabaldu zen, 80 ikaslerekin. Bi apaiz arduratzen ziren, bata euskalduntzeaz eta bestea alfabetatzeaz, boluntario gisa, nahiz eta ikasleek hileroko kuota txiki bat ordaindu behar zuten materialaren gastuak ordaintzeko. Ekimen horrek bi urte iraun zuen, eta gero jarraipena izan zuen kultur elkarte baten bidez (Arrizabalaga eta Larrañaga, 2001: 8-10).

Horretaz gain, 1965-66an, Lazkaoko Miren Garate irakasleak 30 ikasle gazte inguru bildu zituen Beasaingo Oargi Elkartean, euskal gramatika ardatz. Testuinguru horretan, 1966-67an Rikardo Arregik Lazkaora eraman zituen bere alfabetatze kanpainien ideiak eta horren ondorioz “Goiherriko lehen irakasleak izango zirenekin 12-14ko taldea bildu ohi zen ikastera Domarda sozietatean”. Garai berean, Jon Oñatibiak bere *Método Radiofónico*-a Beasaingo Oargi Elkartean aurkezten zuelarik. Hurrengo urtean, 1968an laugarren talde bat gehitu zen, Patxi Altunaren *Euskera ire laguna* metodoa oinarritzat hartuta. 1967-1969ra lau ikastaldi egin ziren alfabetatzaileak osatzeko, Donostian, Bergaran, Zestoan eta Beasainen. Esperimentazio mailan, euskalduntze-alfabetatze kanpainak beste zenbait herritan egin ziren eta garai hartakoak dira *Lehen Urratsak* eta *Ariketak* liburuxkak (AEK, 1982: 39-40)¹⁶.

16 Bestaldetik, 1964an Zipitriak Lazkaoko beneditarretan ikastaroak eman zituela esaten du.

Nolabait irudikatzeko, dinamika horren bidez leku ezberdinetan sortutako txinpartetatik abiatuta sutzarrak pizten hasi ziren lurralde osoan zehar.

5.3.2 Gau Eskolen Elkartea

1972-1974 ikasturtean mugarri garrantzitsua daukagu, ordurako Gipuzkoa osoan bakoitzak bere kabuz ari ziren euskalduntze eta alfabetatze sailen arteko harremana eta elkarlana suspertzeko Donibane Lohitzuneko Udako Euskal Unibertsitatean koordinakunde bat sortzea erabaki zenean, auzi eta erronka partekatuei aurre egiteari begira (irakasleen gabezia, materialak eta metodologia sortzeko beharra, etab.) (Aldekoa-Otalora et al., 1997: 112).

Aurrekari horrekin, 1975eko otsailean Arrasaten izandako bileran, zeinean 40 bat lagun bildu ziren irakasle eta arduradunen artean, “esan dezakegu Gau-Eskolen Koordinakundea orduantxe hasi zela benetan”, lehenengo *Alfabetatze Batzordea* izenarekin eta gero *Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea* (AEK) bezala. Hartutako zenbait gauzen artean, zera erabaki zen: 1) Gipuzkoa zortzi zonaldeetan banatzea (Leintz, Eibarraldea, Urola-Kosta, Urola-Garaia, Goierri, Tolosaldea, Donostialdea eta Errenterialdea) eta zonalde bakoitzarako arduradun bat hautatzea; 2) Batzordeak erdi liberatu bat hautatzea; 3) Gau-Eskolen mugimenduak noizean behin aldizkariren bat ateratzea; 4) Irakasleen prestakuntzarako sistematikoki eta urtero ikastaroak antolatzea; 5) Mintegi batzuk antolatzea, irakasle eta ikasleentzat, hizkuntz eta kultur gaien inguruan; 6) Zabalkunde bideak ezartzea, material eta testu aldetik.

Urte berean Lazkaon egindako Gipuzkoako Batzordearen lehenengo bi bileretan erdi-liberatu horien zereginak finkatu ziren (herriz herri eta bailaraz bailara hitzaldiak antolatzea, *Euskarri* aldizkariaren taxuketaz arduratzea, herrialde eta bailarak harremanetan jartzea, irakasleentzat ikastaroak antolatzea...); gainera, Gipuzkoako batzorde orokorraren funtzionamendua zein Batzar Nagusiaren papera finkatu ziren. Ikasturte hura euskaraz ikasten hasitako ikasturte-gailurra izan zen baina benetako garrantzia izan zen Rikardo Arregiren garaiaren ostetik lehendabiziko aldiz lurraldeen arteko loturak finkatu zirela Bizkaiko alfabetatze-euskalduntze koordinakundearekin hasitako harremanei esker eta ildo horretatik Hego Euskal Herriko koordinatzaileen arteko bilkura bat egiteko nahia piztu zela leku ezberdinetako esperientzia eta praktiken trukeari begira. 1977-1978ko ikasturtearen helburua eskualdeak modu egonkorrean egituratzen hastea zen (AEK, 1982: 41-46).

5.3.2.1 Antolakuntza, taldeak...

Antolaketa behetik gora egiten zen: 1975eko Arrasateko bileraren ostean, Gipuzkoa zortzi eskualdetan banatuta gelditu zen, zonalde bakoitzean pertsona edo batzorde bat kudeaketaz arduratzen zelarik: Leintz, Eibarraldea, Urola-Kosta, Urola-Garaia, Goierri, Tolosaldea, Donostialdea eta Errenterialdea. Eskualde-arduradun horiek Herrialde Batzordea osatzen zuten, herrialdeko antolaketaaren ardura eta erantzunkizuna zuena.

1977-1978 ikasturtean Gipuzkoa mailako egituraketan erritmo ezberdinak zeuden: bazegoen Gipuzkoa mailan koordinazio lanak egiten zituen pertsona erdi liberatua zegoena; eskualdeka, Goierri eta Eibarraldea ziren koordinatzaile erdiliberatuak zituzten bakarrak, Bidasoaldea, Hernanialdea,

Tolosaldea, Goierri, Leintz eta Urolan batzorde baten bidez egiten zen; Oiartzualdea, Donostia, Urola Garaia eta Kostaldea; koordinazio egonkorrik ez zegoen, ordea (Odriozola, 1980).

Ikasturte hartako edozein ikastarok gutxi gorabehera honelako itxura izango zuen, batez besteko datuei erreparatuz: 12-14 laguneko talde batez osatuta egongo zen; 7 hilabetez 4 orduz astero (langa 7-9 hilabetekoa eta 3-6 ordu bitartekoa bazen ere); *Jalgi Hadi* eta *Euskalduntzen* metodoak lagunduta. Abandono-portzentaia nahiko altua zen, % 40-45ekoa, arrazoiaren artean honako hauek zeudelarik: irakasleriaren prestakuntza konpetentziarik eza; ikasleriaren ardura gabezia; helburu, programa eta orientabide zehatzik markatu eza. Datuen arabera, ikasturte horren emaitza 414 euskaldun berri eta 519 euskal alfabetatu izan ziren. Hurrengo ikasturtearen amaieran, bakarrik Oiartzualdean, 57 euskaldun berri eta 48 euskaraz alfabetatu ziren.

AEK-k prestatutako txostenari esker jakin dezakegu zein ziren 1979-1980 ikasturtean talde eratzailea osatzen zuten eskualde-arduradunak: Joxan Elozegi (Bidasoaldekoa); Arantza Larrañaga (Oiartzunaldekoa); Jon Mendizabal (Donostiakoa); Xabier Aizpurua (Hernanialdekoa); Mikel Uzkudun (Tolosaldekoa); Maria Angeles Maiz eta Dionisio Amundarain (Goierrikoak); Jesus Udabe eta Anun Andueza (Urola Garaikoak); Joxe Diaz de Tueste (Leintzkoa), Antton Gutierrez (Deba Behekoa); Pepita Iñarra (Kostaldekoa); ¿? (Urolakoa); Joxe Manuel Odriozola (Gipuzkoako koordinatzailea). Talde didaktikoari dagokionez, Joxe Joan Txabarri, Xabier Zubizarreta, Marian Galarraga, Andoni Sarriegi, Eusebio Babaze, Bittori Etxeberria, Enrike Amunarraitz, Gabino Zubeldia eta Joakin Zubeldia¹⁷.

1981-1982rako antolaketa pixka bat aldatuta zegoen, eskualde gehiago baitzeuden: Bidasoaldea (Irún eta Hondarribia bertan sartzen zirelarik), Donostialdea (Altza, Amara Berri, Amara Zahar, Antiguoa, Astigarraga, Egia, Intxaurrondo, Gros eta Rikardo Arregi euskaltegia), Eibarraldea (Eibar, Elgoibar, Ermua), Errenterialdea (Errenteria, Pasai Antxo, Pasai Donibane, Pasai San Pedro, Oiartzun), Goierri (Beasain, Lazkao, Ordizia, Ormaiztegi), Hernanialdea (Añorga, Hernani, Lasarte, Usurbil), Kosta (Deba, Mutriku, Zarautz, Zumaia), Leintz (Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Soraluze, Oinati), Tolosaldea (Alegi, Andoain, Billabona, Tolosa), Urola (Arroa, Azkoitia, Azpeitia, Zestoa), Zumarragaldea (Legazpi, Urretxu-Zumarraga).

Gipuzkoako Batzordea honako eskualde arduradun hauez osaturik zegoen: Miren Karmele Tolosa (Bidasoaldekoa); Xabier Aizpurua (Donostia), Antton Gutierrez (Eibarraldea), Kike Eizmendi (Errenterialdea), Maria Angeles Maiz (Goierri), Xabier Etxeberria (Hernanialdea), Pepi Iñarra (Kosta), Jose Diaz de Tuesta/Fermin Korkostegi (Leintz), Mikel Uzkudun (Tolosaldea), M^a Jose Etxaide (Urola) eta Emiliano Elola (Zumarragaldea) (AEK, 1982: 61-70).

“Gipuzkoako AEKren datuak 70eko hamarkadan, eskualdeka” txostenak erakusten du momentu ezberdinetan eskualde bakoitzak izandako bilakaera kuantitatiboa.

17 Antolaketa honetan Errenteria Oiartzunaldean sartzen zen.

Gipuzkoako AEK-ren datuak 70eko hamarkadan, eskualdeka

	Ikasturtea					
	74-75	75-76	76-77	77-78	78-79	80-81
ESKUALDEA	Ikasle	Ikasle	Ikasle	Ikasle	Ikasle	Ikasle
Bidasoaldea		72	743	594	421	540
Deba Garaia		315		559	910	
Donostialdea*	181	921	2.249	2.300	1.666	1.319
Eibarraldea*	358		867			650
Erreterialdea			2.430			521
Goiherri*	179	366	900	821	521	498
Hernanialdea			559	349	292	240
Kostaldea			523	419	310	250
Leintzaldea*	99	267	1.090	1.497	894	497
Oihartzunaldea*	343	1.047		1.809	1.123	
Tolosaldea*	112	252	741	840	822	483
Urola			450	235	130	192
Urola Garaia*	195	270		641	460	
Urola Kosta*	140	601				
Zumarragaldea			902			237
Nafarroan (Sei Haranak eta Sakana)		81				
GUZTIRA	1.607	4.192	11.454	10.064	7.549	5.427

74-75 ikasturtean zegoen banaketa

Iturriak: AEK. Alfabetatze euskalduntze koordinakundearen historia Gipuzkoan: argitara beharrekoak. *Elkar*, Donostia, 1982; Odriozola, Joxe Manuel. *Gipuzkoako alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren historia*, argitaratu gabea, 1980

5.3.2.2 Ikasle kopurua eta mailak

AEKren kalkuluen arabera, pertsona bat euskalduntzeko 600-800 ordu inguru behar ziren. Helburu horri zuzendutako ikasketa prozesua lau mailatan antolatzen zen, 200 ordutako bakoitza: hasiera, bitartekoa, oinarritzkoa eta hobekuntza. Alfabetatzeari begira, ordea, 100-200 ordu bitarteko zenbatespena egiten zen, eta Alfabetatzea 1 eta Alfabetatzea 2 ikastaroen bidez antolatzen zen ikasketa prozesu hori (AEK, 1982: 80). Ikasle kopuru altuena beti hasierako mailan egoten zen, euskalduntze prozesua ibili ahala arrazoi ezberdinak zirela eta (desmotibazioa, denbora falta, bestelako betebeharrak, etab.) hainbatek ikasteari uzten ziolako.

“Gipuzkoako AEKren datuak 70eko hamarkadan, mailaka” taulak erakusten duenez, 76-77 ikasturtera arte izandako ikasle kopuruaren gorakada bizkortu egin zen, % 300ekoa izatera helduz. Bat-bateko hazkuntzaren arrazoiaren artean honako hauek aipatzen ziren: industria hirietan izandako euskararen berreskuratze-prozesu larriak (Bidasoa-Erreterria-Donostia-Hernani-Tolosa-Goiherri) ikasleriaren % 66,3a hartzen zuen emakumezkoek izandako “garrantzizko esku-hartzea”, etorkinen ehunekoa gero eta altuagoa zela (AEK, 1982: 94-95).

Gipuzkoako AEK-ren datuak 70eko hamarkadan, mailaka

	Ikasturtea					
	1974-75	1975-76	1976-77	1977-78	1978-79	1980-81
Mailak	Ikasle	Ikasle	Ikasle	ikasle	ikasle	ikasle
Hasera	728	2.061	6.616	4.212	3.337	
Oinarrizkoa	325	874	2.114	3.251	2.280	
Hobekuntza				1.284	1.546	
Alfabetatze	554	1.227	840	1.289	989	
"D" maila					235	
GUZTIRA	1.607	4.162	9.570	10.036	8.387	6.545

Iturria: AEK. *Alfabetatze euskalduntze koordinakundearen historia Gipuzkoan: argitara beharrekoak*. Elkar, Donostia, 1982

Gipuzkoako biztanleria bere osotasunean hartuta, ikasturtearen arabera 2.000 eta 10.000 ikasle izatea kopuru murritzua badirudi ere, pentsatu beharko genuke horrenbeste lagunei erantzun ahal izateko egitura bat izateak ordura arte ezagututako helduen alfabetatze eta euskalduntze prozesuan zer nolako aurrerapauso kuantitatiboa zein kualitatiboa ekarri zuen.

Gainera, kontuan izan behar da taulan agertzen diren datu hauek ez dituztela ikastaro eta ikasle guztiak zenbatzen. Alde batetik, AEKren koordinakuntzapean funtzionatzen zuten gau eskolen datuak izanda ere, kanpoan uzten dituztelako udako ikastaroak zein urtean zehar antolatutako beste motatakoak. Eta bestetik, garai berean Koordinakundetik kanpo bazeudelako euskalduntze eta alfabetatzeko beste bideak jarraitzen zituzten ikasleak, adibidez EUTGn zein akademietan edota zenbait enpresek eskaintzen zituzten euskarazko ikastaroetan.

5.3.2.3 Lokalak

Azpiegiturei dagokienez, herriaren arabera lokal propioa izan zezakeen edo beste erakunderen baten azpiegiturez baliatzen ziren (ikastola, estatuko eskolak, kultur elkarteak...). Ikasle eta ikastaro asko zituzten lekuetan, lokal berriak hartu behar izaten ziren (adibidez Lazkaon, 1982tik aurrera hilero-hilero ikastaro trinkoekin hasten zenean). Orokorrean, 1981-1982 ikasturtean ikasgelak horrela sailkatzen ziren: udal geletan, % 16a; pribatuetan, % 30,3; estatuko eskoletan % 23,1; ikastoletan % 23,8; AEKn, % 6,1 (AEK, 1982: 70; Amundarain, 1991: 33).

5.3.2.4 Finantzaketa

Finantziazioa betidanik arazo bat izan zen. 1978-1979 ikasturteko kalkuluen arabera Gipuzkoako Batzarreko ikasle bakoitzaren kostua 9.000 pezeta ingurukoa zen (gastuen kontzeptuak: liberatuak, kilometrajeari, ikastaroak, irakasleak, materialak, lokalak, mantentze-lanak...). Ikasturte horretarako izango zuten ikasle kopuruaren arabera, 67.941.000 pezeta beharko ziren. Hala ere:

ikasleen kuota aldetik, ikasturte osoa gehienbat ordaindu zuten lekuetan 6.500 pezeta inguru zeuden kontuan. Irakasleriaren ordainketa, berriz, hori ere gehienek ordaintzen zuten herri edo auzoetan, 6.000 bat pezetakoa zen. Oraindik ere toki askotan ezer ordaindu gabe, jakina (Odriozola, 1980: 16).

AEK-k finantziario publikoa aldarrikatzen bazuen ere, bide horren bidez heldutako dirua gutxiengoa zen. Esanguratsua da bi ikasturte lehenagoko txostenean aipatzen zela ordurako irakasleek pairatzen zuten egoera, “amateur maila (...) gehienetan doan edo gaizki ordainduta”, aldatzen hasi zela hainbat erakunderen finantzaketari esker. Horrela, Donostiako Udaletxeak eta Telefonikak 500 pezeta ordaindu zuten, eta Aurrezki Kutxa Probintzial eta Munizipalak, aldiz, 400 (Odriozola, 1980: 10).

1981-1982ko datuek horrela banatzen zituzten sarrerak: ikasleen kuotak, % 76; udal diru-laguntzak, % 11,9; diru-laguntza pribatuak, % 3,7; ekintza eta jaialdiak, % 3,8; bestelakoak, % 4. Irteerei dagokionez, banaketa hau izango litzateke: irakasleen soldatak % 62,2, arduradunen soldatak, % 21,6; ikasgelen eta bestelakoen errentak, % 2,3; material didaktikoa, % 4,5; herrialdeko bulego batzordeari ordainketa, % 2,4; gastu orokorrak, % 5,7; bestelakoa, % 1,3(AEK, 1982: 75-76).

5.3.2.5 Eskolez gain, bestelako ikastaroak

Eskolez gain, aintzat hartu behar da beste mota batzuetako ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, etab. antolatzen zirela. Haietako batzuk irakasleen prestakuntzara zuzenduta bazeuden ere, baziren hizkuntz eta kultur gaien ingurukoak ere, irakasle eta ikasleentzat pentsatuta. Zentzu horretan, aipagarriak dira argitaratzen joan ziren metodo berrien erabilpena azaltzeko herri ezberdinetan egiten ziren aurkezpenak eta ikastarotoxak.

Irakasleriaren prestakuntza orokorreko ikastaroez gain, irakasle berrientzat zein alde zaureratik zeuden birziklapenerako ere bestelako ikastaroak egiten ziren, 100 ordu ingurukoak. Bertan D Titulurako prestaketa eta hizkuntza irakaskuntzari atxikitako didaktika eta metodologia ziren ikasgai nagusiak (AEK, 1982: 80).

1974-1975 ikasturtean, adibidez, hitzaldi eta mintegien artean ia 90 ekimen antolatu ziren gai anitzengatik inguruan (euskal teatroa, euskal poesiá, euskal historia, euskal kultura, ikastolak, bilinguismoa eta diglosia, euskara batua...), hainbat herritan.

1976-1977 ikasturtean, adibidez, Donostian, Eibarren eta Urola Garaian zehar honako hauek izan ziren: Xalbador Garmendia, gramatikari buruz; Joxe Ramon Etxeberria, metodologia orokorrari buruz; Mikel Zalbide, euskararen sintaxiaz; Miren Azkarate, *Euskara, hire laguna!* metodoaren erabileraz; eta, Donostian, metodo bakoitzaren ezaugarri eta gainerako xehetasunak aztertzeko mahai inguru bat osatu zen (Patxi Goenaga, E. Muñagorri, Belen Aizpurua, Miren Azkarate eta Josetxo Lizartza). Guztira, haietatik 815 irakasle pasa ziren, baina ez da ahaztu behar beste hamaika ikastaldi antolatu zirela gau eskola bakoitzaren eskutik, Gipuzkoako erakunde zentraletik bideratu gabe.

1977-1978 ikasturtean, lehentasun osoa eman zitzaion *Jalgi Hadi* metodoaren erabilerari eta horretarako ikastaldiak antolatu ziren hainbat lekutan. Hasieran behintzat azalpenak metodoaren beraren egileek eman zituzten (J.A. Letamendi, Joxean Mujika...), baina ondoren gau eskoletako irakasle batzuen esku gelditu zen.

1978-1979 ikasturtean, Joxe Joan Txabarri, Miren Azkarate, Dionisio Amundarain eta Andoni Eskisabel, Karlos Otegi, Marian Galarraga, I. Zubeltzu, Juan Luis Goikoetxea, Joxe Agustin Arrieta, Jesus Mari Larrazabal eta Xabier Mendiguren izan ziren, besteak beste, hizkuntz-metodologiaren, morfosintaxiaren, testu azterketaren, *Jalgi Hadi* eta *Hitz Egin* metodoen, eta fonetikaren inguruko ikastaroak eman zituztenak.

1974tik aurrera, uda-ikastaldi trinkoak antolatzen hasi ziren, neguko euskarazko eskolen osagarri bezala planteatuta, eta urteen poderioz, hainbat herritara zabaldu ziren (Abaltzizketa, Eibar, Arrasate Bidasoa, Errenteria, Donostia. Ugarte, Amezketeta, Ibaeta, Hernani, Tolosa...). 1978-1979 ikasturtean antolatutako uda-ikastaldi trinkoen artean, Donostian espreski maisu-maistrentzat antolatutakoa aipatu beharra dago, 100 lagun inguru izan zituen (Odriozola, 1980: 44-45).

5.3.3 Ikasleriaren ezaugarriak

5.3.3.1 Sexua

1976-1977 ikasturtean zehar AEK-k eta Siadecok jasotako datuen arabera, euskal ikasleriaren % 40,7 gizonetzkoak ziren eta gainontzeko % 59,3a emakumezkoak, baina kontuan hartu behar zen lurraldeen artean ezberdintasunak zeudela. Adibidez, Bizkaian gizonetzkoak % 38,8 eta emakumezkoak % 61,2 ziren; Gipuzkoan, ordea, datuak % 54 eta % 46 ingurukoak ziren. Bost urte geroago, 1980-1981 ikasturtean, Gipuzkoan datu horiek aldaketa nabaria izan zuten: gizonetzkoak % 36 eta emakumezkoak % 64 (Legarreta, 1977: 104; AEK, 1982: 53).

Kepa Larreak 1986-1987 ikasturtean honako hau nabarmentzen zuen: “Huts egin barik esan daiteke emakumezkoak beti ikasleen erditik gora izan direla eta, askotan, 2/3en inguruan” eta 86-87 ikasturtean hitzarmen bereziko euskaltegietan, 3/4 ziren (Larrea, 2005: 241).

5.3.3.2 Adina

Ikasleriaren gaztetasuna argi geratzen da: Euskal Herrian, 1976-1977 ikasturtean ikasleriaren % 78,2k 30 urte baino gutxiago zituen (Legarreta, 1977: 104-106).

Gipuzkoako AEK-ko datuen arabera, 1980-1981 ikasturtean % 58 ikasle 26 urtetik beherakoak ziren; eta ikasle multzorik handiena, 21etik 25erakoen tartean kokatzen zen. Orokorrean, 4 ikasletik 3k 30 urte baino gutxiago zituen. 26 urte baino gutxiago zituztenen artean, emakumezkoak ia bi heren ziren (AEK, 1982: 54).

HABESEaren legearen ondorioz euskaltegien aukerak zabaldu zirenetik, ikasleen profilak euskaltegi mota ezberdinetara egokitu ziren. Kepa Larreak adierazten duen moduan, 1986-87 ikasturtean ikasle

nagusienek euskaltegi homologatuak nahiago zituzten (handiagoak eta profesionalizatuagoak) eta gazteek, aldiz, euskaltegi libreak (txikiagoak eta egoera okerragoan). Adinari dagokionez, euskaltegi publikoak, aurreko bien artean kokatuko lirateke (Larrea, 2005: 235).

5.3.3.3 Jatorria

1976-1977 ikasturtean ia % 89,8 Euskal Herrian jaioak ziren. Gipuzkoari dagokionez, ehuneko hori pixka bat jaitsi arren, % 85,9an zegoen. Bi ikasturte ondoren, 1978-79an etorkinen kopuruak baxua izaten jarraitu arren, lekuen arabera ehunekoen artean aldaketa nabariak egon zitezkeen: Tolosaldean % 12; Donostialdean eta Errenterialdean % 15; ia % 24 Kostaldean eta Hernanialdean; % 35 Goierri; Urola Garaian % 47ra iristen zen. Orokorrean, ikasleriaren gehiengoak 15 eta 25 urte bitartean zituen eta emakumezkoak % 60 ziren (Legarreta, 1977: 106; Odriozola, 1980: 16).

1986-1987an Euskal Herrian jaiotakoak oraindik nabarmentzen ziren arren, 5-10 urteko datuekin alderatuta kanpoan jaiotakoen kopurua igotzen zen (Larrea, 2005: 242).

5.3.3.4 Motibazioa

70eko hamarkadaren erdialdean eta ikasleak beraiek ikaskuntza prozesuan hartzen hasi ziren protagonismoarekin batera (metodo berriak ikasleen ezaugarrietara moldatzen saiatzen baitziren eta ez alderantziz, ordura arte bezala), ikerketak motibazioaren garrantziaz ohartzen hasi ziren. Joera hori hurrengo hamarkadan finkatu zen, 1987an 'Txepetx'ek bere tesia argitaratu zuenean, motibazioa hizkuntza bat ikasteko hiru faktoreen artean kokatu baitzuen (Larrea, 2005: 245).

70eko hamarkadan euskara ikasteak zeukan “konnotazio politiko garbia” zela eta, motibazioen artean nagusia “euskal kontzientzia” edo “kontzientzia nazionala” zen (Legarreta, 1977: 106; Euskaltzaindia, 1979: 172). Larreak, perspektiban jarrita eta Odriozolari jarraiki, 1956-1986 bitartean hiru motibazio ezberdintzen zituen, bakoitza bere testuinguru sozio-politikoan kokatuta: motibazio politikoa, Rikardo Arregiren garaian; integrationala edo kultur-ideologikoa, 70eko hamarkadan; instrumentala edo pragmatikoa, 80ko hamarkadan (Larrea, 2005: 248). Datu konparatibo gisa, 1990eko hamarkadaren hasieran, ikasleen motibazio nagusia euskarazko titulua eskuratzea (nahiz eta euskal kultura ez ezagutu) izateaz kexatzen zen Amundarain (Amundarain, 1991: 38). Kike Amonarriren azterketaren arabera, 1996. urtean, euskara ikasteko arrazoien artean honako hauek zeuden, gehien baloratuta daudenetatik gutxien baloratu direnetara: afektibo-ideologikoak (“hara nahi dudalako, maitatzen dudalako”, “gure herriko hizkuntza delako”), komunikatzaileak (“euskaldunekin hobeto komunikatzeko”, “ez naiz eroso sentitzen”, “seme-alabengatik”), pragmatikoak (“lanean exijitu, lana aurkitzeko”, “asignatura aprobatzeko”) (Amonarri, 1996: 73).

5.3.4 Irakasleriaren ezaugarriak

“Gipuzkoako AEKren datuak 70eko hamarkadan, irakasleria” taulan irakasleriaren kopuruaren bilakaera ikus daiteke. Zenbait kasutan, hala ere, ez da zehazten zenbat irakasle dagozkion eskualde bakoitzari.

Gipuzkoako AEK-ren datuak 70eko hamarkadan, irakasleria.

	Ikasturtea							
	74-75		75-76		77-78		78-79	
Eskualdea	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle	Ikasle	Irakasle
Bidasoaldea			72		594	55	421	42
Deba Garaia			315		559	40	910	45
Donostialdea	181		921		2.300	148	1.666	45
Goiherri	179		366		821	46	521	23
Hernanialdea					349	35	292	20
Kostaldea					419	39	310	33
Leintzaldea	99		267		1.497	200	894	
Oihartzunaldea	343		1.047		1.809	109	1.123	45
Tolosaldea	112		252		840	62	822	
Urola					235	30	130	
Urola Garaia	195		270		641	30	460	16
GUZTIRA	1.109	176	3.510	386	10.064	794	7.549	269

Iturriak: AEK. *Alfabetatze euskalduntze koordinakundearen historia Gipuzkoan: argitara beharrekoak*. Elkar, Donostia, 1982; Odriozola, Joxe Manuel. *Gipuzkoako alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren historia*, argitaratu gabea, 1980*

Joxe Manuel Odriozolak bi profil bereizten zituen irakasleen artean. Alde batetik, lanean gazte hasitakoak (langile espezializatuak, zerbitzuetakoak, batez ere lekuko ikastola giroan ibiltzen zirenak...), herrietan nagusitzen zena; bestetik, talde ugariena, Donostian aritzen zena, “hiri hau gipuzkoar gazteriarren bilgune gertatzen baita ikasketen medioz”. Hizkuntzari dagokionez, bi multzoen artean desberdintasunak zeuden: lehenengoak hizkera tradizionalagoa zeukan, “euskararen ohizko bideetatik hurbilago; estudiante jendearena, berriz, herriko doinutik apartekoagoa, esperimentaltasun uka ezinezkoa”. Orokorrean gramatikako prestaketa ahul samarra zeukatela nabaritzen zen. Gainera, irakaskuntza metodologiaren oso ezagutza gutxi eta teknika didaktiko eskasa zuten (Odriozola, 1980: 10).

5.3.4.1 Sexua

Euskaltegi mota eta lurraldeen arabera alde nabariak egonda ere, Kepa Larreak “helduen irakaskuntzan beti emakumezko gehiago ibili dira gizonezkoak baino” zioen eta balizko arrazoi gisa planteatzen zuen hasierako urteetan “ikastoletako hainbat andereñok, eskolatik kanpo, umeen gurasoei ere euskara irakastea” (Larrea, 2005: 212). Baina AEKren 1982ko datuek gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino zerbait altuagoa zela adierazten zuten (emakumezkoak, % 53,7; gizonezkoak, % 56,3) eta lanbideei dagokionez, gehienak ikasleak, administrariak, irakasleak, etxekoandreak, profesio liberalak, teknikoak, langabeziazkoak... zirela (AEK, 1982: 68-70). 86-87an, euskaltegi publikoetan irakasleriaren % 65 emakumezkoak ziren (Larrea, 2005: 212).

5.3.4.2 Adina

Gau eskoletako irakasleen gaztetasuna helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren ezaugarrienetarikoa bat zela esan dezakegu. AEKren 81-82 ikasturteko datuek ere horrela adierazten dute: 20 urte baino gutxiago, % 61; 20-25 urte bitartekoak, % 34,3; 25-30 urte bitartekoak, % 16,6; 30-40 urte bitartekoak, % 16; 40 urtez gorakoak, % 6,1 (AEK, 1982: 68-69).

5.3.4.3 Titulazioa, lanbideak

Gau eskolek urteak bete ahala, irakasleen egonkortasunaren aldeko neurriak hartzen joan ziren, profesionalizatorantz zuzenduz. Hala, eta bestelako egoerak baziren ere, beste lanbide edo ikasketen osagarria izatetik ogibide bakarra izatera pasa zitekeen eskola. Goiherriko Euskal Eskolako irakasleriari dagokionez, adibidez, Amundarainek "garai batean" beste lanbideren bat izaten ohi zuen jendea zegoela esaten zuen, baina 1982tik "erabat edo ia erabat" horretara dedikatzen zela (Amundarain, 1991: 33).

Ikasleekin gertatzen zen bezala, irakasleen ikasketa maila, orokorrean, altua izaten zen. Horrela, 81-82 ikasturtean irakasleriaren % 40,4k goi-mailako ikasketak zituen; % 35,6k, bigarren mailakoak; % 18k, lehen ikasketak eta % 6k, erdi mailakoak. Euskararen titulazioari dagokionez, erdia baino gehiago % 52,6 D tituluduna zen eta % 1,9k B titulua zeukan. Baina aldi berean, % 45,5ek ez zeukan euskarako titulurik (AEK, 1982: 69).

5.3.4.4 Lan baldintzak

Koldo Larreak, garai hartako gau eskoletako irakasleek pairatzen zituzten gabeziak identifikatu zituen, haietako askok eragin zuzena baitzuten euren lan-baldintzetan. Gabeziak honako hauek liriateke: 1) Goi-mailako titulorik eza; 2) Prestakuntza pedagogiko edo didaktikorik eza; 3) Profesionaltasunik eza (jardunaldia eta ordainsariari dagokionez, hau da, profesionalki euren lanbidea beste bat zen, ikasle izatea barne, eta irakasteari ahal zuten denbora eskaintzen zioten); 4) Euskara irakasleen elkarterik eza; 5) Espezializatorik eza, hau da, euskara irakasteaz gain, beste zenbait eginkizun egin behar zituztelarik, hala nola, propaganda kanpainak, antolamendu eta koordinazio lanak, lokalak eta ikasgelak bilatu, matrikulen ordainketak kontrolatu, beste erakundeekiko harremanak zaindu eta abar; 6) Egonkortasunik eza (Larrea, 2005: 186-194).

Gabezia hauei guztiei, batez ere euskalduntze-alfabetatzearen hastapenetan, beste batzuk gehitu beharko genizkieke: material urritasunak, eskolan erabiliko zuena ikasleak berak prestatzearen beharra zekarren; "irakaslea bera langintza horretan hasiberria" izatea, eskarmentu faltak dakarren lanabes didaktiko edo pedagogikoak barne; hainbat kasutan, gainera, irakasleak gelan irakatsiko zuena lehenago ikasi behar zuen; ordainketa eskasa jasotzea (jasotzen bazuten); baldintza egokirik ez zuten geletan aritzeko... 80ko hamarkadaren hasieratik arlo honi eskeinitako dedikazioa gero eta handiagoa bilakatu zen, irakasleriaren profesionalizaziora bideratuta (Amundarain, 1991: 33).

5.3.4.5 Motibazioa

Irakasleen lana eta batez ere lan-baldintzak ez ziren errazak. Eta hala ere, bazegoen jarduera hori egiteko (oso) prest zegoen jendea. Hortaz, badugu irakasleriaren beste ezaugarri nagusi bat, neke edo

zailtasunei aktibismoz aurre egitearena. Horrela, Dionisio Amundarainek Goierriko Euskal Eskolarako aipatzen zuenez eta euskararen irakaskuntzak euskal kulturaren sena pizten saiatzen zen heinean, “irakasle militanteak ikasle batzuk militante egiteko probabilitatea du” (Amundarain, 1991: 38).

Motibazioa ezinbestekoa zen eta osagarri hau aintzat hartzea ezinbestekoa da euskalduntze-alfabetatze mugimendua aztertzeko. Hala ere, *Euskal Alfabetatzearen Historia zenbait Sortzaileen Ahotan* ikerlana izan zen irakasleen motibazioaz arduratu zen lehenengoa; ordura arte beti aipatzen zen ikasleena. Kepa Larreak, Hego Euskal Herriko testuinguruan, Francoren heriotza mugarri bezala hartzen du gertakizun horren aurreko eta geroko irakasleen motibazioa aztertzeko. Lehenengoari dagokionez, hiru motibazio ezberdintzen ditu: 1) irakasle izan aurretik euskaraz ikasi edo bere burua alfabetatu zuten garaitik datorkien motibazioa, “dela integratiboa dela instrumentala dela ideologikoa”; 2) euskaltzaletasuna eta gertutasuna; 3) abertzaletasuna. Franco hil ostean, ordea, batzuek funtsean abertzaletasunak edo euskaltzaletasunak eraginda irakatsi arren, motibazioen aukerak zabaltzen ziren, politikoa, ideologikoa, soziala, integratzailea, kulturala eta are erlijiosoa ere sartuz (Larrea, 2005: 213-215).

5.3.5 Alfabetatze instituzionala

80ko hamarkadan hasitako “alfabetatze instituzional” prozesuak herrialde ezberdinetan euskaltegien hedapena erraztu zuen eta, horrekin batera, euskara ikasteko aukerak zabaldu ziren. Aldi berean, instituzioetatik abian jarritako euskararen normalizazio prozesua gehi gizartean emandako bestelako aldaketak (sozialak, kulturalak, ekonomikoak...) euskara ikastearen nahia edota beharra (adibidez, hainbat lan eremuetan eskatzen ziren tituluak eskuratzeari begira) piztu zuen.

“HABE-ren datuak 80ko hamarkada bukaeran, eskualdeka” taulan ikus daitezke garai hartan EAEko hiru eskualdeetako ikasle zein irakasleen kopuruak HABEk jasotako datuen arabera.

HABE-ren datuak 80ko hamarkada bukaeran, eskualdeka.


Ikasle kopurua

	1986-1987	1987-1988	1988-1989
ARABA	5.083	4.612	4.030
GIPUZKOA	15.218	13.824	12.931
BIZKAIA	26.886	24.460	21.900
GUZTIRA	47.187	42.896	38.861

Irakasle kopurua

	1986-1987	1987-1988	1988-1989
ARABA	238	194	196
GIPUZKOA	725	645	615
BIZKAIA	1.157	1.081	976
GUZTIRA	2.120	1.920	1.787

Iturria: HABE.



6.

Euskararen transmisioa eta generoa

6.

Euskararen transmisioa eta generoa

Gau eskolez eta, orokorrean, euskararen transmisioaz hitz egiten dugunean, ezin dugu generoa alde batera utzi¹⁸. Identitatearen paradigmak izan duen aldaketa, bereziki antropologia feministatik, eragin zuzena du soziolinguistikaren esparruan. Identitatea egiten dugunaren emaitza den neurrian, badaude hizkuntzaren erabileran eragiten duten identifikazio esparruak. Horrela, hiztunek euskaraz edo erdaraz egiten dutenean hizkuntzaz haratago dauden ezaugarri ekonomiko-sozio-kulturaleri loturiko identitate ezaugarriak adierazten ari dira (Artetxe Sarasola, 2014: 15). Zentzu horretan, azken hamarkadetan hizkuntzaren dimentsio subjektiboak izandako garapenetik abiatuta gizarte antropologia, hizkuntza antropologia eta teoria feministaren arteko loturak nabariak direla adierazten dute zenbait egilek (Agirre eta Eskisabel, 2016; Hernández, 2016; Altuna eta Hernández, 2018; Agirre eta Eskisabel, 2019).

Helduen alfabetatze-euskalduntze prozesuan emakumezkoen presentzia, bai irakasle eta bai ikasle moduan, nabaria zela erakusten dute datuek, lehenago ikusi dugun bezala. Legarretak adierazten zuenez, euskara galtzeko prozesuan emakumeek atzera arinago egin bazuten ere, berreskuratzeko momentuan gogotsu erreakzionatu zuten (Legarreta, 1977: 1004). Ildo bera jarraitzen zuen Amonarrizek, Aracil eta 'Txepetx'en lanetatik abiatuta, egoera minoritarioan sexu bakoitzak hizkuntzaren aurrean izandako jokabide desberdinak aztertuz, bi jarrera sumatzen zituelarik: batetik, emakumeen elebiduntze prozesua gizonezkoena baino beranduago hasi zen arren, emakumezkoek lehenago amaitu zutela; bestetik, emakumezkoek eginkizun berezia bete izan dutela euskararen berreskurapen prozesuan, batez ere irakaskuntzaren alorrean (Amonarriz, 1995).

Baina datu kuantitatiboez gain, datu kualitatiboei ere erreparatu behar diegu. Alde batetik, Euskal Herriko eta gisako gizarte tradizioaletan ahozkotatasunak, idazmenak baino askoz ere hein handiago batean, hizkuntzaren transmisioan betidanik izandako garrantzia. Eta arlo horretan emakumeen rola nagusia izan da, tradizionalki beraiei egotzi zaizkielako hezitzaile eta zaintzaile rolak (Egia,

18 Erabilerari dagokionez, Amonarrizek gaur egungo gizarte hiritarrean euskararen erabilera "feminizazio" prozesuan sartuta zegoela adierazten zuen 90eko hamarkadan (Amonarriz, 1995). Izan ere, urte ezberdinetako Kale Neurketek erakusten dituzten datuak genero ikuspegitik aztertuz, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago mintzatzen direla euskaraz adierazten dute (Altuna eta Hernández, 2018: 119-127).

1991: 52). Ikuspegi soziolinguistikotik ikusita, euskara dakiena guraso bakarra denean, amaren aldeko transmisioa aitaren aldekoa baino eraginkorragoa dela adierazten dute datuek (beti ere, gune euskaldunetan, erdaldunetan irakaskuntzak familiak baino indar handiagoa hartzen baitu transmisioan) (Zinkunegi, 1995: 82-83).

Agirrek eta Eskisabalek generoa eta hizkuntza interseksionatzen dute, subordinazioa eta feminizazioaren arteko lotura azpimarratuz. Feminitateak zein euskarak indarkeria sinbolikoa pairatu dute; biak ezaugarritzeko erabiltzen diren nolakotasunak hurrengoak izanik: emozioa, irrazionalitatea, ahultasuna, intuizioa... Biak teoria feministan agertzen den naturalizazioaren (kulturrenaren aurrean) kontzeptuari atxikitzen zaizkio, subordinazioak eta feminizazioak elkarri-eraginez (Agirre eta Eskisabel, 2019: 24-34). Egile horien esanetan, euskalgintzak eta feminismoak osagarri garrantzitsuak partekatzen dituzte, besteak beste, biak militanteak direla eta, menderakuntzaren aurkako bi borroka diren heinean, bien arteko aliantzak (diskurtso eta iruditerian zein praktikan) bide berriak zabaltu ditzakete (Agirre eta Eskisabel, 2016).

Atal honetan euskararen transmisioan emakumezkoek izandako rola ikusiko dugu, ikerlanari dagokion garaian sexu/genero sistemak ezarritako eragin esparru nagusienetatik abiatuta: familia eta irakaskuntza.

6.1 Etxeko transmisioa eta generoa

Gizartearen rol banaketa hizkuntzaren erabileran islatzen zen eta gizonezkoen eremua publikoa zen bitartean, emakumezkoek zegokien etxeko esparrua. Emakumeek hizkuntzaren transmisioan izandako rola, etxeko esparruan eta zaintzari lotuta ezinbestekotzat hartu behar dugu (Del Valle, 1988: 51). Irazabalen ustez, euskara bizirik mantendu bada “baserrietan, emakumeek egindako etenik gabeko transmisioari esker izan da”, nahiz eta euren lana prestigio edo botere guneetatik kanpo egon (Irazabal, 2008: 46). Hizkuntzarekin batera, inkontziente kolektiboaren transmisioa (eta horrekin batera identitatearen kontzientzia) ematen zen (Egia, 1991: 52). Altuna eta Hernándezen hitzetan, nazionalismo tradizionalan hizkuntza errutinak, egunerokotasunean gauzatzen ziren praktika txikiak, “emakumeen eskuetan zeuden eta eurei egokitutako jarduera patriotikoen barruan zeuden kokatuta (hezkuntza, osasuna eta ongizatearekin batera)” (Altuna eta Hernández, 2018: 136).

6.2 Eskola eta generoa

Etxe barruan emakumezkoek bazegokien seme-alabak heztea, etxetik kanpo ere rol hori zabaltzeko aukera izan zuten, Hezkuntza munduan sarbidea izan zutenetik. Lanbide hau laster feminizatu zen, batez ere adin txikienetan, eskolako maistrak nolabait “ama soziala”ren rola baitzuen. Izan ere, XX. mendearen hasieran maistra bezala lan egiteak ez zuen inolako talkarik egiten feminitate ideiarekin eta euskal erdi-mailako klaseetako emakumezkoen artean lanbide errespetagarria bihurtu zen. Genero eta klase kategoriekin kontraesanetan ez sartzeaz gain, euskal nazionalismoaren iragazkia ere gainditzen zuen (Llona, 2002; Rincón eta Anzizar, 2014). Altuna eta Hernándezen hitzetan, XX. mendearen hasieran euskal nazionalismo tradizionalak hizkuntza politikari ekin zion, eta are gehiago,

“esan daiteke lehenengo hizkuntza politika euskara emakumeen eskuetan uztea izan zela” (Altuna eta Hernández, 2018: 131).

Garai hartako hezkuntza gaztelaraz izan arren, Bizkaian sortutako auzo-eskoletan zein Gipuzkoako eremuko landa-eskoletan euskara jakitea erabilgarria zen irakasleriaren ikasketa prozesua errazteko (Acosta, 1987: 83-85). Paraleloki, eta nazionalismoaren eskutik, euskal umeak euskaraz alfabetatzearen aldeko mugimendu bat sortu zen, sistema ofizialetik kanpo. Primo de Riveraren diktadurak horrelako proiektuen porrota eragin zuen arren, II. Errepublikan euskal eskola horiek berreskuratu ziren (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994:86). Ekimen horiek hain laburrak eta esparru zehatzetan izan zirenez, ez zen astirik egon umeak euskal nortasun balioetan guztiz sozializatu ahal izateko. Baina hala ere, ezinbesteko erreferenteak izan ziren geroago eskola euskal nortasunaren eraikuntzan ezinbesteko osagarritzat hartu zenean (Dávila, 2008). Euskal Eskolen proiektu hori estatu mailan, XX. mendeko lehenengo herenean berrikuntza pedagogikoa bultzatuko zuen mugimenduan oinarritu zen. Eskola sistema tradizionalak ez bezala, hezkuntza-irizpide berriek ikaslearen ikaste-prozesuan fokuratu ziren, betiere bere interesetatik abiatuta ikaskuntza globalera heldu nahian eta denboraren zein espazioaren antolakuntza malguarekin. Inolako zalantzarik gabe, Elbira Zipitriak aldarrikatutako metodologiak gerra aurreko Euskal Eskolen eta beranduagoko ikastolen mugimenduaren artean zubi bat irudikatzen du (López-Goñi, 2008: 357).

6.3 Etxe-eskolak

Gerra zibilaren ostean, alde zaurietatik euskararen inguruan egindako lan guztia desagertu zen. Maisu eta maistra izandako euskaldun gehienei titulua kendu zieten, irakaskuntzaren gremioak pairatutako purgaren baitan. 1945. urteko “Ley de Educación Primaria” zela medio, eskola akulturazio tresna eraginkorra bilakatu zen, itxuran zein edukietan erregimenaren isla zena. Eskola horren ezaugarrien artean katolizismoaren pisua, maisu-maistren autoritarismoa, testu-liburuan oinarritutako metodologia, buruz ikasitakoa errepikatzen behartzen zuena... (Irazabal, 2008: 51).

Nolanahi ere, legeak zirrikitu bat utzi zuen, eta tituludun maisu-maistrek 9 urtera arteko umei eskolak emateko aukera zuten. Horretaz baliatu ziren Elbira Zipitria eta gisako maistra euskaldun nazionalistak guda aurretiko euskal eskolaren esperientzia guztia metatzeko. Horrela, “baserriko sukaldeko mahaia eredu hartuta”, sortu ziren etxe-eskolak. Elbirak 1946an zabaldu zuen bere etxe-eskola, Donostiako Fermin Calbeton kalean (Fernández, 1994: 56; Irazabal, 2008: 52; Altuna eta Hernández, 2018: 131). Geroago helduko ziren bere eredia jarraituko zuten besteak. Donostian bertan, beste zenbait ekimen abiarazi zituzten Zipitriarekin aritutako gainerako andereñoek: M^a Carmen Lasarte (1957, Angel kaleko bere etxean), Arantxa Arrazola (1961an, Campanario kalean), Izaskun Busto (1963, Juan Jose Prado kalean, gaur Azpeitia kalea), Koro Aldanondo (1964, Konstituzio plazan)...

Baina ekimenak ez ziren soilik Donostiara mugatu eta batzuetan etxean bertan edo lokal txikietan sasi ezkutatuta eskolak emateari ekin bazioten ezinbestekoak izan ziren gaur egun oraindik jarraitzen duten ikastolen hastapenetan: Kontxi Beitia (1960, Pasaia), Maritxu Marizkurrena (1962, Hernaniko *Urumea* ikastolaren sortzailea), Miren Terese Aleman (1965an, Añorgan ikastola), Arantxa Mendizabal (1965, Lasartekoa)... (Aranburu, 1991: 14-17).

Kuantitatiboki, 1946tik 1969ra eta nahiz eta talde txikietan izan, ume asko pasa ziren etxe-eskoletatik. Dena den, ekarpen handiena kualitatiboa izan zen batez ere. Hasteko, gerra baino lehen euskal irakaskuntzaren arloan izandako aurrerapenei jarraipena eman zitzaion. Testuinguru soziopolitikoak berak baldintzatuta, baliabide urriak zituzten baina, hala ere, eta berrikuntza pedagogikoan oinarritutako metodoei jarraiki, hurbilen zeuzkaten osagarriek ere balio zuten zenbatzeko, abesteko, jolasteko eta azken finean, ikasteko.

Horrela, lehenengo hezkuntza euskaraz egitearekin batera hizkuntzarekiko atxikimendua ere lortzen zen. Zentzu horretan aipatu beharra dago Altunak eta Fernándezek “emakumeen hitza” deritzotena, hazkuntza eta hezkuntzari loturikoa (bai hezkuntza formala, eskolakoa zein informala, familia gunekoa, hitz zorrotza eta leuna tartekatzen duena, hitz ludikoa da, jolas zein kantuari loturikoa) (Altuna eta Hernández, 2018: 131).

6.4 Etxe-eskoletatik ikasletara

Dudarik gabe, ikastolek beste dimentsio bat eman zioten euskararen irakaskuntzari, etxeetako itxitasunetik atera eta herrietara zabalduz. Gainera, ikastola ez zen bakarrik euskaraz egiten zen eskola, baizik eta herri nortasuna eta nazioa oinarritzeko eta finkatzeko sortutako baliabide bat; hortaz, “ikastolan parte hartzea euskal eraikuntzan aritzearen sinonimoa” zen, horrek zituen inplikazio politikoekin (Fernández, 1994: 102-107). López-Goñik adierazten duen moduan, ikastolen historia ez da eskola baten historiara mugatzen, herri batek bere hizkuntza berreskuratzearen aldeko historiara baizik. Hezkuntza fenomeno berezia daukagu beraz ikastola, esfortzu kolektibo baten emaitza dena eta hasieran beste gizarte taldeekin batera funtzio sinergikoa bete zuena (López-Goñi, 2005: 372).

Ikastolen eta etxe-eskolen arteko harreman honi dimentsio pertsonala ematearren, interesgarria da etxe-eskoletan aritutako hainbat emakumeren ibilbidea jarraitzea. Adibidez, 1952-1953an Elbira Zipitriarekin praktikak egin zituzten Karmele Esnal eta Jone Forkada maistra gazteak. Urte bete beranduago Esnalek Donostiako Pedro Egañan lokal bat zabaldu zuen. Hortik Artzain Onaren plazara pasatu zen eta pixkanaka-pixkanaka Santo Tomas Lizeoa izango zenaren hazia jarri zuen. Bestetik, 1956an Mari Karmen Mitxelena Zipitriarekin praktikak egin zituen eta urte bete beranduago Donostiako kaian lokal berri bat ireki zuen. Mari Karmen Mitxelena, Elbira Zipitria, Koro Aldanondo eta Miren Terese Alemanekin batera Orixe Kultur Elkarte sortu zuten, helburu nagusia ikastola bat sortzea zelarik (Aranburu, 1991: 14-17).

Emakumezkoen bidezko transmisio katearen beste adibide bat Orereta ikastola dugu. 1962. urtearen inguruan seme-alabak eskolatzeko adinetan zituzten herriko guraso batzuk, euskararekin oso sentsibilizatuta zeudenak, Donostiako eta Pasaiaiko ikastolen esperientzia ezagututa euren seme-alabak heritik kanpo ikastera bidali beharrean, Erreterrian bertan ikastola bat sortzearen aldeko apustua egin zuten (Losada, 2016: 217-224).

Ikastolak sortuko ziren herrien arabera baliabide ezberdinak izan arren, baziren ezaugarri amankomunak. Besteak beste, euskararen edota euskal kulturaren inguruko ekintzak egiten ziren (alfabetatze ez-formaleko ahaleginak, antzerkia, euskal jaiak, dantzak, txistua, mendirako ibilaldiak...) eta partaide batzuen seme-alabak eskolaratzeko adinetan zeuden (Fernández, 1994: 132).

Baina orokorrean, 60ko hamarkada horretan oraindik ez zegoen trebatutako behar adina irakasle, ezta ikasmaterialik edota egiturarik ere. Irakaskuntzari, eta batez ere lehenengo mailai lotutako ikastetxeak ziren heinean, ikastolen langileria eta zehazki irakasleria oso feminizatuta zegoen. Egoera hori azaltzen duen beste arrazoi historikoen artean magisteritzan beste lanbideetan baino gutxiago kobratzearena zegoen (Murua, 2008: 250-263). Euskara askatasunarekin identifikatzen zen garai horretan, eta hezkuntza tradizionala ikastola bezalako eredu pedagogiko berria eta horizontalarekin alderatuta, agian are gehiago uler daiteke irakaskuntza tituludunentzat edo zaleentzat proiektu erakargarria izatea.

Gizarteko sektore batek laguntza eman bazien ere (horra hor, adibidez, gurasoen inplikazioa, pertsona partikularrena, Elizaren arlo batena...), andereñoak izan ziren proiektua bideragarri bihurtu zuten eragile nagusiak: euren burua trebatuz, haien arteko sare bat antolatuz, material berria sortuz... Profil profesionalizatu horretaz gain bazegoen beste bat ere: titulurik gabeko neska euskaldun motibatuak, praktiketan edo laguntzaile gisa ikastoletan aritzen zirenak (López-Goñi, 2008: 361-362). Izan ere, irakaskuntzari lotutako ogibideetan betidanik egon den feminizazioa genero eta klase kategorien arteko intersektionalitatearen ondorioa bada (Llona, 2002), Maria Losadak Erretereriako kasua aztertu ondoren beste osagarri bat gehitzen dio euskararen irakaskuntzari, zehazki frankismoaren testuinguruan kokatuz, ohiko binomio horrek emakumeen rola hobeto ulertzen laguntzen duena: diktadurak ezarritako feminitate-eredu egoki bakarraren aurka, batzuk beste emakume eredu bat eraikitzen eta erakusten saiatu ziren, besteak beste, ezkondu ondoren lanean jarraituz, ikastolen mugimenduan, auzo-elkarteetan edota mugimendu kooperatiboan parte hartuz (Losada Urigüen, 2016: 85).

Eunate Irazabalen ustez, ikastolen eta zehazki andereñoen eginkizuna ezinbestekoa izan zen alfabetatze prozesua eta hizkuntzaren modernizazioa ahalbidetzeko: haiek izan ziren alfabetatze eta euskalduntze ikastaroak jaso zituzten lehenak; hizkuntzaren batasunaren garrantziaz ohartuta, batuaren aldeko apustua egin zuten eta, hortaz, ikasi, erabili, erakutsi eta zabaldu zuten; azkenik, ikastolak ardatz izan zuen kultur mugimendu handia sortu zelako (besteak beste, liburugintzan, itzulpengintzan, eskolarako materialgintzan, Durangoko Liburu eta Diska Azokan edo Euskal Kantagintza Berrian islatzen zena) (Irazabal, 2008: 54).

6.5 Andereñoen arteko belaunaldi aldaketa

Elbira Zipitriaz gain beste emakume batzuk ere aritu ziren etxe-eskoletan, haien artean sare antolatu bat osatuz. Irakasle berrien beharra alde batetik ezagunengana joanez konpondu zen (Faustina Karri, Itziar Artzelus...) eta bestetik euskal gizartean sortzen hasi zen beste esparru politikoaren bidetik (EKINena, hain zuzen ere) etorri ziren. Magisteritza ikasketak amaitzeaz eduki eta euskalduna izanez gero, etxe-eskola batean lanean hasteko proposamen bat jasotzeko aukerak ematen zituen, hasieran aipatutako sareari beste dimentsio diakroniko bat emanez eta kate bat osatuz. Etxe-eskoletan sartutako zenbait andereño gazte (Jone Forkada, Karmele Esnal...), nazionalismo tradizionaletik etorri beharrean, gizartean sumatzen hasi ziren aldaketetan murgilduta zeuden. Belaunaldi berri horiek, aitzindarien lana mirestu arren, aldaketa batzuk egitearen alde zeuden, besteak beste, esperientzia gehiago hedatzea. Gainera, gizarte mailan ere hainbat aldaketa garrantzitsu gertatzen ari ziren:

ETAren garapena, erlijioak bizitzan zeukan indarraren galera, Europatik zetozen pentsamendu-korrante berriak (batez ere sozialismoa eta feminismoa), genero ikuspegi berri batean oinarritutako beste gizarte eredu bat proposatzen zutenak... (Fernández, 1994: 54).


Hala ere, euskal nazionalismo erradikalaren diskurtso politiko berrian ere emakumearen irudiak nazionalismo tradizionalak baldintzatuta egoten jarraituko zuen. Gerraurreko eta gerraosteko diskurtsoen arteko nolabaiteko jarraitutasuna adierazgarria: da eskubideen berdintasunaren gaia aipatu bai baina bertan sakondu nahi ez izana; edota emakumezkoen irudia bigarren mailako lanetara lotua izatea, aktibismoaren irudia gizonezkoena izaten mantentzen zen bitartean (Del Valle, 1985: 252-254).

Denboraren poderioz, bi belaunaldi horiek elkarrengandik urruntzen joan ziren, gizarte mailan jazotako beste zenbait aldaketaren testuinguruan. 1970eko “Ley General de Educación” deitutakoak jaioterriko hizkuntzen lanketa lehendabizi mahai gainean jarri zuenerako etxe-eskolak desagertu ziren, ez bakarrik aginte politikoek hala agindu zutelako, baizik eta gizartearen sortu zen euskal eskola eredu berri bat sortu zelako, ikastolarena alegia (Fernández, 1994: 57-85; Irazabal, 2008: 54). Hurrengo urteetan beste neurri politiko batzuek eragin handia izan zuten euskararen transmisioan: 1975ean jaioterriko hizkuntzak haur eskoletan eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan txertatzea ahalbidetu eta arautu zuen. Hiru urte geroago, 1978ko Konstituzioak Estatuko hizkuntza ezberdinen ofizialtasuna adierazi zuen (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994: 89).

1982an euskararen erabilera arautuko zuen legearen ondorioz, hizkuntza normalizazioaren izenean ikastolek aitorpen legala lortu zuten, eredu linguistikoen artean “D” ereduaren baitan izanik. Instituzionalizatzearen bidean “emakumeen ardurak gutxituz joan ziren eta gizonezkoek hartu zuten, batez ere, ikastolen erabakiguneen ardura” (Irazabal, 2008: 55).

Hizkuntzak (euskarak) euskal kultura eta euskal identitatearen erdigunea hartu zuen unean, ordura arte bere nagusia izandakoa (emakumea) baztertuta geratu zen, protagonismoa gizonezkoetara pasaz (Del Valle, 1985: 250). Hala, mendeetan zehar emakumeak hizkuntzaren transmisioaren arduradunak izan diren arren:

“euskararen aro berrira iritsi dira diskurtso propiorik gabe (...) Bere ibilbidean zehar hizkuntza politikak protagonismo handia eman dio hezkuntza sistemari baina hor emakumeak bitarteko papera baino ez dute izan” (Altuna eta Hernández, 2018: 138-139).



7.

Haurren alfabetatze ez-formala

7.

Haurren alfabetatze ez-formala

Gau eskolekin batera, ikastolen mugimendua izan zen euskararen berreskuratze prozesuaren beste oinarri nagusia (Basurko, 1993: 23; Odriozola, 1992: 25-32). Bi fenomeno horiekin alderatuta beste maila batean egon baziren ere, irakaskuntza ez-formalean euskararen transmisioari lagundu zioten zenbait jarduera aipatu behar dira. Hau da, etxeko esparrutik kanpo (baina noski, adin horietan familiaren oniritziarekin edota laguntzarekin berarekin) zabaltzen ziren bide edo nolabaiteko zirrikituak.

Irakaskuntza ez-formal hau modu ezberdinetan agertu ohi da. Ondoren, beste hauek aztertuko ditugu, gehienbat euren inguruan lortutako testigantzen bidez: haurren aldizkariak, katekesi parrokialak edo dotrina, ikastetxeetan bertan baina eskolaz kanpoko orduetan abian jarritako euskarazko eskolak. Azkenik, zenbait herritan eskolak amaitu ondoren haurrentzat antolatutako umeentzako alfabetatze-eskolei (*haurren gau eskolak* edo *haurren gau ikastolak*) erreparatuko diegu.

7.1. Umeen aldizkariak


Helduen alfabetatze-euskalduntze ekimenekin batera, baina maila apalago batean, umeei zuzendutakoak ere egon ziren. Zentzu horretan, 50eko eta 60ko hamarkadetan haurrentzat sortutako argitalpenak aipatu behar dira. Material horietako batzuek izandako hedapena izugarria izan zen, batez ere aintzat hartuta euskararen transmisioa hezkuntza ofizialetik kanpo egiten zela. Gainera, material horien xede publikoa ikusita, familiako norbaiten laguntza (logistikoa eta seguruenik baita emozionala ere) eskatzen zuen. Hau da, familiako hizkuntzaren transmisioarentzat euskarri fisikoa suposatzen zuten, ohiko ahozkotasuna lantzeaz gain, idazmenean eta irakurmenean ere trebatzeko aukera ematen zuena.

Aldizkarien artean, lehenbizi aipatuko dugu Nafarroan sortutako *Umeen Deia*, Felipe de Murieta kaputxinoak 1959an sortua eta 1966an hura hil zen arte mantendu zena, zeinak haurren euskarazko alfabetatze prozesuaren dinamizazioan funtzio garrantzitsua izan zuen. Argitalpena 14 urte baino gutxiagoko publikoari zuzenduta zegoen, eta Euskal Herriko txoko guztietara heltzen zen. Umeek

beraiek euskaraz idatzitako testuz osatuta zegoen, eta bere ibilbide laburrean 885 haurrek egindako 1.500 ekarpen bildu zituen. Oso argitalpen xumea izan arren, aintzat hartu beharra dago ume horientzat euskara bakarrik familia esparruetan bizi zela eta erdaraz eskolatuta zeudela, baina hala ere ama hizkuntzan idazteko saiakerak zirela. Horregatik, umeek beraiek sortutako haur literaturaren erreferente nagusi bat daukagu (Arrien, 1993: 40). Gainera, aldizkariak azterketa sistema bat zeukan eta, parte hartzaileen artean opariak eta sariak banatuz haurren esfortzuei aitortza publikoa emateaz gain, modu ludikoan lurralde ezberdinetako umeen arteko harremanak sustatzen zituen (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994b: 93-95).


Umeen deia-rekin batera, haurrentzako beste aldizkari batzuk sortu ziren. Adibidez, *Pan-Pin* (1960-66), *Zeruko Argiaren* gehigarri gisa argitaratu zuten (Rincón eta Anzizar, 2014: 43-44).

Kili-Kili aldizkaria da beste erreferentziazko material aipagarri bat, zeina 1966an hasi zen plazaratzen. Erdaraz eskolatutako umei euskarazko alfabetizazioa helaraztea zuen helburu, eta ikastolen mugimenduaren hedapenarekin bat etorritik, nolabait mugak hautsi zituen fenomeno bihurtu zen argitalpen hori. Joxe Antonio Retolaza apaiz bizkaitarrak sustatu zuen, eta hasiera batean haurren aldizkari gisa sortu bazen ere, “Kili-Kili Sariketa Nagusia” lehiaketarekin jarraitu zuen. Honela sortu ziren *Kili-Kili Lan ta Lan* koadernoak, zuzenean umeen etxeetara bidaltzen ziren 12 lan-koaderno, bete ondoren bueltatu behar zituztenak. Ikasturte bakoitzean hiru koaderno betetzen ziren, eta denetan, irakurmen-idazmenaz gain, beste eduki batzuk ere sartzen ziren: euskal kultura, geografia, historia, erlijioa, abestiak, elkarrizketak, lehiaketak.... *Umeen Deia*rekin gertatzen zen bezala, umeen partaidetza sustatzeko herrietan jaiak antolatzen ziren, ekimenari alde ludikoa emanez. *Kili-Kili* ikasturtearen bukaeran txangoak eta opariak izaten ziren. 1973. urtean 19.000 haurrengana heldu zen eta Euskal Herriko zenbait erakunderen laguntza jaso zuen (Nafarroan, “Bianako Printzea Institutuzioa”, Gipuzkoako “Euskara-lagunak”, Bizkaiko “Euskarazaleak”, Arabako Foru Aldundia, eta Ipar Euskal Herrian, Seaska). 1980ko hamarkadan *Kili irratia* ere izan zuen (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994b: 93-95).



8.

Errenteriako testuingurua



Orereta ikastolak 1984ko urriaren 7an antolatutako Kilometroak. **Agustín Lojo** funtsa. Errenteriako Udal Artxiboa.



8.

Errenteriako testuingurua

Gerraostetik laurogeiko hamarkadara bitartean euskarak izandako hedapena ezin da ikuspuntu linguistikotik bakarrik aztertu. Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua testuinguru politiko, ekonomiko, sozial eta kultural oso zehatz batean sortu eta garatu bazen ere, leku bakoitzeko esparrura egokitu zen. Hizkuntz komunitateak, espazio fisikoa zein sinbolikoa aintzat hartuta, tokiko berezitasun propioak izango zituen, bertako errealtatean oinarrituz eta aldi berean hari eraginez.

Errenteriako testuingurua aztertuko dugu, zeinak helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua bertan kokatzen eta bere zenbait ezaugarri ulertzen lagunduko digun. Ibilbide horretan Siadecok identifikatutako “atzerapen”, “kontserbazio”, “berreskuratze” eta “normalizazio” garai ezberdin horiek nolabait Errenteriako testuinguru zehatzera eramaten saiatuko gara, 60ko eta 80ko hamarkaden arteko helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesuan izandako eragina aztertu ahal izateko.

8.1 Errenteriako testuinguru orokorra

8.1.1 Egoera politiko gatazkatsua

Hego Euskal Herrian, 60ko hamarkadaren bukaeran gero eta nabariagoa bazen gizartearen arlo handi baten atsekabe politikoa, hurrengo hamarkadan egoera politikoa puri-purian egotera iritsi zen: 1968ko abuztuan, Gipuzkoako Salbuespen Egoera urrian luzatu zen, eta 1969ko urtarrilean Estatu osoan hasi zenarekin lotu zen; 1970eko Burgoseko Auzia; Carrero Blancoren atentatua 1973an; errejimena 1974an eta 75ean burututako exekuzioak; 1976ko martxoko Gasteizko gertakariak... Gainera Francoren heriotzak trantsizio demokratikoa izeneko garaiari hasiera eman zion eta horrekin batera alderdi politiko berrien sorrera edota zeudenen legaltasuna, hainbat mugarri (erreferenduma, hauteskunde orokorrak, amnistiaren legea, Konstituzioa, Autonomia Sistemaren sorrera...). Eta hori guztia, alde batetik ETAk eta bestetik Estatuak euren bortizkeria estrategia gauzatzen zuten bitartean (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 334-335; Mayordomo, 2002: 20; Tejerina, 2015).

“Gerra ondoren hau basamortu bat zen (...) aitzindari batzuk sortu ziren, aitzindari horiek Txillardegi eta gainerakoak izan ziren. Batzuk ETArak zehatu ziren baina ETAn militatu ez zuten gehienak hain zuzen ere herri ekimenetan sartu ziren. Bat izan zen euskalduntasuna edo euskalgintza edo gau eskolaren sorrera izan zen; bestea ikastola izan zen; besteak izan ziren ... elizaren inguruko herri mugimendu asko zegoen (...) orduan elizaren babesa ezinbestekoa zelako bestela dena zen klandestino eta ilegala (...) sindikatoak ezinezkoak ziren (...) Klase arazoa zen ardatz bat eta beste ardatz nagusia zen nazio arazoa (...) [Eta] Beti bi ardatz horietan [mugitzen ginen], zein lehenetsi eta zein ez lehenetsi eta zein da kontradizio nagusia edo zein ez da kontradizio nagusia (...) Estrategiaren erdigunean kokatu behar dugun kontradizioa zein da, nazio arazoa da ala klase arazoa da?” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Zegoen PNV vs. ETA; ETA esaten dudanean, ETArekin inguruan mugitzen ziren sindikatu, herri-mugimendu eta euskalgintzako erakundeak; eta bestetik zegoen dena instituzionalizatu nahi zuen PNVk. Eta esan nahi dut oso gatazkatsua izan zen (...)” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Testuinguru politikoa, instituzioak... garai hartan oraindik instituzio autonomikoak ez zeuden. Instituzio bakarra... Espainiako diktadura zegoen garai hartan (...) Franco hil zen nik 20 urte nituela (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“[83-84an] Ziren gauza serioak, eh (...) Zegoen egoera bat... ez zen txantxetako, ETArekin garaia zen. Orduan ezker abertzalea (...) oso itxia zen, terreno bat oso... kosta egiten zena [sartzea] bazegoelako errealitate bat arriskutsuagoa, edo mugimendu bat... (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

Testuinguru gatazkatsu horri Erretereriak 60. hamarkada bukaeran bizi izandako egoera politiko atipikoa gehitzen zitzaion: alde batetik, gatazka sozial nabarmena; bestetik, beste “errepresioaren aurkako” gatazka bat; hirugarrenik, elkarre-mugimendu garrantzitsua gehitu behar da, Asanblada izeneko herri-kontrabotere saiakeran islatu zena (Zabaleta eta Pérez, 2002: 179-180). Elberdinek zioenez, 1976tik aurrera herria erreferentea izan zen hainbat borroka mailatan (politikoa, langileena, auzoena...); aldi berean, berreuskalduntzeak, aldarrikapen feministek edota auzokideen arteko autoantolatetarako ezagutzen ez zuten indarra hartu zuten (Iriarte eta Elberdin, 1997: 137).

“Nik uste dut zela momentuko gauza: euskera erabat baztertua egon zen (...) Frankismoagatik eta orduan gero hor bapatean ikusi zen... aukera bat egon zen irekitzeko eta Franco hil ondoren gehiago, eta hor nik uste dut jendeak erantzun zuela (...) Frankismoan bizitutako horren egoeraren kontra, ez? Eta orduan kriston ‘boom’-a egon zen maila guztietan: sindikalki (...) manifestazioetan 10.000 pertsona egoten ziren (...) Eta orduan beste gauzen artean ba euskara (...) Kriston iraultza zegoen Franco hil zen... Klaro, dena... ikastola aurrera, Eusko Jaurlaritzak... baina hor zegoen gero ETArekin biolentzia (...) Eta gero Erretereria izan zen... herri bat... nabarmena izan da historia horretan... ‘El que más salía en el telediario’...” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Hemen zegoen mugimendu oso handia maila guztietan. Hasi feminismotik (...) langile mundua zer esango degu, metaleko greba handi horiek (...) Hizkuntza ez dut uste hor sarrerarik izatea, baina gero joan zen hor ere [sartzen] (...)” (Jones Arruti Peña, Orio, 1962)

Politikoki, 70eko hamarkadaren amaieran herriak egoera oso berezi bat bizi izan zuen, udaletxe mailako botere-hutsartearen ondorioz. 1976ko uztaillean, jaiak hasi baino pare bat egun lehenago, Galtzaraborda auzoko ordezkari batzuk udaletxera joan ziren auzorako ur-zerbitzua aldarrikatzera; Guardia Zibila etorri eta, nahiz eta alkateak bitartekariarena egin, Guardia Zibilak gogorki kargatu zuen herritarren aurka. Horren ondorioz, alkateak eta beste hamaika zinegotzik dimisioa aurkeztu zuten (Muro, 1996: 558), 1976/07/21ko *El Diario Vasco* jaso zuen bezala.

Berez, ez zen udaletxerik egon 1978. urtearen hasiera arte, alderdi ezberdinek (PSOEn gehiengoarekin) batzorde kudeatzaile bat sortu zutenean. Garai batez, Errenterian bi errealitate paralelo egon ziren: alde batetik “elektorala” (1977an PSOE eta EAJ bereziki bozkatu zuena), eta bestetik “kalekoa”,



1976/07/21, *El Diario Vasco*. Alkateak eta 11 zinegotzik dimisioa aurkezten dute

Asanblada eta elkarte-mugimenduen inguruan mugitzen ziren sigla ugarienez osatuta zegoena (Zabaleta eta Pérez, 2002: 179-180).

1978ko uztaillean ere errepresioarekin lotutako gatazka garrantzitsuak izan ziren: Iruñeko sanferminetan izandako Germán Rodríguezen heriotzari Donostian Joseba Barandiaranena gehitu zitzaion pare bat egun geroago; gainera, erantzun moduan izandako lanuzteen ondoren, oraindik egunerokotasunera bueltatzeko astirik gabe, polizia nazionalak Errenteriako hainbat lokal arpilatzeari ekin zion (Ordozgoiti, 2013: 91-92). 1978/07/14ko *El Diario Vasco* "Reprobable actuación policial"ez hitz egin zuen eta herrian egondako asanbladak ere jaso zituen, irudietan ikus daitekeen bezala.

Kaleko giroaren berri ematen duten testigantzak oso argigarriak dira:



1978/07/14, *El Diario Vasco*.

"Reprobable actuación en Rentería", azala eta barruko testuak

“Soziopolitikoki eta (...) lan munduari dagokionez ere, oso urte mugituak izan ziren (...) 70eko hamarkada, 80ko hamarkada. Pentsa: gure jolasetako bat zen poliziaren balen zorroak jasotzea. Orduan, giro hartan Erreterria herri berezi bat zen, oso markatuta baitzegoen: gatazka soziopolitikoa (...), hirigintzakoa, lan mundukoa (...)” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

“Kalean, gutxinaka (...) Francoren azkeneko urteetan, errepresioarekin eta hori dena, gero Franco hil zenean, hasi zen Transizioa (...) Klaro, hor kriston istiluak, gainera Erreterrian eta orduan nik uste dut hor indar handia hartu zuela... (...)” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

“No podías salir a la calle porque en cualquier momento enseguida venía toda la cuadrilla detrás. Y nos echaban las pelotas de goma, eh” (Toñi, Valencia de Alcántara, 1955)

“Aquí se han vivido cosas surrealistas. O sea, en la Plaza de los Fueros haber una fiesta, no me acuerdo lo que era, pero una fiesta así muy alegre, y por la calle Viteri una manifestación que te acojonaba” (Amalia, Erreterria, 1950)

“Baina hemen izan ziren urte batzuk oso gogorrak. Oso gogorrak, eh. Tiroak alde guztietan (...). Ateratzen bazin gaizki, ez bazin ateratzen ez zinan trankil egoten...” (Juani Lujanbio, Erreterria, 1936)

8.1.2 Lan mundua

60ko hamarkadaren bukaerarako Erreterria benetako herri industrial zen, enplegu bete lortu zen eta enpresetan lanpostu finkoak ziren nagusi. Baina datu horiek ezin zuten beste mota bateko errealtatea ezkutatu, besteak beste, etxebizitza eta pobrezia arazoak edota laneko baldintza txarrak (jardunaldi luzeak, soldata baxuak, konbenio falta...). Bereziki 70eko hamarkadan lan-gatazkak igo ziren, eta sindikatuen aldarrikapenekin batera gizarteak beste mota bateko eskaera politiko zein sozialak ere egiten zituen. Erregimenak, aldiz, errepresio gogorrena erabili zuen topatu zituen protesten eta aldarrikapenen erantzun gisa (Fernández eta Maceira, 2015: 76-82).

“Erreterria momentu horretan izango zen Euskal Herrian ere punta-puntakoa. Baina ez euskalduntasunagatik bakarrik, aurreko mugimenduak egon ziren Erreterrian: JOC eta horiek denak gerra aurretik (...)” (O., 1940)

“Erreterria beti izandu da herri bat... bizia, ez dakit, zenbait mugimendu [izan dituen]: la JOC... eta bueno, sindikatuak, eta bueno... alde horretatik (...) mugimendu handia izandu da (...) [auzo elkarteak] beranduago izan ziren” (David Gómara, Lezo, 1956)

1973ko krisialdiaren ondorioz egoera hau areagotu zen: grebak egon ziren, hainbat enpresa itxi egin ziren (haien artean “Fabrika Handia”), beste batzuk herritik atera zituzten (Paisaren eta Olibeten bidea jarraituz, 1980an Niesseni tokatu zitzaion, adibidez), denda asko itxi egin ziren, langabezia % 20 baino gehiagora iritsi zen... (Fernández eta Maceira, 2015: 76-82).

Langileen mobilizazioak ez ziren enpresa edo arlo zehatz batera mugatzen, klase-solidaritatea adieraziz. Adibidez, 1974ko azaroan Pasaiaiko portualdean eta inguruko udalerrietan lanuzteak egon ziren, greban ari ziren eskualdeko langileekiko elkartasuna erakusteko, eta hilaren 13 eta 14an Erreterian greba orokorra egin zen, 3.500 langile inguruk parte hartu zutelarik. Hurrengo hilabeteko lehenengo egunetan, Gipuzkoako hainbat udalerrikan (besteak beste Ordizian, Beasainen, Lazkaon, Hernanin, Lasarten, Pasaian eta Erreterian) lanuzteak egon ziren (Escribano, 2018):

Hainbat kasutan, langile-borroka beste mota bateko kontzientziaren bidez etorri zen, edo beste baten aurrekaria izan zen. Jarraian dauden testigantza hauek elizaren irakasbide sozialaren testuinguruan JOcek utzitako aztarna agertzen dute. Elkarte hau Erreterian 30eko hamarkadan hasi zen eta



El Diario Vasco, 1974-12-12. Lan geldiketak

lehenengo garaian militantzia gehienbat alde erlijiosotik etorri arren (gaixoei laguntza emanez, adibidez), 50 eta 60ko hamarkadetan protagonismoa gai sozialek hartu zuten, besteak beste, fabriketan elkarrekin sindikalen sorreran parte hartuz (Lacunza, 2002: 110).

“JOcek plantatzen zuena zen, besteak beste, presentzia edo militantzia bikoitza. Hau da, kristau komunitateari begira eliza egitura bat zen JOC, baina beti gizarte konpromisoari lotuta: horri “leialtasun bikoitza” deitzen genion. Eta horretarako formazioa ematen ziguten: soziopolitiko, kulturala... 18 urterekin gure autoformazioa egiten genuen (...) genero, sexualitate... gai horiei buruz” (Mikel Azkarate, Erreterian, 1966)

“[68-70 inguruan] mugimendu bat sortzen ari zen (...) Gero definitu zen “Comités obreros” bezala, baina “Comités obreros” fabriketan mugitzen zen bezala (...) tailer-mugimendua ere oso aberatsa zen eta ibili ginen tailer batzuk koordinatzen” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“Ni gogoratzen naiz 16 urte genituen eta ordu extrak ez zirela sartu behar eta bazegoen mugimendu bat eta guk bat egiten genuen helduekin (...) Euskal sentimendua baino lehenago (...) justizia soziala edo langileen egoera, edo langileen soldata... Horrek lehenago harrapatu ninduen” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

8.1.3 Erreterriako testuinguru kulturala

“Gu 77an etorri ginen (...) [jakinda] Espainiako jende asko zegoela hemen (...) baina baita ere ba (...) euskal mundu zegoela hemen. Ask” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

Testuinguru kulturalari dagokionez, bi joera ikusten dira. Alde batetik, euskarazko ekoizpen kulturala ezin entzun, ikusi edota irakurri ahal izatea, hein handi batean, Estatu mailako egiturei zegokionez. Hala gertatzen zen, adibidez, komunikazio hedabide gehienekin, batez ere prentsa eta irratiarekin, garai hartan zabalduenak. Bestetik, herri-mailan izaten ziren kultur-adierazpenak, non gaiak eta aukerak zabaltzen baitziren.

8.1.3.1 Prentsa, irratia, aldizkariak, liburugintza

Prentsari dagokionez, aukerak ia-ia *La Voz de España* eta *El Diario Vasco*-ra mugatzen ziren, eta gaiek zein ikuspegiak “ofizialtasunaren” ardatza jarraitzen zuten. Euskarak oso leku gutxi zeukan horrelako argitalpenetan.

“Aitak ‘El Diario Vasco’ erosten zuen, Basarri izeneko bertsolariak euskaraz egiten zuen kronikagatik” (N, Herrera-Altza, 1933)

Horregatik, 1977an *Deia* eta *Egin* atera zirenean, euskarari zabaltzen zitzaion eremua kuantitatiboa baino gehiago kualitatiboa zen (Díaz Noci, 2012: 202), biztanleriak beste informazio mota bat eskuratzeko aukera izan baitzuen. Gainera, garai hartan bereziki, irakurle baten posizionamendua markatzen zuen, diskurtso ofizialetik aldentuta kokatuz, azken testigantzan adierazten den bezala.

“[Hemen] ‘La Voz de España’ eta ‘El Diario Vasco’ [zeuden] (...) Gurean ‘La Voz de España’ erosten zen eta batek komentatu zigun: ‘beno, berdinak dira, baina izenagatik besterik ez bada ‘El Diario Vasco’ hartzen badugu, zer?’; eta: ‘Beno. Ba ‘El Diario Vasco’ [erosten hasi ziren]” (L., Pasai Donibane, 1945)

“60-80etan gehien irakurtzen zen egunkaria ‘El Diario Vasco’ zen” (Jon, Orereta, 1950)

“Garai horretan aukera oso gutxi zeuden (...) Eta beno, geroztik ja zabaldu da ikaragarri. Baina Franco peto-peto urte haietan... zuk bilatu behar zenuen izugarri nora jo (...)”

Garai hartan ezin zinen fidatu [prentsak esaten zuenaz], beno gu behintzat ez ginen fidatzen. Hori nik bizi dut baina seguraski nere izebaren etxean beste modu batean bizi zuten, erosoago edo (...). Ez dut esaten Regimenekoak zirenik, baina beno” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

“[Nik erosten nuen egunkaria]’Egin’ (...) Eta aitak ‘La voz de España’ uste dut eramaten zuela etxera. Uste dut ‘Diario Vasco’ baino lehen ‘La voz de España’ (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

“Ni gogoratzen naiz batek egun batean ‘Egin’ harekin nihoan eta ‘¡Hala, tú también!’ [haserre abotsaz]. Nola esan zidan, eh. Neri orduan asko gustatzen zitzaidan (...) euskerangatik gehienbat. Baina nola esan zidan ‘¡Hala, tú también!’ [haserre abotsaz]. Esan nion ‘¿Pues? ¿Qué tiene esto, pues?’ ‘¡Nada, nada!’ [haserre abotsaz] (...). Holan galdetu gabe jakiten duzu ze pertsonak diren” (Juani Lujanbio, Erretereria, 1936)



El Diario Vasco, 1984/06/20.
Basarriren “Nire Bordatxotik” ataleko adibidea.

Irratiaren munduan egoera ez zen askoz desberdinagoa programazioaren hizkuntzari eta joerari dagokionez (Díaz Noci, 1998: 446). Euskarak oso leku txikia zeukan, eta orokorrean lekukoek gogoratzen duten euskarazko irratsaio bakarra Basarriarena zen.

“Irrati estatalak eta esaten zuena ba igual Espainarako ondo egongo zen. Baina gurekin, Euskal Herriarekin, ez zuen bat egiten ze dena debekatzen ziguten! Ikurriña debekatuta, ez dakit zer debekatuta, hizkuntza debekatuta...” (Elena Mendia, Erreterria, 1954)

“Basarri. Basarri, bai. Baina gainontzean ez (...)” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Bere momentuan, Radio Popular-ean ordu batzuk euskaraz ematen zituzten” (Jon, Orereta, 1950)

“Basarrik, bertsolariak, izaten zuen igandeetan ‘Nere bordatxotik’ eta kontatzen zituen ba baserriko kontuak, eta... Frankismo garaian ere berak bazuen lizentzia horretarako. Bera igual politikoki ba kokapen moderatua zuen eta berak bazuen lizentzia, baina euskaldunontzako oso inportantea izan zen hori. Ba kontatzen zituen baserriko kontuak, eta hangoak, eta hemengoak, eta gero bertsolaria zen eta bertso batzuk kantatzen zituen... Eta aita nahiz eta garai hartan Uztapide zalea zen [bera eta Basarri goiko mailan ibiltzen ziren] (...) entzuten zuen. Berak jartzen zuen irratia eta guk ere ‘Nere bordatxotik’ entzuten genuen (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

Egoera hori ikusita, aldizkariak ziren mota askotako informazioa euskaraz eskuratzeko aukera egokiena.

“Gurean Zeruko Argia. Zeruko Argia sartzen zen” (L., Pasai Donibane, 1945)

“[Bere burua euskalduntzen ari zenean] adibidez ‘Anaitasuna’ hartzen nuen eta irakurtzen nuen, batzuetan ez nuen ezertxo ere ulertzen, tutik ere, baina... ‘Zeruko Argia’...” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Gure etxean Zeruko Argia hartzen zen eta aitak jartzen gintuen ondoan irakurri ahal izateko, baina klaro, ez genuen ohiturarik eta orduan haserretu egiten zen ba gaizki irakurtzen genuelako (...) Gure hiztegia oso murrizta gelditzen zen, ze dena erderaz genuen, dena ikasi behar genuen erderaz” (J., Erreterria, 1952)

“Egunkarietan zegoen bat, ‘Goiz Argi’, eta beste bat, ‘Zeruko Argia’, gero ‘Argia’ izandu zena (...) ‘Goiz Argi’ gogoratzen naiz bat, bai, bai, zela periodiko potoloa euskeraz banatzen zela ... kalean saltzen zizuten (...) Baina ez zegoen batere gehiago” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

Argitalgintzari dagokionez, aintzat hartu beharra dago urte askoz zentsurak liburu prozesuaren partaide guztiak hartu izan zituela: egileak (lanak ezizenpean plazaratuz, kode semantiko bereziak sortuz...), argitaletxeak (zaindu behar zutelako zer atera eta agian are gehiago zer ez) eta banaketa

prozesua, irakurleengana heldu baino lehen (Torrealdai, 1982: 67). Hori dela eta, askotan klasikoak edo bertso liburuxkak ziren etxeetan euskaraz eskura egoten ziren obra bakarrak. 1968tik aurrera, egoera aldatzen hasi zen.

“Liburuak, bai [irakurtzeko aukera zegoen], klasikoak... ‘Garoa’, ‘Kresala’ eta halako... (...). Astuna zen” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“... Eta euskarazko liburuak gutxinaka hasi ziren (...) Baina es ke hor ez zegoen ezta inkluso materiala (...) [Zentzu horretan] Elkar oso inportantea izan zen, ba nolabait (...). Ikusten duzu, material guzti hau [gau eskoletako liburuak] Elkarrek eginda da (...) Horrelako talde bat sortzea ere bai, ba gero zentralizatu zuen (...) [Beharrezkoa zen] gune batzuk nolabait euskaldunak kontrolatua, ez? Ez Madrilgo editorial batek (...). Bertakoak izatea, orduan badakizu zer behar den eta nola, ez? Eta ikastolei hornitzeko, ez?” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Eta gure aita, bertso liburuxkak zituen. Irakurtzeko erabiltzen zuena, horixe” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

8.1.3.2 Herri-ekimenak

Marko orokorragoko adierazpen kultural horien urritasunak kontraste handia egiten du herri-mailako ekimen ugariekin. Gai honi dagokionez, testigantzek argi uzten dute zabaltzen joan ziren esparru guztietan euskarari leku bat egiteko gogoia zegoela eta Erretereriako bizitza kulturala oso berezia zela.

Hori posible izan bazen, jende askoren esfortzuari esker izan zen. Lehenago aipatutako elkarte kulturalen jarduera etengabekoa zen, baina urteko momentu zehatz batzuetan gizarteratzeko aukera gehiago zegoen, “1963-1983 bitarteko euskarari lotutako ekimenak” taulak adierazten duen moduan.

1963-1983 bitarteko euskarari lotutako ekimenak

Eragilea	Urtea	Hilabetea	Zer	Arloa	Informazio gehiago	Non
Orereta Ikastola	1963		Orereta Ikastolaren sorrera	Ikastola		
	1965		Gau-Ikastolaren sorrera	Helduentzako euskarazko eskolak		Izieta, Fomento Cultural, JOC...-en
	1973	abendua	Bertso Saioa (Xenpelarren 104.urteurrenagatik)	Bertsolaritza		
Ereintza eta Sorgin-Zulo elkarte	1974	martxoa	Euskal Kultur Astea	Euskal Kultura	Ekitaldien artean, Bertso Saio bat, Nafarroari buruzko pelikula bat, Mikel Laboa, Joxe M ^a Zabala eta Artze anaiek buruturiko musika ekitaldia, euskal liburu eta disken erakusketa	Foruen Plazako Xenpelar Kultur Gunean
Ereintza Dantza Taldea	1974	urria	Aurreskua dantzatu	Euskal Dantza	Urte askotan San Juan bezperanhalakorik egin gabe	Herriko enparantzan
Euskerazaleak elkarte	1974	abendua	Euskararen Eguna	Euskararen eguna		Alameda Zinetokian
	1974	abendua	Bertso Saioa (Xenpelarren urteurrena)	Bertsolaritza		

Ereintza, Ibaika eta zenbait Auzo Elkar-te	1974	abendua	Olentzero	Euskal Kultura		
Ereintza, Ibaika, Urdaburu eta Danok-Bat elkar-teak	1975	martxo	Euskal Herriaren Historiari buruzko hitzaldi ziklo bat	Euskal Historia		
Itzietako Auzo Elkar-tea (Ibai-Alde)	1975	apirila	Batzarrean, gau-ikastolan azkenaldian ematen ari ziren euskarazko klaseen berri eman zuten,	Euskarazko eskolak	Guztira, 180 ikasle	
Ereintza	1975	maiatza	“Euskal Kultur Astea”	Euskal Kultura	Hitzaldiak, proiektzioak, mahai-inguruak, bertso-saioak, dantza-saioak, euskal liburu eta disken erakusketa...	Foruen Plazako Xenpelar Kultur Gunean
Pontikako Auzo Elkar-tea	1975	iraila	Euskarazko eskolen hasiera	Euskarazko eskolak	Helduentzat zein gazteentzat	
Eragilea	Urtea	Hilabetea	Zer	Arloa	Informazio gehiago	Non
Ibaika	1976	apirila	Bertso saio bat antolatu	Bertsolaritza		Victoria Aretoan
Iraultza	1976	ekaina	dantza-erakustaldia	Euskal Dantza		Udal pilotalekuan
Pontikako Auzo Elkar-tea	1976	urria	Euskarazko eskolak	Euskarazko eskolak		
Pontikako Auzo Elkar-tea	1976	urria	Euskarazko eskolen hasiera, helduentzat zein gazteentzat	Euskarazko eskolak		
Ibaika eta Iraultza	1977	maiatza	Euskal Kultur Astea	Euskal Kultura		
Pontikako Auzo Elkar-tea	1977	iraila	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Kultur Zabaldunderako Elkar-tea	1977	urria	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Gau-Ikastola	1977	urria	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Esnatu (Itziet) elkar-tea	1977	abendua	Euskal Hamabostaldia	Euskal Kultura	Hitzaldi, jaialdi, liburu eta disken azoka... Aztertutako gaien artean, euskararen historia eta bere eguneko egoera (Txillardegij), Euskal Herriaren Historia politiko-ekonomikoa, Euskal Herrira etorkin kopuru ikaragarriak izandako eragina (Torrealdei), etab.	
Agustinetako Auzo Elkar-tea	1977	abendua	Euskararen aldeko Asanblada	Euskararen egoera/erabilera	Euskararen aldeko Asanblada egin zen, bertan euskara ikasteke estatuetan sartzeko egindako gestioak aztertzen dira	Markola Ikastebxean
Ereintza	1977	abendua	Bertso Saioa (Xenpelarren urteurrena)	Bertsolaritza		
Alkartasuna	1977	abendua	Bertso Saioa	Bertsolaritza	Bere 25 urte ospatzeko	On-bide aretoan
Eragilea	Urtea	Hilabetea	Zer	Arloa	Informazio gehiago	Non
Gau-Ikastola	1978	maiatza	Helduak berruskalduntzeko eta alfabetatzeko herri-ekimenei buruzko nahainguru bat	Euskarazko eskolak	Herri-ekimen honen esperientzia desberdinei buruzko nahainguru bat egin zen. Bertan Martxel Otamendik (Tolosa, Mikel Usabiagak (Hernani), M ^a Angeles Maizek (Goierrri) eta Jon Mendizabalek (Donostia) hartu zuten parte, moderatzaile gisa Joxemari Odriozola aritu zelarik	Kultur Zabalkunderako Elkartean
Orereta Ikastola eta Gau-Ikastola	1978	maiatza-ekaina	Oreretan euskararen erabilera eta berreuskalduntzeko aukerak aztertze bilerak	Euskararen egoera/erabilera	Luis Mari Mujikak eta Iñaki Larrañagak Oreretan euskararen erabilerrari buruz egindako txostena aztertzearen, eta Orereta berreuskalduntzeko proposamen desberdinak gartzearen	Ereintzako lokaletan
Pontikako Gau-Ikastola	1978	ekaina	Hitzaldiak	Euskal Kultura	Jon Urrujolegik hitzaldi bat eman zuen “Euskararen bilakaera gaur egun arte eta egungo egoera” gaiztat harturik	“Bai Euskarari” kanpainaren baitan

Ereintza eta Ibaika	1978	uztaila	Euskal dantza eta musika ekitaldia	Euskal Dantza		Udal pilotalekuan
	1978	iraila	Linguistikari buruzko hitzaldi eta ikastaroak	Euskarazko eskolak	Hizlarien artean: Miren Azkarate (Morfosintaxia), Ixabel Zubeltzu, M. Galarraga eta J.L. Goikoetxea ("Jaldi hadi" metodoa, Joxe Austin Harrieta (Fonetika), Karlos Otegi (Testuen komentarioak), J.M. Larrazabal (Itzulpenaren teknika) eta Joxe Joan Txabarri (Hizkuntz metodologiaren teknika)	
Sorgintzulo Auzo Elkartea	1978	iraila	Alfabetatze ikastaro berria	Euskarazko eskolak	Ikastaroarekin batera, "Bai euskarari" kanpainarekin bat egiten du. Jakinik auzoa nagusiki etorkinez osatua dagoela, elkarrekin azpimarratzen du: "Euskara ezagutu, maitatu eta hitz egitea, pertsona bat bazi garen Herri honetan txertatzeko modurik garrantzitsuen da"	
Beraungo ikastolak	1978	azaroa	egoitza berriaren inaugurazioa			
Gau-Ikastola	1978	azaroa	Euskararen egoerari buruzko hitzaldia	Euskararen egoera/erabilera	Luis Mari Mujikak eman zuen	Alameda Zinetokian
	1978	abendua	Bertso Saioa (Xenpelarren urteurrena)	Bertsolaritza		
Sorgintzuloko Auzo Elkartea	1979	iraila	Euskarazko ikastaro berria	Euskarazko eskolak	Helduei eta haurrei zuzenduta	
Kultur Koordinakundea eta Ereintza	1979	abendua	Euskal Astea	Kultura		
Xenpelar Kultur Elkartea	1979	abendua	8 metrotako Olentzeroa	Euskal Kultura		Foruen Plazan
	1980	ekaina	Euskara Eguna	Euskararen egoera/erabilera	"Euskara benetan gure eskoletan" lemapean	Eskola publikoetan
Iraultza fanfarrea	1980	azaroa	euskal prentsaren aldeko diru-bilketa	Euskal Kultura	Oreretako kaleetatik ibili zen euskal prentsaren aldeko diru-bilketa bat eginez	Kalean
AEK	1980	azaroa	I. go Korrika	Euskararen egoera/erabilera		
	1980	abendua	Bertsolari Lehiaketa (Xenpelarren urteurrena)	Bertsolaritza		
Hirigintza Koordinakundea, Kultur Koordinakundea, Gau Ikastola eta Euskal Herrian Euskaraz elkartea	1981	otsaila	Orereta izena berreskuratzeko kanpaina	Euskararen egoera/erabilera	Hasiera eman zioten kanpaina bati, herriaren jatorrizko izena (Orereta) berreskuratzearan alde	
Oreretako Euskal Herrian Euskaraz elkartea	1981	maiatza	Euskal Kultur Astea	Euskal Kultura		
Oreretako Euskal Herrian Euskaraz elkartea	1981	azaroa	Euskararen berreskurapenari buruzko mahaingurua	Berreskurapena		Udaletxean
AEK	1982	maiatza	Euskal poteoa; gauean, herri-afaria	Euskararen egoera/erabilera	Baldintza bakarra: euskaraz egitea	
Oreretako Hizkuntz Ikastegia	1982	ekaina	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Gau ikastola eta AEK	1982	azaroa	Inaugurazio ofiziala	Euskarazko eskolak	"Klaseak irailean hasi baziren ere, orain inauguratu zen ofizialki Ugarritzen kokaturiko udal euskaltegia. Gau-Ikastolak eta AEKak buruturiko ahaleginari esker gauzatu ahal izan den Euskaltegia"	Ugarritzen kokaturiko Udal euskaltegian

AEK eta Udal Euskaltegia	1982	azaroa	Protesta	Euskararen egoera/erabilera	AEK eta Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek beren aulki eta mahaiaik Gamon Zumardira eraman zituzten, eta bertan, eman zuten klasea – enkartelaturik-, Eusko Jaurlaritzak euskarazko klaseei dirulaguntzak eman ziezaiola aldarrikatuz	
Ereintza	1982	abendua	Bertso Saioa (Xenpelarren urteurrena)	Bertsolaritza		
Ereintza	1982	abendua	Gabon kantak	Kantagintza		Alameda Zinetokian
	1983	urtarrila	Kantaldiak	Kantagintza	Txomin Artola, Imanol eta Ruper Ordorika	
	1983	urtarrila	Bertsolaritzari buruzko ikastaroak, etab. eta bertso-afaria	Bertsolaritza		
Xabin Olaizola alkatea	1983	martxoa	Bando bat banatu zuen “Euskaraz eta kitto” lelopean Oreretan euskararen erabilpena bultzatuz	Euskararen egoera/erabilera		
Oreretako Euskal Herrian Euskaraz elkarte	1983	apirila	Euskara eta hauteskunde munizipalak-eztabaida	Euskararen egoera/erabilera		
Oreretako Euskal Herrian	1983	ekaina	Bilera bat euskararen erabilpena normalizatzeari begira ekimen ezberdinak aztertzeko asmoz	Euskararen egoera/erabilera		

Iturria: Iriarte “Bikila”, Joxe; Elberdin, Luis (1997).
Orereta: herri borrokalari baten historia (1976-1983). Erreterria: J. Iriarte.

Hala gertatzen zen, adibidez, Aste Kulturalekin edota helduei zein umeei zuzendutako Euskal Jaiekin, eta horien inguruan hainbat testigantza jaso dira:

“[Aste Kulturalak deitzen zirenen barruan] Ereintzak (...) bestaldeko hitzaldi ezberdinak euskal kulturen eta mugimenduan adituak ziren hainbat pertsonekin, ‘Aste Kulturalak’ deitzen zirenen barruan (...) “Euskal kondaira erakusteko kurtsilloak ere sortu ziren (...) edo irakurtzen zen liburu bat, edo (...) gehiago zen mahai inguruak. Beno, eta gauza guzti horiek (...) erdi klandestinoak [ziren. Ezaguna egiten zaio Mikel Ugaldek zuzentzen zuela]” (Kepa Oliveri, Erreterria, 1947)

“[Debak euskal jai famatuak zituen baina debekatu zituzten. Ondoren, Erreterriara eraman zituzten] [Ereintzako batzordean sartu eta] la primera llamada, el alcalde (...). Egunero deika, ez egiteko... [Baina] egin zen. Baina horren kontura adibidez [presentadorea] eraman zuten 24 orduz... Garai hartako giroa [68-70]” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Erreterrian Santiago egunean Ereintza taldeak antolatzen zuen Euskal Jaia oso famatuak izan ziren eta guk [Hibaikak] hartu genuen uztailaren 23an Haurren Euskal Jaia. Gonbidatzen genuen kanpotik euskal taldeak, baina umeenak izan behar ziren eta (...) tartekatzen genituen bazkaltzeko ba gure inguruan zenituzten umeen familietan. Nolabait zen euskera eta bere inguruko kultura eta dena ba herrian presentzia

handiagoa izatea, kontuan izanda ba Errenderia oso herri handia egin zela kanpotikan etorritako jendearekin eta ikusten genuen ba jendea hurbiltzen ez baldin bagenuen gure giroa ba igual luzarora ba arazo bat izango zela. Eta orduan ba haur horiek etortzen ziren, Errenteriako familiek hartzen zuten... horrek ekartzen zuen inplikazioarekin, ez? (...) bazkaria eman, gero lagundu herriko plazara, han taldeak osatzeko... Eta beno, bazegoen horrelako harreman bat bidea ireki ziguna hainbat gauza egiteko” (J., Errenteria, 1952)

“Zineforum bat zegoen (...) Euskaltegiak berak Zuberoan barrena egin zuen ibilalditxo bat hainbat ikaslerekin batera; ni eskolak ematen ari nintzela (...) Lantzeko ihauterietara joan ginen, Zubietara... Esan nahi dut, horrelako gauzak zeudela. Baina klaro, adina, egoera... faktore asko zeuden” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

8.1.3.3 *Musika*

Musika eta dantza bereziki garrantzitsuak izan ziren batez ere gazteen artean euskararen eta euskal sentimenduaren hedapenean. Garai hartako gazteentzat adinari dagokion ohiko adierazpen formak izateaz gain aldarrikapen linguistikoa, politikoa eta kulturala adierazteko baliabideak bihurtu ziren, euskal kultura berpizkunde garai aberatsa bizitzen ari zen momentu batean gainera. Musika, dantza, euskal jaiak, Olentzero, Santa Agedako koplak... euskara ikusgarritasuna hartzen joan zen. Momentu zehatz batzuetan besterik ez bazen ere, sozializazio espazio hutsak ziren tabernetan, plazetan eta kaleetan lekua hartuz, ordura arte itxita egon ohi ziren etxe eta elkarteetatik atera eta espazioaren okupazio sinbolikoari ekin zitzaion. Eta ez bakarrik norberaren herriarena, baizik eta ingurukoena ere bai, jaiak, kontzertuak edo emanaldiak baliatuz han ere giro hori sustatuz.

“Abestiek ere bat eginda zeuden jendearen pentsakerekin eta nahiekin (...) Bileretan eta afari batean oso inportanteak ziren nire ustetan kantak” (O., 1940)

“Ez dok Hamahiru eta mugimendu horiek oso garrantzitsuak izan ziren (...) Eta Rock mundua” (Jon, Orereta, 1950)

“Bazeuden taberna batzuk ba euskal mundukoak. Gero zeuden beste batzuk pues Galiziakoak, Zamora aldekoak (...) baita ere pues Espainia aldekoak (...). Orduan pues denak pixka bat nahastuak, jende guztia... Oso pil-pilean zegoen dena, jende asko kalean (...) Hemen ere asko sortzen zen eta ja hemengo gauzak joan ziren entzuten. Eta gero (...) izaten zen musika plazan, Alamedan. Eta garai hartan pues ziren (...) talde berbeneroak. Eta berbeneroak ere (...) euskal musika edo bertsioak euskaratuak... eta euskara oso erdigunean jarrita hasia zen (...). Beti ere trikitixa...” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“Oiartzunek biltzen gintuen euskaldun asko (...) euskaldun kutsua ematen zuen (...) Talde desberdinek jotzen zuten, adibidez bazegoen bat, ‘Oroitzak’, eta horiek euskeraz egiten zuten; baina gero bazegoen beste bat, ‘Plancton’, rokeragoak zirenak eta horiek esango nuke ez zutela hainbeste euskeraz egiten, baina guk hobesten genuen ‘Oroitzak’. Eta orduan ‘Oroitzak’ taldeak jotzen zuenean, joaten ginen autobusean, sardinak bezalaxe [algarak]” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Detaile txiki bat da, baina gu pertsonalki, gure koadrila, igandero saiatzen ginen mendira ateratzen (...) Eta guretzat oso garrantzizkoa izaten zen ilunabarrean, zazpiak edo bederatiak aldera, herriko plazara itzuli, zeren (...) [Alamedako dantzaldia] bukatzen zenean txistulariak jotzen zuten bi edo hiru pieza, fandango eta arin-arina. Eta inork gutxi dantzatzen zuen (...)” (J., Erreterria, 1952)

“Xenpelar etxean hainbat ekitaldi izan ziren, eta besteak beste Ruper Ordorika kantaria izan zen; garai horretan Erreterrian genuen Musika Plaza, gerora ez zen erabili baina Musika Plaza horretan Oskorritzen kantaldi bat izan zen, Hertzainak-en kontzertu bat izan zen...” (B. Lasa, Oiztun, 1962)

Musikari emandako garrantziari buruz esanguratsua da ondorengo testigantza, non erlijioa, kanta “reboluzionarioak”, eta euskal kantagintzako kontzertu batera joateak ekar zezakeena jasotzen diren.

“[Gaztetan] badakizu ez duzula sinesten ez Jaungoikoan eta ez Elizan... Eta kantu guztiak izan behar zirenez reboluzionarioak ba behin esan genion [apaizari], gure burua zuritzeko edo, ba ez ginela mezetara joaten aspertu egiten ginelako. Eta orduan ba antolatu genuen meza bat, Euskal Meza, gazteek lagunduta, gitarrekin, eta... Eta beno, ba nolabait gure haserre edo ez dakit zer zen (...) horrekin baretu zen (...) eta oso gustora gelditu ginen denak (...) Bai egia da musikari garrantzi handia ematen geniola. Orduan ba ‘Ez dok hamahiru’ ere hor zebilen (...) sortzeko, edo Benito Lertxundi... Ze klaro, joaten ginen kontzertuetara eta guardia zibilen aurretikan atera behar ginen korrika, zeren sartzen ziren eta abar, ezta? Baina hartzen genuen obligazio bezala kanta horiek kantatu behar genituela eta ikasi genituen denak, eh (...) [Euskal Meza hori bakarra izan zen] baina beno, herrian izan zen zerbait. Herrian ere izan zen... ‘Oi, zer da hau?’, ez? (...) Nahiko erdalduntzen ari zen herri baten aurrean ba zerbait” (J., Erreterria, 1952)

8.1.3.4 Identitatea eta sinboloak

Frankismoarekiko oposizioa, klandestinitatean edo sasi-kldestinitatean egon ondoren, eta antolatuago egoteaz gain, kultur arloan azaleratu ohi zen, askotan bereziki bere izaera sinbolikoa azpimarratuz. Protesta horretan euskararen aldeko aldarrikapena etengabekoa izan zen, ez bakarrik nazionalismo tradizionalarentzat, baizik eta ezker nazionalista berriarentzat zein, beste mota bateko intentsitatearekin, ezker ez-nazionalistarentzat ere bai (López-Goñi, 2005: 386-387).

Euskararen eta identitatearen arteko lotura argi zegoen, nahiz eta batzuetan euskalduna sentitu eta euskaraz hitz egiteko gai ez izatearen arteko barne-talka hori sumatzen zen. Euskaraz gain, euskal identitatea erakusteko beste zenbait ikur eta keinu ere egon zitezkeen.

“66.-68.an herrian ari zen sortzen mugimendu bat, nik esango nuke ‘movimiento de identidad’. Ordura arteko egoeran frankismoa oso peto zegoen (...) Herri-prozesua izan zen, herria joan zen frankismoari beldurra galtzen (...) Nahi genuen gure identitatea berreskuratu eta zentzu horretan saiatzen ginen euskaraz egiten” (Jon, Orereta, 1950)

“Beno, euskaldunak ginen euskeraz jakin gabe... Baina hor ari ginen” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Eta gero ze jende zen euskalduna (...) eta nik begiratzen nien bere galtza, maoizko galtza urdin horiekin eta... Bazegoen identitate mota hori (...) ja gehiago mugitzen zirenak eta begiratzen genien eta beno, gu beste mundu batean bizi ginen. Eta gero pues lauburua (...) oso arrunta izan da (...) Eta ikurriñarena geroxeago heldu zitzaigun” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

“Eta guretzat konpromisoa zen etorri, han jarri eta dantzatu. Eta askotan entzun behar izaten genuen ‘ay, ya están ahí las caseras’ [algarak]. Bai, halakoak askotan, baina guretzat oso inportantea zen eta mendiko botekin fandango eta arin-arin nolabait dantzatu. Hura ere galdu ez zedin ba joan behar zen hura egitera. Eta pozik, ez? (...) Eta manifestazio bat egitera: txistulariak badaude eta euskal musika ere badago eta dantzatzen badakigunak ere bagaude” (J., Erretereria, 1952)

Sinboloen artean, ikurriñari dagokio rol nagusia, batez ere galarazita egoteak edota legeztatu izanak sorrarazitako sentimenduak. Lehendabiziko testigantza, pixkanaka eta beldurrez balkoietara ateratzen hasi zirenean kontatzen du.

“Guretzako poza handia zan, baina ikusten genun beste aldetikan gogortasun izugarria (...). Baina guk nahi genuen ateratzea. Klaro (...). [Adosten zuten] ‘nik elkarte batean jarriko det eta zuk jarri han, eta...’. Uuuuuy (...). Gero etxean berandu hasi ginan jartzen, eh. Jesus... Ikusi genuenean pixkat trankildu zala eta hola batek atera zun. ‘Oi, horrek atera du, nik aterako dut’. Hola. Poliki-poliki. Asko kostata” (Juani Lujanbio, Erretereria, 1936)

“[Ereintzak galeuska bat antolatu zuen Patxiku Kanpan] Lete, Laboa (...) Kataluniako Joan Isaac eta Galiziako Miro Casabella. Gabez (...) Hori bukatzerakoan, leku berean (...) zikiro jana eta gero Argiako [Dantza Taldeko] txaranga... dantzan (...) Herriko jaiak ziren (...) eta ikurriña bat jarri zen” (Kepa Oliveri, Erretereria, 1947)

“Nik uste dut jendea gero eta kontzientzia gehiago hartzen ari zela, eta horren ondoren ba zenbait mobida [egon ziren]. Gero ja ikurriña legeztatu zenean, pues beste pauso bat (...) [izan zen]” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Mugimendu politiko handia zegoen. Orduan oraindikan ikurriña ilegala zegoen... Ni gogoratzen naiz 17-18 urterekin Aberri Egunaren inguruan ba ibiltzen ginela nere eskolan ba pegatinak... egiten genituen pegatinak ikurriñekin eta pegatzen pixka bat han...” (Josu Berra, Donostia, 1956)

Gertakari bereziki tirabiratsuetan ikurriñak hartzen zuen sinbolismo berezia, Pertur desagertu zela jakin zenean bezala.

“Arazoa izandu zen (...) Pertur aurreko egunean desagertu zen. Eta orduan klaro, berria zabaldu zen justo gau horretan (...) [Patxiku] zegoen herriko meollotik kanpo (...) Mikrofonotik berri hori emateko nahi zuten batzuk eta (...) pentsatuaz gu ginela antolatzaileak eta gure gain zegoela horko ardura eta horko ondorioak, ba ez genien utzi esaten jaialdia hondatu ez zedin. Baina kalean izandu zen istilu gogorra, bai” (Kepa Oliveri, Errenteria, 1947)

La Voz de España-k 1976ko Madalenetan izandako istilu horiek ere jaso zituen:



La Voz de España, 1976/07/27.
“Incidentes en las fiestas de La Magdalena”

Legezketu ondoren, eta garai hartako testuinguru gatazkatsuan, esanguratsua da zazpi urte beranduago, 1983an Madalenako jaietan gertatutakoa: urte hartan, bertan behera gelditu ziren lehengo egunean izandako gatazka larrien ondorioz, PSOEko gobernuak herrietako festetan udaleko balkoian bandera espainola jartzera derrigortzen zuen legeari jarraiki Errenteriako alkateak mantentzeari ekin zionean herriko arlo garrantzitsu baten desioaren aurka (Ordozgoiti, 2013: 87-92).



Prentsa Irudiak. *El Diario Vasco*, 1983/07/23.

"Rentería: suspendidas las fiestas en otra jornada de incidentes". Azala eta eta barruko testuak

8.2 “Atzerapen fasea”

Gerraostetik laurogeiko hamarkadara arte izandako belaunaldi bakoitzaren egoera soziolinguistiko propioek euskararen transmisioan eta erabileran eragina izateaz gain, Errenteriako hizkeran ere beren aztarna utzi zuten (Del Rio eta Aduriz, 2009).

Hiztun gisa euren burua erabat gutxituta ikusten zutela adierazten digute testigantzek¹⁸. Zenbait kasutan oso nabaria da frankismoak euskararen aurka gauzatutako borroka zein punturaino izan zen eraginkorra, lotsaraztearen bidez azkenean jendeak bere hizkuntzari uko egitea lortu baitzuen. Hizkuntzagatik gutxietsita sentitzearen sentazioan beste hainbat aldagai ere gurutzatzen ziren, adibidez, ideologia politikoa (erregimenaren estrategiek argi uzten zuten espainiar batasun linguistikoa bestelako edozein kontzientzia nazionalen gainetik zegoela) eta klasea (industrializazio bidean zegoen gizartearen aburuz, hiri-giroko gaztelera herri edota baserri-giroko euskara baino modernoagoa eta aurreratuagoa omen zen).

“[Txikitan senide batzuekin joaten zen etxe zehatz batzuetara abestera] euskal gabonetako oso kanta politak (...) Eta han kantatzen hasi eta hango aitona ba negar-malkotan (...) eta beti dut inpresio hori, ba etxe batera sartu eta ‘etorri, etorri, etorri!’ eta nolabait sartzen gintuzten sukaldera edo (...) barru-barru-barrura. Eta han kantatzen hasi eta hango aitona ba negar-malkotan (...) Eta klaro, urteekin konturatzen zara zer zen: ba pertsona horiek gure aitonarekin batera ba egon ziren deportatuak (...) Eta orduan beldur ikaragarria [zeukaten]. Nolabait ziren gerra bateko galtzaileak” (J., Errenteria, 1952)

“Orain berdinagoak gara, baina orduan... Beti pobreak bagina bezala begiratzen zizuten. Espalda gainetik, beti (...). ‘Qué pobres. Qué casera’ (...). Beti ikusten zinan zu gixaja bat bezela. Beti besteak handiak (...). Ni ez naiz ez gehio eta ez gutxiago besteak baino. Baina hola izan zen urte asko” (Juani Lujanbio, Errenteria, 1936)

“Garai bateko kontua: euskara gauza pobrea da, nik demostratu behar dut erderaz dakidala” (G., Errenteria, 1954)

“Adibidez nere osaba-izeba baserrian bizi ziran (...) eta osabak esan zidan: ‘baina nola! Kastellanoz?!’, ba nonbait gaztelera hitz egin nuen baserrian, askotan umeek egiten dutena. Baina ni konturatu egingo nintzen, ze nonbait esan nion: ‘osaba, nik badakit euskeraz’ (...) Umeak beste hizkuntza badakiela erakutsi nahi izaten du” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Euskara urtetan desprestigiatua egon da, eta beno norbaitek egin du lan hori. Eta bata zen debekua (...) baina okerragoa, debekua baino, lotsaraztea (...). Francoren debekua bale, baina debekuaren aurrean (...) hemen ‘señoritos’, ‘burgueses’, Donostiren ondoan... Gaztelera. Bestela ‘kashera’, ‘inkulta’ [zinen]; euskara ezin zen ez irakurri, ez idatzi, ez ikasi, ez ezer. Orduan horrek bai eman zion zaplasteko ikaragarria

18 Ondorio berberak atera daitezke Ahotsak artxiboan kontsultatutako Errenteriako pertsonen testigantzetatik (<https://ahotsak.eus>). Horien zerrenda eranskinetan dago.

euskarari: “euskalduna lotsaraztea bere hizkuntzari buruz. Horrek faktura handia pasa du (...) Gaur egun 90 urte (...) dituztenak, horiek etxean euskara galdu zuten (...) euskara ez zegoelko ikusita... beno, ondo. Baserritarrak... Euskal Herrian hori gertatu da euskararekin, etxe askotan” (Elena Mendiá, Erretería, 1954)

8.2.1 Atzerapena eta generoa

Hiztun gisa gutxietsita sentitu izana modu zuzenean gurutzatu zen generoaren kategoriarekin.

Gerraren ondoren euskarak egin zuen atzerakadaren eragina are nabariagoa izan zen emakumezkoengan. Aintzat hartu beharra dago herri euskaldunetan eskola zela gaztelarekin izaten zen lehen kontaktua, eta hainbat kasutan ikasteko leku bakarra ere bai. Baina familiaren egoera ekonomikoak eraginda edota sexuaren arabera lan-banaketaren ondorioz, tradizioz nesken eskolatzea mutilena baino eskasagoa izaten zen, mutilenari baino askoz geroago hasi baitzitzaion garrantzia ematen. Gaztelera ondo ikasteko aukera gutxiago izanik, normala zen euskarara jotzea, eta bestaldetik, euren bizitzako zenbait esparrutan, batez ere herri-mailan, aski izango zuten euskararekin. Izan ere, Aracili jarraiki, Amonarrizek dio egoera minoritarioan, elebakartasuna emakumezkoei eta hurrei lotuta egongo litzatekeela eta elebitasuna gizonezkoei (Amonarriz, 1995: 90).

“Baserriko amunak ez zekien eta norbait etortzen bazen etxetik kanpoko (‘ai, kastellanoz baneki...! Kastellanoz baneki honi zerbait esateko!’ [esaten zuen]” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Y la pobre abuela (...). Mi abuela murió sin hablar como Dios manda el castellano” (Amalia, Erretería, 1950)

Baina euskara gutxietsita zegoenez, eta gaztelera ikasteko aukera izanez gero, emakume horiek gaztelera egiteko joera handia erakusten zuten. Portaera linguistiko hori azaltzen zuen arrazoi garrantzitsu bat gizarte moderno eta industrializatuan gaztelera beste mota bateko harremanak (kultoagoak, aurrerakoiagoak agian) sortzeko aukera ematen zuela zegoen, aurrerago ‘Txepetx’ek Nafarroan aztertuko zuenez (Sánchez Carrión, 1972).

Aurreiritzietan oinarritutako bi hizkuntzen arteko harremanak ondorioak izan zituen, gaztelaren aldeko eta euskararen aurkako hizkuntz ohitura aldatetak ekarri zituen heinean. Lehenago berriemaile horrek aipatutako lotsarazteak pasatuko “faktura handi” hori, transmisioan izandako eragin zuzenaz ari da. Lan erreproduktiboa, hau da, zaintza esparru zabalenean hartuta, emakumezkoen ardura zen heinean (berriro ere, sexuen arabera lan-banaketaren ondorioz), oso ulergarria zen beraientzat mingarria zen esperientzia euren seme-alabentzat ez nahi izatea.

“Baina gero amak ikasi zuen primeran erderaz. Eta gustatzen zitzaion gainera jendearekin erderaz hitz egitea (...) Nere ama baserritarra izateko ondo egiten zuen erdera, eh (...). Amak gehiago tiratzen zuen erdarara. Baina aita euskalduna, ufffff... Ikaragarria zen aita”. (Juani Lujanbio, Erretería, 1936)

“[Herritarrei ezin zaie errurik bota, sufritu zutelako] Emakumeek, bereziki emakumeek, sufritu zuten hori. Orduan esan zuten: ‘Nola, nik sufritu?’ (...) Amonak esan zuen ‘nik zertarako euskara erakutsi seme-alabei? Kasheros deitzeko eta sufritzeko? Ez. Gaztelera da... ez dakit, kultuen hezkuntza... Hala saldu zen garai haietan, orduan... (...) Eta gora emakume horiek, esan nahi dut, egin zuten ikusten zuten onena bere seme-alabentzat. Baina norbaitek (...) ondo sartu zien buruan [hori egiteko]” (Elena Mendia, Erreterria, 1954)

“[Aian, maistrak makilarekin jotzen zituen ikasleak euskaraz entzuten bazien] Y yo lo comprendo, eh, porque también es verdad que las chicas de allí el único trabajo que tenían, la posibilidad de trabajar, era irse de neskame a Donosti. Entonces (...) tenían que saber castellano (...). No lo justifico, pero lo comprendo: allí todas las chicas sabían euskera, de caserío, no sabían castellano. Entonces, querían las maestras que aprendieran castellano, para luego ir de sirvientas” (Juani, Aia, 1944)

“Hala ere, askok, bizitako errepresioa zela-eta, monja eskoletan adibidez euskaraz hitz egiten zuenari eraztuna jarri eta horrelakoak zirela-eta, hainbatek ere utzi zion euskaraz hitz egiteari... (...) (B. Lasa, Oartzun, 1962)

“[Aitak txikitan zekien euskara ahaztu zuen] ez kontestu politikoagatik bakarrik (...). Amonak esana da emakumeek ezin zutela erre (...) eta euskara baserritarrentzat zela eta, beraz, kaletarrok gaztelaniaz hitz egin behar genuela (...). (...) diktadura baten menpe bizitzearen ondorioa da, baina seguruena lehendik ere gizartearen balore jakin batzuen ondorioa ere bazen (...). Horixe zen haiei egokitutako testuingurua eta, orduan, bere etxeko hizkuntza gaztelania zen” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

Gaztelararen eta euskararen arteko botere harremanaz gain, euskalkien artekoa ere bazegoen eta euskarak daukan aberastasunaren adierazgarritzat hartu beharrean, beste leku bateko hizkeraz mintzatzea gutxiagotasun-konplexua sentitzeko arrazoia izan zitekeen. Anekdotikoa izan badaiteke ere, testigantzen artean egoera horren berri ematen duten lekukotasun bakarrak bi emakumezkori dagozkie. Lehenengoa Erreterriara kanpoko Gipuzkoako herri batetik etorritako andre bati buruzkoa da; bigarrena, beste herri bateko senarra zeukan emakume erreterriar batena.

“Gure amak konplexu hori eduki du beti, berea itsusia zela. Gure ama (...) Erreterriara etorri zen restaurante batera zerbitzatzera eta han (...) farre egiten zioten pixka bat. Eta orduan ba konplexu horrekin zer egin zuen? Ba hemengoa ikasi (...) Amak gainera konplexu hori beti zuen: iruditzen zitzaion hemengo euskara politagoa zela (...) [Hori bai], errieta egiten zigurean (...) [bere euskalkian]. Ateratzen zitzaion fi-fi-fi-fi-fi... Sakonagoa [algarak]” (J., Erreterria, 1952)

“Aitak euskera oso, oso ondo egiten zuen eta oso garbia eta ama beti pixkat lotsatzen zen berak zeukan euskeragatik (...). Nik beti gogoratzen dut, beraien arteko harremana gaztelaniaz zen. Ze gainera gogoratzen dut ama hasten zenean euskeraz aitak farre egiten zuen, ‘vaya vascuence que tienes’ (...)” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

8.3 “Kontserbazio fasea”

Euskararen aurkako jarrera horren ondorioz, hizkuntza eremu pribatura mugatuta gelditu zen, herriak egoera diglosiko paradigmaticoaren itxura hartuta. Horregatik, “kontserbazioa”ri buruz ari garenean aintzat hartu beharra dago testuinguruak berak gehien errazten zuena guztiz kontrakoa zela, hau da, “kontserbazio-eza”.

“Guk etxean eta familian (aitona-amonak, izeba-osabak eta lehengusuak), denok egin dugu euskaraz (...) Baina legunekin, gazteleraz (...) Beti” (L., Pasai Donibane, 1945)

“[Etxean euskaraz, kalean] ... egia esaten badizut, kale-giroa oso kastellanozko giroa zen. Eta nahiz eta euskaraz jakin, askotan kalean erderaz aritzen ginen gaztetxotan (...) [Txikitan] nere adineko mutikoak, gehienak ez zekiten euskaraz auzo hartan (...). Eta haien gurasoek ere ez. Erreterria da herri bat immigrazio asko izan zuena (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

“[Gurasoek] lagunak erdaldunak zituzten eta gazteleraz hasi ziren eta ez zuten lortu elkarrizketa luze bat euskaraz egitea. Gurekin bai, baina beraien artean gazteleraz egiten zuten (...) Horrek esan nahi du 50ean edo 40an (...) ja erdera bertan zegoela. Orduan Erreterriak hamar-hamaika mila biztanle [zituen] eta urte gutxitan ja (...) izan zen inmigrazio esplozioa (...) baina [eztanda demografikoa baino lehen] gaztelania hor bertan zegoen, lagunak erdaldunak zituzten” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“Oraindik ere esango nuke nik belaunaldi horretan euskerari eutsi egiten zitzaiola (...) Nik esango nuke gurasoek hizkuntza bera errotuta baldin bazuten hizkuntzari eutsi egiten ziotela. Bestelako kontu bat zen mistoak baziren (...) Ahozko transmisioa garai hartan askoz ere ohikoagoa zen. Orduan adibidez amak pasadizoak kontatzeko ohitura gehiago zeukan eta kantatzeko ere bai (...) Eta nere aita berriz bertsolaria izan zen (...)” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

8.3.1 Erreterriako testuinguru soziolinguistikoa

1960ko eta 1970eko hamarkadetan eta, batez ere, industrializazioaren eskutik, Erreterriako paisaia soziodemografikoa zein urbanistikoa eraldatu egin zen. Lantegiei dagokienez, aspalditik funtzionatzen zuten batzuk eta oraindik ere iruditeria kolektiboan bizirik dirautenak itxi egin ziren. Haien artean, “Galletas Pakers” 150 bat langile zituen, “La Fábrica de Mantas”, 100 langilerekin, “Fabrila Lanera S.A”, 200ekin... Haien ordez, beste asko ireki ziren, batez ere metalurgiar lotuta (Fernández eta Maceira, 2015: 71-72).

Hazkunde ekonomikoarekin batera, hazkunde demografikoa ere izan zen. Batez ere 50 eta 70eko hamarkaden artean biztanleriaren hedapena izugarria izan zen: 1950ean herriak 12.784 biztanle zituen; 1960an, 18.642; 1970ean 34.369; 1975ean, 46.329. Laurogeiko hamarkadaren hasieran beheranzko joera nabari zen arren (1981ean 45.789 biztanle ziren eta 1986an, 43.676), aldaketa demografikoa

sakona eta azkarra izan zen. Arrazoi nagusiak izan ziren, alde batetik, Euskal Herriko eta Espainiako beste leku batzuetatik etorritako pertsona kopuru handi baten etorrera, eta, bestetik, jaiotza tasa altua. Azken faktore honek ezaugarri garrantzitsu batez hornituko du herria, dagokigun garairako: 1975ean biztanleriaren % 39,7k 20 urte baino gutxiago zituen (Picavea, 1996: 468 eta 504).

Desarrollismoaren eskutik, eredu urbanistikoa ere eraldatu zen: Iztietan eta Galtzarabordan eraikitzen hasi ziren; beranduago hasiko ziren Gabierrota, Agustinas, Morrongilleta...; 1971n Pontika eraiki zen, ia Olibet osoa eta Beraun zein Kaputxinoseko zati garrantzitsuak... Hainbat enpresek bere langileentzat etxebizitzak eraiki zituzten (Fernández eta Maceira, 2015: 73-74).

Errenteriak izandako aldaketa ekonomiko, demografiko eta urbanistikoak aldaketa soziolinguistikoa ekarri zuen, eta hori diktaturak zituen gainerako tresnei gehitu behar zaio. Alde batetik, euskara erabiltzeko debekuak familia euskaldunetan etxetik kanpo erabiltzea zailtzen zuen (Del Rio eta Aduriz, 2009: 798-799). Gainera, euskaldunen proportzioa erdaldunenarekin alderatuta txikiagoa zen. Azkenik, auzo berrien hirigintzak sortutako gabeziek eta arazoez lehentasuna zuten beste gai batzuen gainetik.

“Herri bezala, 0 azpitik goraka joan zen. Adibidez, Galtzarabordan eta Beraun eraiki zirenean milaka lagun bizi ziren hor, 7 solairuko etxeetan. Baina uraren presioa hain eskasa zenez, 3.etik gora ez zitzairen heltzen, ezin zuten garbigailua jarri (...) Eguneroko arazoak urarena eta horrelakoak ziren. Horrek ez du esan nahi beste behar eta aldarrikapenik ez zegoenik, besteak beste, euskararena” (Gizonezkoa-1, 1955. urte inguruan jaioa).

Labur esanda eta testigantzen arabera, kaleko hizkuntza gaztelera zen. Eta are gehiago, badirudi hein handi batean euskara nekazal eta baserri munduarekin oso lotuta zegoela. Etxetik kanpo euskararen erabilera oso leku zehatzetara mugatzen zen:

“[Baserrian] dena euskaraz. Ni honera, kalera jeitsi izan arte, erderaz ezer [ez]” (Juani Lujanbio, Errenteria, 1936)

“La gente de caserío, de los caseríos que había allí alrededor, hablaban en su casa euskera. Y en la calle castellano” (Toñi, Valencia de Alcántara, 1955)

“[Txikitan] kale-giroa hemen Errenterian bastante kastellanizatua zegoen, edo gaztelera zen nagusia. Erabat (...) Eta ez bakarrik kalean, esan nahi dut... Enpresetan, fabriketan garai hartan eskoletan (...) Horrek danak eragiten zuen baita ere kale giroa kastellanozkoa egiteko” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Errenteria, 1955)

“Auzo batean bost mila pertsona edo ez dakit zenbat izango ziren eta gehienak erdaraz [aritzen ziren]” (O., 1940)

“[Aiatik Errenteriara joan zenean] con cuatro años creo que vine, yo no sabía nada de castellano, no sabía (...) Y me acuerdo que con once o doce años ya no sabía nada de euskera, nada. Porque en la calle sólo se hablaba en castellano” (Juani, Aia, 1944)

“Hango errealidadea [auzoarena] zen erdalduna. Eskolak erdaldunak ziren, orduan han zegoen errealidade bat asko markatzen zuena. Gu ez ginen etxean egoten, gure dinamika guztia zen kalea...” (Jon, Orereta, 1950)

“Estatuko leku askotatik etorritako jendea zegoen (...) Nire adinako bakarra izango nintzen kale hartan baina gero urbanizazio bat egin zen (...) Kooperatibako etxeak, bi mundu bezala zeuden bereizita. Eta horiek nonbait ziren Gaztaino auzoa edo inguru horkoak (...) eta hara bai etorri ziren euskaldun asko (...) Jarraitzen nuen nere bizilagunekin jolasten” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Haurra eta gazte nintzela ere euskara batzuk-batzuk hitz egiten zuten (...) baina euskera kalean ez zen ahitzen ezer. Baserritarrak etortzen zirenean hitz egiten zuten, baina bestela ezer ez. Kontuan hartu behar da ere urte haietan inmigrazio handia izandu zela” (Kepa Oliveri, Erretereria, 1947)

8.3.2 Eskola eta kalea

Kalean gaztelera hainbeste entzutearen arrazoi nagusienetariko bat hezkuntza sisteman topatzen dugu. Elkarriketatutako pertsona batzuk izan ezik, etxe-eskola batera ala ikastolara joan zirenak, gainontzekoak garaiko ikastetxe publikoetan ('Escuelas Nacionales') edo monjeekin zein fraileekin ikasi zuten. Hezkuntza eredu horrek euskararekiko zeukan jarrera, bortizkeria fisiko eta sinbolikotik abiatuta beste mota bateko harremanak sortu arte ondorengo testigantzetan ikus dezakegu.

“Hasieran, dena erderaz. Genuen profesore bat gainera, nabaritzen bazigun euskeraz... zigortu egiten zigun, eh. Gero beste bat sartu zen eta hark uzten zigun euskaraz hitz egiten. [Euskaraz egiten uzten ez ziena] hemengua [zen], hemengua, hemengua. Hemenguak ziren denak” (Juani Lujanbio, Erretereria, 1936)

“Ni Aiako eskolara ere joaten nintzan (...). Zegoen maistra bat aurrean eta beste bat atzean, makil batekin, atzean. Eta orduan han hitz egin behar zen gazteleraz. Euskaraz hitz egiten bazenuen, atzekoak jo egiten zizun makilarekin (...) (Juani, Aia, 1944)

“Bandera jarri behar izaten zen ... Guk ez genuen jartzen, mutilek jartzen zuten eta mutilek gogorrango izan zuten (...) maisuak berak agintzen zuen mutilak mendira joatea, makila ekartzea eta gero beraiei [jotzen zien makil horrekin] (...) Guri ez ziguten horrelakorik [egiten] (...) [Guri] ‘jese chapurriau!’, noizbait hola, ‘jese chapurriau!’ [esaten zigun maistrak], baina mutilak... mutilak (...)” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Nik ez dut ezagutu eraztunarena (...) Hori igual eskola publikoetan izango zen gehiago, Franco garaian (...) Gertatzen dena, garai hartan euskera ez zegoen ezta asignatura bezala” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Gu Franco garaiko eskoletara juanak gaude. Eta orduan eskolan dena kastellanua egin behar izaten genuen” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“Bazeuden irakasle batzuk uste zutenak euskara bigarren mailako hizkuntza zela, (...) baina gero euskara irakaslea eta beste irakasle gazteago batzuek (batzuk fraileak eta beste batzuk seglarak) jarrera positiboa [zuten]. Baina gu jarrera aldetik (...) etxean eta lagun giroan hartua genuen hartu beharreko hizkuntza motibazioa. Orduan, nolabait txertoa hartua genuen (...) eraso edo hizkuntza bortizkeria sinboliko horri aurre egiteko” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

Zer esanik ez, euskaldun elebakarrak zirenek askoz ere zailagoa izan zuten eskolarizatze prozesua eredu linguistiko horretan.

“[Eskolara joan zenean] nik ez nekien erderaz, eh. Askotan gelditzen nintzen, ba ‘zer esan nahi du?’. Eta galdetzen bazenion, ‘¡Ah! ¡Haber escuchado!’ [haserre abotsa]. ‘Eske ez dizut ondo ulertzen’. Eta bueno....” (Juani Lujanbio, Erreterria, 1936)

Baina eskola eredu horren ondorio nagusia txikitatik gertatzen zen akulturazioa zen, eta horrek dakarren hizkuntz-ohitura aldaketa.

“Noski, gaztelaraz ikasi genuen. Garaia hura inmigrazio garaia zen eta bizitza egiten genuen nahiko (...) etxetikan kanpo. Gaztelaraz egiten genuen. Eta gaztelara, noski, gaur gertatzen den bezala etxera eramaten genuen” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“Eskolan beti gaztelaraz aritzen ginen. (...) Eta haiek [klasekideak] euskaldunak izanda, ba eskolan erdera hutsez aritzen ginen” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“[Eskola garaian] giroa hain kastellanozkoa zen, euskaraz egiten genuenak ere kastellanoz [aritzen zirela] (...). Kastellanoa zen gure harreman hizkuntza (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

“Nik ez nekien ezer! Eskolan gu bai, los reyes católicos, baina hori hemengo historia eta hemengo geografia eta hori?” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Lagunak erdaldunak baldin baziren bizitzen genuen presio-erabilpena... Azkenean egiten duzu ekuazio logiko bat, ezta? Lagunak ez badizu ulertzen, hitz egiten duzu bere hizkuntza. Ze gu bere hizkuntza ikasi genuen. Orduan beraiek ez zuten ez motibaziorik ez aukerik, seguru, gurea ikasteko. Ez zuten sentituko beharrik han. Guri [haien hizkuntza] zetorkigun derrigortua” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

8.3.3 Espazioak

Etxetik kanpo hitz egiteko espazioen balio sinbolikoari erreparatuz, oso nabarmen ageri dira nolabait euskarari lotuta zeudenak, izan ere, gutxiago izateaz gain, eragin-esparru oso murriztua zeukaten. Hau da, leku horiek (denda jakin bat, kafe jakin bat, azoka...) euskaldunen arteko harremanetan izan zuten garrantzia zailantzan jarri gabe, bertan ematen ziren harremanak pertsonalizatuak

ziren heinean, euskaraz edo gaztelera egiten ziren pertsonaren arabera, hein handi batean negozio pribatuak zirelako. Baina uharteak besterik ez ziren gaztelera lehenesten zen testuinguru orokorrago batean. Osasunaren zein hezkuntzaren arloan, eta orokorrean administrazioarekin lotutako edozein erakundetan, hizkuntz propioa erabiltzeko eskubidea ukatuta ikusteak sortarazten duen ezezko eraginarekin batera, hizkuntzen artean ezarritako botere harreman horrek eragiten zituen egoera ezatseginak hainbat kasutan amore ematera bultzatzen zuten.

“[Euskara] etxe mailako hizkuntza bat zen (...). Nerea bezalako familietan bai egiten zen euskeraz. Baina etxekoa, esan nahi dut, sukaldean edo etxean. Baina kalean ez. Herri-hizkuntza ez [zen]. Eta instituzioetan ere ez eta administrazioan ere ez...” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“Gure ama, ba... Betikoa: bost seme-alaba, gero joan behar zen medikuetara eta hala, udaletxera, instituzioetara... bekak... dena kastellanoz, berak ez zuen kontrolatzen (...). Azkenean ailegatzen da momentu bat (...) esaten zuena ‘zertako?’. Behartu egiten zizuten! Behartu ez, eske... jakin gabe ezin zenuen paperak bete, eta bete egin behar, eta ez zegoen euskeraz. Gauza horiek (...) izugarri atzeratzen zuten pertsona eta horrelako asko pasa dira” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“[Ikasten zegoela] Miren Itxaso izeneko ikaskide batek sekulako bronka jaso zuen: ‘¡Tú no te llamas Miren Itxaso, tú te llamas Mari Mar!’ (...)” (N., Herrera-Altza, 1933)

“Gu adibidez larunbatetan azokara jeisten ginen eta azokan asko erabiltzen zen euskera: baserritarrak euskaldunak ziren, harakin gehienak, gazta saltzailea euskalduna zen (...). Azoka bera ere euskal ingurunea zen” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Edozein tokitara joateko bagenekien erderaz egin behar genuela. Ez zigutela ulertuko edo... Bagenekien (...) ‘A mí en cristiano’ baten batek [esan zigun noizbait]. Baina gero ‘A mí en castellano’. Hori bai, ‘a mí en castellano’, asko (...) Hori nahiko arrunta zen, ‘a mí en castellano’. Baina ez zen esaten ‘a mí por favor en castellano’. No. ‘A mí en castellano’ (...) Eta ematen zuten ba, joe...” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Kalean oso gutxi [entzuten zen]. Igual denda batera sartu eta ordun bazekiten, eta orduan bai, euskeraz hitz egingo zuten. Baina kalean...” (J., Erretereria, 1952)

“Edozein tokitara joateko bagenekien erderaz egin behar genuela. Ez zigutela ulertuko edo...” (L., Pasai Donibane, 1945)

8.4 “Berreskuratze fasea”

Euskalgintzaren bilakaera aztertu denean, berreskuratze prozesuaren eragile nagusitzat familia, elkarateak, ikastolak eta helduen eskolak aipatu izan dira. Osagarri horiek guztiak agertu zaizkigu Erretereriako kasuan eta azkena momentuz baztertu arren (aurrerago atal oso bat eskainiko diogulako) besteek izandako rola aztertzeari ekingo diogu orain.

Hala ere, eta helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua herri-mugimendu gisa ezin denez aldi berean bere inguruan gertatzen ari ziren beste fenomeno politiko, sozial eta kulturalengandik banandu, herriko bizitzan (hau da, herritarren bizipenetan) garrantzitsutzat hartzen diren beste osagarri batzuen berri ere emango da.

8.4.1 Familien kontserbazio lana eta berreskurapen jarrera

Behin baino gehiagotan aipatu izan da hizkuntza gordetzeko lehendabiziko osagarria familiaren esparrua izan zela. Baina hizkuntza zaintzeaz gain, familiak berebiziko garrantzia izan zuen geroago euskalduntze-alfabetatze mugimenduan parte hartuko zuten pertsona askorengan euskal nortasuna eta kontzientzia pizteari begira. Izan ere, ezingo genuke fenomeno honek hartuko zituen ezaugarriak eta benetako dimentsioa ezagutu hainbat familien baitan bizi izandako euskara mantentzeko esfortzu horri erreparatuko ez bagenio, Larrañagak aipatzen zuen “berreskurapen jarrera” indartuko zuena.

Testigantzen artean behin baino gehiagotan agertzen da elkarriketatuaren gurasoek (edo haietako batek, behintzat) etxeko hizkuntzarekiko jarrera, ez bakarrik euskara lehenetsiz baizik eta zenbait kasutan baita erdara ez onartuz ere. Kasu batzuetan, kontserbazio lan hori eskolak eta kaleko giroak seme-alabengan sorrarazitako hizkuntz-ohitura aldaketak (edo sorrarazteko joeraren edo erreztasunaren arriskua ikusita) eraginda zegoen. Garai hartan ume txikiak edo nerabeak zirenenei jarrera horien irmotasuna eta zenbait joera ulertezinak edo gogaikarriak iruditzen zitzaizkien arren, atzera begiratzen dutenean, ulertzeaz gain eskertu ere egiten dute.

“En mi casa sí se hablaba en euskera (...). Y luego, mi padre era muy machacón (...). Y todo el tiempo, y todo el tiempo, y todo el tiempo [euskaraz hitz egiteko esaten zien]...” (Juani, Aia, 1944)

“[Anaiok] etxeko euskara ikasi genuen eta [hala ere] gure artean erderaz hitz egiten genuen etxean, horregatik aitak esaten zigun: ‘etxean euskaraz’ (...) Kasu egiten genion edo ez, ez naiz oso ondo oroitzen. Bai komentatzen dugu estima handiz aitaren jarrera hori” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Errenteria, 1950)

“Bagenekien etxean horrela [euskaraz] hitz egin behar zela (...) Etxeko ohitura zen. Polita. Bestela gure etxean galduko zen: sei senide, bakoitza ikasten toki batean (...) [eta denak erderaz]” (J., Errenteria, 1952)

“[Etxean] euskaraz dena. Dena euskaraz (...) Aita zorrotza zen (...)”(Kike Eizmendi, Errenteria, 1959)

“[Gurasoek] gurekin biek beti euskaraz (...) Gogoratzen dut ‘ama, pues pásame esto’ eta kasurik ez. Ezta begiratu ere (...). Euskaraz esan, eta ematen zidan. Eta beno, horrelako jarrerak bazeuden etxean” (Irene Larrañaga Etxeberria, Errenteria, 1960)

Testigantza batzuetan oso nabaria da gurasoek edota senide nagusiren batek antzemandako hizkuntz-ohitura aldaketaren arriskua ze punturaino zen benetakoa.

“Eta garai hartan pues joera geneukan kalean [erderaz egiteko]. Neri behin ahizpak harrapatu eta esan zidan, ‘sssh. Quieta’ (...) Ze iritsi zen momentu bat esaldi oso bat esateko zailtasunak [nituela]” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1960)

“Guk etxean euskaraz hitz egiten genuen eta gure etxean sistema bat erabiltzen zen: bagenuen soka bat eta muturrean botoi handi-handi bat, eta mahaian elkartzen ginenean ba bazkaltzeko edo afaltzeko edo, erderaz hitz egiten zuenari jartzen zitzaion koilare hori; eta igandean koilare hori zeukanak, ba pagarik gabe gelditzen zela. Hori ez zen inoiz gertatu nire etxean, ez ginen inoiz gelditu pagarik gabe, baina bai lortu zena izan zen ohitura hartzea ba gurasoen aurrean eta familia elkartuta zegoenean euskaraz hitz egin behar zela. Baina hasieran oso xelebrea zen, zeren egoten ginen zain ea norbaitek ‘sí’ sikiera esaten zuen koilarea pasatzeko (...) Gogoan dut behin andereño bateri entzun niola hori didaktikoki zela beno, ia ia neurri faxista. Eta esan nion ‘zu tonta zara, goitik behera tonta zara. Ze ez zara iritsi helburura. Helburua zen ohitura bat sortzea garai haietan. Eta gu gure etxean ez gara inoiz gelditu pagarik gabe, baina ohitura hori sortu zen. Eta eskerrak horrerri ba guk aurrera egin genuen’. Ta gainera botoia zen [handia] (...) eta polita zen, ze senideen artean (...) [lehia zegoen]. Eta gero oso denbora gutxira ez zen behar izan. Baina badaezpada ere, badaezpada ere, han edukitzen zuten, atearen atzekaldean [bistan izateko]” (J., Erretereria, 1952)

Euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeari edo hizkuntzarekiko atxikimendua sortarazteari dagokionez, hona hemen testigantza batean euskararen eta askatasunaren artean egindako lotura:

“Orduan etxeko eremua zen eremu librea, eta horregatik aita aske sentitzen zen etxeko eremuan eta inkulkatu zigun ba hizkuntza mantentzea (...). Ama euskalduna [zen], baina aita gehiago sentimendu euskaldunekoa. Bera gerran egondu zen, kartzelan egondu zen eta zama hori gainean zeraman, eta orduan bere eskape, bere territorio librea, lan pila egin eta gero, etxera ailegatzen zenean [euskara zen] (...) Hori erakutsi zigun” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

Familietan euskararen aldeko jarreraz gain, elkarriketetan ere beste mota batekoak agertzen ziren, gerora bai euskaraz alfabetatze zein euskalduntze prozesuan pisua izan zutenak: euskaltzaletasuna, euskal kontzientzia, erregimenaren diskurtso ofizialarekiko jarrera kritikoa...

“[Gurea] Euskal senako etxea zen baina euskara ez zegoen (...) Orduan nere aitak gogoa zeukan [euskara ikasteko], amak ere zera. Eta orduan bazegoen kontzientzia, gure etxean bazegoen nazionalismo... pixkat hola, ezkerragokoa, baina beno, konbentzimentua. Eta orduan nolabait ba aitak gogoa izan zuen euskara ikasteko. Eta orduan baziren diska batzuk eta behin eta berriro pues esaldi batzuk entzun eta hori zen... [Gauetan aitaren lagun bat etortzen zen] gure etxera eta han gauetan nik gogoratzen dut Radio París [entzuten zutela] (...)” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

“Etxean irratia familian entzuten genuen (...), Radio Paris garai hartan, kanpotik Euskal Herriari buruzko albisteak beste modu batean entzuteko, hemendik beste errealitate bat kontatzen zela jakitun baitziren gurasoak. Eta gero..., ez dakit, Herri Irratia ere entzungo genuen” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

Horrelako ohiturek joera ideologiko zehatza adierazten dute, hainbat kasutan mota ezberdinetako konpromisoer lotuta zihoana.

“[Gurasoentzat, euskalduna izatea eta abertzale izatea lotuta zihoazen] Ez zuten jakingo [azaltzen] zergatik: euskaldunak ziren, abertzaleak ziren” (Jon, Orereta, 1950)

“Nik oso sartuta dut gabonetan ba (...) guri prestatzen ziguten eta etxetik atera behar ginen listado batekin (...) zerrenda horretan zen gure aitonaren lagunen etxera joan behar ginen kantatzera (...) euskal gabonetako oso kanta politak (...) Eta ni harritzen ninduen (...) ba etxe batera sartu eta ‘etorri, etorri, etorri!’ eta nolabait sartzen gintuzten sukaldera edo (...) barru-barru-barrura. Eta han kantatzen hasi eta hango aitona ba negar-malkotan. Negar-malkotan eta izugarritzko propinak, aizu! Etxera joaten ginen aberats (...) Eta klaro, urteekin konturatzen zara zer zen: ba pertsona horiek gure aitonarekin batera ba egon ziren deportatuak (...) Eta orduan klaro, gu joan behar ginen haien etxera eta euskal kanteekin eta baserritarrez jantzita eta orduan haientzat zen ikaragarria. Haiak ahotza pasatzen zuten eta bazkaltzeko garaian etxean ginen eta etxera deitzen zuten ‘halakoan etxera ez direla joan’, eta ‘halakoan etxera ez direla joan’, eta... Eta [arratsaldean] egin behar genuen ibilbide bat. Eta gero denborarekin konturatzen zara eta esaten duzu: ‘joe, ze inportantea zen haientzat’...” (J., Erreterria, 1952)

“Aita hasieratik izan da Orereta ikastolako bazkidea, nahiz eta gero [seme-alabak] ez joan” (Iruñe Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Eta orduan giro horretan [monjetakoa] ba familia abertzale batzuetan behintzat (...) dantza egitera joaten ginen Ereintzara (...) Ahal zen guztia” (Elixabete Perez Gaztelu, Erreterria, 1961)

8.4.2 Erreterriako elkarte-sarea

Erreterriako elkarte-sarea zabala eta ugaria izan da. Betiko elkarte gastronomikoei eta aisialdikoei (Txepetx, Urdaburu, Gautxori, Elkartasuna...), 60ko hamarkadatik aurrera sortutako elkarte kulturalak gehitu zitzaizkien, baita urbanismoarekin batera antolatutako auzo-elkarteak ere. Orokorrean herritarren sozializazioa erraztearekin batera, garai hartako gizarteko pultsioak erakusten dituzte, baita gizarteak berak eman zituen aurrerapausoak ere. Horrela, baziren aisialdiko elkarteak (mendizaletasuna, kirola, eta abar sustatzen zituztenak, edota elkarte gastronomikoak...), kulturalak, erlijioari lotutakoak, auzo-elkarteak...

Elkarte bakoitzaren helburu eta izaera berezituaren gainera hainbat euskaldun eta euskaltzaleen elkargune izan ziren eta zentzu horretan euskal kultura edota euskal kontzientzia pizten lagundu

zuten. Batzuek berebiziko garrantzia izan zuten helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua aurrera eraman ahal izateko.

8.4.2.1 Elkarte gastronomikoak. Txepetx, Urdaburu, Gautxori, Elkartasuna...

Elkarteen munduan badaude besteen aurrekaritzat har daitezkeen batzuk.

“Hemen asko izan dira (...). Elkartasuna, Gautxori, Txepetxa (...), Euskaldarrak, hori berriagoa da (...) Gu beti Txepetxan (...), caza y pesca” (Juani Lujanbio, Erretereria, 1936)

“[Auzo elkarteak] baino lehen zeuden Ereintza, Urdaburu... Baina horiek elkarte kulturalak ziren, ze garai horretan, por los Estatutos del Gobierno Civil, bakarrik zen posible sortzea Sociedades Deportivas, Culturales...(…) Paper bat jokatu zuten, zeren garai hartan ez zegoen besterik. Hor joan ziren sortzen ere sociedades gastronómicas hasieran, baita sociedades de Montaña... Urdaburu bezala. Hori izan zen erreferentzia bat [euskara arloan]” (Jon, Orereta, 1950)

“Garai hartan Ereintza elkarte, Hibaika elkarte, Urdaburu elkarte... [zeuden]. Eta elkarteen inguruan gazteak ere biltzen ginen” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“[Behin, Urdaburu elkartean] bandera gorri bat [atera zuten] (...) hor problema izandu zen koloreagatik” (Elixabete Perez Gaztelu, Erretereria, 1961)

8.4.2.2 Elkarte kulturalak, Ereintza, Hibaika, Ibai Alde

Elkarteak mota ezberdinetako zaletasunak, energiak eta nahiak bideratzeko osagarri garrantzitsuak bihurtu ziren.

“Hemen bazegoen frankismoaren kontrako giroa eta (...) bide bat zen euskal kultura [sustatzea] (...) Mugimendu guzti hori lotuta dago ‘con un despertar de la conciencia’ (...)” (Kepa Oliveri, Erretereria, 1947)

“[Garrantzitsuenetariko bat] Ereintza. Batez ere antzerki mundua ere landu du, dantzariak (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

“Fomento Cultural (...) Gero zegoen Ibai-Alde (...) Hibaika elkarte, Zumardian (...) [Ereintza] gehiago ibiltzen zen ba txistu klaseak ematen, euskal dantzak erakusten, gero sortu zen balonmano taldea... Eta hori zen garai hartan Erretererin zegoena, eta gutxi gora behera denak nahiko koordinatuta egiten genuen lan” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“Erreterian nagusienak Ereintza eta Hibaika ziren (...) euskal kultur arloan (...)” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

Ereintzaren kasua, adibidez, 60ko hamarkadatik hona egindako ibilbide luze honetan kirola, musika, dantza, kultura landu izan dituen, paradigmatikoa dela esan genezake.

“Ereintza fraileen ikasle ohiek sortu zuten 1958 urtean, nolabaiteko gaur egungo Alumnii bat izango litzateke, topagune antzekoa, antolatutako ekintzekin (antzerkia eta zinea baina erderaz, xakea...). Hasiera bateko egoitza fraileena zen eta haien tutoretzapean. Eraikina Fabrika Handiarena zen (lihokoa). Sortu gutxira, 1963an edo, taldeak nahi zuen beste era bateko norabidea hartu, fraileen tutoretza utzi eta kultur-kirol elkarte bat sortu euskal esparrura [zuzendu] (...) eta sartu zen euskal kulturako bidean (...). Eta kultur arloan ba ja Ereintzak hartu zituen arlo batzuk (...) artesanian eta dantzan... (...). Joan ziren arloak bereizten, baina izan ziren urte batzuk nik esango nuke 65etik (...) eta laurogeita gutxi arte, dena batuago zegoela eta ordutik aurrerago nik uste ja arloak bereizten hasi zirela” (Kepa Oliveri, Erreterria, 1947)

“Ereintza garai hartan... (...) Ez zen mugimendu handirik, orduan kultura aldetik edo sortu zuena edo behintzat bildu zuen jendeagatik lan handia [egin zuen] (...) Nik uste dut Ereintzak berreskuratu egin zuela [Olentzeroa]. Eta Santa Agedako koplak (...) hemengo edadeko batzuek (...) [ekarri edo berreskuratu zituzten]” (David Gómara, Lezo, 1956)

Nolabait Ereintza erreferentetizat hartuta, beranduago sortu zen Hibaika elkarte.

“Ereintzan ere euskaldunak ziren, baina beno, gu baino nagusiagoak ziren, ezta? (...) Badakizu, adinen kontua eta rebeldia hori, eta orduan erabaki genuen beste elkarte bat [sortzea] (...) [1968an aldera] Erreterriko gazteek (...) Jose Mari Sors, Mikel Bagues eta abar, sortu genuen gazteen elkarte bat, Hibaika izenekoa (...) Sortu ahal izateko behar izan genuen elizaren babesa (...) Hasieratikan gure asmoa ba euskararen inguruan zerbait egitea zen eta herriko gazteek (...) elkartu eta talde konpromiso hartu herriarekiko (...). Jende dezente [ginen](...). Gu izango ginen nagusienak, gure hamarkadako ez dakit... hogeit bat edo (...) eta gero ja hortik gaztetxoagoak” (J., Erreterria, 1952)

“[Hibaikak mendiko irteerak antolatzen zituen] Mendiko autobusetan eta dena antolatzen genuen, eh. Joaten ginen mendira eta neri esaten zidaten ‘zuk hitz egin behar duzu bidaia honetan joan-etorria euskeraz gerra karlistari buruz’; ‘mekaguenlaletxe, ta nik zer dakit...?’ (...) Gerra karlistak ikasi, eta gero... Baina bidaian eta dena, eh. Garai hartan denbora ez zen galtzen ezta bost minutu” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

“Garai hartan ni gogoratzen naiz pues Olentzero eta horrelako gauzak antolatzen ziren Ereintzarekin batera (...) Eta ja gero azkenean Hibaika desagertu zenean Ereintzak jarraitu zuen hor euskal kulturako... pues hori: Santa Agedako koplak, Urte Zaharreko koplak, Olentzeroa, San Juaneko jaiak, Inauteriak (...) gero aurrerago hasi zirenean...” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

8.4.2.3 Elizaren rola

Egia bada ere erakunde gisa Elizaren rola frankismo garaian oso markatuta zegoela, ezin da ukatu batez ere hainbat apaizen jarrera eta lanari esker zenbait elkartek aurrera egin ahal izan zutela, geroago gau eskolekin gertatu zen bezala. Ondorengo testigantza hauetan agerian geratzen da Elizak izandako babesle rol hori.

“Elizaren barnean bazeuden apaiz batzuk progresistak, entre comillas. Hor elkartzen zen jende gaztea eta gaur dagoen jende asko mugimendu sozial eta politikoetan hortik atera zen (...) [Elizak] jende gaztea, langileak kontrolatzea zuen helburu. Baina horren atzean sortu zen mugimendu bat erreibindikatioa (...). Hemen izan ziren apaizak ziren progresistak, nahiz eta haien ikuspuntutik ikusi, baina konprometituak [adibidez, kartzela pairatu zuten]. Gu orduan sinisten genuen rolo horretan. Ardoa eta ogia hartzen genuen... Hacíamos lecturas sobre el marxismo... Era un espacio para la reflexión y el análisis” (Jon, Orereta, 1950)

“Elizak guri babesa eman ahal izateko (...) [egin zuten] ‘Hijas de María’ eta ‘Hijos de San Luis Gonzaga’koen bilakaera. Eta suposatzen zen gure elkartean elizaren ordezkari bat egon behar zela gurekin (...), etorri behar zuela herriko apaiz bat gure bileretara. Eta orduan oso berezia zen, ze Hibaikan, gure elkartean, bazegoen talde bat ‘Erlijiokoa’ deitzen zena, zeren bestela apaizak ez zeukan kabitarik, ez? Eta horrela abiatu zen Hibaika” (J., Erreterria, 1952)

“Eta denak, behintzat bai Hibaika eta bai Ibai-Alde, nahiko... elizaren eskutik ez, baina babesa papera egiten zuten. Orduan protokolo batzuk bai betetzen genituen, ze hor zeuden apaiz batzuk, zegoen Jose Mari Astigarraga, pixka bat etortzen zela itxura ematera Hibaikari (...) Congregación de Hijas de María e Hijos de San Luis Gonzaga... Nik ez dakit zer rolo zen hura, baina dena holako formatoein. Eta Ibai-Alden ere nahiko inplikatura zegoen Iztietako eliza ‘ta garai hartan nahiko sartuta zegoen Manu Labaien. Gero utzi zuen apaiza izatez, baina garai hartan bera hor zebilen” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

“[Eliza] herri guztietan egondu zen babesa ematen ikastolei, euskal kultura elkarteei...” (Elixabete Perez Gaztelu, 1961)

“Adiskidetasun harreman asko ziren kristau elkarteari lotuak. Eta kristau elkartean hizkuntza erdigunean jarrita zegoen, natural (...) [Elkartea] Gaztedi, Gazte elkarteari lotuta (...) Espazio konpartimentalizatu horietako bat euskararena Gaztedi zen (...) [Gerora izandako beste gazte elkarte batzuen esperientzietan ere, hizkuntza erdigunean zegoen]” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

8.4.2.4 Auzo-elkartek

Erreterriak izandako urbanizazio ereduak oso denbora laburrean auzo berriak eraiki izana ekarri zuen, nahiz eta hasiera batean bizitza duin bat eduki ahal izateko zerbitzurik ez izan. Egoera hori

ikusita, auzokideak eurak hasi ziren euren artean antolatzen, XX. mendean herri-mailan izandako mugimendu garrantzitsuenetariko bati hasiera emanez.

1967.urtean, Gabierrotako Laguntasuna auzo-elkartea sortzeko bidea hasi zen, 1968ko apirilean ofizialki hasiko zena, Errenteriako lehenengoa (eta Estatu mailan ere, lehenetariko bat). Ordurako, auzolanean, haurrentzako parke bat eraiki zuten; ondoren helduko ziren beste hainbat mugarri, auzokideek egindako mobilizazioei eta lanari esker (Arenzana, 2018a eta 2018b). Gabierrotaren ondoren beste hainbat sortu ziren herrian eta 1976an talde ezberdinak koordinatzeko lehenengo ahalegina eman zen “Comisión Coordinadora de Asociaciones de Vecinos y Asociaciones” izenekoaren bidez, 1977an sortuko zen “Hirigintza Koordinakundea”ren lehendabiziko pausoa izan zena (Iriarte eta Elberdin, 1997: 138).

Auzo elkarte hauen ezaugarriengatik, batez ere aldarrikapenei, antolakuntzari eta lan egiteko formei dagokienez (hein handi batean, auzolanean oinarrituta), langile-mugimenduarekin lotura handia zeukaten. Baina aldarrikapenak ez ziren bakarrik auzo zehatz bakoitzera mugatzen, ikuspuntua zabalagoa zen eta garai hartako gizartean sortzen ari ziren beste mugimenduekin batera (feminismoa, euskararen aldeko mugimendua, aldarrikapen politikoak...), herri-mugimendua osatu zuten (Iriarte eta Elberdin, 1997: 158). Testigantzek ere hori adierazten dute:

“Gero joan ziren ‘Asociación de vecinos’ sortzen. Horiek zeukaten un componente más reivindicativo de las condiciones sociales y urbanísticas. Baina gehienetan sakonago joaten ziren: condiciones sociales, nacionales... [Hasieran] mugimendu guztiak ziren asamblearios (...). Nik uste dut auzo elkarteak hasi zirela sortzen a partir del 67-68-69. Lehendabizikoa Gabierrotakoa izan zen. Hortik aurrera joan ziren poliki-poliki sortzen [gehiago]. Eta ere joan ziren azaltzen elkarte desberdinak (...). Herri-prozesua izan zen, herria joan zen frankismoari beldurra galtzen” (Jon, Orereta, 1950)

“Nik gogoan dut Gabierrotan ere... hor ere erdaldun jendea gehienbat sartu zen, baina bazegoen Zapirain bat [Jose Mari Zapirain], gizon euskalduna zena, eta (...) auzo elkarte bezala antolatu zuen eta hura ere segituan jarri zen harremanetan gurekin ba ez ahaztutzeko euren auzoa (...), ba gu hara joateko eta laguntzeko ere bai” (O., 1940)

“Auzo elkarteak sortu ziren elkarte kulturalak baina beranduago (...). Ezberdina izandu zen (...)”. Alderdi politikoek haiek nolabait kontrolatzeko interesa zuten” (Kepa Oliveri, Errenteria, 1947)

Orokorrean elkarteen egunerokotasuna erdaraz izan arren, besteak beste barneko dokumentazioa edo asanbladak euskaraz aurrera eraman ahal izateko arazoak zeudelako, euskararekiko sentsibilitatea nabaria da. Sentsibilizazio hori elkarteek gau eskolei emandako laguntza logistikoan ere adieraziko da, euskarazko taldeak herri osotik zabaltzea erraztuz.

“Ikusten genuen [euskaraz dokumentazioa sortzeko] beharra, baina askotan agiria ateratzen zen erdaraz: bilatu behar zen itzulpena nork egin, horrek atzerapena ekartzen zuen...” (Jon, Orereta, 1950)

“[Hibaika sortu zenean] arazo bat baguenen: klaro, ikasketetan aurrera joanda ba gure euskal hiztegia oso labur gelditzen ari zen. Baguenen hiztegia ba etxeko mailan ibiltzeko, baina hortik kanpo ez genuen hiztegiarik, gainera ez jakinak ginen. Nahiz eta zerbait irakurri euskaraz, ba idazten eta abar ez genekien. Hibaikan hartutako lehenengo konpromisoa izan zen ba elkarteko bilerak euskaraz egin behar genituela. Eta oso bilera luze eta neketsuak ziren, ze bata besteari zuzentzen aritzen ginen, ez baldin bagenekien hitz bat beste batek esan behar zigun... Baina hor ere helburua izan zen gure artean euskaraz hitz egitea” (J., Errenteria, 1952).

8.4.3 Euskara lan munduan

1990eko hamarkadaren hasieran J. Inazio Marko Juanikorenak euskararen egoera aztertu zuen, momentu horretan lan mundua berreuskalduntzeko bideratzen ari ziren esperientzietan oinarrituta. Aurkitutakoak bost ataletan sailkatu zituen (enpresetako hitzarmen kolektiboak, sindikatuen hitzarmenak, herri erakundeetatik zein instituzioetatik bultzatutako ekimenak eta bestelakoak) baina enpresa munduaren osotasunean ahalegin solteak baino ez ziruditen. Euskara, beraz, arlo sozioekonomikoaren egituretatik kanpo zegoen eta ez zegoen Errenteriako adibiderik (Marko, 1993).

Hori omen zen 70eko eta 80ko hamarkadetan lan munduak zeukan beste ezaugarri bat, batez ere lantegien esparruan. Testigantzetatik igartzen denez, arlo industrialean euskararen erabilera harremanen norabidearen arabera zegoen: horizontalean, hau da, lankideen artean, ohikoa izan zitekeen arren, solaskideen artean nolabaiteko botere-harremana egonez gero, erdara zen lan munduko hizkuntza ofizial bakarra.

“Euskarari dagokionez, bai tailerrean bai fabrian (...) komunikazio tresna zen gaztelera (...), baita euskaldun petoen artean ere (...). Ni Oiartzunen hasi nintzen lanean, nagusia oiartzuarra zen peto-petoa eta guri gaztelaraz hitz egiten zigun. Hori zen hizkuntza lanean (...). Beti diglosiaren gaia (...); eta garai hartan, are gehiago. Lantokian erdaldunak eta euskaldunak geunden eta gaztelera zen... eta guretzako, naturalidade osoz. Gaur egun sufritu egiten dugu egoera hori, baina orduan naturalidadea zegoen. Hor eboluzioa egon da” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Errenteria, 1950)

“Dokumentazio guztia, harreman idatzi guztia, norabide idatzizko guztiak, instrukzio guztiak... hori dena gaztelaraz egiten zen dudarikan gabe (...). Eta gainera gaitasunik ez zegoen euskaraz egiteko. Gauzak diren bezala. Zergatikan enpresetan zegoen jende heldua alfabetatu gabeko jendea zen, euskalduna izanik ere” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Errenteria, 1955)

“Garai haietan nik ez dut uste (...). Badakit gero, aurrerago, hasi zirela hor pixkat enpresa batzuetan (...) errebitak euskaraz ateratzen, euskal mundua indartzen fabriketan ere...” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

Bazeuden ere euskararen ikaskuntza edota erabilera sustatzen zituzten sektoreak, bankuena esate baterako. Sindikatuen eraginari esker, enpresa batzuek euskarazko eskolak eskaintzen zituzten.

“[Euskarazko eskolak eman zituen hainbat enpresetan] Aurrena, Probintzian, gero Munizipalean (...) [Vinos Savin-en]. Uste dut ordezkari sindikal bat zegoela eta hark antolatzen zuen [ikastaroa] eta enpresak ordaindu. Urtebetez egon nintzen eta ‘Jalgi Hadi’ metodoa erabiltzen nuen (...). Oso interesaturik LAB sindikatoa zegoen (...). Ilunabarrean” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Nik uste dut garai hartan ni ibili naizen sukursale guztietan bazegoela jendea euskaraz zekiena. Bazegoen bat baino gehiago euskarazko klaseetara joaten zena. Eta gero bezeroei (...) [haiek euskaraz hitz eginez gero], euskaraz erantzun. Ez dugu behin ere arazorik izan horregatik (...) Adibidez Oartzunen denak etortzen ziren euskaraz. Hara ezin zen joan inor ez euskeraz ez zekiena” (David Gómara, Lezo, 1956)

Hainbat kasutan erresistentziak apurtu beharra ere izan zen, adibidez, euskarazko Lanbide Heziketa bultzatuz.

“[Lantegian] euskaldunok harremanak euskaraz bizi izan ditugu, baina gero detaileak... Ba enkargatuarekin, adibidez, (...) ‘Zergatik hitz egin behar duzu gaztelera? Hizkuntza ofiziala delako?’ Hori ez zen hausten (...) Lan munduan hizkuntza gaztelera zen. Gaur egun ere apostu egingo nuke hori dela. Baita euskaldunon artean ere. Besteak beste, abantaila handia daramalako gaztelera. Bere ibilbidea eta errekursoak konpara ezinak dira (...). Nik uste dut aspaldi egin zuela hautua ekonomiak zein zen bere komunikazio tresna. Gerora etorri da arlo publikoan eta erabiltzeko” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Errenteria, 1950)

“[Lanbide Heziketa euskaraz ez bultzatzeko garai bateko argudioak] ez zegoelako irakaslegoa prestatuta, ikasle gutxi izaten zirelako oraindik D ereduikan eta gero lan munduan ez zela beharrezkoa (...). Hori zen 83-84 urte horietan (...) Eta orduan Administrazioarekin beti borrokatzen (...). Planteatzen genuen argi eta garbi baietz, irakaslegoa bazegoela, egin behar zela bultzatu eta animatu jende hori euskeraz aritzeko (...). ‘Ez, ez, baina gurasoek ez badute eskatzen...’. Klaro, hor zegoen pixka bat horrelako zirkulo bitxi bat: gurasoek ez badute eskatzen, ez dugu eskaintzen; eskaintzen ez badugu, inork ez du eskatzen, orduan... Edo gurasoak oso konszienteak izan behar dira eta oso exijenteak maila horretan, edo bestela garai horretan ez zen... Administrazioan ez zen ikusten horrelako beharrik (...). [Hogei bat irakaslek esan zuten] ‘Beno, hemen zerbait egin behar dugu...’ eta elkartu ginen pixka bat euskararen aldeko ba militantzia apur bat (...), eta hasi ginan mugitzen gure artean eta bai inguruko irakasleekin, ze gure inguruan baziren euskeraz zekiten asko eta gure bultzadarekin (...) ba animatu zirela euskaraz ikastera (...)” (Josu Berra, Donostia, 1956)

8.5 “Normaltasun fasea”

Udaleko Euskara Batzordeak 1991n egindako euskararen inguruko ikerketak zioenez, Errenteriak jasandako deseuskalduntze prozesu bortitzaren ondorioz, herritarren laurdena besterik ez zen

gai euskaraz hitz egiteko, Gipuzkoako portzentai baxuenetariko bat izanik. Erabilera minorizatuta egoteaz gain “erabilpenaren marjinalizazioa eta murrizketa esparru eta sektore guztietan gertatzen” zen. Baina aldi berean, ikerketak bestelako datu interesgarri bat adierazten du, hain zuzen ere, presentzia baino, latentzia hitz egin beharko litzatekela, hau da, hizkuntza ezkutuan bazen ere, hor zegoela:

Badago euskaldunik Erreenteriako kale, denda, taberna, lantegi eta beste hainbat lekutan, baina jende honek ez du dakien euskara kanporatzen (...). Esan daiteke ez dela ausartzen, zenbait kasutan, euskaraz egitea, inguruko oreka puskatzea bezala ikusten bait du (Erreenteriako Udala, 1991: 34-35).

80ko hamarkadatik aurrera euskararen presentzia gizartean “hizkuntz normalizazioa” deiturikoan txertatu zen. Autonomia Estatutuak ematen duen esparru politiko berriaren barruan ikastola zein euskaltegien hedapen eta finkatzeak, hezkuntza entitateetan ez ezik, komunikabideen sorreran eta abarretan islatutako hizkuntza politika bilatzeak, euskarari ikusgarritasuna emateko balio izan zuten. Baina egoera berri horretan, gatazka politikoak eta sozialak izan ziren, eta eragileen arteko harremanean eragina izan zuten, baita barne-tentsioak ere. Garai berriek beste arazo batzuk ekarri zituzten, baina euskalgintzarentzat ere aukera berriak sortu ziren, mobilizaziora eta parte-hartze aktibora ohituta zegoen masa sozial baten energiari esker. Horrela sortu ziren gaur egun oraindik mantentzen diren hainbat elkarte berri.

“Franco hil zenean eta ja hauteskundeak [izan zirenean] (...) elkarte kulturaleri arazo bat gertatu zitzaigun (...), alderdi politikoek hartu zuten [arlo hori]. Orduan pentsatu behar izandu genuen gure indarrak nora bideratu eta zer gauzak egin (...)Especializaziora jo behar izandu zen” (Kepa Oliveri, Erreenteria, 1947)

“Gero Udalak bazuen Euskara Batzordea, bere garaian baita ere bastante... [garrantzia izan zuena] (...) Eta gero pues karteldegia asunto asko zegoen, mugimendu asko (...). Eta horiek danak joan ziren euskaratzen. Eta hor egon zen kriston aurrerapena (...)hizkuntza zen zera bat (...) erdigunean jartzeko (...)Hori indartzen joan zen maila guztietan (...)” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“Euskalgintzak sortu dituen artefaktoen artean ikastolak, alfabetatze-euskalduntzea eta gero dago EHE, baina EHE libre izatera deitua dago eta asanblearioa (...) eta euskara elkarteak. Euskera elkarteak kontzertazio maila ez dute, hitzarmen bat daukate (...)” (Imanol Miner, 1974)

Elkarte berri horien artean oso garrantzitsua izan zen **Euskal Herrian Euskaraz**, “euskararen aldeko borroka sail eta eremu guztietan aurrera eramateko elkarte gisa” sortu zena (Agirrebaltzategi, 1995: 19). Batez ere 1980ko hamarkadako lehen erdialdean EHEko taldeek udalei eta alderdi politikoei “Euskara benetan Gure Udaletan” kanpainaren barnean euren eskariak zuzendu zizkieten (Arruti Landa, 1995: 33).

“Euskal Herrian Euskaraz sorreran alderdi politikoen kontra sortu zen (...) mugimendu radikala zen (...) Eta beraz, arerioak [izan zituzten] kanpoan eta barruan (...) Kontua

da hemen huts egin dutenak abertzaletasunaren bi adarrak izan direla” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“[Oso garrantzitsua izan zen] Euskal Herrian Euskarazek egiten zuen lan guzti hori (...) Kale mailan euskararen aldeko zenbait gauzak egiten zituztela (...) urte askotan (...). Harreman handia [izan zuten] kale giro honetan eta kartelen asuntuetan eta letreroekin eta baita ere ba udaletxearen ordenantzen inguruan... Lan asko egindako jendea, eta asko, egon zen Erreterrian, Oreretan. Eta haiek ere asko zabaldu zuten euskararekiko (...) jendeak ikustea ze gabeziak zeuden herrian eta guzti hori (...) Pentsatzen dut inportantea dela hori ere aipatzea mugimendu horrek egiten zuen lana euskararekin herri honetan” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“[*Euskal Herrian Euskaraz geundenoi*] leporatzen ziguten radikalak ginela, ‘los malos’ (...)” (I., Orereta, 1970)

90eko hamarkadan **Lau Haizetara** elkarte sortu zen, oraindik indarrean dagoena.

“Elkartea ere sortu zen (...) Lau Haizetara, pues juntatzeko pixkat euskara munduko ideak eta kultura rolloa egiteko... (...) bertso-eskola sortu zen eta pixka bat jasotzen hemengo historia ere bai, Bertso-eskolatik bertsolaritzatikan jasotzen (...) Esan nahi dudana da hain inportantea dela hori non etorri direnak kanpotik ikusten dute eta (...) konbentzitzen dira beharrezkoa dela, ulertu egiten dute (...). Nola egiten den ez dakit, baina denekin elkar” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“87an sortzen da bertso-eskola eta ‘Egunkaria’ (...) sortzen eta giro horretan eta euskal elkarteak... (...) Hasten da mugitzen, beste urrats bat, ez? Eta Lau Haizetaran lehenengo kolpean 100 bazkide geunden (...) Bazegoen gogoia. Gero ez da askoz gehiago handitu baina 90 [hamarkada]ren hasieran sortzen da elkartearen beharra” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“[1992an Lau Haizetarako sormena] Egin zen bilera bat nolabait proposamen bat bezala, ez? (...) ikusten zela ba bazegoela bide egiteko, nolabait euskera bultzatzeko, ez? Ez zen euskaltegi bat euskara irakasteko, baizik eta euskera bultzatzeko (...) Lehenengo istilua sortu zen asanblada horretan (...) [izan zen] zer izena jarriko zen, Orereta edo Erreterria (...)” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

90eko hamarkadatik aurrera sortutako euskalgintza berriak, “normalizazioa”ren markoan ezarri zenak, aurreko esperientziak eredu gisa hartu zituen zenbait kasutan; beste batzuetan, ordea, iraganeko akatsak ez errepikatzeko aukerak bilatu zituen.

“Orduan nik 80ko hamarkada indartsua ikusten dut (...) Besteak beste, argialetxea, eta ‘Argia’ eta Elhuyar... hori dena hor dago, garai horretan dago. Eta bertsozale elkarteak... (...) Kontutan eduki behar da 90ean ‘Egunkaria’ sortzen dela, eta 80ean ja badator zerbait osatzen (...). 80. hamarkada kontsideratu daiteke neurri batean esplosiboagoa, ze ‘Egunkaria’ ez da txantxetakoia, eh. Orain ‘Berria’ daukagun tresna hori ez da broma

(...), hori lortu izana... Gero telebistak ere etorri dira, igual instituzionalki babesa handiagoa izan dute (...), baina 'Egunkaria' oso... auzolana izan zen, herri-mugimendu bat izan zen" (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

"Oraindik Lau Haizetara berritzeko egitasmoa pentsatzeko eta gauzatzeko dago. Diskurtso bat, asmo bat, intuizio bat lantzen ari gara, bazkideen, euskaltzaleen eta, oro har, herritarren artean partaidetza prozesu bati begira" (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)

"Hasi zen Lau Haize gazte taldea sortzen. Hori zen 94. Pixkat hasten gara Arrasateko Euskara Elkarteko fenomenoari buruz, haiek dauzkate Auzolandegi batzuk Kanbon (...). Oso esperientzia potente izan zen (...). Gainera, Arrasateko lagunak egiten ditugu, hasten gara hara joaten (...) eta konturatzen gara zer den Arrasate (...). Gure herrian dena zen gerra bat, 'a cara perro' denak, eta Debagoienan gauzak egiteko beste modu bat esistitzen dela deskubritzen dugu. Eta posible dela adostasunak egitea, lehentasunak, eta badagoela gauzak elkarrekin egiteko beste kultura bat eta beste ongizate bat sortzen duela horrek, beste lankidetzak batzuk, beste sinergia batzuk. Eta guk dena ezagutu genuen orduan (...). Euskara Elkartea izan zen hainbat ekimen erretzeko aukera izan zezaketen plataforma. Ze ez zegoen lekurik. Bestea zen erretako lurraren taktika. Gatazka horren erdian ez zegoen zutik jartzerik (...). Hori zetorren 80etatik" (Imanol Miner, 1974)

Orain arte lortutakoari buruzko hausnarketek euskararen zeharkakotasuna, eragileen arteko sinergiak eta eredu berriak bilatzearen beharra adierazten dute, batez ere belaunaldi berriei eta gizarteak dituen erronka berriei aurre egiteko.

"Orain duguna nik uste dut datorrela (...) Frankismo desagertu zenean gero Eusko Jaurilaritza eta Autonomia sortu zenean (...), eskola publikoak euskaldundu egin dira (...). Zeron geunden eta gero jo, iritsi gara... pues ehunera, ezta? Imajinatu gaur egun ikastola-sarea zer den, euskaltegiak, HABE, Eusko Jaurilaritza ondoan izatea ba nolabait... (...) Buelta eman zaio [hasierako egoerari](...) [Baina] gaurko gazteek ez dute ezagutu zailtasun guzti hori euskararekiko (...): euskaltegiak (...), Egunkaria euskeraz (...) ikastolak... Beraientzat normala da (...) Orduan haiek nola egongo dira kontzientziatuta arazo bat egon daitekela ez badago arazorik, ez badute ikusten?" (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

"Badaukagu Lau Haizetara, badaukagu AEK, badaukagu Udal Euskaltegia eta horiek oso onak dira. Baina (...) horiek behar dutena da kaleak ere belarriak eta bihotza jartzea euskara ikasten ari direnentzat" (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

"Nik uste dut euskalgintzan gauza ederrak egin direla baina erderak xurgatzen du (...). Nik jakin nahi nuke Oarso aldean zenbat euskal eragile dagoen, esan nahi dut (...), alegia, bere langintzan euskara da nagusi. Beharbada izango dira ehundaka batzuk: Lezo, Pasaia, Erretereria, Oiartzun (...) Baina gero hori kalean nola islatzen da? (...) Nahi

nikek botila erdi hutsik edo beteta egotea. Gertatzen dena da ez dagoela erdi beteta, ez da egia, botila ez dago erdi beteta. Ez dago euskaraz erdi beteta, esan nahi dut” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Ez dut sentimendu baikorrik euskara lan munduan sartu denik inoiz. Badirudi Niessenen esperientzia batzuk egin dituztela (...). Gu gurean saiatu ginen (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“[Niessen enpresak] betidanik herriarekiko harreman zuzena eta indarra eduki du (...). Gaur egun, MCC kenduta, ba izango litzateke Euskal Herriko adibide, zoritxarrez gutxienetarikoa bat” (T., Orereta, 1965)

“Euskalgintza soziala oraindik ez da behar adina berritu. Oraindik, desartikulazio bat gertatzen ari da, beste arlo sozial batzuetan ere gertatzen ari den bezala. Artikulatze lana denon erronka bat izango da, eta gako berriak behar ditu. Izan ere, aliantzak ez dira bakarrik euskalgintzarekin izango; hainbat arlotako herrigintzei lotuta dauden elkarteekin elkarlanean aritza ezinbestekoa izango da: kultura, eskola, feminismoa, aisialdia, gizarte ongintza, kirola, Administrazioa, ... Orduan, saretze bat lortzea izango da erronka, baina gako desberdinekin edo, gutxienez, gako gehiagorekin (...) Ez dakigu zer datorren, baina seguru era berria izango dela (...). Eta erresistentziak egongo dira, aldaketa batzuk egiteko (...)” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

“Euskalgintza irekitzeko eta euskera helburu baino bitarteko [bihurtzeko] eta euskalgintzatik herrigintzara [bideratzeko] (...) egin genuen interseksionatze ariketa bat Saretuzekin [2013-2018 bitartean], eta horrek gatazka eragin zuen. Klaro, euskalgintza molde zaharretan zegoen” (Imanol Miner, 1974)

9.

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua Erreterian.

Begirada diakroniko bat

9.

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua Erreterrian.

Begirada diakroniko bat

Helduen euskalduntze-alfabetatze fenomeno orokorra aztertu ondoren, Erreterrian izandako bilakaerari berari ekingo diogu orain.

Ikerlanaren metodologiari begira, lehentasun osoa zeukan testigantzen bilketa egiteak, Erreterrian 1960ko hamarkadatik 1980ko hamarkadara bitartean euskalduntze-alfabetatze prozesua bizi, ezagutu eta ahalbidetu zuten ahotsengandik ezagutu dezagun (guztien testigantzak jasotzea ezinezkoa bada ere, behintzat lagin batena), oroimen indibidualaren bidez memoria kolektiboa eraikitzen delakoan. Atal honen lehengai nagusia (eta ia-ia bakarra), beraz, bizipen eta hausnarketa pertsonalak izan dira.

Memoriari lotutako ohiko mekanismoei helduta, hainbat kasutan protagonistek datu zehatzak (datak, kopuruak, zenbakiak...) emateko zailtasunak izan dituzte. Aintzat hartu beharra dago gaur arte heldu den dokumentazioa (batez ere hasierako garaian sortutakoa eta euskarri moduan laguntza eman zezakeena) oso eskasa dela, besteak beste, arrazoi hauengatik: alde batetik, gau eskolak klandestinitate egoeran zeudenez, errazagoa zelako ekimenari buruzko material gutxi gordetzea; bestetik, baliabideen urritasunak berak, irakasleak eskura zuten ia edozer osagarri ikasgai gisa aprobetxatzera behartzen zituen (gelako objektuen deskribapenetik hasita, aldizkari batean argitaratutako artikulu bat komentatzera), dokumentu fisikoak ez ziren hain beharrezkoak; gainera, sortutako material gehiena irakasleek beraiek egiten zuten eta, gau eskolek egitura formalik eta egoitza finkorik izan ez zuten bitartean, bakoitzak berea gordetzen zuen; azkenik, pasatako denborak ere bere lanak egin ditu paperak hondatzeari, galtzeari edo botatzeari dagokionez.

Aurrekoari lotuta, kronologia zehatza ematea ez da beti posible izan. Hein handi batean, ulergarria da prozesu dinamiko baten testuinguruan, non zenbait mugarri identifikatu arren aldaketak, orokorrean, ez baitziren egun batetik bestera izan. Gainera, elkarriketatutako zenbait pertsonen kasutan, helduen alfabetatze mugimendua euren bizitza historiari hain lotuta egon da ezen garai

ezberdinetatik pasatu izan den, eta bata eta bestearen arteko hainbat ezberdintasun sumatu edota adierazi arren amankomuneko osagarriak ildo jarrai bat izan dira errelatoan. Beste zenbait kasutan, berriz, euskalduntzearen edo euskaraz alfabetatzearen esperientzia erreferentzia marko zehatzagoak dituzten beste bizipen pertsonalen artean txertatuta dago.

Edonola ere, lekukotasunen bidez jasotako bizipenek ematen duten informazio kualitatiboa lehenetsi da, normalean ez baitaukagu beste modurik lortzeko.

Edukiei koherentzia eta kohesioa emateari begira, lekukoen errelatoetan ahalik eta gutxien eraginik, azalpenak ardatz tematikoa eta kronologikoa uztartuz antolatu dira, identifikatutako oinarri hauen inguruan:

9.1 Hasierako gau eskolak

Ezaugarri nagusia herriko eragile ezberdinen partaidetza izango litzateke (ikastola, elkarte ezberdinak...). Gau Ikastolak izenez ezagututako egitura honetan prekarietate maila handia zen: egoera legalari dagokionez, klandestinitatean mugitzen ziren. Antolakuntza maila hein handi batean boluntarismoan oinarritzen zen, dirua alde batera utzita. Izan ere, baliabide ekonomiko eta estruktural ezak elkarte edota pertsona indibidualen borondatearengandiko dependentzia sorrarazten zuen, batez ere lokalak lortu ahal izateko. Gero eta handiagoa zen ikaslegoari erantzun ahal izateko, kolaborazio sare hori ere trinkotzen joan zen, beharren eta ahalmenen arabera elizak edo elkarteek utzitako leku ezberdinetan taldeak zabalduz. Irakasleentzat, aldi berean eskolak leku ezberdinetan ematen aritzea ohikoa zen. 60-70 hamarkadetako gau-eskolen inguruan dagoen informazioak ikerlanaren atal berezitu bat egotea eskatzen duenez, hona hemen ezaugarri, baita esperientziak utzitako nolabaiteko sentsazio orokorrak aipatzen dituzten testigantza batzuk.

“[1964-65.urte inguruan] Erreterian oso euskara gutxi egiten zen eta hasi ginen mugitzen. Mesfidantza bat bestearen artean [zegoen]. Teoriz ez ginen ‘unos abertzales de la hostia’. Teoriz (...). Hala ere, ondo konpondu ginen. Baina lokalik ez, irakaslerik ez... (...) Poliki poliki joan zen forma hartzen (...). Gauzak ateratzen direnean, gogo gehiagorekin hartzen dituzu” (X., Orereta, 1941)

“Gauzak etortzen ziren horrela, eta [moldatu behar]. (...) Borondate asko zegoen, baina formalitatea... [falta zen]” (G., Erretereria, 1954)

“Zeron geunden eta gero jo, iritsi gara (...). Buelta eman zaio (...). Azken finean asmakizun eta asmatu ez genuen gauza guztien artean iritsi gara gauden lekura (...). Agian klaseak ematen ez genuela metodo ona erabiltzen? Zeren ez ginen profesionalak ezta ere, ez? (...) Baina beno, borondate ona [genuen] eta azken finean beharrezkoa izan da guzti hori gertatzea azken finean orain duguna [lortzeko]” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Nik egia esan askotan harro [nago]. Egin nuen... beno, ahal nuena eta ikusten dut bizirik mantentzen dela eta gero eta indar gehiagorekin. Orduan mezua ez da negatiboa, positiboa da” (David Gómara, Lezo, 1956)

9.2 Gau eskolak AEKn integratzen dira

Gau eskolen inguruan sortutako eskaera gero eta handiagoa izatearen ondorioz, 1976an AEKn bertaratu ziren (Iriarte eta Elberdin, 1997: 154). Funtzionamenduari dagokionez hainbat zailtasun izaten jarraitzen zuten (batez ere, diru falta, lokalen falta...). 1980-81 ikasturterako Erreterrialdeko gelen banaketa honako hau zen: pribatuak, % 44,44; ikastolak, % 22,22; estatuko eskoletan, % 16,66; udal gelak, % 16,66. Erreterrialdeko lokala Erreterrian zegoen eta 50 metro karratu zituen (AEK, 1982: 71-72).

“Nolabait esaten, gau eskola horiek integratu ginen AEKn. AEKn bazegoen estruktura bat goian, baina (...) irakasle asko oraindikan ginen bolondresak, o sea, ez genuen kobratzen, edo kobratzen zen oso gutxi, ez zen gure lana... [hainbat irakaslek beste lan bat zeukaten] (...). Hemen egon nintzen erdi liberatua pixkat AEK hori moldatzen edo osatzen, edo... Udaletxera joan, lokalak eskatu, lokal bat prestatzen, atontzen... (...) urtebete edo horrela. Eta aparte, klaseak ematen nituen (...) goizean, arratsaldean... osatzeko garai hartako soldata minimo bat” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Nik gogoratzen ditudan eztabaidak... Gau eskola desegin behar zen AEKn sartzeko? AEKk zeukan helburu nagusia zen herria euskalduntzea, ahalik eta pertsona gehien euskalduntzea ahalik eta modu eraginkorrean eta helburu horri, hain zuzen ere bat zetorren nik sinisten eta pentsatzen nuen horrekin. Eta eraginkortasun horretan... , gau eskolan, astean bitan bi orduko klaseak ematen genituen; AEK-n planteatzen zen bi, hiru eta bost orduko klaseak egunero eta aste osoan zehar eman ahal izatea. Horrek exijitzen zuen nolabaiteko profesionaltasun bat. Klaro, gau eskoletan aritzen ginenak lanean aritzen ginen, hortik kanpo soldata irabazten genuenak ginen, bolondres aritzen ginen astean bitan eskolak ematen. Orduan eztabaida potenteak egon ziren gau eskolakoen eta AEKkoen artean (AEKko ordezkariak etorri ziren bilera horietara). Eta hor batzuk zioten profesionaltasunak militantzia kaltetuko zuela, hau da, ez zirela uztargarriak militantea izatea eta profesional bilakatzea. Batzuk AEKren aldeko apostua egin genuen. Uste dut gau eskoletan aritzen ziren gehiengo batek utzi egin zuela. Kontutan hartu behar da ere erabaki honek zure ohiko lana uztea behartzen zintuela (...) Gehiengoek ez zuten AEKren bidea jarraitu, baina ni izan nintzen AEKren bidea jarraitu nuen horietako bat” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“[Gau eskoletako] nere azkenengo urtean (...), 1981/82urtean, ja Udaletxeak subentzio bat eman zigun. Eta gogoratzen naiz (...) AEKko lokaletan, Olibeten (...), horko baxuetan (...), bilera bat egin genuen gau eskolan aritzen ginen guztiok, Udalak emandako diru hori ba gu zertxobait irabazteko erabiliko genuen-edo. Ba AEK pixkat martxan jartzeko [erabiliko genuen]. Eta ja diru hori han utzi eta gogoratzen naiz fotokopiagailua erosi zela(...). Neri, ja AEK ezarri zenean, ja lokal haiek eta fotokopiagailua, ofizina bat, eta... Neri iruditzen zitzaidan la NASA gutxienez. Konparatuz aurreko egoerarekin...” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Ja beste estruktura bat zen eta ja beste mundu bat. [Ordura arte gau-eskoletako moduak] desagertu ziren erabat (...). Gau-eskoletan zeuden gehienak gainera nola ja

lan munduan zeuden eta hori (...) pues ja uzten joan zen (...), ze ja jende preparatuagoa eta tituloduna hasi zen sartzen (...). Ja izan zen instituzionalizatuagoa” (Iruñe Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Hori beste rolloa zen, estrukturatuago...” (X., Orereta, 1941)

9.3 AEKren gau eskoletatik AEKk kudeatutako Udal Euskaltegiaren sorrerara

AEKk zeukan antolakuntza mailak, gehi metodologia zein didaktika aldetik egindako esfortzuek bultzada handia eman zieten gau eskolei. AEKk eraginkortasuna lortzeko herri-mugimendu eta erakunde publikoen arteko elkarlana proposatzen zuen, bi helbururekin: hainbeste urtez aritutako jendeari esker ona adieraztea eta euskalduntze-prozesua instituzioek ordaintzea. Asmo horrekin hasi zen AEKk koordinatutako Udal Euskaltegiaren sorreraren proiektuaren ideia nolabait sukaldatzen, euskara ikasteak sortzen zuen interesagatik ere abiatuta eta, hain zuzen ere, interes horri erantzuna emateko asmoz. 1979an alkatezta Herri Batasunak irabazi izanak proiektua errazten zuen. Hasieran, alkateari proposatu ziotenean izutu egin zen udalak bere gain hartu beharreko kostua izugarria zelako. Azkenean, 1982an Udal Euskaltegia sortu zen, PSOEren eta HBren aldeko bozkekin.

Euskaltegia 1982an hasi zen funtzionatzen: “1982-11-12: Klaseak irailean hasi baziren ere, orain zabalduta zen ofizialki Ugarritzen kokaturiko **udal euskaltegia**. Gau-Ikastolek eta AEKak buruturiko ahaleginari esker gauzatu ahal izan zen Euskaltegia” (Iriarte eta Elberdin, 1997: 250).

“Herri mugimenduan hasi nintzen, 74ean, gau eskolan, eta gero gau eskolak desagertu eta AEK sortu zen (...)” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“AEK sortzen da gure herrian eta jada Gipuzkoako AEKtik (...) ahalik eta jende gehien euskaldundu estilo honetan eta abar. Ja argi geneukan ere uztartu behar genuela nola egin arrakastatsua izateko, eta gure helburu hori betetzeko behar-beharrezkoa zela instituzio publiko eta herri-mugimenduen elkarlana. Hori gabe gatazka baino ez dela egongo, ze batetik errekonozimendu bat eman behar zitzaion gau eskoletan aritu zen jende guzti horri, urteetan aritu zirelako euskalduntzen. Orduan horiek gabe bide berri bat hastea herrian ez genuen zilegi ikusten. Eta erakunde publikoekin batera aritzearen arrazoi nagusietako bat ere bazen euskararen irakaskuntza dohainik behar zuela izan jendea euskaldundu ahal izateko (...) Eta hori Udalak, Gobernuak edo erakunde publikoek ordaindu behar zutela gure herriko herritarren euskalduntze eta alfabetatze prozesua. Hori zen guk momentu hartan buruan geneukana (...) Gipuzkoako AEK eta gu hor. Eta hor hasi ginen sukaldatzen proiektua: AEKrekin koordinatutako Udal Euskaltegiaren sorrera (...) Lortu genuen Udalak eraikin oso bat ematea (...) dena zen Udal Euskaltegia. Egotetik oso dispartsoak herri guztian, ba lortu genuen eraikin oso bat” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Pixkanaka-pixkanaka gau eskolak bilakatu ziren Udal Euskaltegia (...). Olaizola alkateak sustatu zuen (...). Hori izan zen saltoa, ze gau eskolak nolabait babesa izan zuen, Udalaren babesa” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Aski ginen toki ezberdinetan eta azkenean Udalak Olibeten eraikin bat erosi zuen, nahiko handia, bi solairukoa (...), eta han jarri zen Udal Euskaltegia (...). Ehundaka ikasle, oso handia. Gogoratzen naiz iritsi ginela ia 50 irakasle izatera” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“(…) planteatu zen udal euskaltegi bat egitea. Eta orduan zer gertatu zen? Gau eskolan (...) izango genituen 150-175 ikasle, ezta? (...) Eta klaro, garai hartan borroka eta jendea oso kontzientziatua zegoen... Ireki genuen eta bapatean apuntatu ziren 750 ikasle. Klaro, guk genuen infraestruktura ehun eta piko ikasle izateko. Eta gainera euskaltegia... lokal bat erosi zen baina kurtso hasieran ez zegoen prestatua. Orduan izan zen kriston kaosa guretzat jende guzti horri erantzun beharra. Orduan lokal bat hor liburutegian, beste bat hemen, beste bat han... o sea, zen kriston sakabanaketa (...). Kurtso hasieran ez zegoen oraindik (...). Hasi ginen lokaleetan eta kurtso erdian edo [aldatu ginen](...). Imajinatu zer suposatu zuen 150 ikaslelik 750 izatera (...). Nik gogoratzen dut desastre bat izan zela, baina klaro... Zer egin behar genuen? Ba imajinatu zer ilusioa zegoen (...). Gizartea ‘boom’ batean zegoen (...)” (Kike Eizmendi, Errenteria, 1959)

“Guk bagenekien gau eskoletan 200-300 bat ikasle aritzen zirela, baina ez genekien planteamendu honek [udal euskaltegiarenak] zenbat ikasle erakarriko ote zituen. Nik uste nuen asko etorriko zirela, zeren ikusten nuen (...), nahiz eta espainolez esan jendeak euskararen alde egiten zuela, baita etorkin familia askok. Nik neukan sentsazio hori (...). Alkateak problema asko ikusten zituen (...), [batez ere, zeukan koste ekonomikoagatik, baina] azkenean lortu genuen, baita egin ere. 82ko ekainaren 11n Udaleko plenoan PSOEren aldeko bozkekin eta Herri Batasuneko aldeko bozkekin Udal Euskaltegia antolatzea gure herrian: 5 orduko ikastaroak langabetuentzat... Egun osoa, goizeko 8etatik gaueko hamarrak arte zabalik (...) Ez genuen guztiz doakoa izatea lortu baina bai diru laguntza garrantzitsuak langabetuen taldeentzat.... Orain dagoen antzeko eredua: asistentzia, dirua itzultzea (...). Koste gehiengoa Udalak asumitzen zuen, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Eta orduan Udalak lokal batzuk hartu zituen (...). Orduan eskolak ematen ziren Iztietako auzo elkartearen, Iztietako elizan, Udal liburutegia bihurtu baino lehen ba hantxe beste bat, gero garai batean Foru Plaza edo Xenpelar plaza dena bazuen azpikaldean lokal batzuk edo gela batzuk (...), Xenpelar etxean (...). Sakabanatuta geunden, baina Olibet auzoko eraikin baten beheko aldean zeuden lokalak hartu eta han esan dezagun euskaltegia kokatu zela. Didaktika bilerak ostiraletan egiten ziren (...). 8-12 gela izango ziren, ordutegi batekin... Gainera momentu horretan ere 5 orduko ikastaro intentsiboak sustatu ziren (...) Lasai izango ginen 45 irakasle eta matrikula 1000 pertsona inguru. Ez da gutxi, eh! 1000 pertsona inguru, ez bakarrik Errenteriakoak” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“[Udal Euskaltegia martxan jarri zutenean eskualdeko plana egin zen eta Erreenteriako baldintzak, langabetueidagokienean, Lezon, Pasaian, etab. eskainizituzten]. 1.500 ikasle [egon ziren 1981-1982 eta 1982-1983 bitartean], eskualdeko langabetuak barne, hauek Erreenteriako Udal Euskaltegira etortzen baitziren. 65 irakasle, 90 talde. Hori, nerretzat, izugarria zen (...). Nolabait demostratutzat geratzen zen, herria euskalduntzeko tresna potentea izan zela instituzio publikoen eta herri-mugimenduen arteko elkarlana. Eta datu objektiboak dira. Klaseak ematen genituen Iztietako elizaren lokaletan (...) Foru Plazaren azpian zeuden lokaletan, hezetasunez betetako gelak ziren, Euskal Herrian Euskeraz zeuzkan lokaletan, Koldo Mitxelena eskola publikoan (orduan Biteri eskolak zirenak...), beno... 90 talde! (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“[Udal euskaltegiarekin] ja eman zitzaion estaldura legala airean zegoenari, eta ja hasi zen profesionalizatzeko bidean euskeraren irakaskuntza. Orduan ja ez zen nahikoa ‘zuk ni baino gehiago [dakizu]’ (...)” (Elixabete Perez Gaztelu, Erreenteria, 1961)

“Orduan AEKk dinamika bat zeukan. Materialgintzan ere, arlo pedagogikoa koordinatzen zuen batzorde bat bazegoelakoan nago, bilerak egiten genituen, nik gogoan daukat Donostian Rikardo Arregi euskaltegian, eta udan... Edo egin izan genituen gure arteko bilkuratxoak (...). Udal euskaltegi bilakatu zenean ja lan baldintzak bestelakoak ziren: ja kontratudunak ginen, soldata genuen... (...). Orduan ostiraletan elkartzen ginen euskaltegian bertan, mailaka. Ja hor hasi ginen materiala finkatu eta trukatzeko... (...). [Irakasle] batzuk gau eskolatik etorritakoak [ziren] eta agian irakaskuntzako titulaziorik ez zutenak, ze azken finean gau eskolan aritzeko baldintza ez zen hori (...); beste batzuk ni bezala ikasketak egiten ari zirenak eta gero beste batzuk ikasketak amaituak zituztenak, asko 30 urte baino gutxiagokoak (...). Asko Magisteritzaadunak (...) artistak ere bazeuden, antzerkia egiten zutenak. Eta orduan esan nahi dizut oso jende mota ezberdina zegoela. Eta klaro, horrek ere ba ematen dio bere xarma” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Eta ni horrekin nengoen super emozionatuta, proiektu horretan sinisten nuen. Euskara dohainik ikasi ahal izatea, eskaintza zabala luzatu ahal izatea, irakasleak horretan aritzea lanean, jendea ondo formatzea irakasle onak izan zitezen eta guztia gure herriko erakunde publikoek finantziatzea (...) Gure borrokarako proiektua bihurtu zen (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

9.4 AEK vs. HABE, instituzionalizazio prozesua eta bere isla Erreenterian

Lehenago ikusi den bezala, 80ko hamarkadan HABEren sorrerak, inflexio-puntu bat markatu zuen normalizazio prozesuan. Baina, aldi berean, nortasun eta helburu ezberdinak zituzten bi erakunderen arteko gatazkari hasiera eman zion: AEK (ordura arte euskalduntze-prozesuan berebiziko garrantzia izandako herri mugimendua) eta HABE (Jaurilaritzak Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako sortu berrikoa). Horrela hasi zen Zabaletak esaten duen “polarizazioa”: lehenengoa, AEKren eta HABEren artean; geroago, talde berrien sorrera ekarriko zuen zatiketa (Zabaleta, 1993).

“Garaiko kontextua [hau zen]: Eusko Jaurilaritza sortu orduko jarri zen AEK Nazionala berarekin harremanetan. AEKk zion Eusko Jaurilaritzaren ardura zela helduen euskalduntzea. Ondorioz, AEK ari zenez lan hori burutzen, dirua eta baliabideak jartzea Jaurilaritzari zegokiola. Jaurilaritzak eta/edo PNVk ez zuen inolaz ere onartu nahi herri mugimendu bat izatea euskalduntzearen ardatza. Diru laguntzak ere AEKri egokitzen ez zitzaion eran planteatu zituen. Mugimendu herritar hori kontrolatu nahi zuen edo horren ezean desegin. Diru laguntza eskasiaz ito nahi izan zuen mugimendua. Ez zegoen elkar lanerako espaziorik, bien arteko talka baizik. PNVren kontrolpean zeuden erakunde publikoak ez zioten lehen Korrikari zentimorik eman ere. Nazio mailan ematen ari zen gatazka honek eragina zuzena izan zuen Errenterian gertatu zenarekin. AEKko Asanblada Nazionalak Udal Euskaltegien bidea arakatzea erabaki zuen, zenbait herritan horretarako aukera ikusten bait zuten. Udalak herritarrengandik hurbilen zeuden instituzioak zirenez, egokienak zirela zioten” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Baina gatazka hori adar guztietan zegoen, eh. Zegoen PNV vs. ETA; ETA esaten dudanean, ETAre inguruan mugitzen ziren sindikatu, herri-mugimendu eta euskalgintzako erakundeak; eta bestetik zegoen dena instituzionalizatu nahi zuen PNVk. Eta, esan nahi dut, oso gatazkatsua izan zen (...). Kontua da (...), oso gatazkatsua izan zen. Oso gatazkatsua, urte asko iraun zituen eta hori batez ere erreflejatzen zen AEKko soldatetan eta azpiegituretan, AEKri ematen zitzaion dirulaguntzak farregarriak ziren, eta irakasleak (...) oso baldintza txarretan [zeuden]” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Bi bide sortu ziren, ezta? Instituzionala eta instituzionaletik kanpo. Orduan bai izan zela gogorra: HABE-AEK, AEK-HABE (...) Ikastola bezala, hemengo ikastola ez zen publikatu. Hori erabaki politikoa izan zen azken finean, ezta? Ba gehiengoak, guraso gehiengoek nahiago zutelako hola independente izan. Ba hor ere, iruditzen zait. AEK ez zuen instituzionalizatzea izatea nahi-edo, eta orduan besteak ikusiko zuten AEK nolabait erabat jota zegoela ezker aldera edo ezker abertzalearen aldera, eta orduan HABE sortu zuten nolabait euskaltegiko eta irakaskuntza historia guzti hori beraiek kontrolatzeko” (Kike Eizmendi, Errenteria, 1959)

Euskararen instituzionalizazio prozesu gatazkatsua modu ezberdinetan islatu zen, besteak beste, lehenengo “Korrika”n edota Errenterian bertan izandako hainbat protestetan. Adibidez, 1982ko azaroaren 24an.

AEKk eta Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasleek beren aulki eta mahaiak Gamon Zumardira eraman zituzten, eta bertan, eman zuten klasea -enkartelaturik-, Eusko Jaurilaritzak euskarazko klaseei dirulaguntzak eman ziezazkiola aldarrikatuz (Iriarte eta Elberdin, 1997: 250).

1983ko HABESEA legeak ondorio nabariak izan zituen ordura arteko euskarazko irakasleen egoeran.

“HABESEA legearekin nolabait HABEk arautu zuen kontratazioa: jendeak ezaugarri batzuk bete (...), beste prozedura bat izan zen” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Eduki behar zen edo Magisteritza edo Euskal Filologia... Bazegoen bat Ingenieritza zuena... Edo HABEk ematen zuena, HABEk ematen zuena balio zuen Magisteritza edo halako zerbait [bezala]” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Hemen gertatu zen HABESEA legea sortu zenean sortu zela haustura(...). Hor sortu zen dinamika bat, hainbat asanblada egon ziren eta hor ja sartu zen politika (...). Neurri batean ikastolen munduan, beste horrenbeste gertatu zen: ikastola batzuek eutsi zioten pribatua izateari eta beste batzuek ez (...)” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“Bere momentuan eztabaida izan zen, ea AEK zegoen moduan utzi ala Udal Euskaltegia izatera pasako zen (...). ‘Joe, nik klaseak ematen baditut kobratu gabe norbait kentzen diot lana’ (...). Orduan erabaki genuen ba beste nonbait lan egiten genuenok ba pixkat apartatzea. Gainera jendea bazegoen atzetikan hori bultzatzeko” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Euskaltegiak (...) [ekarri zuen] profesionalizazioa. Profesionalizazioak zer dakar? Jendeak kobratzen du, baina baita ere ja enpresa antolakuntza bat dago, ez? (...) Orduan ja metodologia bat jarraitzen da...” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

AEKren eta HABEren arteko gatazkak (baita gatazkaren atzetik zeuden bestelako interesak ere) zein AEKren barnean egondako zatiketak ondo irudikatuta agertzen dira Erretererian egondako euskaltegi ezberdinen bilakaeran.

“Mugarri bat izan zen udal euskaltegia sortu zenean. Hori herrian izan zen nahiko esanguratsua eta ongi onartua, nik uste. Gero mugarrria izan zen zatiketa gertatu zenean” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“AEK izan da neretzako erreferentzia nagusi bat (...), Udal Euskaltegia zen garai hartan. Gero ja udaletik atera zen, krisialdi bat egon zen...” (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)

“Bapatean hasi ziren sortzen euskaltegi pila bat (...). Erretererian egon ziren hiru euskaltegi diferente (...)” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

9.4.1 Udal euskaltegian haustura

1983ko hauteskundeen ondorioz PSOEK 9 zinegotzi lortu zituen, HBk 5, EAjk 4 eta EEK 3. EAjren bozkekin, PSOEko José María Gurruchaga alkate izendatu zuten (Picavea eta Castrillo, 1997: 530). HABE eta AEKren arteko gatazkak, nolabait, nazionalismo tradizionalaren eta ezker abertzalearen artekoa irudikatzen zituen. 80ko hamarkadako bortizkeriaren testuinguruan, eta bereziki hauteskundeen ostean, Erretereriako giro soziopolitikoa oso zapuztuta zegoen (urte horretako Madalenak suspenditu behar izatea adibide bat besterik ez da). Horrek eragin zuzena izan zuen herriko euskalgintzan, udal euskaltegian hain zuzen ere. Horrela kontatzen dute Iriartek eta Elberdinek: “PSOEK 83an alkatetza hartu orduko, zentroaren orientazioa goitik behera aldatu zen, eta AEK bertatik irten eta euskaltegi berri bat eratu beharrean aurkitu zen” (Iriarte eta Elberdin, 1997: 250).

Azkenean, bi ikasturteko ibilbidea egin ondoren, Erreterriako Udal Euskaltegia ikasturte batez itxita egon zen eta berriro zabaldu zenean egoera paradoxikoan egin zuen: HABEk kudeatutako Erreterriako Udal Euskaltegiak eta AEKren euskaltegiak tarte batez eraikin bera partekatu zuten.

Honako testigantzak baliagarriak izan daitezke 1983an izandako Udal Euskaltegiaren itxiera eta berriro zabaldu zenean herriko euskalgintzan gertaturiko haustura ulertzeko.

“83an Herri Batasunak alkatetza galtzen du. Eta hor sortzen da, herri mailan, izugarrizko iskanbila. PSOEren alkatearen aurkako kanpaina hedatu zen herrian. Bestalde AEK Nazionean ere zalantzan jartzen hasi ziren guk bultzatutako udal euskaltegi eredua. AEKk independente izan behar zuela zioten, eta guk babestutako eredua Udalak irentsiko zuela. PSOEek agintzen zuen udalarekiko mesfidantza azaldu zuen. AEK Nazionalak ezinbestekotzat jo zuen, ‘gure’ udal euskaltegiaren eredua babestu ahal izateko, honek, udal euskaltegiak alegia, gutxieneko baldintza batzuk betetzea, horien artean, Udal euskaltegiaren titularitatea AEKrena izatea, matrikulazio eskaera osoari erantzuna ematea, pedagogikoki AEKn koordinatzea, besteak beste. Gipuzkoako eta Erreterriako AEKko arduradunak ez zetozen bat AEK Nazionalarekin. Guk genion: ‘Herria euskalduntzeko bide eraginkorra herri mugimenduak eta instituzioen arteko elkarlana da’. Ikusi besterik ez dago, bide horretatik, ze matrikulazio gorakada lortu dugun eskualde honetan. Prest geunden Udalarekin titularitatearen gaia negoziatzeko, beti ere matrikula eskaera guztiari erantzuteko konpromisoaren truke. Bestalde hitzarmen berri bat sinatzearen aldeko proposamena luzatzeko prest agertu ginen ere, non AEKk eta udalak onartuko genuen pedagogikoki AEKrekin koordinatu ahal izatea. Horretan saiatu ginen, buru belarri, baina alferrik. Batetik, AEK Nazionalak defendatzen zuen irizpideen alde zegoen irakasle talde bat sortu zen Erreterriako Udal Euskaltegian. Ikasle multzo bat ere bereganatu zuena. Beraz, ‘etxe barruan’ gatazka eta istilua sortu zen. Erreterriako AEKko arduradunekiko desprestigio kanpaina bideratu zuten. Bestetik, PSOEko alkateak ateak gero eta zabaliago aurkitzen zituen eskuartearen zuen udal euskaltegia desegiten eta berri bat eraikitzeko. PNVren laguntza zeukanez, HABEren irizpideak jarraitu ahal izango zuen. Hau da, ikasle kopurua murriztuko zuen udal euskaltegia sortu. Euskara ikasi nahi zuten beste herritarrak apunta zitezela ‘titularitate pribatua’ zuten euskaltegietan. Horrela, hauek jaso ahal izango zuketzen HABEren diru-laguntzak (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“[83an] Alkatetza aldatu zen, PSOEek hartu zuen (...). Orduan AEKk utzi zuen [udal euskaltegiaren kudeaketa] (...) Udalak dirua jasotzen zuen HABEtik, ezta? Eta hor zatiketa [egon zen](...). AEK geratu zen alde batean, Udal Euskaltegia geratu zen beste aldean...(…). Ikasturtea bukatu eta ‘hau aldatzen da’, kitto (...). Udal euskaltegia itxita egon zen urtean ireki zuten Pasaiaiko udal euskaltegia, eta lanik gabe geunden irakasle batzuk hara joan ginen” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Baina hurrengo ikasturtean (...) berriz ere ireki zen Erreterriako udal euskaltegia (...) Nik uste dut PSOEek esan nahi zuela: ‘beno, honek [udal euskaltegiak] gastu bat du (nik esango nuke inbertsioa, baina haiek esango zuten gastua) (...). Beno, ba HABEra pasa’ (...). [Baina] Udal euskaltegia udalarena da. Diru iturria da HABEtik datorrena (...).

Baina udal euskaltegia udalarena da (...) Udalaren babespean geunden, zerbitzu bat zen udal euskaltegia. HABEk dirua jartzen zuen. Ez da gutxi, kontuz!” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“(…) ‘Okupatu’ genuen urtebetez lokala (...). Udalak erabakitzen duenetik bertan behera uztea ordura arteko Udal Euskaltegia eta Estatutuak aldatu eta [irakasle] deialdi berria egin bitarte horretan ia ikasturte bat pasa zen (...). Guk hori ez zezan egin Udalak borroka bat antolatu genuen: guk matrikulatu egiten genuen jendea eta dena, baina matrikula horiek guk erretenitu genituen gu geunden lokalean. Nolabait presionatzeko [Udala], ez zitzaizkion Estatutuak aldatu eta ez zezan gure arteko harremana hautsi. Baina galdu genuen borroka hori. Galdu genuen. Baina hilabete guzti horietan negoziatioak egon ziren, nerekin batera beste pertsonak joaten ginen alkatearekin negoziatzera (...). Potentea, oso potentea zen. Orain ezin duzu irudikatu ere egin (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Gainera, gauza bat. Esan dizut [eraikina] Olibeten zegoela eta bi solairu zeuzkala, ezta? (...) [Baina] goian AEKren euskaltegia zegoen eta beheko solairuan Udal Euskaltegia (...). Atzeko aldean badaude eskailera batzuk; orduan, separatzeke, zer egin zuen udalak? Horrelako ohol bat jarri; orduan, ezin gora joan eta ezin jeitsi (...) [Bien artean] Ez zegoen inolako harremanik (...) Gero pixkanaka pixkanaka handituz joan zen udal euskaltegiaren hasierako neurri hartan (...). Orduan AEKk utzi zuen (...) eta orduan udal euskaltegiak bi solairuak hartu zituen. Eta gero Galtzarabordara joan ginen” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947).

Euskalgintzari (baina ez bakarrik horri) lotutako gatazka horrek eguneroko bizitzan (arloan profesionalen zein pertsonalean) egoera ezatsegin eta mingarriak ekarri zituen.

“[Hasierako Udal euskaltegian] gutxi kobratzen zen. Gainera ordu asko sartzen genituen, batzarrak... Eta bilerak gaueko hamarretan hasten ziren ... [azkenean, irakaskuntza uztea erabaki zuen]” (I., 1944)

“Klaro, ikasturte bat negoziatzen eman genuen, soldatarik kobratu gabe... tentsio maila horrekin non egunero zeuden Asanbladak, non egunero zegoen polizia atean, non egunero ikasleren bat erretenitzen zuen politziak (klaro, politziak erretenitzen zuen furgonetetan)... Dena nahasten zen, terriblea zen zegoen tentsioa, dena nahastuta zegoelako. Gurruchagaren kontra eta PSOEren kontra kaleetan alkatetza “lapurtu” zutelako PNVk eta egin zuen tratu horrengatik, hori horrela bizi zen oso bortizki eta euskaltegian ere guzti hori zegoen bor-borka. Zuk badakizu.... ikasleen eta irakasleen asanbladak, zer ziren horiek? Oso fuerteak ziren. Eta gu hor geunden, eta euskaltegia poliziaz inguratuta (...) Ni joan nintzen Gurruchagarengana esatera, Asanbladak erabaki zuelako (...) polizia handik ateratzea. ...joan nintzen... behin baino gehiagotan, eta horietako batean bezperan jipoitu egin zuten Gurruchaga kalean. Kontatzen ari natzaizu, zuk irudika ezazu zer zegoen. Oso, oso, oso bortitza, oso potentea zen, kriston indarra zegoen...” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“...Zenbat barrikada izaten ziren ostiraletan (...). Euskaltegian bertan ere hori bizi izaten zen nolabait, ezta? (...) Intentsitate handiko garaia izan zen. Aldi berean politika zela (...)” (B. Lasa, Oartzun, 1962)

“Orduan sortu zen gatazka halako tamainakoa izan zen, halako... Informazioaren manipulazioa egon zen, ze gu aritu ginen fin-fin euskalduntzea proiektua zela, berdin zela tendentzia politikoak zeintzuk ziren, denok, herri guztia euskaldundu behar genuela (...). Baina klaro, nik 22-23 urterekin ez nuen ikusten azpiko joku horiek denak, ez nuen ulertzen, ez nuen ulertzen (...). ‘Ez al ditugu denak euskaldundu behar? Ez al dugu demostratu onena dela bide hau, 1.500 ikasle...? Hau noiz gertatu da herri honetan?’ Diskurtso hau (...) Baina batak zein besteak, zein besteak, alderdi guztietakoak bakoitza bere borrokan sartuta, eta AEKren barruan ere borroka (...), eta lehertu egin zen (...). Ikasle batzuk antolatu ziren eta zen... ‘AEKren alde, HABEren kontra’ (...). Gu bihurtu ginen ba... ‘pesetero batzuk’, gu omen ginen, defendatzen genuenak Udal Euskaltegia, hortikan bizi nahi genuenak... Oso gogorra izan zen. Hori jada ez zen estrategia-terrenoetan mugitu, baizik eta pertsonalki, pertsonalizatuta (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Orduan batzuek esaten zuten ‘Ah, sois de HABE’. Bueno. Egia da HABEk probesten zizkiola udalari Udal Euskaltegiako langileen soldatak, hori egia da. Udalak dirua jartzen zuen, eh, baina kopururik handiena HABEk jartzen zuen. Klaro, eta lanpostuak ziren, beraz, alde horretan... Eta gainera pentsatu behar dugu PSOEK 20 urte izan dituela alkatetza eta 20 urte haietan euskaltegiak funtzionatu du normal (...). Klaro, hor udal euskaltegia AEKtik ateratzearekin konforme ez zeudenek ez zuten nik egiten nuen planteamendua (...). [Planteamendua da:] Erreterriako, herriko, instituzio nagusia arduratuta dago euskararekin. Nahi baduzu, ez oso gogoz, baina arduratuta dago, dirua jartzen du, ez du ixten. Egia da diru iturria beste aldetik [datorkiola], baina herriko instituzio nagusia konprometitu da euskararekin (...) eta hori nere ustez oso garrantzitsua da (...). Instituzio nagusi horrek dirua ematen du, instalazioa jartzen du (...). Hori da nik egiten nuen planteamendua, baina bakoitzak...” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

9.5 AEKn haustura: Xenpelar eta Ortzadar euskaltegiak

AEKren eta HABEren arteko talkaz gain, Gipuzkoako AEKren barruan ere bazegoen Erreterriako Udal Euskaltegiaren eredua zalantzan jartzen zuen korrante bat, ikastetxearen kudeaketaz gain titularitatea ere nahi zuena, nolabait instituzioekiko erabateko independentzia mantendu ahal izateko. Azkenean, AEKren barruan adar hori nagusitu zenean, Erreterrian zatiketa bat gertatu zen. Horren ondorioz, Ortzadar euskaltegia sortu zen, 1986-1987 ikasturtetik 2003-2004 bitartean mantendu zena.

“Gero (...) geratu zen AEK eta gero beste aldetik Ortzadar euskaltegia” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“(…) eta gero sortu zen hemen Erreterian Ortizadar, Ortizadar Euskaltegia, zela (...) AEKtik separatutako talde horretakoak (...). Baina garai horietan, ba nolabait dena... lotuta dago garai politikoekin” (Kike Eizmendi, Erreteria, 1959)

“Gero banaketa bat egon zen AEKn, Euskal Herria mailan, eta Erreterian Ortizadar sortu zen” (Mikel Azkarate, Erreteria, 1966)

“Eta gu AEKtik bota gintuzten 86an. Baina aurretik jada urtebete egon ginen Udaletxearekin borrokan, urtebete egon ginen eusten egoerari, baina azkenean lehertu zen eta sortu zen -nik esango nuke 86-87 ikasturtean- Xenpelar euskaltegia, orduan sortu zuten (...) nagusitu zirenak AEKn momentu horretan. Guk, [hasierako] Udal Euskaltegiaren aldeko proiektuen ginenak, sortu genuen Ortizadar euskaltegia, eta Udalak mantendu zuen udal euskaltegi minimo bat. Orduan Udalak ondo geratzen zen, berak euskalduntzen zuen, eta gero beste bi euskaltegi zeuden: Xenpelar euskaltegia eta Ortizadar euskaltegia (...). Ortizadar Beheko Kanean zegoen(...). Hori dena guk montatu genuen, egin genuen, martxan jarri genuen. Eta nik uste dut haseran 150 bat ikaslerekin hasi zirela eta hurrengo ikasturterako bazituela 260-300 bat ikasle Ortizadarrek” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

Aurrekoan aipatu bezala, haustura honek kostu pertsonalak ere ekarri zituen.

“Eta nik momentu horretan uzten dut jada. Nik hitza ematen diet ba jatorrizko proiektuarekin bat egin genuen pertsonen beste euskaltegi bat antolatuko genuela beraiek nahi bazuten, baina hori ez zettorren bat nere proiektuarekin. Hori ez zen nere bizitza proiektua. Eta orduan (...) 87an uzten dut dena, Ortizadar montatu eta gero. ‘Gure estrategiarekin’ bat ez zettorren beste irakasle multzo batek Xenpelar Euskaltegia montatu zuen, eta Udal Euskaltegi berrian, irakasle berriekin batera, gurekin aritutako batzuk ere sartu ziren” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960).

9.6 Egindako ibilbidearen inguruko hausnarketa batzuk

Ondorengo testigantzak Erreteriarren kasuan gero errepikatuko diren elementu batzuk islatzen ditu: batetik, urteetan zehar luzatutako garai gatazkatsuak sortutako higadura pertsonala; bestetik, lorpenak zein hutsegiteak, denborak ematen duen perspektibarekin ikusita.

“[Mugarrien arteko transizioak, orokorrean] gatazkatsuak izan ziren. Eta ni gatazkatik atera egin nintzen. Badakizu zergatik? Instituzioetan sinisten nuelako. HABEk zer zekarren? (...) Euskalduntzea, batez ere instituzionalizazioa eta udal euskaltegiak zabaltzea. Eta gainera nik bizpahiru urte pasa nituen diputazioan eta diputazioak hori bultzatu zuen (...) [Jendeak pentsatzen zuen:] ‘Beno, orduan AEK zerratu da, baina HABE sortu da, eta beraz euskeraren arazoa instituzionalizatu egingo da, eta instituzioak arduratuko dira euskararen normalizazioaz’ (...) Aizu, baina nik horretan sinesten nuen! Hori da kontua, 80ko hamarkadan ni zergatik sartu nintzen diputazioan? Sinisten

nuelako ‘instituzioetan dagoen boterea baliatuko gara (...) herri honen euskalduntasuna bermatzeko edo zabaltzeko edo lortzeko’. Autokritika [da], baina denok [pentsatzen genuen]. Beharbada (...) ez genuen kultura soziolinguistikorik. Alegia, ez genekien hizkuntza minorizatu baten normalizazioak dituen inplikazio konplexu horiek, ez ginen kontziente! (...) Beraz, instituzionalizazioak desegin du hasierako izpiritu hura (...), nazionala, naziogintzan, nazio proiektu bat bermatzen zuen ideologia bat, eskema bat, paradigma bat” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

Erreterriako kasuan, helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren inguruan gertatutako banaketen ondorioak herri-mailan bizi izan ziren. Matrikulazio kopurua murrizteaz gain, urteetan zehar elkarrekin lan egin zuten pertsonen arteko haustura pertsonalak egin ziren.

“Erreterriko udal euskaltegia berriz ere ireki zenean, esango dizut 100 ikasle izan zituela. 100, besterik ez (...). Gero pixkanaka pixkanaka handituz joan zen udal euskaltegiaren hasierako neurri hartan (...). Orduan AEK-k utzi zuen [eraikina] (...) eta orduan udal euskaltegiak bi solairuak hartu zituen. Eta gero Galtzarabordara joan ginen” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Orduan zer lortu genuen? Ba... Terrible. Hori izan zen neretzako terriblea (...). 300 ikaslelik [gau eskoletako taldeetan] 1.500 lortzera [Udal Euskaltegia zabaltze zenean], eta gero nik uste dut lehenengo bi ikasturteetan behintzat ez gurela lortu hiru euskaltegien artean 500 baino gehiagoko ikaslelik (...). Uste dut denon artean 500-600 bat ikasle izango zituztela. Beitu zenbat galdu genituen, erdia baino gehiago ibilbide horretan (...). Gero, egia da, urteak pasatzen dira eta agian ez dago 1000 ikasle eskaerarik (...), baina urte gutxi horietan sekula ez genuen lortu [lehen izan gurena] (...). Eta nik uste dut galera handi bat izan zela herri honentzat. Galera handi-handi bat...” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Nire iritzia emango dizut: nik uste dut herri honetan baldin badago sektore bat mailarik ematen ez duena sektore politikoa dela” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Baina galdu genuen denek bat egin zutelako pelikula horretan. Euskara ez zen lehenetsi, euskalduntzea... Hau da nere irakurketa: lehenetsi zen beste zerbaite, denek lehenetsi zuten beste zerbaite. Eta hautsi egin zen (...). Eta ez dut uste geroztik gehiago lortu denik gure herrian (...). Neretzako izan da... Ez da lan bat izan (...). Nere bizitzaren zati inportante bat izan da. Asko markatu nauena, asko eman didana, asko kendu didana, baina berriz ere errepikatuko nukeena (...). Denon artean egin genuen hanka sartzerik handiena..., eta hor euskara atera zen kaltetua (...). Klaro, jendea erre egin zen” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960).

Min horrek Erreterriako helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuaren zati baten transmisio faltari zuzenean eragin dio. Euskalgintzaren kontakizunean hutsuneak zeuden eta, Imanol Minerren hitzetan, “informazio hutsunea bera informazioa da. Musikan, isiltasuna musika da”. Agian orain da momentua faltan botatuko hutsune horiek pixkanaka betetzen joateko modu konstruktibo batean.

“[90eko hamarkadan] Euskalgintzako beste eragileekin interlokuzioan, topatzen dugu jende bat datorrena 70etako gau eskolen mugimendutik, euskaltegian sorrera prozesutik eta hor ikusten dugu (...). [Haiek] gehiegi kontatu gabe, ikusten da gatazka handiak egon zirela eta gatazka horien ondorio direla herrian egotea hiru euskaltegi (...). Zer gertatu zen aurretikan ibilitako jendea askorekin? Erre egin zela. Etxera joan zela eta isil-isilkan geratu dela. Erre. Nazkatu. Aspertu. Gogaitu (...). Eta hori dena enkistatuta gelditu da (...). Gure garaian erreproduzitu dira horrelako eskemak ere (...). Eta transmisioaz ari garenean, ba guri ez zitzaigun...[ezer heldu]. Hor zegoen hutsune handi bat (...). Erregaia ikusten duzu hor eta nahikoa gatazka badago inguruan [eta ez duzu surik piztu nahi]. Eta zer egiten duzu? Utzi (...)” (Imanol Miner, 1974)

“Orain da eraikitzeke garaia (...). Nik uste dut, orain perspektibarekin ikusita, oso aurreratuak izan ginela proiektu horretan. Iruditzen zait asmatu egin genuela bete-betean. Eta ausartak izan ginela hori egiten. Eta horren konstantzia egon behar duela, ezin da galdu (...). Oso intentsoa izan zen baina izan ziren bi, hiru ikasturte. Denbora oso motza da memorian jartzeko (...) Baina euskalduntze prozesua markatuta geratu zen eta zaurituta geratu zen urte askotarako (...). Pertsonalizatu zen asko, orduan hor min potente batzuk daude (...). Hori jaso egin behar da: proiektu potente bat egon zela, lortu genuela, herri-mugimenduak eta instituzioak elkarlanean arituta euskadundu litekeela herria demostratzea (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“(...) ‘Egin, egin, egin’. ‘Egin paradigma’ zen nagusi eta horren ondorio ginen. Eta orduan gauzak sortzen ari ginen (...), [baina] ez dugu ikertu. Eta jendea hiltzen ari zaigu, eta lekukoak galtzen ari gara, eta hemendik kanpo aukera izan dugunean azaltzeko zer egin dugun, hemen beti esaten digute: ‘baina ez duzue ikertu (...), eta eredugarria da’ (...). Nik iritsi nahi dut jakintza horretara, ze zuek [lekukoak izan zineten horiek] jakintza bat sortu duzue, ‘eginaren egitez’ (...)” (Imanol Miner, 1974).

EUSKARA
ARIKETAK

io ta ke
fitxa osagarriak

JOSE JOAN G. de TXABARRI

EUSKARA **PIPIRA** **PRÁCTICA**

io ta ke

4

JOSE JOAN G. de TXABARRI

IRAKASLEENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

INCOMENTES EN LAS FIESTAS DE LA "MIGALETA"

Los jóvenes de la zona de la "Migaleta" han organizado una fiesta que se celebrará el próximo fin de semana en el barrio de San Juan. La fiesta tendrá lugar en el patio de la casa número 12, donde se reunirán los jóvenes de la zona para celebrar la fiesta de la "Migaleta".

EUSKALDUNTZEN
EUSKARA BATUAZ

1

IRAKASLE TALDE PATEZ

EUSKALDUNTZEN
EUSKARA BATUAZ

1

IRAKASLE TALDE PATEZ

NERE BORDATXOTIK
Per Basatri

El libro "Nere Bordatxotik" de Per Basatri, publicado por el Ayuntamiento de San Sebastián, trata sobre la historia y la cultura de la zona de San Sebastián. El libro está escrito en euskara y es una obra importante para conocer la historia de la zona.

EL LIBRO
El río de Antón

El libro "El río de Antón" de Antón, publicado por el Ayuntamiento de San Sebastián, trata sobre la historia y la cultura de la zona de San Sebastián. El libro está escrito en euskara y es una obra importante para conocer la historia de la zona.

EUSKALDUNTZEN
EUSKARA BATUAZ

1

IRAKASLE TALDE PATEZ

EL DIARIO VASCO

El Diario Vasco es un periódico vasco que publica noticias y artículos en euskara. El periódico es muy popular en la zona de San Sebastián y es una fuente importante de información para los habitantes de la zona.

Joko ta Ariketa Bilduma

El libro "Joko ta Ariketa Bilduma" de Joko ta Ariketa, publicado por el Ayuntamiento de San Sebastián, trata sobre la historia y la cultura de la zona de San Sebastián. El libro está escrito en euskara y es una obra importante para conocer la historia de la zona.

EUSKALDUNTZEN
EUSKARA BATUAZ

1

IRAKASLE TALDE PATEZ

URRASPIDE 5

euskaldunen
euskaldunen
euskaldunen
euskaldunen
alfabetatzea
alfabetatzea
alfabetatzea

ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA-BIZKAIA
Avda. Maratxaga, 12, Duesma-Siba 14. Tfno.: 447 10 20.

Jale

IRAKASLEENTZAKO
GIDA LIBURUA

142

Ikasleentzako
MATERIALE
OSAGARRIAK

BIZKAIA 1979.eko URRIA

10.

Gau eskolak Erreterian

10.

Gau eskolak Erreterrian

10.1 Hastapenak

Hurrengo testigantzek Erreterrian hirurogeiko hamarkadan izan ziren gau eskolen lehen urratsak islatzen dituzte. Horietan agerian geratzen da azpiegitura baten eta, oro har, bitartekoen eskasiaren aurrean pertsona-talde batek bide berri bati ekiteko borondatea zuela. Orduan ez zekiten, baina bide horrek azkenean bere fruituak eman zituen.

“64-65ean hasiko nintzen gau eskolan (...) talde txiki batzuk [zeuden], Asociación de Fomento Cultural hor ematen genuen (...) eta erabiltzen genuen el Método Radiofónico, Juanito Oñatibia. Horrekin hasi ginen eta horrekin aritu ginen. Gero ja Altuna, Patxi Altuna, Gramatika (...) horrekin hasi ginen (...)” (David Gómara, Lezo, 1956)

“[1964-65. urte inguruan] Erreterrian oso euskara gutxi egiten zen eta hasi ginen mugitzen (...) Poliki poliki joan zen forma hartzen (...) [Erreterriako irakasleen arteko sareaz gain, bazegoen nolabaiteko sare bat Irun, Lezo eta 3 Pasaiekin batera. Norbait arduratzen zen haientzat kurtsiloak kudeatzeaz] Gauzak ateratzen direnean, gogo gehiagorekin hartzen dituzu (...) (X, Orereta, 1941)

10.1.1 Elkarte mugimendua eta gau eskolak: sarea eginez

Herri-mugimendu gisa, helduen euskalduntze-alfabetatzearen Erreterriako kasuari erreparatuz gero, gau eskolen eta herriko beste eragileen arteko harreman sendoak ikus ditzakegu. Besteak beste, elkarre-mugimenduak (elkarre kulturalak, auzo-elkarreak, mendizale-elkarreak...), eliza, Orereta ikastola... baita pertsona partikularrak ere. Beharren arabera zein aukeren arabera ere, gau eskolak herriko toki ezberdinetatik zabaltzen hasi ziren. Egitura horien atzetik, noski, emakumezkoak eta gizonezkoak, ezagutzen diren izen propioetatik anonimotasun osoz aritutako horietara.

“[Garai hartan] Ez zegoen euskaltegi bat, orduan [lokalak] ziren (...) edo auzo-elkarteak, edo Fomento Cultural[en] Iztietan zegoen talde bat, edo Ereintzako lokal hauetan, edo parroikiko lokaletan (...). Parrokiak, auzo-elkarteak eta elkarte kulturalak, ez? (...) Orduan, logikoki, taldeak egiten ziren lekuaren arabera: Alabergan pues hamar baldin bazeuden, pues lokal bat haietako (...) [gehiago baziren], pues bi lokal (...)” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Hasi nintzen Ibai-Alde [elkartean], hemen, Iztietan (...) [Baina] lokal hori pribatua zen, gero familia horrek saldu egin zuen lokala eta orduan Musika Plazako lokal batean... (...) hor jendeak... igual familia batek uzten zituen baxu batzuk baina gero behar zituen” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956).

Euskararen berreskuratze prozesuari buruz hitz egin dugunean agerian geratu da mota ezberdinetako elkarteek (kulturalak, erlijiosoak, aisialdikoak, auzokoak, etab.) izan zuten rola, eta nola, xede ofizialak ematen zien batzartzeko baimenaz baliatuz, aktibismo politikoa edota soziala ahalbidetzen zuten (Gurrutxaga, 1985: 42-437; Pérez-Agote, 1987: 86-94). Izan ere, batzuetan elkarte horien lokalak itxialdi edo protesta eszenatoki izan ziren batez ere 70eko hamarkadako bigarren erditik aurrera, gizarte-elkarteen politizazioa eta espezializazioa (hainbat kasutan, profesionaltasuna eta instituzionaltasunarekin batera) gero eta nabariagoa bilakatu zirenean (Tejerina, 2018).

Nahiz eta elkarte bakoitzak ezaugarri propioak izan, partekatzen zituzten planteamenduek, arazoez edota aldarrikapenek haien arteko harremanak sustatu eta sendotzen zituzten. Baina batez ere antolatzen zituzten jarduerak (euskarazko eskolak antolatzea barne) edota argitaratzen zituzten buletinek elkarteek euren eremua gaintzen zuten eta gizarteratu egiten ziren, herriko bizitza soziopolitikoan ezinbesteko eginkizuna gauzatzuz.

Erretererari dagokionez, 1965ean Gau Ikastolaren sorreratik euskara erakusteko ekimen ugari izan ziren. Haietako askotan, guztietan izan ez bazen, herrian zeuden elkarte ezberdinen rola ezinbestekoa izan zen, 80ko hamarkadatik aurrera zabalduko ziren euskaltegi egonkorrek ez zeuden garaian.

“1965-1982 bitarteko euskarazko eskolak” taulan ikus daitekeen moduan, Iztietako Auzo Elkartek (Ibai Alde), Pontikako Auzo Elkartek, Kultur Zabalkunderako Elkartek eta Sorgintzulo Auzo Elkartek modu jarraituan eskolen antolakuntzari ekin zioten. Zenbait kasutan publiko xedea helduak zein gazteak zirela zehazten denez eta gainontzekoetan ez, jasotako testigantzei lotuta, pentsatu beharra dago orokorrean helduei zuzenduta egongo zirela. 1978ko maiatzean eta irailean burututako ikastaroak ohikoak izan beharrean AEK-k antolatzen zituen mintegi eta hitzaldiekin bat datozela dirudi.

Eragilea	Urtea	Hilabetea	Zer	Arloa	Informazio gehiago	Non
	1965		Gau-Ikastolaren sorrera	Helduentzako euskarazko eskolak		Izieta, Fomento Cultural, JOC...-en
Itzietako Auzko Elkartea (Ibai-Alde)	1975	apirila	Batzarrean, gau-ikastolan azkenaldian ematen ari ziren euskarazko klaseen berri eman zuten	Euskarazko eskolak	Gutzira, 180 ikasle	
Pontikako Auzo Elkartea	1975	iraila	Euskarazko eskolen hasiera	Euskarazko eskolak		
Pontikako Auzo Elkartea	1976	urria	Euskarazko eskolak	Euskarazko eskolak		
Pontikako Auzo Elkartea	1976	urria	Euskarazko eskolen hasiera	Euskarazko eskolak	Helduentzat zein gazteentzat	
Pontikako Auzo Elkartea	1977	iraila	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Kultur Zabaldunderako Elkartea	1977	urria	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Gau-Ikastola	1977	urria	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Gau-Ikastola	1978	maiatza	"Helduak berruskalduntzeko			
Gau-Ikastola	1978	maiatza	Helduak berruskalduntzeko eta alfabetatzeko herri-ekimenei buruzko nahainguru bat	Euskarazko eskolak	Herri-ekimen honen esperientzia desberdinei buruzko nahainguru bat egin zen. Bertan Marbel Otamendik (Tolosa, Mikel Usabiagak (Hernani), M ^a Angeles Maizek (Goierri) eta Jon Mendizabalek (Donostia) hartu zuten parte, moderatzaile gisa Joxemari Odriozola aritu zelarik	Kultur Zabalkunderako Elkartean
Sorgintzulo Auzo Elkartea	1978	iraila	Alfabetatze ikastaro berria	Euskarazko eskolak	Ikastaroarekin batera, "Bai euskarari" kanpainarekin bat egiten du. Jakinik auzoa nagusiki etorkinez osatua dagoela, elkarrekin azpimarratzen du: "Euskara ezagutu, maitatu eta hitz egitea, pertsona bat bazi garen Herri honetan bertatzeko modurik garrantzitsuen da"	
Sorgintzulo Auzo Elkartea	1979	iraila	Euskarazko ikastaro berria	Euskarazko eskolak	Helduei eta haurrei zuzenduta	
Oreretako Hizkuntz Ikastegia	1982	ekaina	Euskarazko ikastaroa	Euskarazko eskolak		
Gau ikastola eta AEK	1982	azaroa	Inaugurazio ofiziala	Euskarazko eskolak	"Klaseak irailean hasi baziren ere, orain inaugurau zen ofizialki Ugarritzen kokaturiko udal euskaltegia. Gau-Ikastolak eta AEKak buruturiko ahaleginari esker gauzatu ahal izan den Euskaltegia"	Ugarritzen kokatutako Udal euskaltegian

TAULA. 1965-1982 bitarteko euskarazko eskolak. Iturria: Iriarte "Bikila", Joxe; Elberdin, Luis (1997). *Orereta: herri borrokalaria baten historia (1976-1983)*. Errenteria: J. Iriarte.

Euskarazko eskola horiek ez ziren ekimen bakanak, euskararen aldeko mugimendu orokorrago batean txertatutako ekimenak baizik, testinguru soziopolitiko zehatz batean. Izan ere, 6.1 Taulak erakusten du bertsolaritzari, kantagintzari, euskal kulturari, euskararen egoera edota erabilerari lotutako beste ekimenak ere egon zirela. Ikusten denez, eremu zabalago honetan kultur eta auzo-elkarteen rolak esanguratsua izaten jarraitzen du. Kasu honetan bakarrik dagokigun gaiari mugatuko bagara ere, alde batera utzita garai berean aurrera eramandako beste ekimenak (elkarte berrien sorrerak, argitalpenak, herrian izandako hainbat gatazka, etab.) gai politikoen, sozialen eta euskararen artean intersekzionalitatea zegoen. Horretaz gain, edo agian hain zuzen ere intersekzionalitate horrek lagunduta, zenbait kasutan eragileen arteko sinergiak ikus daitezke proiektuak aurrera eraman ahal izateko, helduen euskalduntze-alfabetatzeak duen herri-mugimenduaren izaera indartuz.

“[Gau eskolak] juridikoki ez gara sekula santan ezer izan [Fakturak beste erakundeen izenetan egiten ziren]” (X, Orereta, 1941).

Izan ere, lekukotasun hau indartzeko, elkarte ezberdinen izenean egindako zenbait materialen fakturak atxikitzen dira: Ereintza, Ibai Alde, Fomento Cultural....

«EDIL», S. A.
Carrera Dorcas
Bilbao, 21-22

En ERREINTZA
En Renteria

DESCRIPCION	CANTIDAD	PRECIO
14 Botas de Suelo Polifonico	10	1400

Recibido
En Renteria

«EDIL», S. A.
Carrera Dorcas
Bilbao, 21-22

En ERREINTZA
En Renteria

DESCRIPCION	CANTIDAD	PRECIO
14 Botas de Suelo Polifonico	10	1400

Recibido
En Renteria

PAPER ETA LIBURUTEGI
Mirentxu

Santa Clara, 8-10
ERREINTZA
Bilbao, 21-22

DESCRIPCION	CANTIDAD	PRECIO
23 libros Ollame	100	2300
10 - Onketak	80	800
		3100
10 %		310
		3410

Recibido
En Renteria

«EDIL», S. A.
Carrera Dorcas
Bilbao, 21-22

En ERREINTZA
En Renteria

DESCRIPCION	CANTIDAD	PRECIO
14 Botas de Suelo Polifonico	10	1400

Recibido
En Renteria

We acknowledge the 9 Transmisionary
on receipt of the donation of the books
of the 10th year for the classes, in
amount of 2000.- ptes.

Renteria a 23 de febrero de 1971

El Tesorero
Luis Renteria



Gau eskoletarako erositako materialak, elkarte ezberdinen izenean egindako fakturrekin.

10.1.2 Elizaren eta JOC-en papera

Baliabideen aldetik gabeziak egon arren, dudarik gabe zailtasun handiena lokalei zegokien. Zentzu horretan, Eliza nolabaiteko bazkide pribilegiatutzat har zitekeen eta, Errenterriaren kasuari erreparatuz, gau eskolak bultzatzeko ezinbesteko eragilea izan zen. Bere egoera berezia baliatuz (lokalak zituen, ekintza ugari antolatzeko ohitura zuen, immunitatea zeukan...) gau eskoletarako aterpe izan baitzen. Gainera, Elizaren babespean zeuden beste hainbat erakunderen bidez eta beti ikuspuntu kristau batetik bizitzako beste arloetan eragiteko aukerak bilatzen ziren. Horren adibide bat JOC (Juventud Obrera Católica) izeneko erakundean daukagu (Lacunza, 2002: 110).

Testigantzek erakusten dute Eliza (edo agian hobeto legoke esatea hainbat parrokia eta hainbat elizgizon) aterpe izan zela helduei zein haurrei zuzendutako euskarazko ekimenentzat.

“[1964-65an, hasi zirenean, lokalak] fundamentalki izandu ziren Ibai Alde eta Fomento Cultural. Hor hasi ginen klaseak ematen. JOC-en... [1970.urtean lokal gehiago behar zituzten eta ikastolara eskatu zioten. Baita Zumardian, baina denbora gutxiz, eta Eskola Publikoetan ere](...)” (X., Orereta, 1941)

“Problema inportanteena ez zen irakasleak topatzea, baizik eta lekuak topatzea, taldeak sortzea...” (G., Errenteria, 1954)

“Gero elizak igual uzten zizun lokal bat baina gero behar zuten. Orduan joaten zinen lekuak eta lokalak bilatzen, eta beno...” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Errenteria, 1956)

“Orduan gau eskolak (...) ziren auzo bakoitzean, eh... auzo-elkarteetan edo lokal erlijiosoetan... Izan ere, Pontikan egiten genuen kapilan, ez? (...) Eliza dana bajo bat [zen], pues hori erabiltzen zen (...) auzoko ekintza guzietarako (...) Jaialdi bat zegoela? Pues abeslari bat... bertsolariak hor, elizan, ez? Orduan auzo bakoitzak lokal bat zeukan, orduan gau eskola funtzionatzen zuen horrela, elizako lokaletan...” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Ni gogoratzen naiz lehenengo urtean zen arbela zahar, zahar, zahar bat, tizakin, eta gero... bakoitzak bere koaderno...” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1960)

10.1.3 Orereta ikastolaren rola

Erretereriako gau eskolak Orereta ikastolaren sorrerari lotuta daude. 1963an sortu zen ikastola hau, oso baliabide gutxirekin, Pio Etxeberriaren etxean. Pixkanaka handituz joan zen, gaur egun Añabitarteko egoitzara heldu arte. Ikastolaren papera ezinbestekoa izan zen herriko euskararen garapenean, baina eragin esparrua jende gaztea zen. Gizartea euskalduntzeko edo berreuskalduntzeko proiektua eraginkorra izateko, haurrez gain beharrezkoa zen helduak ere bereganatzea. Hortaz, ikastola sortu eta hortik bi urtetara, 1965ean, Gau-Ikastolari sorrera eman zion lehen bilera izan zen. Lokalik gabe eta inongo laguntza barik, auzo-elkarteek aurrerapauso bat eman zuten eta haien azpiegiturak erabili zituzten zeregin hori gauzatzeko. Lehenengo eskolak Ibai-aldean (Iztietia), Fomento Cultural eta JOC-en eman ziren, eta geroago beste hainbat elkarte gehitu ziren (Iriarte eta Elberdin, 1997: 154).

10.2. Harremana, giroa... oroitzapenak

Gorago esan bezala, euskararen ezagutzak zekarren dimentsio linguistiko edota kulturalaz gain, bazegoen beste dimentsio bat ere, kontzientzia politikoari eta nortasunari atxikita. Gizartean eragin ahal izateko eta gizartea euskalduntzeari begira masa sozial kritikoa behar zen, beraz eskoletan lantzen ziren gaiak eta lanabesak egunerokotasunean oinarritzen ziren.

“Garai hartan [hasieran, gau eskoletan], ni euskaldun berria eta hola... Oi!!!... (...) Faltan botatzen nuen igual pixkat ziurtasun bat edo. Orain, dena zen bihotza eta kariño eta horrekin dena konpontzen genuen. Eta egia da harreman polita lortzen bazenuen ikasleekin ere ja sortzen ari zinen euskararen aldeko...[atxikimendua]” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)


“Batez ere momentu hartan ba ikasteko zegoen kezka ba nolabait lagundu edo bultzatu, ezta? Beraiek zuten (...) ikasteko gogoarekin eta bestaldetik laguntzeko (...) gogoarekin (...) Lagun arteko [giroa] gehiago zen eskola normal bat [baino]” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Gau eskola izan zen neretzako izugarrizko deskubrimendua. 17 urte baino ez nituen (...) Sentitzen nuen oso gauza inportante bat egiten ari ginela: euskalduntzen ari ginen! Eta gero, jendea gustora zegoela... Erakutsi behar genuen euskara maitatzen (...)” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Testuinguru soziopolitiko hartan gure artean erdal kultura zen nagusi, nahiz eta gero (...) euskal kulturarekin lotura handiago izaten hasi (...) 17 urterekin AEKren Udal Euskaltegia ezagutu nuen euskal kantutegia (...) [Euskaltegia] ez zen ikasketa linguistikoa [egiteko] bakarrik, bizitzarako ikasketa zen. Ederra zen (...) Hor deskubritu nuen, 17 urterekin, zer zen sagardotegi bat, nolakoa zen euskaraz bizi zirenen mundua (...) Kantu afariak ere bai deskubritu nituen...” (Mikel Azkarate, Errenteria, 1966)

Bestalde, gau eskoletako irakurketak, eztabaidarako gaiak, etab. hainbat kasutan munduaren aurkikuntza izan ziren.

“[Anaia eta biok] ikaslerik gazteenak ginen. Hurrengoak bost bat urte gehiago izango zituen. Mintzagaietan nabaritzen zen, materiala helduagoentzat prestatuta zegoela: bikote harremanak, bikote banaketak, langabezia...” (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)



71 eta 39 lagunentzako afari banaren zenbatekoen fakturak.

10.3 Ikasleen profilak

10.3.1 Sexua, adina

70eko hamarkadan helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua jasotzen zuten ikerketa soziologikoek (Euskaltzaindiak Siadecoren bitartez egindakoa, adibidez) zein AEK-k berak abiatutako datu bilketa periodikoek adina, sexua eta jatorria aldagaitzat hartzen zituzten nolabait ikaslego motak ezagutzeko. Datu estatistiko horietan gehien errepikatzen diren ezaugarriak esker badakigu, gaingiroki, gehienbat jende gaztea izaten zela, emakumezkoak zein gizonezkoak eta hein handi batean Erreterian bertan (edo gertu) sortutakoak zirela. Ikasleria gaztea izan arren, paradoxikoki ez zen batere ez-ohikoa taldeko kideak irakaslea baino helduagoak izatea.

Erreteriarako kasu zehatzari dagokionez, testigantzek adierazten dute bai gau eskoletara eta ondoren euskaltegiara gehienbat jende gaztea joaten zela. Gizonezko eta emakumezko kopuruei buruz galdetuta, ez zen desoreka berezirik gogoratzen ez bataren ez bestearen alde.

“[Orokorrean, mintza-praktikako ikasleak] gu baino helduagoak ziren [25-30 urte bitarteakoa gutxi gora behera] eta denek zeukaten erronka hori: euskara ikasi behar zutela. Eta haiek mintza-praktikara iristeko zeramaten ja igual lau edo bost urteko entrenamendua, eh” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreteria, 1960)

“77an klaseak ematen genituen Iztietako elizak zituen lokal batzuetan. Eta hor nere ikasleak, denak, adinduak ziren. Klaro, nik 17 urte nituen! (...) Izango nituen 12-14-15 lagun (...)” (Arantza Galdos, Dax, 1960)

“20-28 urte bitarteko jende asko. Gero, beste belaunaldi batekoak ere bai” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

“[Irakasle batzuekin gogoratzen da. Baita 10-12 bat lagun zeudela, denak adin berekoak edo antzekoak]. Iztietako esperientziaren oroitzapen lausoa da, baina positiboa (...). Garai hartan hizkuntzaren didaktikarik ez zegoen oso garatuta(...)” (Mikel Azkarate, Erreteria, 1966)

“[Ikasleen artean] zer esango nuke... erdi bana edo... (...) Nahiko orekatua” (David Gómara, Lezo, 1956)

Honako testigantza hauen arabera, badirudi behintzat garai batean ama gazteak (haietako askok seme-alabak ikastolan eskolatu zituztenak) ikasleria bereizia izan zirela.

“Normalean ziren emakumeak (...) nahi zutela euskaraz ikasi ba gero umeekin hitz egiteko. Hori zen oso normala, betidanik. Baina gero ere, pixka bat aurrerago, bazegoen (...) jende gaztea langabezian euskara ikastera joaten zena (...) eta lanerako behar zelako euskara (...). Baina hasieran ziren emakumeak, ez gizonak. Emakumeak euskara ikasten umeei laguntzeko, umeekin hitz egiteko” (Juani, Aia, 1944)

“[El grupo era] pues así, madres con niños pequeños (...). Dejábamos en la siesta a los niños, que venía mi marido tarde a comer, entonces [íbamos]. A la tarde temprano, aprovechando la siesta (...) Íbamos a la iglesia de Iztietia, ahí, pues a un local que tenían los curas a la parte de arriba” (Loli Pasaia Antxo, 1950)

“Yo también fui. Cuando mi hija tenía tres años, pues había guardería y luego daba clase un cura allí en la calle lantzi. Había una asociación de vecinos que íbamos a aprender euskera (...). [Una de las cuñadas] aunque ella sabía euskera, era zaharra, pero ella quería el batua, que era el que nos daba aquel cura” (Toñi, Valencia de Alcántara, 1955)

Testigantzetan, orokorrean, sexuen arteko desoreka handirik gogoratzen ez den arren, fenomeno ezberdinek eraginda euskarazko ikasle zein irakasle moduan emakumezkoen presentzia nagusitzen zela ikus daiteke:

“Ni udal euskaltegietan ibili naiz eta hor neskak gehiago izan dira beti (...). Ikasle moduan, beti (...). Logikoa zen, ikasle askok profila atera behar zutelako irakaskuntzan zeudelako, edo erizainak zirelako, eta lanbide horiek oso feminizatuta egon direlako beti” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

80ko hamarkadaren bukaeran, HABEren Erreterriari buruzko datuek ere emakumezkoen nagusitasuna adierazten dute, ikusten den bezala.

HABEren datuak 80ko hamarkada bukaeran, Erreterria

Erreterriako ikasleak sexuen arabera.

	1986-1987	1987-1988	1988-1989
GIZONEZKOAK	333	359	350
EMAKUMEZKOAK	535	606	629
GUZTIRA	868	965	979

Erreterriako irakasleak sexuen arabera.

	1986-1987	1987-1988	1988-1989
GIZONEZKOAK	3	3	1
EMAKUMEZKOAK	9	9	8
GUZTIRA	12	12	9

Iturria: HABE

10.3.2 Jatorria

Erreteriak XX. mendeko bigarren erdialdean hartutako ezaugarri sozioekonomikoak direla medio, Euskal Herritik kanpo etorritako jende kopurua oso garrantzitsua zen herrian. Errealitate hori aintzat hartuta, gau eskolen eta kolektibo horien arteko harremana berezia izan zen: alde batetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen proiektua benetan eraginkorra izateko ahalik eta gehien hedatzea ezinbestekoa zen, beraz, ahaleginak egin ziren kanpotik etorritako bizilagun horiek (edota euren seme-alabak, hau da, jatorria kanpoan izanda Erreterian sortutako bigarren belaunaldiko gazteak) erakartzeko; bestetik, kolektibo honen beharrei eta nahiei erreparatuz, herriko bizitzan integratzeko modu bat zen.

“Euskalduntzeko ikastaroak ematen nituen. Nere ikasle gehienak, jatorriz, kanpotik etorritako familietakoak ziren” (Arantza Galdos, Dax, 1960)

“Nik eduki ditudan gehienak kanpokoak ziren” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreteria, 1960)

10.3.3 Motibazioa

Txepetx'ek ikasleen motibazioa aldagai ezinbestekotzat hartu behar zela nabarmendu zuen. Ikerketek diotenez, 60ko hamarkadatik 80ko hamarkadara bitartean ikasleen motibazioek garai ezberdinak finkatu zituzten: politikoa, Rikardo Arregiren garaian; integrationala edo kultur-ideologikoa 70eko hamarkadan; instrumentala edo pragmatikoa 80ko hamarkadan (Larrea, 2005: 248).

Indibidualki, edozein ikasketa prozesuri ekiteko dauden interesek, beharrek, nahiek, itxaropenek, eta abarrek proiektuarekiko atxikimendu ezberdinak sortu ohi ditu. Eta horren arabera, prozesuak berak eskatzen dituen jarraitutasuna, esfortzua, inbertsioa (beste esparru batzuetan inbertitu ahal litzatekeen denbora edo dirua) eta abar modu batean ala bestean kudeatuko dira. Gainera, ikasketa prozesuan bertan jasotzen joaten diren sententzioak, esperientziak, erantzunak motibazio hori mantentzeko, aldatzeko edo desagertzeko ezinbestekoak izan dira.

Lekukotasunen arabera, mota ezberdinetako motibazioak aurkitu ditugu pertsonaren izaera eta egoeraren arabera. Elkarriketatutako emaitzen arabera, bost multzotan banatu ditugu. Hala ere, testigantzak aurkeztu baino lehen zera esan beharra dago: a) hauek direla topatu direnak, baina gehiago egon litezkeela; b) multzo hauek ez direla inolaz ere konpartimentu estankoak, hau da, aipatzen dena motibazio nagusia izan arren, ez duela zertan bakarra izan; d) zenbait kasutan euskalduntze-alfabetatze prozesua ezin izan zen jarraian egin, baizik eta arrazoi ezberdinengatik (lana, ikasketak, familia...) behin baino gehiagotan hartu eta utzi egin zela, ondorioz, momentu ezberdinen arabera motibazioa ere alda zitekeen; e) kasu batzuetan gehiago edo bereziki esplizitatzen bada ere, orokorrean esan daiteke euskal kontzientzia kulturala eta politikoa zeharkako osagarria izaten zela. Hala ere, aintzat hartu behar da motibazio bat baino gehiago egon daitekeela aldi berean eta, normala denez, egoera pertsonalaren zein testuinguru orokorraren arabera motibazioa aldatu daitekeela.

“Aurrenekoetan esango nuke jendea politizatuagoa zegoela, hori sumatzen zen (...) Gero galdetuz gero ‘zu zergatik etortzen zara?’ [erantzuten zuten] ‘Lanagatik’; edo bazegoen jendea ‘ni euskalduna naizelako’, ‘porque soy vasco’... Badakizu, beti. Baina motibazio hori, esan dezagun euskaldunago... EGAn ere, berdin: tituloa eskuratu, lana edo... ” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

10.3.3.1 Euren burua alfabetatu nahi zutenak

60ko hamarkadatik 80ko hamarkadara bitartean helduen gau eskoletara eta geroago euskaltegietara ikasle gisa joandako multzo handi batek euskara etxetik ezagutzen zuen. Hala ere, familia barneko hizkuntzaren transmisio egoeretan alde handiak zeuden: hainbat kasutan, ezagutza eta erabilera suspertzen zen; besteetan, ordea, seme-alabekin erabiltzen ez zen hizkuntza zen.

“Ni gau eskolara joan nintzen urtebetez eta hor alfabetatu nintzen (...) Euskaldunak ginen joaten ginen guztiak eta gure burua alfabetatu genuen [eta aurrerago titulua ateratu zuen ez hainbeste lanagatik baizik eta erronkatzat hartu zuelako]” (J., Errenteria, 1952)

“Lezora joan nintzen eta han zegoen euskalduntze-alfabetatze talde bat. Klaro, Lezoko guztiak euskaldun zaharrak, edo etxeko euskaldunak... eta ni [algarak]. Orduan beno, ba han ibili nintzen urte bete, baina ondo. Ondo (...) Gau eskola izango zan, orduan AEK sortu gabea izango zan” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Eta gero ja berak [ahizpak] ikusten zuen lagunen artean zenbat eta gehiago gazteleraz eta sartu zidan ikasle bezala. Nik 16-17 urte nituenean animatu zidan eta ikasle bezala sartu nintzen. Ze ni hilabete izenak, zenbaki izenak... ideiarik ez. Beno, eta ja ‘ergatibo’ hitza entzun nuenean... hori zen martzianoz hitz egitea” (Irene Larrañaga Etxeberria, Errenteria, 1960)

10.3.3.2 Euskal kontzientzia, motibazio politikoa eta kulturala

60ko eta 80ko hamarkaden artean aldaketa kultural eta politiko nabariak gertatu ziren, euskalduntzeko motibazioan ere islatu zirenak.

“Nik kontraesana neukan, ‘joe, ¿soy vasco y no sé euskera?’. Eta gurasoei galdetzen nien, ‘ama, ¿cómo se dice...? ¿y cómo se dice...?’ Eta horrelakorik. Eta gero jada esan nuen, ‘beno, kitto’. Ez naiz gogoratzen, 18 urte nituela edo hasi nintzen” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Gerra garaian nazionalistak ziren familiek euskara zeukaten ja oso barneratuta, eta hori ere oso inportantea da. Horrelako familia tokatzen bazitzaizun, ba oraindik gehiago (...). Bazegoen kontzientzia bat euskalduna. Eta batzuk, gainera, jantziak” (Iñaki Sors Bagües, Errenteria, 1955)

“[Gizonezkoak eta emakumezkoak zeuden] Oso jende dibersoa (...). Hara joateko kontzientzia apur bat behar zuten. Zergaitik joaten ziren eskola horietara? zergaitik nahi zuten ikasi? Nik uste dut ba entorno horietan mugitzen ziren pertsonak zirelako, nahiz eta euskaldunak ez izan” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“Edo bere kuadrilan bazegoelako norbait euskeraz hitz egiten zuena, edo bikoteak bazekielako euskeraz, edo haurrak edukitzearen asmoa zeukatelako euskeraz erakusteko... bazeukaten inkietuderen bat euskararen aldez (...)” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“Garai hartan gainera gau eskola etortzen... bazeuden heldu batzuk, baina gehiena jende gaztea zen. Hor motibazio politikoa zegoen, kriston iraultza zegoen Franco hil zen...Klaro, dena... ikastola aurrera, Eusko Jaurlaritza... baina hor zegoen gero ETaren biolentzia (...) Eta gero Erretereria izan zen... herri bat... nabarmena izan da historia horretan... ‘El que más salía en el telediario’...” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Nik uste dut [motibazioa] gehienbat kulturala zela. Hau Euskal Herria da, eta euskaraz [bizi nahi dugu] (...) Ikasi egin behar da” (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)

“Bazeuden ere inizatiba politiko asko, edo sozio-politikoak, batez ere ba hizkuntzaren berreskuratzearen alde edo herri-nortasuna berreskuratzearena ere bai. Eta herri-nortasun hori berreskuratze horren testuinguru horretan ba hizkuntzak garrantzi berezia zeukan garai hartan (...) [eta] aktibismo edo militantzia kultural horretatik hurbildutakoak batzuk baginen, dexente baginen. Beste batzuk aktibismo edo militantzia politiko batetik ere bai” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

10.3.3.3 Integrazioa

Gau eskoletara joandako ikasleen artean Erretereriatik kanpoko jatorria zutenek presentzia garrantzitsua izan zuten.

“Nik gogoan daukat garai hartan 70. hamarkadan etorri ziren familia asko Espainiatik (...) askok egin zutela ahaleginak beren seme-alabak euskaldun zitezen (...) txertatuak sentitzeko. Eta hor eskaera handi bat zegoen euskara ikasteko, urte horietan (...). Politikoki konfrontazio bat bazegoen ere, familia askok eta askok nahi zuten beren seme-alabak euskara ikastea. Eta gau eskoletara etortzen ziren asko ziren familia horietako senide...” (Arantza Galdos, Dax, 1960)

“Gau eskolara (...) kanpotik etorritako langileak [joaten ziren], lan orduak bukatu eta euskara pixkat ikastera [joaten ziren]. Askok ahalegin hori egin zuten” (Elixabete Perez Gaztelu, Erretereria, 1961)

10.3.3.4 Seme-alaben motibazioa

Haurren euskalduntze prozesua, batez ere ikastolaren bidez, hein batean gurasoena ere bai (eta badirudi modu berezian, amena) bultzatzeko balio izan zuena.

“Baziren batzuek haurrak zituztenak eta (...) hurrekin behar-beharrezko hamabi hitz horiek, ba haiekin hitz egiteko” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Para mí la motivación era que a los niños los mandé a ikastola porque yo no quería que estuviesen ahí como yo, ‘ni p’atrás ni p’adelante’. Yo quería que lo supiesen bien. Entonces había que ayudarles también hasta donde se podía con los deberes. Y bueno, un poco la motivación era esa, hablar un poco con ellos (...)” (Loli Pasaia Antxo, 1950)

“[Íbamos] mujeres... y algún hombre también, eh, ahí también había algún hombre (...). Parecidas todas las edades (...) En Oztarte también teníamos... que nos daban clase los curas (...) O sea, siempre hemos ido por los hijos, no por nosotros, sino por que los hijos tendrían ese amor por el euskera” (Toñi, Valencia de Alcántara, 1955)

Gaurko ikuspegitik ikusita agian deigarria badirudi ere, behintzat hasiera batean euskara ikasteko motibazio instrumentalik ez zegoela diote testigantzek. Hizkuntz eskakizunen eskutik egoera hori aldatu egin zen.

“Ez zegoen euskararen premisa garai haietan [lana topatzeko] eta orduan zen ‘ba honera iritsi naiz, eta...’ pixkat kontaktatzeko hizkuntzarekin” (Iruñe Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Lehen ez zen hainbeste lanarekin [lotutako motibazioa]” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

10.3.4 Euskalduntze-alfabetatze prozesuaren eragina euren bizitza pertsonalean

Batzuetan gau eskola edo euskaltegi batetik pasa izana mugarri garrantzitsua izan zen norberaren identitatean, hizkuntz ohitura aldaketa ekarri zuena.

“[Alfabetatzea bere identitatearen inflexio puntuaren testuinguruan] Nik ikusten dut izan zela hautu bat, nik nere hizkuntza maila hobetzea. Eta hautu hori egiten nuen hori bizi nahi nuelako. Eta hori bititzeak ere eramaten zaitu beste giro batera eta beste eskema batzuk begiratzen dituzu. Nik uste dut hori gertatu zitzaidala neri, eta euskaltegian (...) egondu nintzen denbora seguru egongo nintzela trantsizio momentu horretan” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

“Baina ni gau eskolan sartu arte ez nintzen batere kontziente zer zen euskera eta zer zen euskera mundua, eh. Inoiz ez nintzen gelditu pentsatzera (...) eta beitu zer... ze gazteleraz hitz egiten genuen gure artean, eta... (...). Eta hor hasi nintzen sentitzen. Ordura arte... badakizu: hor daukazu florero bat eta ez zara konturatzen. Eta bapatean

(...) batek lore batzuk jartzen dizkio eta esaten duzu 'ostras, ze polita zen. Eta da. Eta hori izan zen pixka bat. Ordura arte ez nintzen planteatu...' (Iruñe Larrañaga Etxeberria, Erreñterria, 1960)

"[Euskaltegi] Esperientzia horiek guztiek konziente eginarazi zidaten irekitzen, zabaltzen, aurkitzen ari nintzen mundu desberdin bat: euskara eta bere mundua. Ondoan zegoen mundua zen, baina aldi berean urruti (...). Orduan, eskolako saio bakoitzak ateak pixkat gehiago irekitzen zidan. Gerora, jada kuadrillako giro batean, erabat ireki zen euskararen ate hori" (Mikel Azkarate, Erreñterria, 1966)

Aldez aurretik euskara landu arren (familia mailan, apaiz edo irakasle baten eskolak jasoz edo era autodidakta batean), hainbat kasutan bizitza proiektua euskaraz eraiki nahi izateak eraman zituen hainbat ikasle gau eskola edota euskaltegiara. Horretarako, senide, bikotekide edo lagunaren baten nolabaiteko konplizitatea berme garrantzitsu gisa agertzen da.

"Ezkundu nintzenean hasi nitzen euskara ikasten. Batez ere nere senarra zelako nere aita bezala [euskaltzale amorratua]. Ez ginen alfabetatutak eta hori baina gure artean betidanik euskaraz hitz egin dugu (...). Orduan ni hasi nintzen ikasten nere aldetik [etxean ere seme-alabekin hitz egiteko]" (Juani, Aia, 1944)

"Esan genuen: 'euskeraz hitz egin behar dugu' [bizitza proiektuan]" (Kepa Oliveri, Erreñterria, 1947)

"Gure familian euskaldundu ginen masiboki (...) Gero gainera lortu genuen gure arteko hizkuntza [izatea] hainbeste kostatzen zen hizkuntza ohitura hori (...) Izan zen gainera nahiko bapatekoa (...) [Lagunekin] Kuadrilla handia zen eta askok bazekiten euskaraz, gehienek (...) baina gure arteko hizkuntza erdera zen. Eta kuadrilla hartan bi euskaldundu ginen. Eta orain euskaldun berri haiek andrearekin euskaraz hitz egiten dugun bakarrak gara (...)" (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

"Semeak nik uste markatzen duela erritmo bat, oso inportantea (...) Eta konpromezua. Azkenean zuk sinisten duzu zure herrian, zure hizkuntzan..." [ikusten duzu] erantzun bat eman behar dela" (Jon, Orereta, 1950)

"Euskararen inguruan hor ari ginen gure kabuz eta ja 18-19 urterekin (...) hartu genuen motxila (...) [eta Bizkaiko kostaldera joan]. Gure artean euskeraz praktikatzen, hiru lagunaren artean, eta bertako jendearekin. Ba imajinatu, ezta? Euskaldun berri gipuzkoarrak, Bizkaiko giro horretan murgildu nahian... [algarak]. Eta beno, han ibili ginen" (Josu Berra, Donostia, 1956)

"[Entzun izan du] 'Ze zaila den hizkuntza ohitura berria hartzea'. Bada, nire kasuan hiru segundura iritsi zen: [anaiari galdetuta] 'Zer, gure artean euskaraz?' 'Bai' (...) Esan nahi dut adinik ez dagoela hizkuntza bat ikasteko, nagusiki gogoia edo beharra dela kontua" (Mikel Azkarate, Erreñterria, 1966)

10.4 Irakasleen profilak

10.4.1 Sexua, adina

Lehenago aipatu den bezala, gau eskoletako irakasleria gaztea zen, hainbat kasutan 20 urte baino gutxiagokoa..

“Eske gu 15 urtekin (...) sartuta geunden mundu guzti hartan (...) 15, 16, 17 urte. Pentsa, eh” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

“[Hibaikako] ekintzen artean, pues gau eskolak [zeuden] (...). Ni hasi nintzen 16 urterekin edo, haurrekin, Pontikan. Eta gero 18kin ja hasi nintzen helduekin” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

“Gauza da auzo elkarteak euskarazko eskolak ematen hasi zirela (...). Orduan, 17 urterekin edo hasi nintzen eskolak ematen. Ni nintzen gazteena, noski (...). [Geroago] 19 urte edo nituela (...), amak irratian entzun zuen eskolak emateko pertsona bat behar zutela, gau eskolan (...). Joan nintzen eta horrela sartu nintzen gau eskolen munduan (...). Bitarte horretan, ikasi egiten nuen goizez” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

Generoari dagokionez, eta ikasleekin gertatzen zen bezala, irakasleak gizonezkoak zein emakumezkoak ziren. Erantzunek adierazten dutenaren arabera, badirudi normalean ez zela kopuru aldetik desoreka handirik sumatzen.

“Igual zerbait gehiago gizonezkoak... Zerbait, eh (...) [Adinari dagokionez] azken urteetan igotzen joan zen hori, eh” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“[Gizonezkoen eta emakumezkoen kopuruak oso parekatuak zeuden] Nik esango nuke ez zela... ez zela gizonen gauza, ez. Haina edo inkluso gehiago [emakumezkoak] elkarte kulturaletan, eta gau eskolan desde luego... Eta gero euskaltegian, berdin” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

“[Irakasleen artean] Gizonezkoak gehiago. Bai. Bai, gizonezkoak gehiago (...)” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Irakaskuntzan beti emakume gehiago (...)” (G., Erreterria, 1954)

Hasiera batean, gau eskoletako irakasle izateko ez zegoen eskakizun berezirik, ondoko testigantza hauek erakusten duten bezala.

“Irakasleak nortzuk? Pixkat hitz egiten zuen edonor... eta nahi zuena” (X., Orereta, 1941)

“[15-16 urte zituela hasi zen EUTGra joaten ikastera] Orduan ni euskaldun berria nintzen: nahiz eta amak euskaraz jakin eta oso txikitako hizkuntza izan, baina ikaskuntza

guztian (...), euskara galduta [zeukan]. Baina klaro, ni nintzen euskaldun berria eta esan zidatenean [ea eskolak eman nahi nituen]... 'Buah, euskarazko ematea? Jo, pues 'todo por la patria'. Kriston gogoa" (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

"...eta zegoen klaseetara joan nahi zuen jende asko, heldu asko, baina ez zegoen jende prestatua erakusteko euskara. Orduan euskaraz bazenekien ja nahikoa zen, 'benga' (...)" (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

"Haseran 4-5 pertsoez osatutako taldetxo bat aritu ginen [gure kabuz] alfabetatzen eta euskalduntzen prestakuntzan.... 'jo, ba gau eskolan jendea behar dute'; eta 'joango gara eta emango dugu izena, eta abar?; eta 'ja, baina ez dakigu gehiegi...'. Gutako batek jo zuen gau eskoletan aritzen zen batengana, ez dakit zein zen (...), hitz egin zuen norbaitekin eta esan ziguten 'aurrerat!'. Eta holaxe hasi ginen" (Arantza Galdos, Dax, 1960)

10.4.2 Motibazioa

Ikasleen kasuan ez bezala, irakasleen artean motibazioa erabat politikoa zen. Askotan "militantzia" hitza erabiltzen dute berriemaileek irakasle moduan ibilitako horiek zeukaten jarrera adierazteko. Gau eskolak emateagatik ezer ez kobratzeaz gain, denbora eta esfortzua eskatzen zizkien (aintzat hartuta, gainera, euren ikasketekin edo ogibideekin uztartu behar zutela). Baina pertsona horien konpromisoa, hein handi batean garai hartako testuinguru soziala, politikoa eta kulturalari lotuta zegoena, gauza guzti horien gainetik zegoen.

"Orduan bolondres lan egiten zen pila bat. Baina pila bat, eh. Batez ere maila hauetan" (X., Orereta, 1941)

"[Gau eskoletan] egon nintzen urte batzuetan, boluntario bezala, klaseak ematen (...). Iztietan (...). Eta gogoan dut garai hartan oso borondatezko lana zela, han ez zegoen inongo retribuziorik (...). Hasiera batean euskararen aldeko militantzi bat zen, ez zen inolaz ere gaur egun den bezala ogibide bat edo profesio bat (...). Ikasle nintzela, ba gero iluntzean ba horrelako lanetan kolaboratzen nuen, ezta? Beno, hori seguruasko giro politiko baten barruan edo markatu beharko da baita ere, zergatikan ba giro sozio-politikoan bazegoen ahalegin bat gizartean ba hori, euskara berreskuratzeko, euskararen irakaskuntzan aritzeko, jendea euskalduntzeko... Eta beno, behar hori sentitzen genuen gutxi batzuk garai hartan (...) bildu ginen horrelako iniziatibatan eta kolaboratu genuen (...)" (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

"Ez duzu gauza bat egin nolabait kale baten izena jartzeko edo medallita bat jartzen den bezala edo oroigarri batean... Ez. Egin da ikusi dugulako dela gauza bat prest egon behar dela egiteko. Eta hor bukatzen da asuntua" (Iñaki Sors Bagües, 1955).

"Ez zen planteatzen [kobratzearena] pentsatzen zen euskera zela gauz bat mantendu behar zena eta momentu hartan ez zegoela beste aukera (...). Jendea prest zegoen euskera ba... erakutsi, hitz egin..." (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“Orduan normala zen, gaur egun... ez dakit ‘militantea’, ez da ‘militantzia’ hitza, baina bolondres lan hori euskararen alde, ba beno... Seguruaski asko egiten da gaur egun, eh [adibidez Ipar Euskal Herrian] (...)” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Adibidez ni Beraunen eskolak eman nituenean musutruk eman nituen. Baina hori azken finean eskola bat izan zen, ezta? 17 urterekin oraindik ez zara pertsona kualifikatua ere” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

Bolondres lan egitea alde batetik behar gisa ikusten zen laguntza ekonomikorik ez zuen gau eskolen dinamikan eta, aldi berean, ohituretan beraietan oso txertatuta zegoenez ez zen arraroa egiten. Gainera, irakasle horien motibazioa hain altua zenez, ez zen planteatu ere egiten.

“Dena zen... Izugarria. Izugarria, gaur egun jendeak ez luke ulertuko (...) Horrelako gauzak oso barneratuak genituen eta nik uste dut betidanik hortikan izan dudala eta gaur egun segun zer egiten den hemen eta zein auzotan oraindik auzolan hori [mantentzen da], ez maila horretan baizik eta auzo-mailan (...) Nik uste balore hori oso txertatuta zegoela herri honetan. Bai langileen munduan ere bai egiten zirenean grebak, egiten zirenean Asanbladak elizaren eskaileratan... Hori zen gauza bat bizirik eta jendeari elkartasun bat eman diona” (Iñaki Sors Bagües, 1955).

“[Dena zen] ‘dedicación y amor patrio’, ez dakit nola esan [algarak]” (David Gómara, Lezo, 1956)

“[Kontzientzia ideologiko horrek ere bolondres moduan lan egitera ere bideratzearen garrantzia] “Es ke bestela inbiabile da. Kilometro batean ez badaude bolondresak, denok bolondresak ez balira eta pagatu beharko bazenitu, ezinezkoa da. Orduan dirua ateratzen da jende guzti horrek lan egiten duelako” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

“[17 urterekin Gau Eskolak deskubritu berriko] garai hartan, jende guztiak, modu batean edo bestean borroka egiten zuela iruditzen zitzaidan (...). ‘Nik borroka euskararen alde egingo dut!!!’ (...) jendeari euskaraz irakasteaz gain euskara maita zezan ahalegindu [beharra zegoen]. Hori zen nere apostu pertsonala eta nere borroka eremua hor markatu nuen” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

10.4.3 Taldeak: antolakuntza, kopurua...

Gau eskoletan, irakasleak beraiek ziren taldeak antolatzen zituztenak.

“Normalean haiekin hitz eginda ikusten zenuen: zero... hau, lehen urratsa (...); hau, bigarren urratsa (...) Ikasturte osoa mantentzen zena hurrengo mailara juaten zen, eh. Ze gutxi gora behera, bueno... Nola jendea gogotsu joaten zen (...) Gero noizean behin norbaitek esaten zuen nahi zuela errepikatu... Baina normalean aurrera egiten zuten” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

Lehenago aipatu den bezala, hasierako gau-eskolen sistemak ezin zuen euskalduntze prozesu masibo bat bere gain hartu. Izan ere, 1976-1977 ikasturtean AEK abandonoari buruzko nolabaiteko kontrol estatistiko bat eramaten hasi zen eta Erreteriarri buruzko datuak oso argiak dira: ikaslegoaren % 30ek utzi zuen eta 10 euskaldun berri sortu ziren (Odriozola, 1980: 8).

Eraginkortasunaren aldetik ere, hainbat arlotan eskasak izan zitezkeela onartzen dute bertan ibilitako batzuek.

“Joaten zena ja apostua egina zeukan. Baina mantentzen zenuen nolabaiteko gogo hori. Orain, efizientzia... ez dakit, ez dakit. Batzuk orain ikusten ditut kalean eta kasi-kasi muxua ematen dizute (...), baina beste batzuk gelditu ziren bidean...” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

Baina Erretererian eskaera gero eta handiagoa zen, talde berriak sortzen ziren urte batetik bestera eta geroago helduko ziren euskaltegien oinarria ezarri zuen.

“Jende asko ibili zen inplikaturia, eh. Jende asko. Hasten zara haritik tiraka eta tiraka, eta jende asko ibili zen inplikaturia (...), eta bakoitzak bazituen bere 12-15 ikasle. Eta batzuk igual bi talde, azkenengo urteetan” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“Gure garaian (...) elkartu ginen nik uste dut 5-6 talde, eta bakoitzean 6-8 pertsona izango ziren... (...). Momentu hartan han Fomenton bilduko ginan” (David Gómara, Lezo, 1956)

Horregatik, eta datu kuantitatiboak beti erlatiboak badira ere (milaka biztanle dituen herri batean ehunka batzuk euskaraz ikasten ibiltzea kopuru handia ala txikia izan daiteke, bati galdetu edo besteri galdetu), batez ere balio kualitatiboa ere azpimarratu beharra dago.

“Nik uste dut izan ginela autodidaktak alfabetatzen” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“Seguru gure irakaskuntzaren kalidadea oso kaskarra zen hasiera haietan gaurko prismatikan begiratzen baldin badugu (...) [baina bestaldetik] baliabide gutxiarekin begira zer egin genuen, ez? (...). Urteekin beste balio bat izan du, eta izan da ba beste mugimendu sakonago batzuen sorrera izan zela eta hortikan ba ia beste irakaskuntza landuago bat eta senduago bat sortu zela, ezta?” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“Orduan, pentsatzen dut garai hartako euskara irakasleek ahal zutena egingo zutela, eta borondate handiarekin gainera, baina metodologiari dagokionez ahal zena egiten zen... Ez dakit, behintzat jarrera aldetik ereindakoa hor gelditu da. Eta oroitzapen ona buruan...” (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)

10.4.4 Metodoak, baliabideak...

Garai hartako gau eskolen esperientzia bizi izan zuten zenbait irakasle 60ko eta 70eko hamarkadetako euskarazko metodo ezberdinez gogoratzen dira. Hasierako material eskasak gero eta ugariagoak izan arren, erabiltzen zuten eredu pedagogikoa errepikapenean oinarritzen zen batik bat.

“[Erabilitako metodoak] Método Radiofónico, Altunaren Euskera hire laguna, Jalgi Hadi... Orduan egia esan ez zegoen beste metodorik” (X., Orereta, 1941)

“[Garai bateko metodoei buruz] ‘Nor da?’ ‘Gizon bat da’ [algarak] (...) Neri eskatzen zidaten ‘Dame el método para aprender euskera, el del pajarillo. Jalgi hadi zen txori bat, koloreetan’ (Iñaki Sors Bagües, 1955).

“Eta Altunaren hiztegi hura... Jo, hartu nion hasieran mania bat... Nik ez nekien nondikan hartu ‘el Nor-nork’, ‘el Nor-nori-nork’, ‘el nor-nori...’ (...) [Erabiltzen zen] Patxi Altuna, a tope. Aditzak denak Patxi Altuna liburuekin lantzen genituen” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956).

“Metodoa orduan... frase batzuekin (...) galderak, erantzunak eta harekin jokatu pixkat eta beno, zuk galdetu, zuk erantzun... (...). Ez dakit, ogia eskatu... (...) Gramatika aldetik, ba... [algarak] gauza gutxi. Gauza gutxi (...) Hura zen euskaraz hitz egitea [idaztea baino] (...) Moldatzen ginen (...) Oñatibiaren liburua zen oso erreza, ez dakit, umeentzako bezala, baina beno, ezer ez zekiena eta handik bueno pues ja frase batzuk ikasten hasi (...) Ikasgaiak, astero bat. Gauza errezak ziren (...)” (David Gómara, Lezo, 1956)

“Oñatibiaren metodoa, adibidez... Beno, eta Patxi Altunarena berdin, dena zen errepikatze, errepikatzea: ‘Nor etorri da hona?’ ‘Ni etorri naiz hona’ (...) esaldi osoa esan behar zen (...) martxa hartzeko, hori zen ondo bereizteko erritmoa, hitzak, ordena... eta hori dena ikasteko. Baina klaro, pelma samarra egiten zen. ‘Zein etorri da etxe honetara?’ eta ‘Halako etorri da etxe honetara’. Jo... (...) Gogoan daukat beraiek eskertzen zituztela egoerak, orduan pentsatzen dut ba Jalgi Hadi-tik abiatu, gero egoera batzuk egokitu, orduan asmatzen, ahal zena egiten genuen” (B. Lasa, Oiartzun, 1962)

Orokorrean, baliabideei dagokienez oso eskasak zirela adierazten dute lekukotzek. Hala ere, ahal zena egiten zen: beste liburuetatik itzulpen- eta egokitze-lanak, multikopista batekin kopiak eginez, abestiak eta prentsa erabiliz...

“Pedagogia aldetik, sobre la marcha” (G., Erreterria, 1954)

“Filminen bidez (...) baina euskeraz eta erderaz egin behar genuen, ba ikasleak entenditzeko batzuetan nahi eta nahi ez erderaz hartu behar genuen (...) Itzuli genuen Orixeren ‘El cura Santa Cruz’ ... Esaten dizut nahi genuela ez bakarrik hizkuntza, baizik eta beste zerbait ere nahi genuela” (O., 1940)

“... eta erabiltzen genuen Martintxo eta liburu hauek. Eta ni gogoratzen naiz nik ikastolatik neukan material guztia erabiltzen nuela gau eskolako klaseetarako. Dena ondo etortzen zen (...) Ipuinak... (...) Multikopista bat genuen (...) eta hor ez zegoen gehiago” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956)

“[Metodoa sortu arte] dena apunteak (...) dena fitxak, horrela, (...) multikopista, horrelako katxarro bat erabiltzen zena propaganda kalera botatzeko Francoren kontra eta...” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

“Radiokaseta, hori bai. Radiokaseta eta abestiak ikasi bai. Baina gure teknologia guztia han amaitzen zen (...) Telebista erderaz bakarrik zegoen ... Irratian bazegoen zerbait euskeraz” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1960)

“[Ikasleok] Euskaraz eramaten genituen egunkariak, euskaraz azaltzen ziren artikulua, ezta? Orduan hasi ziren (...)” Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

Baliabideen eskasiari gehitu beharra zegoen irakasleek beraiek askotan ez zutela inolako eskarmenturik irakaskuntzaren munduan. Hori dela eta, nolabait irakasle bakoitzak ahal zuena egiten zuen. Geroago, batez ere gau eskolen antolaketa AEKra pasa zenean, adibidez materiala prestatzeko orduan arlo pedagogikoa sendotu zen.

Izan ere, AEKren 1976-77 ikasturteko txosten batean Erretererialdeko egoera deskribatzean, honako hau aipatzen zen:

Irakasle eskolak behar beharrezko ditugu bailaraka. Eskola horretan, hizkuntza ez ezik euskal kultura bere zabaltasunean erakutsi behar litzateke, bai eta pedagogia, metodologia eta antzeko gauzak ere (...) Metodoak: a) Metodo egokiak egiteko, lan -taldeak sortu; b) Urtez urte zein material eman beharko litzatekeen programatu, kurtsoak mailakatu; c) Alfabetatze mailan, hizkuntzaz aparte bestelako materialak ere beharrezko ditugu: historia, geografia, literatura ...; d) Hitzaldiak eratzea oso egoki iruditzen zaigu (...) Lan koordinaketa: a) Ezinbestekoa dugu, ez metodologian bakarrik, bai eta apunte, ariketa eta gainerakoetan ere, bestela elkarren berri jakin gabe, lan berdina egingo litzateke alferrik; b) Guzti horretarako, informazio zehatza eman eta jaso behar da (Odriozola, 1980: 7).

Testigantzen bidez ere antolakuntza aldetik izandako hedapena ere igartzen da.

“Irakasleek Oinatin kurtsiloren bat egin zuten. Altunak ere kurtsiloren bat eman zien... Adibidez, Fede Mendibilek aditza lantzen lagundu zien. Eskolak oso ondo prestatzen saiatzen zinen... [baina] egiten genuen ahal genuena” (X., Orereta, 1941)

“Gogoan dut ba klaseak ematen genituela oso laguntza pedagogiko gutxiarekin, gure materialak-eta geuk sortzen genituen hasiera batean. Gero, hasi ginen taldean lan pixka bat gehiago egiten, ba ikas-materialak sortzen... Joxe Manuel Odriozola etortzen

zen (...), laguntzen zigun pixka bat. Baina beno, oso modu prekarioan [geunden] bai instalazioen aldetik, bai lokalen aldetik, bai bitartekoen aldetik (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

“Apunteak nik uste dut etortzen zirela Joxe Manuel Odriozola eta hauen bidez, pixkat egiten zutela lan hori. Eta gero folioak (...)” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

“[Gau eskoletan] sentsazioa daukat irakasle bakoitzak bere sistema izango zuela (...) metodoa sortu arte, eh (...) Urtean zehar etortzen zen jende ospetsua, hola (...), ikastaroak, aditzei buruz (...), deklinabidea... Egiten genuen bi-hiru [mintegi antzekoak] (...) Baina ez zegoen metodologia bat, ja metodologia sortu zenean zen ja liburu hauek hasi zirenean sortzen, ez? (...) Euskeraren maila ja antolatua zegoen, pues hasieran ‘ukan’ eta ‘izan’, gero mugimendukoak (...), gero transitiboak/intransitiboak (...) Orduan urteetan zehar hor baita kriston aurrerakuntza egon zen ez dakit metodologia bertatik edo kanpotik kopiatua (...)” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

10.4.5 Eskolen prestakuntza

Testigantzek diotenez, askotan Gau Eskolen irakasleriaren prestakuntza etxetik zeramaten euskara besterik ez zen. Hainbat kasutan ere, alfabetatzera joandako zenbait ikasle handik gutxira besteen irakasle bihurtzera heldu ziren, nahiz eta guztiz prestatuta ez egon.

“Bazeuden irakasleak alfabetatu gabekoak zirela. Klaro, zuk kontuan izan nere adinetik gora zeudenak, horiek egin bai, ahoz, etxean ikasiak, ni bezala. Baina idatzi edo irakurri euskeraz, oso gutxi, libururik apenas irakurtzen zen garai hartan euskeraz, ez zegoen apenas. Eta idatzita, nere aurrekoak, horiek kastellanozko eskoletan ibiliak dira. Batzuk (...) euskaraz egiteagatik ere ba zigorak [jaso zituzten] (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

“[Lehenengo autodidakta, gero gau eskolako ikasle eta azkenik] klaseak ematen nituen, baina (...) ‘ni naiz, zu zara, hura da’ kontrolatzen nuen, baina ez nintzen gai maila altuko jendeari emateko (...)” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Ni 76an joan nintzen ikasle bezala eta gero ja hurrengo urtean irakasle bezala, ze ez zegoen jenderik (...) Eta klaro, prestatu behar nituen klaseak sakon, ze zero mailakoak ziren baina nik ere eurastruktura... (...). Eta horrela ikasten nuen haiei irakasteko eta horrela joan nintzen ikasten hilabeteak, orduan konturatu nintzen zer zen ‘ni’ eta ‘nik’... (...) Guk ez geneukan prestakuntzarik: gure borondatea eta genekiene euskeraz. Kitto. Besterik ez. Esaten dizut, nik ‘ergatibo’ hitza entzun nuen lehenengo aldian esan nuen, ‘non sartu naiz?’ [algarak]” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

Rol aldaketa horrek erronka handia eskatzen zuen, eta modu arduratsuan bakoitzak ahal zuen guztia egiten zuen bere burua janzteko. Horrek ez du esan nahi, inolaz ere, garai hartako irakasle guztien

prestakuntza hor amaitzen zenik, testigantzen artean euskarazko titulazioa eskuratu ahal izateko ikastaroei buruzko lekukotasunak ere topatu baititugu.

“Nik berriz hizkuntzak oso ondo menperatu ditut eta nik ere etxean ikasi nuen eta gero EUTGra joaten nintzan... Orduan ez zegoen EGA (...) baina atera nituen bi tituluak” (Juani, Aia, 1944)

“Nik titulotxo hori neukan, garai hartako EGA parekoa (...)” (Joxan Apaolaza, Donostia, 1947)

“Grosen montatu zuten... horrela, euskarako klaseak ematen ari ginen jendearentzat eta [D] titulua atera ahal izateko montatu zituzten klaseak (...). [Tituluak] euskal kultura orokorrean [egiaztatzen zuen]” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreenteria, 1956)

“78an Euskaltzaindiak Oinatin antolatu zuen, “D” tituluaren jabe izateko ikastaroan parte hartu nuen. Titulua ateratzea lortu nuen” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

Hala ere, irakasleek beraiek eskolak prestatzen bere kabuz egin beharreko esfortzuak zein irakasleriarengan ikusitako jarrera ulergarriak proiektuarekiko atxikimenduaren berri ematen digute.

“Nik esaten nien [ikasleei]: ‘zuekin ari naiz ikasten’ (...) Ze batzuk galdetzen zidaten: ‘eta hau zergatik?’; ?Ba begira, ez dakit. Galdetuko dut. Ze hola ikasi dut baina arrazoirik ezin dizut eman (...)’. Eta gero esan egiten nien: ‘zuekin ikasten ari naiz!’...” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Baina [gertatzen zena], ez zinela sentitzen ere sendo edo... (...). Hori ere ona zen ikasleentzat, ez? ikusten zutelako ba nik ere ikasia neukala. Ordun ondo, baina esperientza izan zen pixkat hola... estresante. Esan nahi dut... Laguntza genuen, eh, eta [Jon] Berra zegoen, elkartzen ginen, nola prestatu [erakusten zigun]... Polita izan zen. Baina beno, esan nahi dut... ez eroso” (Elena Mendia, Erreenteria, 1954)

“[Ikasleek] bazekiten, oso argi zeukaten, ahal zenuena egiten zenuela. Eta esfortzu handi bat egiten zenuela, ze askotan harrapatzen zizuten eta... hurrengo klasean erantzungo dizut’. Aizu, batere problemarik gabe” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreenteria, 1956)

“[Geroago] etxean orduak sartzen, paperak eta liburuak irakurtzen euskeraz, orduan... Eta Argia, Zeruko Argia (...) eta holako liburuak aurkitzen nituenean, ba beti irakurtzen eta irakurtzen, eta beti aldamenean Hiztegia” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“Altuna liburuekin eta Aditz liburuekin, han bakoitzak bere moduan, ahal zuen moduan prestatzen zuen etxean...” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreenteria, 1956)

10.4.6 Bestelako zailtasunak

Orain arte aipatutako gabeziez gain, eta testuingurua aintzat hartuta, lekukotasunek beste mota bateko zailtasunen berri ere ematen digute:

“[Eta garai batean] kudadokin ibili behar zenuen. Ni gogoratzen naiz Hibaikan guardia zibila askotan agertzen zen (...), eta behin harrapatu ziguten euskal liburuak saltzen eta eraman zituzten liburu guztiak. Orduan beti izan behar zenuen ‘actividades recreativas, deportivas...’ Horregatik, gaur egun soziedade guztiak horrela deitzen dira (...); besterik ezin zen egin. Eta, orduan, horregatikan ere bai (...), bilatu behar zenuen elizako jendea prest zegoena ba ‘paripé’ digamos egiteko, noizean behin, igual hilean behin bilera bat egiten zen eta akta bat, ‘ha estado presente Fulanito de Tal...’. Jose Maria Astigarragarekin egiten genituen... (...) Garai haietako apaizak prestatzen ziren gauza horietarako” (Arantza Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1956)

“Nolabait herrian hedatzeko, Hibaikak antolatzen zituen ekimen kulturalak. Gogoan dut euskal liburuen erakusketa zabaldu genuela, ilusio handiz eta lan handiz eginda. Eta ireki eta bigarrenengo egunera edo guardia zibilak etorri ziren eta itxi ziguten erakusketa. Esan ziguten ‘que nos limitásemos a leer el evangelio o a rezar la epístola’ edo holako zerbait, nola elizaren babesan geunden elkarte bezala... (...) Eta badakizu, gazteak eta ausartak, orduan egin genuen erakusketaren ordutegia aldatu. Ze guri itxi ziguten zazpietatik bederatzietara irekita zegoelako. Orduan irekitzen genuen bostetatik zazpietara” (J., Erreterria, 1952)

10.4.7 Katebegiak, erreferenteak

Asko dira 1960-1980ko hamarkaden artean Erreterrian euskararen alde modu zuzenean lan egin zuten pertsonak, haien aurrekoen lekukoa hartu eta urte batzuk geroago belaunaldi berriei transmititu dietenak. Ezinezkoa litzateke horien guztien identitate guztiak biltzen saiatzea, mugimenduaren izaera kolektiboak berak pertsonalismotik ihes egiteko joera bultzatzen baitu, benetako protagonistaren arreta ez desbideratzeko: komunitatea. Horrela, urteetan euskararen alde etengabe eta isilean lan egin dutenen izen gehienek bigarren maila batean jarraitzen dute, nahita. Beste izen batzuk, ordea, iruditeria kolektiboan geratu dira, eta erreferente ezagunak diren arren, ez dute ospea bilatu. Horietako pertsona batzuk jarraian emandako testigantzetan aipatzeak oroitzapen pertsonal gisa ez ezik, omenaldi kolektibo gisa ere balio du katea ez haustea ahalbidetu zutenentzat.

“Eta guk hori utzi genuenean ba beste gaztek jarraitu zuten: Arantza Larrañaga (...), Mari Jose Perez, Arantza Rubio, Iñaki Sors... (...) Eta orduan hor urte batzuk pasa ziren eta ja ikastola joan zen beste indar bat hartzen eta kontzientzia nolabait... edo beldurra kendu zuen jendeak gainetik eta ja hura geldiezina zen (...) Orduan helburu handiak ez genituen. Ezin genituen eduki. Gurea zen hura, adiskidetasun bat lortu, ez zigor bat euskararen inguruan, ez: adiskidetasun bat eta maitasun bat. Hori zen helburua eta orduan eman zuen gure neurrian ba eman behar zuena, eta ondorengo batzuk jarraitu zuten eta gero ja...” (J., Erreterria, 1952)

“Ez naiz gogoratzen zenbat urtez egongo nintzen, baina dexente. [76.urte inguruan Jon Berra eta Paco Ibarguren] liatu ninduten gau eskolako eskolak emateko (...) [Geroago] Arantza Larrañaga, Iñaki, Elena Mendia, bere ahizpa zena Cristina Mendia... Horiek nik liatu nituen. Esaten badizute ‘ez dakit nola sartu nintzen honetan’, ba ni izan nintzen, negatik izan zen” (G., Erretereria, 1954)

“Orduan Ereintzan kezka hori bazegoen [euskara transmititzearena]. Bilera batzuk egin ziren eta lau-bost elkartu ginen... eskolak emateko [algarak] (...).Paco Ibarguren (...) Xabin Irastotza (...), Anjel Elkano (...). Hor ibili ginen dozena erdi bat, Fomento Culturalen (...).Kurtso batean Koldo Mitxelenak hitzaldi bat eman zuen kurtsoa hasteko. Eta lau katu ginen, jende gutxi, baina... [gero handituz joan zen] (...) Fede Mendibil ere zegoen orduantxe” (David Gómara, Lezo, 1956)

“[Gau eskolen munduan hasi zenean erreferenteak zirenak] Jon Berra eta Paco Ibarguren (...) Joxe Manuel Odriozola gau eskolen koordinatzailea izan zen (...) Manu Labaien eta Mariaje Zapiain (...) Iñaki Sors eta bere anaia Jose Mari (...) Gotzon Mendibil (...) David Gomara...” (Iruñe Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1960)

“Jon Berra zen pixkat referentea eta bera nik uste arduratu zela (...) jendea bilatzeaz. Eta berarekin (...) Garai hartan zen ‘prest zaude?’ ‘Bai’. Ze han ez zegoen ez dirurik eta ez ezer. Hau zen dena bihotza” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

“Paco Ibarguren eta huek; Jon Berra ere bai; Arruabarrena; Fede Mendibil (...); nere anai zaharra ere bai, Jose Maria, han ibili zen; gero beste bat Manu Labaien; Maria Jesus Zapiain...(…). Horiek ziren pixka bat erreferenteak bezala. Beraiek egin zuten bidea pixka bat ireki... Beno, pixka bat ez, dexente. Gero besteak ba bide hori joan ginen jorratzen eta handitzen, ahal baldin bazen” (Iñaki Sors Bagües, 1955).

“Guretzat Kepak [Oliveri] eta haiek ematen zizkiguten eskolak; gu nerabeak ginela, oso inportanteak izan ziren hizkuntzari balioa emateko (...) Gero, pentsatzen hasten zara eta (...) [nahiz eta eskolan eta hainbat lagunekin erderaz egin] beste erreferentzia batzuk genituen. Eta hori inportantea da” (Elixabete Perez Gaztelu, Erretereria, 1961)

“Euskaltegiko jendea, euskaltegiko irakasleak. Gero bertso-eskolakoa ere, bertso-eskola inportantea izan zen (...). Ereintza ere... Eta gero ikastolako jendea (...). Euskal munduko erreferentziak nik pixkat hor kokatzen ditut (...). Musika mundutikan, udal txistulariak, musika eskolako trikitilariak (...) Lau Haizetara...” (Jone Arruti Peña, Orio, 1962)

“AEK. AEK izan da neretzako erreferentzia nagusi bat (...). Hizkuntza gaikuntza formala hor hartu nuen nik, eskoletan. Udal Euskaltegia zen garai hartan. Gero ja udaletik atera zen, krisialdi bat egon zen... [Baina] AEK zen erreferentzia potente bat” (Mikel Azkarate, Erretereria, 1966)

“[AEKn] Xabier Iguaran edo Xabier Todopelos eta “Matu” (Mikel Urkia)” (I., Orereta, 1970)

“[Erreferenteen artean] Alazne Korta (...). Lau Haizetara etortzen zen Inaxito Albisu. Bere etxean zeukan akademia, eta gero hasi zen gau eskolan edo euskaltegien mugimenduan (...)AEKn, Matu eta Xabi ‘Todopelos’ (...)” (Imanol Miner, 1974)

Euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuarekin lotura zuzenena duten figurez gain, elkarriketatutako pertsona batzuek beren eremu hurbilenetik datozen beste batzuk ere badituzte.

“Udalekuetako begiraleak 15-16 urte inguru zituzten eta joaten ziren umeentzat eredu bat ziren: ikasketa aldetik, dibertsio aldetik...” (O., 1940)

“[Tolosatik etorritako emakume bat] katekista izan zen (...). Elizan elkartzen ginen, baina euskara hark mantentzen zuen gure artean (...) Eta gero, ba ikusirik ze giro zegoen kalean ere, dena erderaz, berak eramaten gintuen bere etxera (...) eta han arratsalde pasa egoten ginen. Berak prestatzen zigun jolasteko gauzak, josteko lanak, berak ekartzen zizkigun oihalak, hariak... dena (...). Gero, abestiak, ‘ama, begirazazu’, patsak eta pikuak, etxerakoan, despeditzerakoan abestiekin (...)” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Lehenik eta behin euskaldun kontzientzia izatea: ni euskalduna naiz eta nik euskara nahi dut. Hori nik uste etxetik jaso dudala, bereziki amarengandik eta hortikan piztu zitzaidan ba gogoa edo euskara ikasteko. Eta gero lagunak (...) bikotearekin (...) harremana euskaraz eraikitzea (...) Eta gero lankide batzuk (...), oso jende baikorra, ausarta (...)” (Elena Mendia, Erreterria, 1954)

“Eta gogoratzen naiz, 11 urtekin joaten nintzen Hibaikarekin, Hibaikako gazteak, nere ahizpa eta bere kuadrillako eta beste hainbat (...) zeuzkaten 16-18 urte, haiek joan ziren begirale bezala” (Irene Larrañaga Etxeberria, Erreterria, 1960)

“Familia, lehenengo ingurunea. Hori geroago analizatzen duzu (...) Erreferentzia bat aitarena izan daiteke (...), berak euskararen bide hori urratzeko gogoa irekitzen lagundu zidan gerora (...) [Geroago] 14-15 urtekin lagunartekoa ez zen jende bat ezagutu nuen: beste gazte batzuk, euskaldunak zirenak. Eta orduan niretzako zen: ‘Arraioa! Zuk daukazu zerbait nik ez dudana eta nik ere eduki nahi dudana: euskara. Ez zuri kentzeko, baizik eta elkarrekin bizitzeko’ (...). Giza multzo kolektibo hori eta gero beste pertsona jakin batzuk (...) erreferente indartsua izan ziren nire gaztaroan (...) Kointziditu zuen horiek guztiak Orereta ikastolako ikasleak zirela” (Mikel Azkarate, Erreterria, 1966)

“Oreretako euskalgintzan oso garrantzitsua izan da EHE eta bereziki Iñaki Otegi. Iñakik bi belaunaldien arteko nolabaiteko bisagra izan da (...)Gazteen artean euskalzaletasunaren inguruan figura garrantzitsua izan zen Ibon Zabala Lizarazu” (Imanol Miner, 1974)

11.

Euskararen transmisioa eta generoa Erreterian

11.

Euskararen transmisioa eta generoa Errenerian

11.1 Etxean eta etxetik kanpo

Gorago esan bezala, hizkuntzaren transmisioan generoen arteko rol banaketa garrantzitsua izan da. Ikerketa honetan parte hartu dutenen egoerak aztertuz, kasu gehienetan euskara gurasoengandik jaso zuten, biek hitz egiten baitzuten, nahiz eta zenbait kasutan ez jario berarekin. Baina lekukotasunen artean badira emakumezkoen papera agerian uzten duten pasarteak, nazionalismo tradizionalak emakumeei egokitutako rolekin zerikusi handia dutenak:

“Emakume (...) gehienak etxean zeuden. Gizonak ziren kanpoan lanera joaten zirenak (...). Aita euskalduna baldin bazen, edo ama euskalduna, desberdina zen (...). Ama baldin bazen euskara segitzen zuena, hark denbora gehiago pasatzen zuen haurrarekin. Orduan haur hura kontsideratzen zen gainera D eredukoa. [Baina] Aita euskalduna zena, zalantzakoa (...). Ez zen araua, baina (...) hala izango zen konfidantza hori [zegoen] (...). Eta etxean ere amak erderaz egiten bazuen, nabaritu egiten zen ere: askoz gehiago hitz egiten zuen aitak baino. Aita euskalduna izanda ere (...), askotan egiten zen: ‘amak egiten du gazteleraz [etxean]? Beno, ba denok gazteleraz’ (...) Ama hizkuntzagatik edo indar gehio zuelako...” (L., Pasai Donibane, 1945)

“Gu ateratzen ginen gabon kantak [egitera], zeren hori ere errekuaperatu egin behar zen. Hor gogoan dut nire amak lan dezente egiten zuen eta, adibidez, ba ni eta nire lagunak taldea ba etxean entsaiatu egiten gintuzten: etxean kantak ikasi eta atera” (J., Erreneria, 1952)

“[Gau ikastolara] Amak bidaliko ninduen, pentsatzen dut (...). Gure ama batez ere abertzalea zen eta bere hizkuntzarekin oso kezkatua eta...” (Elixabete Perez Gaztelu, Erreneria, 1961)

11.2 Etxe-eskolak

Emakumeen eragina euskararen transmisioan etxean hasten zen, baina ez zen bakarrik etxeko esparrura mugatzen. Izan ere, seme-alabek etxetik kanpo ere euskara ikastea eta praktikatzea errazteaz gain, ikusi bezala, hezkuntza-esparrua bera oso feminizatuta zegoen. Eta esan genezake are gehiago zegoela euskararen irakaskuntzan, hain zuzen ere, etxe-eskoletan.

Hona hemen Kontxi Beitiak Pasai Antxon zeukan etxe-eskolari buruzko oroimenak:

“[Gogoan dut] txikitan ikasi nuela zerbait Kontxita Beitiarekin, Xabierto gora, Xabierto behera (...)” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

“[Gurasoek] andereño batek bere etxean sortutako ikastola txiki batetara eraman ninduten eta hor egon nintzen ba lau... bost urte izatetikan bederatzi urte izan arte(...). Andereñoak bere etxean hartzen gintuen (...). Kontxi Beitia (...). Izango ginen zazpi edo zortzi neska-mutiko... garai hartan ez zen ohikoa neska-mutikoak elkarrekin aritzea (...). Oso txikia nintzen, baina gogoan dut espazio fisikoa (...) Holako gela bat... Gogoratzen dut lurlean eseritzen ginela, borobilean (...). Gogoan dut ere zenbakikuntza-eta nola egiten genuen txotxa batzuekin (...). Erabiltzen genuen ‘Xabierto’ liburua (...) Eta gero ba ospakizun batzuk ere gogoratzen ditut. Orduan, hasiera batean, ba ikastolako ospakizunak ba askotan erlijio ospakizunekin lotuak zeuden oso, garai hartan. Adibidez gogoratzen naiz komunioa egiten genuela haur guztiek orduan (...), eta guk, ikastolakoak, egin genuen elkarrekin. Hori ohitura zen, ez bakarrik Kontxi Beitiarekin, ba Donostian ere Elbira Zipitriaren eskolan ere horrela egiten zuten (...). [Pisuauren aurrean] Pasaiako plaza nagusia zegoen, Alameda (...). Han jolasten... hantxe bertan egiten genituen jolaseko oroimenak ere ditut” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

Etxe-eskola hauek gerra aurretik lehen euskal irakaskuntzaren arloan izandako aurrerapenei jarraipena eman zieten. Baliabide gutxirekin, Altunak eta Fernándezek aipatutako “emakumeen hitza” eta eskura zituzten osagarriak baliatuz, lehenenego hezkuntza euskaraz egitearekin batera hizkuntzarekiko atxikimendua lortzen zen. Hezkuntza sistema formalean murgiltzeko garaia heltzen zenean, beste motatako errealtatea topatuko zuten, etxe-eskoletako oroimenekin zerikusirik ez zutenak.

“Bederatzi urterekin ez zeukan jarraipenik horrek [etxe-eskolak](...). Eskolarizazioa ia derrigorrezkoa hasi beharra zegoen eta legeztatutako zera batean, alternatiba batean, eta orduan ba bakoitza eskola batera joan ginen (...). [Marianistasera pasatzea] kontraste handia izan zen neretzako (...). Ni andereño batekin ohituratuta nengoen; andereño batekin, trato goxo batean, etabar, eta han maisuak ziren (...), denak mutilak ginen (...), maisu asko marianistak ziren, erlijiosoak (...). Esan nahi dut aldaketa izugarria zela neretzako (...): sei laguneko gelatxo batean andereño batekin goxo-goxo egondako lau urte pasatu ondoren, zen sartzea eskola handi batean,

instituzio handi batean, formalki ere instituzio-pisua [zuen], formak-ohiturak (...), barruko antolamenduko legeak-eta oso desberdinak (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

11.3 Etxe-eskoletatik ikastoletara

Gorago ikusi denez, irakasle lanetan aritutako hainbat emakumeren ibilbidea jarraituz etxe-eskolen eta ikastolen arteko lotura aztertu daiteke. Dagokigun arloari jarraituz, testigantzen arabera, Pasai Antxon Nekane Auzmendi izan zen etxe-eskolen eta 60ko hamarkadan zehar sortzen hasi ziren ikastolen arteko nolabaiteko zubia.

“[Lehenengo] Kontxi Beitia [zegoen]. Eta Kontxi Beitiarekin batera hasi zen Nekane Auzmendi. Eta Nekane Auzmendi gero izan zen ba nolabait [ikastoletako] bilerak eta egiten zirenean (...) beste herrietan, ba bera joaten zen” (L., Pasai Donibane, 1945)

“[Ahizpa gazteena ez zen Kontxi Beitiarekin egon, Nekane Auzmendirekin baizik]. Gero izan zen Nekane [Auzmendi], Antxon. Eta Nekane ere bere etxean hasi zen ematen (...); Nekane ere da aintzindari pixkat ikastolan...” (Elena Mendia, Erreterria, 1954)

11.4 Gau eskolak eta generoa

Elkarrizketatutako pertsonak ez dute orokorrean generoari bereziki lotutako pasarterik gogoratzen. Hala ere, AEKren zein HABEren datuek emakumezkoen presentzia, bai irakasle baita ikasle moduan ere, garrantzitsua izan zela adierazten dute, lehenago ikusi dugun bezala.

Horretaz gain, giro soziopolitikoak eraginda eta nolabait ere mintzapraktika sustatzeko hizpide hartuta, ikasgela generoari lotutako hainbat hausnarketa egiteko toki egokia izan zitekeen.

“Orduan genero arazorik [ez zen hainbeste planteatzeko]... Bazeuden emakume batzuk... Iparraldetik etorri zen mugimendu hori, Frantzia feminismoak bazuelako nolabaiteko oihartzuna (...), eta gero hemen sortu ziren taldeak; emakume batzuk hasi ziren, ETAren barruan ere hasi ziren (...)” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Mugitu naizen mundu horretan oso pareko sentitu naiz, ez naiz sentitu emakume izateagatik gutxietsita... Eske praktikan, herrian, eraketa arduetan, emakumezkoak ginen (...). Nik AEKn, ohartugabe, inkonzienteki jaso ditudan balore pila bat (...), emakume-gizonen arteko parekotasuna... Ni parekoa sentitzen nintzen (...): inor ez zela inorena ez maitasunean eta ez generoan inor baino... Horrelako eztabaidak bagenituen. Gero gure heziketatik jasotakoak zeuden, baina... (...) harreman sexual librearena, parekotasunarena, beste bizitzeko modu bat (...). Gu, egia esan, Erreterrian eraketa lanetan ari ginen gehienak emakumeak ginen. Baina egia da Gipuzkoako AEKko buruak gizona zirela (...). Baina ez nintzen kontziente horretaz, ni bileretan parekoa [sentitzen nintzen] (...) Baina egia da, Gipuzkoako arduraduna, gizona;



Bizkaiko arduraduna, gizona; Iparraldeko arduraduna, gizona; Nafarroako arduraduna, gizona; Arabako arduraduna gizona... Baina gure herrian eraketa lanetan ari zirenak emakumeak ziren” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)

“Anaia bikia eta biok ikaslerik gazteenak ginen. Orduan apal, apal aritzen ginen ikasgelan... Baina giroa oso ederra zen. Azken finean, ikasketa prozesuarekin batera beste gauza asko gertatzen dira: jende berria ezagutzen duzu, helduengandik gauzak ikasten dituzu [bikote harremanak, bikote banaketak...] (...). Eta gero hor gatazka politikoak bazuen presentzia han...” (Mikel Azkarate, Errenteria, 1966)

Baina gizonezko eta emakumezkoen arteko kopuruak orekatuta egotekotan ere, behintzat urte batzuetan, badira saihestezinak diren generoari lotutako beste osagarriak.

Irakasleei dagokienez, gau eskolen munduan irakasle gisa aritzen ziren emakume gazte haien testuinguru soziopolitikoak ezker abertzaleari nazionalismo tradizionalari baino lotuago zeuden andereñoen bigarren belaunaldi horretara hurbiltzen zituen. Jarrera horrek inplizituki zekarren, teoriarik behintzat, gizonak eta emakumeek genero-harremanak barne hartzen zituzten arau eta balio batzuk zalantzan jartzea.

Irakasleriari dagokionez, eta lehenago ikusi den bezala, helduen artean euskalduntze eta alfabetatze klaseetara joateko motibazioetako bat seme-alabak ikastolan eskolatzea zen. Ildo horretan, gizartean nagusi zen sexu-/genero-sistemak berak gau eskoletara gizon baino emakume gehiago joatea bultzatzen zuen.



12.

Haurrentzako ekimenak Erreterian

12.

Haurrentzako ekimenak Erreterrian

12.1 Haurren euskal jaiak

Gau eskolak eta ikastolen mugimendua euskararen berreskuratze prozesuaren oinarri nagusiak izan baziren ere, ikerlan honi dagokion garaian hurrei zuzendutako beste jarduerak gauzatu ziren. Modu batean ala bestean euskara irakasteko zein euskararekiko atxikimendua transmititzeko bide horietan emakumezkoen papera ezinbestekoa izan zen, modu berezian hurrei zuzendutako ekimenetan. Hala gertatzen zen, adibidez, euskal jaiakin:

“Haurren euskal jaia antolatzeke, ba haurrak autobusez etortzen zirenean bederen saiatzen ginen autobusaren gastua ba etortzen ziren taldeei ordaintzea, zeren haiek ere zentimorik gabe ibiltzen ziren. Eta orduan etortzen zirenean ba ematen genien hamaiketako bat (...). Lehendabizi, udaletxean (...). Nahiko erdaldun ziren udaletxeak eta orduan lehendabizi baimena eskatu eta gero dirua eskatzen genuen, baina (...) gehiegi ez ziguten ematen. [Taldeetan antolatu eta herriko denda guztietatik pasatzen ziren] (...) eta orduan ba batek ematen zizun txorizo bat, besteak (...) patatak (...) [euskal jaiko kanpoko taldeentzako bokatiloak egiteko]. Kopak ere ateratzen genituen dendaz denda eskatuta (...) eta beste dendatan ba dirua ematen ziguten. Eta guk diru dezente ateratzen genuen hortikan (...). Egun hori polita izaten zen eta inplikatzeko ginen han jende asko (...). Giroa jartzen zen herrian” (J., Erreterria, 1952)

“Guk [Hibaikak] egiten genuen haurrena, egun osoan, eta Ereintzak egiten zuen helduena (...). Ekartzen genituen Nafarroatik, Bizkaiatik, Arabatik... Azkenean zen haur-kontzentrazioa. Eta gero oso polita zen, zeren klaro, pila bat etortzen ziren hasieran, gainera banatzen genituen auzoetan eta horrela. Hortik lortzen genuen ere hamaiketako emateko ba hemengo komertzioek laguntza ematen ziguten, janaria, eta gero eguerdian egiten zen zozketa (...). Lehenengo elkartek, aber, elkartek zenbat haurrentzako prestatuko zuen [hemen 50, hemen 80, hemen 10] eta gero bazeuden familia pila bat eramaten zituztenak etxera bazkaltzera egun horretan

kanpoko haur horiek (...). Sortzen zen mugimendua, pentsatu gabe eta marketing gabe (...), inprobisazio horrekin, baina beti dinamika sortuta, ‘segi, segi, segi, segi’... Gaur egun hori imposible izango zen” (Iñaki Sors Bagües, 1955)

12.2 Haurren alfabetatze ez-formala

12.2.1 Aldizkariak

Haurren alfabetatze ez-formalaren adibide gisa, *Kili-Kili* edo *Umeen Deia* bezalako aldizkariak ditugu:

“Eta ni hasi nintzen *Kili-Kili* kuadernoarekin. Betetzen nuen etxean (...). Hori izkutuan bidaltzen zen korreoaz (...) eta zuzendu eta itzultzen zizkizuten. Hori alfabetatzeko eta ikasteko modu bat zen (...)” (Elixabete Perez Gaztelu, Erretereria, 1961)

12.2.2 Dotrina

Euskararen aldeko emakume askoren lanak eremu informalean kokatuta egoteagatik aintzatespen edo ikusgarritasun eskasa jaso izan duen arren, ez dago zalantzarik emakumeek euskararen transmisioan izan duten presentzia garrantzitsuaz.

Hurrengo testigantzak dotrinaren bidezko alfabetatze ez formalaren adibideak dira. Haien bidez, erlijioak euskal kulturaren osagarri gisa zeukan garrantzia adierazten da, baita dotrina euskaraz egin ezinak sortarazitako sentimenduak ere, eta klandestinitatean jardun ahal izateko laguntza-sareen funtzionamendua:

“[Apaizek] Ez zuten uzten ezer egiten (...). Jaunartzea, erderaz. Eta dena hola (...). Dotrina erderaz. Erderaz, dena erderaz. Baserrian bizi ginen eta dena erderaz (...). Ni gogoratzen naiz amona, ni hasi nintzenean erderaz egiten, ‘Aita gurea’ esaten nuela erderaz, eta ‘Oi, Jaungoikua!! Oi, Jaungoikua!!’ (...) Ze urteak. Ze urteak” (Juani Lujanbio, Erretereria, 1936)

“Maistra Doña Rosa zen (...). Asteaz behin edo, katekesia genuenean, Doña Rosak ilaran jartzen gintuen eta ni eta beste 4-5eri esaten zigun: ‘Zoaz korrika!’. Aldapa jaitsi eta, besteak eskumatik joaten ziren bitartean, gu ezkerreko bidea hartzen genuen (...). [Haietako aita baten negozioan sartu eta, pixkat hitz egin ondoren, heldu horrek] bidaltzen gintuen Don Markosengana [JOCeke lokalean, bertan katekesia euskaraz ematen zien-eta]. Don Markosek goxo-goxo hartzen gintuen (...). [Aita horrek egun batean esaten zien] ‘gaur zoazte hemendik’ eta beste egun batean ‘gaur zoazte hortik’ (...) [baina normaltasunez] joku bat balitz bezala. [Urteak pasata konturatu zen maistra, aita hori eta Don Markos ados jarrita zeudela] (J., Erretereria, 1952)

“Adibidez, gogoratzen naiz komunioa egiten genuela haur guztiek orduan (...) eta guk, ikastolakoak, egin genuen elkarrekin. Hori ohitura zen, ez bakarrik Kontxi Beitiarekin,

ba Donostian ere, Elbira Zipitriaren eskolan ere, horrela egiten zuten (...)” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

Aurrerago, pauso garrantzitsua izan zen Erreterriako auzoetan euskarazko katekesia lortzea, auzoko euskaldunen komunitatearen egituraketan eta euskara eguneroko bizitzan txertatzearen bidean. Zentzu horretan, Xebas Gelbentzu bezalako emakumeek egindako lana aipatu behar da, besteak beste, auzoan dotrina euskaraz bultzatu zutelako (Otegi, 2018:124).

12.2.3 Eskolaz kanpoko ekintzak

Irakaskuntza ez-formalari dagokionez, hainbat egilek euskaldunak ziren maisu-maistren jarrera pertsonala aipatzen dituzte, zeintzuek umeak erdaraz alfabetatu arren euskararen erabilera sustatzen zuten, edo behintzat ez zuten saihesten, besteak beste, euskara baliatuz edukiak ulergarriagoak bihurtzeko (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994b: 93; López-Goñi, 2005: 382). Hurrengo testigantza hauetan horrelako adibiderik egon ez arren, ikastetxe mota ezberdinetakoa irakasleek, eskola orduetatik kanpo (eta zenbait kasutan behintzat, boluntario moduan), umeei edota nerabeei euskarazko eskolak ematen zizkietela adierazten dute:

“[Erderaz eskolarizatuta, baina bazegoen Fisika eta Kimika irakasle bat, Bandrés abizenekoa, eskolak eta gero euskarazko klaseak ematen zituen] eta gelditzen ginen bostpasei lagun, hola, gelako... Hemezortzi izango ginen (...). Berak borondatez ematen zituen ordu batzuk (...). Eta orduan jada nere buruan hasi nintzen ikusten bazegoela beste mundu bat, beste errealitate bat euskararen inguruan” (Josu Berra, Donostia, 1956)

“[Fraileetan] erderaz egiten zen (...), [baina zenbait urtez egon zen] emakume bat (...) euskalduna zela eta (...) orduz kanpo euskarazko klaseak [ematen zituen] (...); eta hor 8-10 haur egoten ginen (...). Ez naiz gogoratzen pagatzen genuen ala ez (...), baina bost t’erdietan bukatzen bazen klasea [hara], bidaltzen gintuzten 8-12 haur eta eskolako klasea egiten genuen (...). Xenpelarren musika bat eta gogoratzen naiz nola bi ikasleek ikasi behar egin zuten bertsoa, eta (...) batzoki azpiko zinema horretan ni gogoratzen naiz eskolako emanaldi bat, eta (...) artean zegoen euskarazko bertso batzuk kantatzea” (Kike Eizmendi, Erreterria, 1959)

“[75ean, institutuan] joaten ginen boluntario euskara lantzeko. Eta bi irakasleek bere burua eskaini zuten kobratu gabe... Zortzietarako joaten ginen eta eskolak bederatzieta hasten ziren (...). Patri Urkizu eta Mikel Arregi. Eta gu talde bat joaten ginen [ikastera]. Esan nahi dut ez zegoela euskerarik, hori beraiek ematen ziguten...” (Elixabete Perez Gaztelu, Erreterria, 1961)

Ikastetxeetatik kanpo, 80ko hamarkadaren erdialdean, auzo elkarteek hainbat ekimen burutu zituzten haurrek euskararako sarbidea izan zezaten. Ikastetxe publikoetan D eredua ezarri arte, gabezia garrantzitsu bat bete zuten (Ertzibengoa, 2018: 148-149).

“Euskararen alde asko aritu zen gure ama [Arantxa Erriondo] herrian (...). Klaro, D eredurik ez zegoen garai hartan... Eta eskaera handia zegoen, euskalduntzeko-alfabetatzeko ume horiek, [euskeraz] ez zekitenak. Orduan auzo-elkarteetan hasi ziren antolatzen haur guzti haientzat euskarazko eskolak, eta hor nere ama aritu zen. Beste batzuekin batera. Herriko Eskola Publikoetan D eredua txertatu zedin sutsu aritu zen gure ama” (Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960)


12.3 Haurren gau- ikastolak

Umeen gau ikastolen fenomeno honi buruz aurkitutako informazio ia guztia testigantzetan oinarritzen da. Honako hauek batik bat elizaren eta elkartearen laguntzarekin abian jarritako “gau-ikastola” horien funtzionamenduari buruzko hainbat xehetasun ematen dituzte eta, besteak beste, adinaren arabera erabiltzen ziren dinamikak zehazten dituzte.

“Gero, gau eskoletan pasa ginen haur eta gazteei ematera ere bai (...). Han egiten genituen jolasak, antzerkiak... Ja jende gehiago euskaldun girokoak, hobetzeko... Gauza horiekin oso ondo moldatzen ginen. Eta gero, jende hori ere bai ziren gehienbat ere harrapatzen genituenak nolabait udalekuetatikan (...), pixka bat horren jarraipena. Gauza bat bestearekin, ezta? Urtean zehar ez egiteko etenaldi bat. Gero, hor bazegoen elkarte ere bai, nahi bazuten elkartean egon (...), aukera bazuten joateko eta egoteko; bazkideek eskubide gehiago zeuzkaten, noski, baina besteak han egonaldia egiteko, lasai (...). Helduekin hasi nintzen zerbait egiten, baina ni disfrutatu eta gehiena zen gazteekin” (Iñaki Sors Bagües, 1955).

“Eta horrekin batera [Kili Kili kuadernoak], hasi ginen gau ikastolara joaten (...). Ni oso umea nintzen, igual 8 urte edo [nituen]. Euskera bagenekien (...), etxeko euskera hala. Baina gehiago zen ba jolasa, denbora pasa, kantatzen ikasi eta pixkat giro horretan sartu (...). Bi lekutan gutxienez: monjetan eta kaputxinoetako beste [lokal batean]. Lokalak uzten zizkiguten. Elizak uzten zituen, auzo elkarte modukoak, konstruktore batekoak ere... Jendeak uzten zituen lokalak gau eskolarako. Beno, orduan ‘gau ikastolak’ esaten genien. Hasieran. Gero ‘gau eskolak’ [deitu ziren] (...). Eta gero ja alfabetatzea etorri zen, eta euskal kultura... 72, 73an, hortxe. Eta orduan hasi ginen ba Keparekin neska-mutilen kuadrila bat pixkat euskal kultura, geografia, antzerkia, kantua... giro horretan (...). Eta antzerkia egiten genuen Keparekin, pastoralak bi egin genituen, Galtzagorriena eta Patxi Errementariarena (...). Hamabi urterekin edo (...). Astero joaten ginen” (Elixabete Perez Gaztelu, Erreterria, 1961)

1980ko hamarkadan zehar, umeen euskalduntzeko ekimenek bultzakada bat izan zuten. 1982an sortutako Euskara Batzordeak hauspotuta, 1984an auzo elkarte guztietan hasi ziren haurrentzako euskara eskolak eskaintzen. Eskola horiek lau edo bost urtez antolatu ziren, ikastetxe publikoetan D eredua ezarri zen arte, eta urtero haietatik 400-500 haur pasatzen ziren. Horrelako eskaerari erantzuna eman ahal izateko, ezinbestekoa izan zen hainbat laguntzailearen lana, besteak beste, Arantxa Erriondorena, bera izan batzen ekimen hau abian jartzea bultzatu zuena (Ertzibengoa, 2018: 143-149).



Kepa Oliverik sortutako Pastoralaren prestakuntzaren inguruko irudiak.

12.3.1 Lokalak, baliabideak, adinak, irakasleen ikuspuntua

Haurrei egokitutako eskolei buruzko testigantzetan, helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua gogorarazten dizkiguten hainbat ezaugarri topa ditzakegu: zegoen eskaera handia, euskal zein erdal jatorria zuten familietako seme-alaben topagunea izatea, elizak eta elkarteek emandako laguntza logistikoa, eskura zituzten baliabide gutxiei etekin handiena ateratzeko jarrera, bertan irakasle moduan aritu zirenenentzat ere nolabait euren burua alfabetatzea eskatu zien ekimena izan zela, proiektuarekiko konpromisoa, ilusioa, baita ikasle moduan hasitako hainbatek geroago “irakasle” edo behintzat “laguntzaile” moduan jarraitzea...

“Bi irakasle ginen eta joe, zeuden 60 edo, adin diferenteetakoak, eta orduan... ba hor saiatu pixkat (...). Lokal bakarra zen, eliza, Pontika (...). Lokal horretan haur guztiak zeuden, 9, 11, 12 urtetakoak, eta beno, ba... jokoak, jolastu, abestu, abestiekin... (...) Kakanahaste zen, baina ez zegoen aukerarik. Ezin genuen banatu lehenengo jende nahiko ez ginelako (...). Azken finean [zen] dinamika bat sortzea, ez? ikastolan ez zeudenei ba nolabait aukera eman, euskaldunak zirenak baina agian monjetan [ikasten zuten] (...)” (Kike Eizmendi, Errenteria, 1959)

“Nik izango nituen 12-13 urte, [hasi nintzenean] txikiagoei erakusten (...). Umeeekin jolastu eta pixkat euskera erakusteko. Hori izan zen nere hasiera” (Elixabete Perez Gaztelu, Errenteria, 1961)

“Nik gogoan dut gure gau eskolak ba hainbat eta ume gehiago etortzeko (...). Orduan Gabierrotako lokala uzten ziguten (...). Pontika egin zenean, nik gogoan dut nik Pontikako elizan ematen nituela euskarazko klaseak (...). Apaiza etortzen zen eta ‘funeral bat dagoela!’. Eta orduan ba klaro, kendu behar genituen ba ‘hau mahaia da’, ‘hau aulkia’... kartel guztiak jaso behar ziren eta atera behar ginen (...). Euskaldunak zirenak [zetozten] eta haien erritmoan ba beste batzuk ere etortzen ziren [euskaldunak ez zirenak]” (J., Erreterria, 1952)

“Hibaikan hartu genuen umeen taldea. Nik gogoan dut lotura zela, baina gustora ematen genuen, ze horrek eskaintzen zigun guri ere gure burua alfabetatzea. Ze gu alfabetatu gabekoak ginen, eskolak eta ikasketa guztiak erderaz [genituen], bakarrik etxean ikasitakoarekin. Orduan nahiz eta umeen maila txikia izan, ba konpromiso bat eskatzen zizun ba klaseak prestatzea (...) eta gure burua ja alfabetatzen joatea” (J., Erreterria, 1952)

“Lana eskatzen zuen baina bestalde zuk ikusten zenuen zure burua ere geroz eta jantziagoa. Eta orduan dena ba pakete berdinean zihoan. Eta estimulu bat zen” (J., Erreterria, 1952)

“[Pentsa] Nik santu bat erabiltzen nuen ba han kartelak jartzeko ‘hau mahia’ eta ‘hau aulkia da’ (...) Kaputxinoseko elizan ere ikastolak erabiltzen zituen lokal haiek, nahiko [egoera] prekarioan ere ikastolak [ibaikak eskolak eman zituen] (...). Baina klaro, ikastolak ere material gutxi zuen eta badaezpada ere gorde egiten zen, ez? Orduan... asmatu behar. Eta joko asko, umeek euren artean hitz egiteko (...)” (J., Erreterria, 1952)

“Gure garaian hemengo Geografia ez zen estudiatzen (...). Orduan, Euskal Herriko mapa bat hartuaz, herriak, hiriburuak, ibaiak, haranak... Batez ere hori zen (...). Kantuak...” (Kepa Oliveri, Erreterria, 1947)

12.4 Haurren udalekuak

Ikasturtean zehar euskararen alde egindako lana kaleko giroaren erdaltasunak galarazi ez zezan, udako opor luzeetan zehar, udalekuak sortu ziren. Aurreko testigantzetan gertatzen zen bezala, helduen euskalduntze-alfabetatze esperientziaren eta orokorrean euskararen aldeko herri-mugimenduaren ezaugarri nagusienetariko bat adierazgarria da: auzolanean oinarritutako antolakuntza.

“Nik, gau eskolako arlo honen osagarri bezala, haurren uda-kolonien antolakuntza gehituko nioke. Hiru edo lau urtez antolatu genituen Hibaika eta Ereintza artean. Han joku, txango, kantak, eta abarrez gain, euskal kulturaren arlo esberdinak ere lantzen genituen” (Kepa Oliveri, Erreterria, 1947)


“Udalekuak euskaraz ziren, eta nere lagun askok ez zekiten ezta hori esistitzen zenik, euskeraz zeozer edo aktibitatearen bat”(Irene Larrañaga Etxeberría, Erreterria, 1960)”

[Geroago ikusi zuten uda luzeegia zela] umeek erdera hutsean ibiltzeko eta abar, eta orduan udalekuak antolatu genituen (...). Elizaren babesaren behar izaten genuen udalekuak egiteko. Eta hamabost eguneko udalekuak egitera iritsi izan gara (...). Jende asko inplikatzeko zen antolaketa (...). Inaxio Mari Oliverik lortzen zuen farmaziako botikina... (...). Klaro, eske guk ez genuen dirurik eta jendeari ezin zitzaion ezta ere eskatu (...). Kamioia, ba Sebe Iglesias (...); mahaiak eta gauzak, Felix Oiarbide kontratista... Gero, ja Artadi txikia gelditu zitzaigula, hasi ginen Riezura joaten (...). Hango etxearen alokairua ordaintzeko eta kamioia ez dakit zer, ba Oiarbide Kontratista. Gero neska gazteek ere sukaldian gehiegi ez genekien, ba Manu [Labaien] sukaldari, Jose Mari Sors [eta beste batzuk], begirale; guraso batzuek, Portutarrak, taberna zuten, eta etortzen ziren, eta igual egun batean etortzen ziren bi famili eta laguntzen ziguten ba bazkaria egiten... Orduan handikan, hemendikan eta hemendikan eta izugarritzko kanpaldia antolatzen zen (...). Ziren oso udaleku inplikatuak. Zeren bestela... beti beldur hori, ez? Umeak aspertzen baldin baziren (...), eta egia da ba [joan zirenek] oroimen ona dutela, oso ondo pasa zutela (...). Lan egiten genuen ja eta hartzen genituen gure oporrak (...) hara joateko begirale bezala” (J., Errenteria, 1952)

“Umeak ez ziren ikastolakoak. Propioa zen herri osoarentzat. Hasieratik, gainera (...). Garai hartan zegoen problema bat, ezin zela camping-ik egin (...). El Frente de Juventudesez agintzen zuen rolo horretan, eta, orduan, horretarako elizaren babesaren behar zen. Elizarekin ja ez ziren hainbeste atrebitzen. Orduan, ba lehenengo kanpaldia egin genuen Artadin (...), [pentsatu genuen] frogatzen bezala zela (...). Baina klaro, apaiza joatea komeni zen, bestela guardia zibilak...” (O., 1940)

“[Umeen gurasoek euskal zaletasuna] bazuten eta ikusi zutenean zirrikitu bat... Ez, ez, inplikazioa handia zen (...). Janaria uste dut erosiko genuela, baina seguru aski dirua ere han, hemen eta hementxe eskatuta umei oso, oso, oso merke ateratzeko, eta ahalik eta ume gehiago etortzeko” (J., Errenteria, 1952)

“Gero udalekuak [egiten hasi ginen] eta Udalekuetako jende horrekin urtean zehar jarraipen egiteko antolatu horrelako gauzak (...). Hor badauzkat nik Santa Klarako jendea, zentro aldekoa, Iztietakoa... (...). Kuadrillakoak zirenak, edo ezagutzen zirenak, edo ezagutu zen Udalekuetan, eta elkarrekin hasten ziren ibiltzen (...). Txandak Udalekuetan izango ziren 40koak (...) Eta monitoreak, ba betikoa, dozena erditik gora (...). Azkenean [egiten genuen] pluriempleo esaten zaiona” (Iñaki Sors Bagües, 1955).



1971-1972 inguruan Hibaikak Riezun antolatutako udalekuak.

Agertzen direnen artean: Arantza Zapiain, Juan Ignacio Gurrutxaga, Marije Zapiain (begiraleak); M^a Jose Portu, Amaia Larzabal, ... Zapiain, Jokin..., Agurtzane Usatorre (haurrak); Paulino eta Laurita Portu (gurasoak).



13.

**Errenteriako gau eskolen eta ikastolen
mugimenduen arteko paralelismoak**

13.

Errenteriako gau eskolen eta ikastolen mugimenduen arteko paralelismoak

Ikastolen mugimenduaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen arteko elkarreragina ezinbestekoa izan zen espazio linguistiko berriak zabaldu ahalizateko (Dávila, Eizaguirre eta Fernández, 1994b: 98-99). Besteak beste, Fernándezek ikastolak sortzeko motibazioak aztertu zituenean, gau-eskolen oinarrietan zeudenekin harreman estua adierazi zuen: euskararen hondamenaren kontzientzia, erregimenaren ondorioz eskola akulturatze tresna gisa fruituak ematen hasia zela, eta euskara geroz eta gehiago familia esparrura mugatuta zegoela ikustea, euskaltzaletasuna, abertzaletasuna... (Fernández, 1994: 124-128).

Datozen orrialde hauetan ikastolen eta gau eskolen arteko zenbait lotura agertuko dira, Errenterialdean jasotako testigantzetan oinarrituta. Kasu batzuetan paralelismoak oso nabariak izango dira; beste batzuetan, ordea, diskurtsoa eta doinua bera dira gau eskolei buruzko lekukotasunak gogoraraziko dizkigutenak.

13.1 Fenomeno osagarriak

Ikastolen mugimendua eta helduen alfabetatze-euskalduntzearena fenomeno osagarriak izan zirela azpimarratzen du Joxe Manuel Odriozolak: “Euskaltzale andana baten ekimenari zor dio Ikastolaren mugimenduak bere egungo garapena eta egoera. Bide beretik sortu eta hazi zen Euskalduntze-Alfabetatze jarduna” (Odriozola, 1992: 26). Zenbait testigantzen arabera, ikastolako gurasoak gau eskoletara joaten hasi ziren. Bestalde, lekukoaren artean badira gau eskoletan parte hartu ondoren irakaskuntza munduan sartu zirenak baita garai hartako ikastoletako andereño/laguntzaile izanik gau eskoletan ere inplikatu zena.

“Gero [ikastolako gurasoak] beste giro batean sartzen dira: edo euskaltegira joan dira, edo... Hemen ikastolan hasi ginenean gau eskola ere antolatu genuen (...) eta orduan guraso gazteak eta herriko jendea ere hasi zen” (L., Pasai Donibane, 1945)¹⁹

¹⁹ Pasarte honetan aipatutakoa, Emakumezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarrizketan ere jasotako informazioa da.

“(…) Madres con niños pequeños (...) a la tarde temprano, aprovechando la siesta (...) [gau eskoletara joateko]” (Loli Pasaia Antxo, 1950)

Gainera, ikastolak zein helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduak batuaren zabalkunderako ezinbesteko tresnak bihurtu ziren (Odriozola, 1992:28).

13.2 Biak hezkuntza-sistema ez-formalaren parte

Felix Basurkoren esanetan, hezkuntza-sistema formala eta euskara askotan aurrez-aurre agertzen dira: lehenengoa, beti administrazioen eskuetan egon da eta euskara, berriz, gizarte zibilarenetan; lehenengoan gaztelania nagusitzen da, eta ikastolek eta euskaltegiek osatutako hezkuntza-sare ez formaletan, ordea, euskara (Basurko, 1993: 23).

“Francoren sisteman euskarak ez zeukan lekurik, orduan paralelo bat sortu zen (...). Lokalak beti ziren hasieran etxeak, edo bestela elizak [utzitakoak] (...); garai horretan berak ulertzen zuen bazirela behar batzuk eta jartzen zituen lokal horiek. Udaletxearekin ere hitz eginez lortzen ziren lokal horiek. Hori jende askoren lana, gogoa eta kariñoari esker lortu zen: sistema paralelo bat non euskarak bazeukan lekua” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

13.3 Gabeziak

Hezkuntza ofizialetik kanpo egoteak, bestaldetik, gabezia ekonomikoa eta azpiegiturretan zekarren. Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduekin gertatzen zen bezala, hasierako ikastolen azpiegiturak urriak ziren eta askotan erakunderen batek utzitako lokalak baliatu behar izan zituzten.

“Eta urte askotan gu ibili ginen, ikastola ibili zen, ba elizaren lokaletan (...). Ba 70 urtera arte, ba alde batetik bestera(...). Lehenengo urtean, 63-64urtean ikastola hasi zen gizon batek utzitako lokal bat (...), pentsuak saltzeko erabiltzen zen lokal bat (...). Txukundu, egituratu eta han hasi zen ikastola, ba 10-11 ikaslerekin. Gero, hurrengo urtean, ba elizako parroki-etxean (...), eta gero kaputxinoen lokaletan (...). 10 urte eginak zituen, baina hemendik hara [lehenengo lokalak erosi zirenean]” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

Horri gehitu behar zitzaion materialen gabezia eta, orokorrean, baliabide ekonomiko eskaseko erakundeak zirela, kooperatiben moduan funtzionatzen zutenak, bazkideen partaidetzari esker.

“Orduan komuneko papera... Haurrek eramaten zituzten zapiak (...) etxera eraman, garbitu eta jartzen genituen berriro toki berean. Baina bestela ez genuen materialik (...). Eta etorri zen behin inspektorea, begiratu zuen eta, beno, niri izenak-eta eskatu, zerbait galdetu zidan eta (...) ‘¿los niños cómo pueden estar así en el suelo? ¿pero sus padres ya saben cómo están?’; eta ‘sí, sí, claro que saben, pero no se puede de otra

forma’. Eta horrelako komentarioak... Gero beste batean, [gela] neurtu eta ‘pero si esto es tercermundista’ [esan zuen]” (L., Pasai Donibane, 1945)

13.4 Zailtasunak eta haien aurreko erantzuna

Hasiera batean behintzat, administrazioetik kanpo egoteagatik, klandestinitatean funtzionatu zuten. Alfabetatze-kanpainekin antzekoa gertatu zen, Euskaltzaindiak berak babesa eman zien arte (Odriozola, 1992: 27).

Klandestinitateak berez ez bazuen bi mugimenduen hazkuntza eragotzi, egia da beste mota bateko zailtasunak edo egoera zailak sorrarazi zituela. Lehenengoa, zaintzarena izan zen, adibidez, 60ko hamarkadan Gobernu zibilak udaletxeetara zirkularrak bidali zituen ikastetxeak zabaltzeko edota handitzeko edozein motatako ekimenei buruz abisua eman ziezaioten eskatuz (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 33).

Ikuskatzaileen bisiten aurrean estrategia bereziak sortu ziren, berriz ere ikastolatik kanpo zeuden eragileen laguntza eskatzen zutenak.

“Toki batetik bestera nola edo hala abisua pasatzen genuen (...). Eta orduan, edo gurasoren bati deitu nonbaitetik eta gurasoa joan ikastolara eta abisatu: ‘inspektorea hemen dabil’. Eta orduan, behin (...), han zebilela deitu egin zuten, orduan nik haurrak (...) gelan utzi eta beste ate batetik atera nintzen patio batera. Eta patio hartatik kalera (...), eta gero ja [inspektorea] joan zenean, orduan berriro joan nintzen ikastolara” (L., Pasai Donibane, 1945)²⁰

Gau eskoletan gertatzen zen bezala, ikastoletan material gabezia modu ezberdinetan gainditzen zen. Hain zuzen ere, sormenean eta ahozkotasunean oinarritutako garai hartako metodo pedagogiko horiek minoritarioak izan arren, gaur egun prestigio handia dute.

“Orduan txotxak [erabiltzen genituen]. Txotxak, asko. Eta gainera, ez pentsa: segun eta zer letra egin behar genuen, ‘K’ bat adibidez, txotxa bat erdibitu egiten genuen eta bi muturrak jarri. Gero jasotzen genituen (...). Materialik apenas erosten genuen, ez genuen dirurik (...). Gero arotziara joan eta egur puskak [hartu]. Zapatari bat zegoen hemen, eta (...) kartoizko kaxak eramaten genituen (...). Eta gero baita ere makarroiak, artilean sartuta... Batzuetan egiten genuen tintatu makarroiak (...), zopa-estrellak... horiek berdin, zartaginean kolorea eman eta haiekin ba gauzak bete (...). Orriak ere ba justu xamar [genituen]... ‘Orain marrazki bat eta orain aprobeitxatuko dugu ba aber, zer egin duzu?’ (...) [Egutegien irudiak] moztu... Umeak kontatzen zuen gauza bat, besteak beste bat, edo zuk egiten zenuen zerbait... Hori zen elkarrizketa egunero, berbalizatzen zenuen, jasotzen zen arbelean, hori kopiatzen zen... Eta zen gaur egungo konpetentzietan ari gerala? Pues antzeko parecido, baina duela pentsa zenbat urte...

20 Pasarte honetan aipatutakoa, Emakimezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarrizketan ere jasotako informazioa da.

Hori polita zen (...). Metodoek ziurtasuna ematen dizute (...). Gau eskolan materiala igual falta zen... Sortzen genituen, edo fitxak, edo...(“...)” (L., Pasai Donibane, 1945)²¹

13.5 Irakasleen jarrera militantea

Bestetik, finantzaketa arazoek eragin zuzena zeukaten irakasleriaren lan-baldintzetan. Horrela, esan daiteke ikastolen proiektuaren bideragarritasuna (helduen euskalduntze-alfabetatzearen proiektuarekin gertatzen zen bezala) irakasleen sakrifizio ekonomikoari esker lortu zela, “beren soldatak baxuak izateaz gainera ez dute aseguru sozialik izan, ikastolaren egitura ekonomikoa horretarako gai ez bait zen” (Euskaltzaindia, 1979: 167).

“Gure soldatak ateratzeko (...), soldatak hasi zirenean tituludunak ez dakit, hiru mila eta... holako bat izango zen, ez naiz gogoratzen. Baina juxtu haurrak ematen zuten diruarekin, ez zen gehiagorako (...). Beno, ba orduan ez genuen kotizatzen (...). Gero, jubilatzeo garaian eta, ba orduan kontatu zizkiguten kotizatu gabeko urte haietan (...), gero kotizatu duguna, baina haurra izateagatik (...) baja hartu ez bagenuen, ba zer bait...” (L., Pasai Donibane, 1945)

Irakasleriaren jarrera militantearen ezaugarrien artean sakrifizio ekonomikoa egiteko gai izatearekin batera, denbora eta esfortzu inbertsioarena zegoen. Bai helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduari lotutako irakasleriak, baita ikastoletara lotutakoak ere, hizkuntza oso ondo ezagutzen zuen eta borondate handia zeukan. Horren adierazgarri da, adibidez, etengabeko formakuntzari ekitea: gau-eskolen inguruan sortutako ikastaroen bidez edo, ikastolen kasuan, eredu berrien bila lehenengo Elbira Zipitriarenean oinarrituz, baina Rosa Sensat, Célestin Freinet, Montessori, Decroly... ere eredutzat hartu zituzten (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 320).

“Barrenean zomorro handia genuen. Ba, Bergaran adibidez, esaten ziguten: ‘Jo. Zuekin gusto ematen du. Erne zaudete!’ Agian zailtasun gehiago izango genituen ikasteko, baina oso erne eta oso ilusionatuak ikusten gintuzten irakasleek” (L., Pasai Donibane, 1945)

Ikastolen kasuan badago bereziki deigarria den figura bat, ‘laguntzaile’ edota ‘katekista’rena, hau da, titulurik gabe irakasten aritzen zirenak. Ikastolen hezkuntza-ereduak klandestinitatetik atera eta marko legalean kokatzearen modu paraleloan eta lan egonkortasunari begira, haietako gehienek irakasle-ikasketak egin zituzten eta birziklapen ikastaroak ere bai (Recalde eta Nieto, 1991: 226)²².

“Magisterioko tituludunak, baina euskeraz erakutsi zezaketen tituludunak, oso eskasak ziren. Eta orduan asmatu zituzten hemen figura batzuek ‘andereñoen-laguntzaile’

21 Emakumezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarrizketan ere jasotako informazioa da hau. Beraiek erabilitako tresna hauek Montessori, Rosa Sensat eta Elbira Zipitriaren metodologiatik hartuta zeuden, eta gaur egungo hezkuntza eredian daukaten erabilgarritasuna, hedapena zein prestigioa nabarmentzen zuten.

22 Berririo ere, titulu ofizial eskuratu beharri dagokionez helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuarekin beste antzekotasuna somatu daiteke: “Eta gero egondu zen hemen Erretereria rollua HABE eta AEKren arteko iskanbilak eta gainera eskatzen zizuten titulazioa klaseak emateko eta orduan Magisteritza egin nuen (...), behar zelako” (I., 1944)

zirenak, eta hasiera batean titular bat zegoen, eta igual zeuden bere ondoan lau edo bost laguntzaile (...). Gerora laguntzaile horiek magisteritzako tituluak eta atera zituzten. Baina hasiera batean ikastoletan, urte haietako hasierako ikastoletan (...), ba hemen Erreterrian, Donostian, Urretxun, Tolosan... andereño asko egon ziren laguntzaileak zirenak, eta tituladunak, diplomatuak ez zirenak. Ez zeudelako diplomatuak euskeraz irakasteko gai zirenak (...). 65. urtetik ba 75. urte bitartean oso ohikoa zen” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erreterria, 1955)

“[Bakarrik egon zitezkeen tituludunak] Laguntzaileak ‘katekistak’ ginen. Eta gainera orduan elizako bikarioak zuen sinaduraren bat, traturen bat egina katekistak bezala (...). Katekesia ez genuen ematen, ez kanpoan eta ez barruan, baina... (...) Eta orduan ba haren beldurrez inspektorea etorriko ote zen edo (...), ez dakit zenbat denboran ba bere titulua hor zegoela [eskatzen bazuten, aurkezteko]. Ze beste bi [laguntzaile] zeuden titulurik gabeak” (L., Pasai Donibane, 1945)²³

Horrekin lotuta, eta orokorrean zailtasunak gainditzeko jarrerari dagokionez, esan beharra dago gau eskolekin gertatzen zen bezala ikastolen mugimenduan parte hartu zutenentzat proiektuaren alde egindako apustuak euren konpromisoa eta militantzia erakusten zuela. Andereñoen eta ikastolako langileen kasuan, argi dago hizkuntza ondo ezagutzeaz gain, abian zen proiektuari atxikita egon behar zutela (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 321).

13.6 Borroka nazionala, identitatea eta antifrankismoa

Bai ikastolek baita gau eskolek ere, proiektu nazional bera partekatzen zuten, herritarrek beraiek izandako eginkizuna sustatzen zuena. Horrela, “Estatu-administrazio eta instituzio politikoen aurrean gizarte zibilak euskalategi eta ikastoletan zentratu zuen bere erresistentziarako borroka nazionala”. Hau da, historikoki euskal herritartasunaren ardatz nagusiak izan diren euskara eta hezkuntza eraman duten lekuko nabariak euskalategiak eta ikastolak, bakoitzak bere momentuan, izan dira (Basurko, 1993: 23).

Bi mugimendu horiek herri-borrokako beste testuinguru zabalago batean kokatu behar dira. Lehenago alfabetatze-euskalduntze mugimenduaren ezaugarrien artean frankismoari aurre egiteko tresna izatearena bazegoen, gauza bera esan genezake ikastolen mugimenduari dagokionez. Horrela, frankismoaren aurkako erresistentzia mota anitzen artean (politikoak, sozialak, kulturalak...) Euskal Herrian heziketa esparruak berak hartzen duen dimentsio berezia (euskara, euskal kultura eta identitate nazionaletik ikusita) hartu zuen (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015:305).

Ikastola, bereziki, eskola-esparrutik kanpo euskal ehuntze sozialean sartzen da eta bertan frankismoko hezkuntza-ereduaren alternatibak aurkezteko ditu (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 305). Izan ere, “kontrasistema” mota bezala ulertu behar da, Diktaduraren aurkako erresistentziaren historian kokatu behar da (Arrien, 1993: 21).

23 Emakumezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarrizketan ere jaso zenez, badirudi titulu ofizialak hain eskasak zirelarik, jabeak nolabait beste lankideen eskura uztea inspekzio bat gertatzekotan ‘laguntzaile’ batek bera bezala erakutsi zezan.

13.7 Biak herri-mugimenduak

Gau eskolekin ikusi dugun moduan, ikastolen fenomenoa esfortzu kolektibo baten emaitza izan zen, berreskurapenaren alde beste eragile sozialekin batera modu sinergikoan aritu zena. Batez ere ikastolen mugimenduaren lehenengo urteetan eta 70eko hamarkadan zehar ikastolen sustatzaileen, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen arduradunen, kolaboratzaileen eta kulturgileen artean sortutako harremana etengabea izan zen. Hizkuntza zein herrien “berreuskalduntzea” sustatuko zuen marko horretan ikastolak protagonismoa irabazi zuen (López-Goñi, 2005: 372-388).

Helduen gau eskoletan hain garrantzitsua izandako euskal elizaren jarrera euskaltzalea (batzuetan, hierarkiaren aurka) ikastoletan ere bereziki nabaria izan zen (Recalde eta Nieto, 1991: 223; Arrien, 1993: 21). Izan ere, elizaren eginkizunari dagokionez 60ko hamarkadan izandako aldaketa ekonomikoak eta, batez ere, sozialak eta kulturalak eragina izan zuen nazionalismoarengan: doktrina katolikoa erregimenaren legitimazio-iturri sendo eta indartsua izatetik erlijio-identitatea ulertzeko modu alternatiboak eskaintzen hasi zen, baita oposizio politikoa izango zenari arnasa ematen ere (Rincón eta Anzizar, 2014: 41-42).

“Ikastolek titulartasun juridiko ezberdinak erabili zituzten. Gurea, adibidez, kultur elkarte bat izan zen. Kultur elkarte bat oso egituratua eta ondo erregistratua, etabar, baina kultur elkarte bat. Elkarte zibil bat azken finean, ez? Beste batzuk izan ziren merkantilak. Soziedade limitadak edo soziedade anonimoak ere izan ziren batzuek (...), juridiko aldetik. Baina gurea kultur elkarte bat izan zen urte askotan. Eta gero denak bilakatu dira kooperatibak” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“(...) ‘ikastola parrokiak’ [zenek], orduan ‘katekistak’ ginen. Titulurik gabeak ‘katekistak’ [ginen]” (L., Pasai Donibane, 1945)

13.8 Beste eragileen inplikazioa

Ikastolak aurrera atera ahal izateko baliabideak eta indarrak auzolanean aurkitu daitezke, hasteko, andereñoen lanaz gain herri bakoitzeko euskaltzale, guraso, eta batzuetan udalari esker. Gau-eskoletan ere, antzekoa gertatu zen herrietako eragile sozialekin (eliza, mota ezberdinetako elkarteak...) (Odriozola, 1992: 28-29; Arrien, 1993: 17).

Egoera finantzario larriari aurre egiteko tresna berriak sortzeko beharra izan zen ikastolen aldeko festak antolatzen hastearen arrazoiak.

“Gurasoek jartzen zuten dirua. Eta gero asmatzen zituzten tonbolak, errifak... Denbora guztian zebiltzaten aktibidadeak egiten: bazkariak, afariak, guraso artekoak... Horrelakoak asko egiten zituzten, ba dirua lortzeko, ezta?” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

“Lehenengo urte haietan, urtero egiten genuen zerbait plazan edo gurasoekin edo... Egiten genuen diru-bilketa bat, rifak ere bai, eta halakoak (...). Pelma samarra [zen], rifak batez ere... (...)” (L., Pasai Donibane, 1945)²⁴

“[Gurasoentzat] Zen urtero-urtero herriko jaietan jarri feria, egin kroketak (...). Garbiketa zeinek egiten zuen ikastolan? Irakasleak eta gurasoak, salbuespenak salbuespen (...). Eskursioak egiten bagenituen (...), por amor al arte. Zen dedikazioa. Aber, dedikazioa: zuk ikusten zenuen euskarak hori behar zuela eta egiten zenuen...” (Elena Mendia, Errenteria, 1954)

“Aita hasieratik izan da Orereta ikastolako bazkidea, nahiz eta gero [seme-alabak] ez joan” (Irene Larrañaga Etxeberria, Errenteria, 1960)²⁵

Jendearen partaidetzarekin finantziazioa lortzeko helburuarekin sortu ziren Kilometroak (1977), Ibilaldia (1978), Araba Euskaraz eta Nafarroa Oinez (1981) eta Herri Urrats (1984) (Iza, 2010: 91-94). Festa horietan gizartearen sektore guztiek elkarrekin lan egiten dute, eta euskalduntasuna ardatza izateaz gain beste kultura eta hizkuntza batzuei lekua egiten zaie elkar bizitza eta errespetua hauspotuz (Mariñelarena, 2006).

Klandestinitatetik edo sasi-kldestinitatetik antolatutako hizkuntzaren aldeko protestak eta aldarrikapenak, hainbat kasutan modu sinboliko batean egiten badira ere, nazionalismo tradizionalaren zein ezkerreko taldeen frankismoaren aurkako jarrera bat erakusten dute (López-Goñi, 2005: 386-387). Zentzu berean, helduen euskalduntze alfabetatze mugimenduari dagokionez, eta AEK-k bultzatuta, 1980tik aurrera *Korrika*-ren bidez euskal hizkuntza eta identitatearen irudikapen sinbolikoak berritzen dira. Ekintza, parte-hartzea, hizkuntzaren dimentsio sinbolikoa zein aldarrikatzailea, lurraldetasuna... elkartzen dira (Del Valle, 1988: 285).

Bestalde, guraso batzuentzat, seme-alabak ikastolan eramatearen ondorioz, hezkuntza-eredu desberdin batek sor zitzakeen zalantzei edo zailtasunei aurre egin behar izateaz gain, haien ingurune hurbilenean sortzen zituen aurreiritziei ere aurre egin behar izan zieten.

“Y fue una época para mí de mucho sacrificio, mandar a los niños a la ikastola (...). Yo tenía mucho interés de que no estuviesen como yo, ahí a medias. Que aprendiesen bien (...). Mételes sin saber el idioma allí... Y tienes que ir a reuniones, tienes que... Es muy duro” (Loli, Pasaia Antxo, 1950)

“Nik uste guraso horiek izan zirela... increíble. Ze apostu egin zuten eta izugarri maite duzun seme-alaba [hara bidali]. Egin zuten sinismen guztiarekin. Ondo atera zitzaien, baina arrisku handiak pasa zituzten (...). Baten bat kokildu zen bidean, eta eskubide guztiarekin (...). Baina horiei eskerrak daukagu hezkuntza euskaraz (...). Oso, oso

24 Pasarte honetan aipatutakoa, Emakimezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarriketan ere jasotako informazioa da.

25 Pasarte honetan aipatutakoa, Emakimezko-1, Emakumezko-2 eta Emakumezko-3 hizlariekin izandako elkarriketan ere jasotako informazioa da.

potentea da. Bai. Bai, nik miresten ditut [guraso horiek]” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

“Había muchos mitos (...), era cosa política [no tanto por la calidad de la enseñanza]” (Loli, Pasaia Antxo, 1950)

“[Nere gurasoek] Apustua egin zuten. Eta entzun behar izan zituzten [familian]” (R., Orereta, 1970)

“Ikuspegi oso tradizional batetik begiratzen zuenak ba mesfidantza zeukan: ‘metodo berri horiekin edo... ikasiko ote dute nere seme-alabek? Edo beste mailan egongo dira gero konpetitzeko, edo lehiatzeko, edo elkar bizitzeko? (...). Ikastolek ere bere barruan izan dituzte tentsioak arrazoi horiengatikan” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

Nolanahi ere, hezkuntza-eredua bera alde batera utzita, ikastolari lotutako beste gai sozioekonomiko batzuk ere zalantzan jarri ziren. Hala, informatzaile batek nabarmendu zuen bere aitak, euskaltzale konbentzitua izanik, nahiago izan zuela beste ikastetxe batera eraman, ikastolako gurasoak ikusten zituelako, eta “jende pija” iruditzen zitzaielako. Beste informatzaile batek gogorarazi zuenez, uko egin zioten ikastolan, teoriarik ikastaroa aurreratuegi zegoelako, nahiz eta aste batzuk geroago inguruetakoa familia “aberats” batetik etorritako norbait onartu zuten.

13.9 Sarea

Bai ikastolek eta bai helduen euskalduntze-alfabetatze taldeek barne koordinazio bat sortu zuten, herritik abiatuta, bailara/eskualde mailetan antolatzen zena, ondoren probintzia mailan eta Gipuzkoatik Euskal Herri osora. Horrela, erabiliko zituzten tresnak (aldizkari bat, urtero antolatzen ziren udako ikastaroak, erresidentzia bat...) oso antzekoak izango dira bi fenomenoetan, bakoitzak bere arlo bereziari egokituta. Ikastoletako irakasleriaren kasuan, Rosa Sensat bezalako berrikuntza pedagogikoaren mugimenduaren eredu ezberdinekin zituzten harremanak edota 60ko hamarkadaren bukaeran sortuko zuten “Gipuzkoako Ikastoletako Irakasleen Elkartearen” bidez (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 322). Zentzu horretan, aipamen berezia merezi du “Gordailua” izeneko elkartearen rolak, bilkurak egiteko, material ezberdina sortzeko eta gordetzeko eta orokorrean berari esker lortutako saretze-lanak (Setién, 1979).

“Ikastoletan beti neska-mutilak elkar bizitzan hezitu dira, hasieratik (...). [Pedagogia aldetik] esperimentazioari lotuta zegoen txikitatikan [txotxen eta kaniken erabilerako adibideek adierazten duten bezala] (...). Bizitu diren tradizioak eta bizitu diren esperientziak eta abar ba oso diferenteak izandu dira (...). Nik uste dut horretan eredu bat landu dutela ikastolek, edo landu dugula. Bai, dudarik gabe” (Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955)

13.10 Fenomeno aurrerakoiak

Kopuruaren igoerarengatik eta lurraldean zehar izan zuten hedapenarengatik, ikastolen sorrera eta garapen prozesuaren egonkortzea 60ko hamarkadari dagokio. Honela, 1960-1964 bitartean Gipuzkoako 88 udalerrietan guztira 10 ikastola sorrarazi ziren, Donostian (hiru), Irunen, Erreterrian, Andoainen, Elgoibarren eta Eibarren. Hau da, proportzioak baxua badirudi ere, biztanleriari dagokionez oso puntu garrantzitsuak ziren lekuetan. Hala ere, ikuspuntu geografikoari dagokionez desoreka ikusten da, Oarso-Bidasoa eta Deba-Behean elkartzen baitira baina Deba-Goiena eta Urola-Kostan, aldiz, ez baitago. Hortik hamarkada bukatu arte, 1965-1969 bitartean, izan zen ikastolen hazkunde nagusia eta 60ko hamarkadan sortuko zirenen % 80 bost urte horietan izango zen. Orokorrean, Bergara eta Azkoitia izan ezik, ia hiri-udalerrri guztiek horrelako ikastetxe bat zeukaten. Baina ez ziren, ordea, nekazal izaera edo 2000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan sortu (Basurko, 1993: 23). Bost urte geroago, Euskal Herriko ikastolen banaketa honako hau zen: Gipuzkoan, 78; Bizkaian, 45; Nafarroan, 23; Ipar Euskal Herrian, 18 eta Araban, 8. Hau da, 172tik % 45 Gipuzkoak hartzen zituen (Euskaltzaindia, 1979: 164).

Garapen kuantitatibo eta kualitatibo horrek beste mota batzuetako lorpenak ekarri zituen.

“[Ikastolen mugimendua] sortu zen gurasoek ikusten zutelako beharra zegoela eta izugarrizko esfortzua eginda. Hori gabe seguruaski eskola publikoan ez zegoela D eredurik izango (...)” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erreterria, 1950)

13.11 Barne hausturak

Helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua bezalaxe, herriak behar arren administrazioetik jasotzen ez zuen zerbitzu publikoa izateko asmoz jaio ziren ikastolak, gizarte-maila guztien eskura egon zitezen eta doakotasunaren alde borrokatzen, Txingudiko ikastolaren estatutuetan adierazten den moduan (Recalde eta Nieto, 1991: 226; Mendizabal, 1992: 18). Baina bai erakunde hauek sortu ziren testuinguruagatik baita beranduago ikastolen mugimenduan zein helduen alfabetatze-euskalduntze mugimenduan izandako korrante ezberdinen arteko jarrera ezberdinen ondorioz, bietan ohiko binomio publiko/pribatua ezin da betiko zentzuan ulertu (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015: 309; Mendizabal, 1992: 18).

Ofizialtasunetik kanpo egotearen ondorio bat haurren hezkuntza prozesuari kalte egitea zen, batez ere haurren eskolarizazioaren jarraipen estuagoa egin ahal izateko tresna berriak sortu zirenean. Horrela, 1965ean Estatu espainolean ezarri zen “Cartilla de Escolaridad” deitutakoa, ezinbestekoa batxilergora pasatzeko, baina ikastolek ez zuten halakorik. Arazo horren aurrean, hainbat ikastolek legaltasunaren bidea abiarazi zuten (ordura arte legeztatutako bakarra Donostiako Santo Tomas lizeoa zen, 1961ean). 1968ko urtarrilaren 22an Erreterriako Orereta ikastola legeztatu zen, kultur sozietate gisa, eta urte berean Bizkaiko eta Arabako lehenengo ikastolak legezkotu ziren (Resurrección María Azkue, geroago Lauro izango zena, Bilbon, eta Olabide, Gasteizen). Eskolatze kartillaren arazoa hasiera batean eskola publikoen irakasleriari esker saihestu zen, euren ikasleak balira bezala sinatzen baitzituzten (Iza, 2010: 52-62).

“Baina lortu ziren baimenak, lortu zen ikasleek ‘Cartilla’ izatea... Gero oso emaitza onak lortu zituzten garai hartako ikasleak. Ez naiz harritzen, ze sistema zen oso beraieran oinarrituta eta beraiek kariño handia jarrita; orduan emaitzak onak ziren, frakaso gutxi [zegoen] (...). Sistema oso ona, oso polita zen” (Elena Mendia, Erretereria, 1954)

Geroago, ikastolen artean banaketak egon ziren publikazioaren bidea hartzeko erabakia heldu zenean (Iza, 2010).

“Ikastolak pribatuak dira ezinbestez, ez daukagulako Estaturik; baina Estatua bagenu, ikastola pribatuak eskola publikoak izango lirateke, beraz, pribatu-publiko eztabaida faltsua da” (Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948)

“Orain ikastolen mugimenduari “pribatua” deitzen zaio, baina hori baino herrikoiagoa ez dut ezagutu nik. Gertatzen da ez dela publikoa, ez dagoelako Estatuaren menpe” (Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950)

“Ikastola bezala, hemengo ikastola ez zen publikatu. Hori erabaki politikoa izan zen, azken finean (...), guraso gehiengoek nahiago zutelako hola independente izan (...)” (Kike Eizmendi, Erretereria, 1959)

EUSKARA
ARIKETAK

1

jo ta ke
fitxa osagarriak

JOSÉ JOAN G. de TXABARRI

EUSKARA **PIRTEA** **PRAKTICA**

jo ta ke

4

JOKE JOAN G. de TXABARRI

IRAKASLEENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

INCIDENTES EN LAS FIESTAS DE LA "MAGDALENA"

Los incidentes que se produjeron en las fiestas de la "Magdalena" de San Sebastián, celebradas el fin de semana pasado, han sido objeto de una investigación por parte de la policía local.

EUSKALDUNTZE
1
EUSKARA BATUAZ

IRAKASLE TALDE PATEK

NERE BORDATXOTIX
Por Basarri

EL DIARIO VASCO

Rentería: suspendidas las fiestas

ELWIRFOR
El reo o «Amorri»

JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA
JOKO TA ARIKETA BILDUMA

dek
ELWIRFOR

IRAKASLE TALDE PATEK

URRASPIDE 5

euskaldunen euskaldunen euskaldunen euskaldunen alfabetatzea alfabetatzea alfabetatzea alfabetatzea

ALFABETATZE EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA-BIZKAIA
Avenida Maderiega, 12, Deusto. Bilbo-54. Tfnoa. 447 10 30.

Jale

IRAKASLEENTZAKO
GIDA LIBURUA
1-12

Irakasleentzako
MATERIALE
OSAGARRIAK

Ikasleentzako
MATERIALE
OSAGARRIAK

BIZKAIA 1979.eko UR

Ondorioak

Ondorioak

Frankismoak euskarari eta euskal kulturari ezarritako errepresioak jazarpenaren pertzepzioa agerian utzi zuen euskal gizartean, injustiziaren esparruan. “Hizkuntzaren dramatizazioa” deritzon prozesuari ekin zitzaion orduan, zeinak shock kognitibo eta emozional bat ekarri baitzuen: euskarari ezartzen zitzaizkion debekuek, isunek eta deskalkifikazioek hizkuntzarekiko emozio negatiboak sortu zituzten, balizko hiltunen autoestimua hondatuz. Modu horretan, sozialki partekatutako diskurtsoan oinarrituta, orokorrean gerraosteko euskal belaunaldi berrien sozializazioan, hein handi batean, ziurtasun ezari eta lotsari lotu zitzaion.

Esparru publikotik desagertuta zegoenez, esparru pribatuan ere transmisioa bermatzeko zailtasunak gero eta nabariagoak ziren. Baina kuantitatiboki gero eta jende gutxiagok ezagutzen eta erabiltzen bazuen ere, sinbolikoki balioa hartu zuen. 60ko hamarkadan, beste mugimendu batzuen testuinguruan, indarrean zegoen diskurtsoa aldatu ahal izan zen, eta emozio menderatzailea lotsatik haserrera pasa zen, berreskurapenaren garaia hasiera emanez.

Hein handi batean belaunaldi berriek bultzatuta eta mugimendu kultural eta politiko euskaltzalearen baitan, euskara euskal nortasunaren ardatz bihurtu zen, euskalduntasunaren sinboloa, pisu linguistikoki pisu politikoa ere gehituz. Diskurtso aldarrikatzaile hori frankismoaren aurkako beste mugimenduekin batera lerrokatuta zegoen heinean, hainbat kolektiboren identifikazio afektiboa lortu zen: kontzientzia pertsonaletik kontzientzia kolektibora pasa zen (Larrinaga, 2018: 324-326).

Horrela, helduen euskalduntze-alfabetatzeko gau eskolak euskara ikasteko bide bat baino askoz gehiago izan ziren, ikastolekin batera euskararen berreskurapenerako pauso garrantzitsua bihurtuz. Haurrak euskalduntzeko asmoz, ikastolen mugimendua sortu zen modu paraleloan, gazteleraz eskolarizatu (eta hein handi batean sozializatu) ziren hainbat gazte eta heldurentzat, hizkuntzaren transmisio prozesuari jarraipena emateko bide bakarra izan ziren. Baina batez ere gau eskolen ekarpenak prisma kualitatibo batetik ikusi behar ditugu: herri-mugimendua izan zen, euskararekiko behar bereziak sortarazitakoa eta behar berezi horiei erantzun bat ematen saiatu zena (zenbait arlotan asmatuz eta beste zenbaitetan, huts eginez); euskararen berreskuratze prozesua bultzatu zuten; hizkuntzaren irakaskuntzaren metodologia eta didaktika suspertu zuten; eta hizkuntzarekin batera, identitatea (norberarena eta herriarena) birformulatzeko markoa sortu zuten. Dударik ez, *“ondorengo hamarkadetan euskararen bilakaerarekin gertatu denaren lekukoak gara oraingo euskaldunak”* (Odriozola, 2013).

Horrela, 60ko eta 80ko hamarkaden artean euskal gizarteak ezagutu zituen aldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta kulturek helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendua elikatu zuten. Aldi berean, gero eta sendoago zegoen helduen euskalduntze alfabetatzearen prozesu honek, baita

ikastolen mugimenduak ere, gizartea bera eraldatzea lortu zuten, trebetasunez zein akatsez ordura arte galduta edo eskuratu gabea zeukan espazio publikoa hartuz. Testuinguru horretan, AEKk ekarpen handia egin zuen herri-mugimendu hori koordinatzen, egitura, antolakuntza eta norabide bat emanez (Mendizabal, 1992: 21-22).

Trantsizio politikoarekin eta autonomiekin batera, hizkuntza-plangintza aplikatzen hasi zen, hein handi batean 'Txepetx'en planteamendu eta kontzeptuetan oinarrituta, euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko legea mugarri garrantzitsua izan zelarik (Zalbide, 2010: 40).

Alabaina, instituzionalizazioak krisialdi larri bat eragin zuen euskararen aldeko mugimenduan, ordura arte frankismoaren aurka elkarrekin egondako nazionalismoek (zaharrak eta berriak) instituzionalizazio autonomikoarekiko estrategia ezberdinak hartu zituztenean. Gizarte zibilak bere gain hartu izandako hainbat ekimen instituzionalizatu zirenean, berreskurapen linguistikoa gobernu politikaren esparrura pasa zen mugimenduaren zati baten ustez, gobernu autonomikoak eskaintzen eta bultzatzen zuen elebitasuna guztiz diglosikoa zelako. AEKren eta HABEren arteko gatazka luzeak, gatazka politiko orokorragoaren isla zenak, helduen euskalduntze-alfabetatzearen mugimenduaren banaketa ekarri zuen. Haustura hori, ordea, ez zen euskalgintzaren esparrura bakarrik mugatu, haren ondorioak gizartean bertan sentitu baitziren. Hala ere, Dionisio Amundarainek aldarrikatzen zuen moduan, "alfabetatzearen (eta euskalduntzearen) mugimendua AEKren (eta geroago HABEren) inguruan biribildutakotzat eman nahi izan bada ere, hainbat lan egin izan da, bai AEKz kanpo, bai HABEz kanpo" (Elkarlana, 1990: 7). Besteak beste, kontuan hartu behar dira gau eskoletako hastapenetan ezinbestekoak izandako elkarte ezberdinetan parte hartutako hainbat eta hainbat lagun; baita euskarazko eskolekin lotura zuzenik eduki ez arren, euskalgintza suspertuko zuten beste herri-mugimendu eta ekimenetan lagunduko zutenak ere.

Erreterian, Euskal Herriko euskalgintzak bizitako garai ezberdinek ere isla izan zuten, herriko ezaugarri propioetara egokituta. Hogei bat urtetan, euskarazko eskolak erdi ezkutuan egitetik, euskaltegiek ematen duten ikusgarritasun osora pasa zen; ahal zen lekuetan eta moduan, herriko beste eragilean laguntza eta baliabideak baliatuz jardutetik, antolakuntza eta profesionaltasun maila handiko egituran egotera; elkarte ezberdinetako lokaletan ematen ziren gau eskola edo gau ikastoletatik, egituratuta zeuden euskaltegiakora pasa zen.

Erreteriarako helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduari dagokionez, hauek lirateke ezaugarri aipagarrienetarikoa:

- Kate baten katebegiak: helduen euskalduntze-alfabetatze prozesuan parte hartu zutenen lekukotasunen bidez, familia mailako hizkuntzaren transmisio prozesuaren jarraipena eta etenaldiak ikus daitezke. Elkarriketatutakoen artean aldez aurreko ezagutza zegoen; eta beste kasu batzuetan, ez zen hizkuntzaren transmisiorik gertatu, baina bai kontzientzia euskaldun batena edo hizkuntzaren galerarena berarena. Edonola ere, aldez aurreko euskararekiko atxikimendua nagusitzen da, gehienbat etxetik bertatik jaso (gurasoengandik, helduagoa zen anaia edo ahizpa batengandik...).
- Zirrikituaren aprobeitxamendua: euskarazko eskolak modu formalean antolatuta egon aurretik, herri mailan funtzionatzen zuten zenbait elkarte abian zituzten hainbat ekimenetan, euskararen edota

euskal kulturaren transmisioaren kezka eta gogo zegoen. Mendiko irteerek zein euskal kanteak, adibidez, errealtate sozio-politiko eta linguistikoan sakontzeko aukera ematen zuten.

- Sinergiak: testuinguru sozio-politikoak berak eragin zuen helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimenduak beste ekimen batzuekin bat egitea, batez ere pertsona batzuek aldi berean esparru batean baino gehiagotan parte hartzeari esker. Horixe gertatu zen, adibidez, ikastolekin guraso taldeen bidez, auzo elkarteetan helduentzat zein haurrentzat emandako euskara klaseekin, eta abar.
- Kontaktu goiztiarra: garaiko testuinguruak berak suspertuta, etxek kanpoko euskararekiko lehendabiziko kontaktua haurtzaroan edo nerabezaroan bertan gertatzea ohikoa zen, atxikimendua lortzeari begira, modu ludiko eta erakargarrian, testigantzek adierazten duten moduan.
- Jarraipen naturala: askotan, proiektuarekiko atxikimenduak transmisio-prozesuaren baitan jarraipen naturala bultzatzen zuen. Hau da, urte gutxiko tartean, beste lagun batzuekin batera ekimen batean parte hartzetik besteen begirale izatera pasatzea, edo euskara-ikasle izatetik irakasle izatera pasatzea erabat ohikoa zen. Dinamika horri esker, nolabaiteko belaunaldi-erleboia sortzen zen, mugimendua bizirik mantentzen laguntzen zuena.
- Motibazio politikotik jarrera militanterara: euskara-ikasle zein irakasle izateko motibazio politikoa oso garrantzitsua izan zen. Zentzu horretan, prozesuak eskatzen zuen esfortzua (adibidez, irakasleen kasuan, lehenengo euren burua euskaraz alfabetatu beharra; denbora; energia; klandestinitatean mantendu zen bitartean arriskua; eta abar) modu militantean bizi ohi zen.
- Boluntarismoa: denbora luzez, helduen euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuak ia ez zuen baliabiderik izan, eta modu erabat altruistan laguntzen zuten gizarte-eragileek artean sortutako sare bati esker mantendu zen. Izan ere, aurrerago, irakasleen profesionalizazioaren auzia (eta horri dagokion ordainsaria) eztabaidarako eta tentsioetarako arrazoi izan zen. Zentzu horretan, beste ezaugarri batzuei dagokienez bezala, Euskal Herrian euskalgintzak bizitako “polarizazioa” Erreterrian ere gertatu zen.
- Identitatea: euskal identitatearen kontzientzia eta aldarrikapena gau eskoletan aritzeko motibazio garrantzitsuenetariko bat zen. Identitate pertsonalaren eta kolektiboaren arteko loturak egiteko tresna bihurtu ziren gau eskolak, beste eragileekin batera ohitura aldaketak bultzatuz eta euskara espazioa irabazten joan zedin lagunduz.
- Pertsonalismoa: herri-mugimendua izan zen heinean, ez dira banakako protagonismoak bilatzen. Izen bereziak oso gutxitan ematen dira. Erreferente indibidualak badaude ere, protagonismoa kolektibo oso bati dagokiola argi utzi nahi dute.
- Emakumezkoen rola: 1960ko hamarkadatik 1980ra bitarteko hamarkadetan Erreterriako helduen alfabetatze- eta euskalduntze-mugimenduak izandako ezaugarriak aintzat hartuta, bertan emakumezkoek gauzatutako eginkizun garrantzitsua adierazten da. Garai hartako datu kuantitatiboak oso eskasak izan arren, ikasle zein irakasle moduan emakumeen parte-hartzea oso nabarmena izan zela erakusten dute. Bestalde, elkarriketatuen oroitza penen arabera genero

ezberdintasunik ez zegoela badirudi ere, ezin dugu sexu/genero sistemak berak ezartzen dituen zenbait ezaugarri helduen euskalduntze-alfabetatze mugimendutik bereizi, herri-mugimendu bat izan zen heinean gizartearen dinamikak islatu baitzituen. Horrela, aintzat hartu beharra dago familia-esparruan emakumezkoek (bereziki, amek) hizkuntzaren transmisioan izandako rola; etxetik kanpo ere euskararen transmisioan gauzatutako rola (adibidez, auzo-elkarteen bidez, dotrina euskaraz bultzatuz, haurrentzako gau-ikastoletan, ikastolen mugimenduaren aurrekariak izan ziren etxe-eskoletan...); helduen euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren irakasleen artean ezaugarri ziren kutsu ez-formala eta lan boluntarioa (lan-prekariatetatik oso gertu daudenak); ikastolen mugimenduarekin partekatutako sinergiak; hezkuntzaren feminizazioa (garai berean sortu eta hedatu ziren ikastoletako andereño eta “laguntzaile” horien lan egoerak gogorarazten dizkigutenak); ikasteko motibazioen artean seme-alabei etxerako lanekin laguntzea zela eta motibazio instrumentala indarra hartzen hasi zenean, edo euskaltegietan oraindik ere dagoen emakumezkoen kopurua.

Azkenik, memoria kolektiboaren garrantzia balioan jarri behar da. Prozesu kolektiboak aztertzean, ahozko iturrietara jotzea funtsezkoa da, oraintsuko historia ezagutzeko eta jende askoren ahalegina aitortzeko. Bereziki, gau eskolak bezalako fenomeno kolektiboak direnean (dokumentazio gutxi sortzen dutenak edo garai berean gertatzen diren beste batzuen aldean aztertu ohi ez direnak), testigantzak ezinbesteko tresnak dira lortutakoa balioan jartzeko, akatsetatik ikasteko eta, batez ere, diskurtso ofizialen gainetik kontakizun propioa sortu ahal izateko.

Eranskinak

I. Berriemaileen zerrenda

Berriemaileen zerrenda

Amalia, Erretereria, 1950
Arantza Galdos Erriondo, Dax, 1960
Arantza Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1956
B. Lasa, Oiartzun, 1962
David Gómara, Lezo, 1956
Elena Mendia, Erretereria, 1954
Elixabete Perez Gaztelu, Erretereria, 1961
Emakumezkoa-1, 1949
Emakumezkoa-2, 1947
Emakumezkoa-3, 1955
G., Erretereria, 1954
Gizonezkoa-1, 1955 inguruan
I., 1944
I., Orereta, 1970
Imanol Miner, 1974
Iñaki Sors Bagües, 1955
Irene Larrañaga Etxeberria, Erretereria, 1960
J., Erretereria, 1952
Jon, Orereta, 1950
Jone Arruti Peña, Orio, 1962
Jose Luis Maritxalar Labandibar, Erretereria, 1950
Jose Miguel Zabala Ganborenea, Erretereria, 1955
Josu Berra, Donostia, 1956
Joxan Apaolaza, Donostia, 1947
Joxe Manuel Odriozola, Altzo, 1948
Juani Lujanbio, Erretereria, 1936
Juani, Aia, 1944
Kepa Oliveri, Erretereria, 1947
Kike Eizmendi, Erretereria, 1959
L., Pasai Donibane, 1945
Loli Pasaia Antxo, 1950
Mikel Azkarate, Erretereria, 1966
N., Herrera-Altza, 1933
O., 1940
R., Orereta, 1970
T., Orereta, 1965?
Toñi, Valencia de Alcántara, 1955
X, Orereta, 1941

II. Bibliografia

Bibliografia

Acosta, Ainhoa (2013). "El rol de las mujeres vascas en la transmisión del euskera: el idioma en las dinámicas de género e identidad". <http://www.euskonews.com/0654zbnk/kosmo65401es.html>

AEK (1982). *Alfabetatze euskalduntze koordinakundearen historia Gipuzkoan: argitara beharrekoa*. Donostia: Elkar.

Agirre Dorronsoro, Lorea eta Eskisabel Larrañaga, Idurre (2016). "Euskaigintza eta feminismoa- identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, beteretze kolektiboa bueltatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitze proposamen bat". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 98, 11-22.

Agirre Eskisabel, Joxe M^a. (1994) "Euskararen bilakaera 1981-1991 hamarkadan zentsuetan eta erroldan jasotako datuen arabera". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 13-14, 13-26.

Agirre, Lorea eta Eskisabel, Idurre (2019). *Trikua esnatu da: euskaratik feminismora eta feministotik euskarara*. Zarautz: Susa.

Agirrebaltzategi, Paulo (1995). "Euskararen aldeko gizarte mugimendua (EGM): zeregina eta artikulazioa". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 16, 17-30.

Agote, Gontzal. https://web.archive.org/web/20100523053746/http://www.badok.info/historia.php?id_edukia=3

Agote, Imanol (1995). "Euskararen aldeko mugimendu soziala". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, ISSN 16, 83-88.

Aldekoa-Otalora, Alejandro; Basterretxea, Itziar; Gorostiaga, Izaskun (1997). *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailearen ahotan (1960-1990)*. Bilbo: Labayru ikastegia.

Altuna, Jaime eta Hernández García, Jone Miren (2018). "%2,7a-Euskara, generoaz mintzo?". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 106, 115-144.

Amonarriz, Kike (1991). "Euskararen erabilpenaren kale-neurketaren inguruko gogoetak". *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 3/4, 39-50.

Amonarriz, Kike (1995). “Euskararen erabilpenaren feminizazioa”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 15, 89-96.

Amonarriz, Kike (1996). “Euskararen alfabetatzea: eskaintza eta eskariaren egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 20/21, 67-80.

Amundarain, Dionisio (1991). “Goiherriko euskal eskola eta euskararen irakaskuntza”. *Zutabe*, 9, 33-42.

Aranburu Puente, Xabier (1991). “Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: ikastola. Elbira Zipitriaren biografiareako jakingaiak: ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 4, 13-73.

Arburu, Ion (1992). “Bilbo euskalduntzen”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 7/8, 79-84.

Arenzana, Txema (2018a). “Laguntasuna 1968-2018. Gabierrota 50 años de lucha”. *Oarso*, 6-12.

Arenzana, Txema (2018b). Laguntasuna (1968-2018). *Gabierrota: 50 urte borrokan = 50 años de lucha*. Erreterria, Laguntasuna Elkartea: Erreterriako Udala.

Arratibel, Nekane; Azurmendi, M^a Jose; García, Iñaki (2001). *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Arrien, Gregorio (1987). “La ikastola Azkue, la primera en ser legalizada en Vizcaya en 1966 (estudio de sus orígenes y organización)”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 2, 7-16.

Arrien, Gregorio (1993). “Bizkaiko ikastolak, 1957-1972: beren hasiera eta antolaketa- Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972: sus orígenes y organización”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 6, 21-289.

Arrizabalaga, Amaia; Larrañaga, Imanol (2001). *Helduen euskalduntze-alfabetatzea Elgoibarren. 1956-2000. 44 urteko historia* [Arigera proiektua]. Elgoibar: Arigera L.G.

Arruti Landa, Iñaki (1995). “Euskara elkarreak:jatorria eta norabidea”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 16, 31-47.

Artetxe Sarasola, Miren (2014). “Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoleako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 92/93, 11-31.

Artza Bikandi, Jon (2017). “1980 hamarkadako euskararen egoerari buruzko diskurtsoa”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 103, 115-137.

Azurmendi Ayerbe, María José (zuzendari.); Larrañaga Aizpuru, Nekane; Apalategi Begiristain, Jokin (2008). "Identitate etnolinguistikoa (IELa) Euskal Autonomi Erkidegoan". *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 67, 131-149.

Azurmendi Ayerbe, María José *et al.* (2000) "Euskal Soziolinguistika Institutuaren proiektua". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 37, 105-122.

Azurmendi, M. J. (1998). "Hizkuntza eta identitate etnosoziala Euskal Herrian". *Hizkuntza eta talde-nortasuna*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 237-265.

Azurmendi, M^a Jose (1999). *Psicosociolingüística*. Bilbo: EHU-UPV.

Azurmendi, Maria Jose (2008). "Euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 64, 83-97.

Basurko Motriko, Felix (1989). "La normalización de la ikastola, breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca". *Historia de la educación: revista interuniversitaria*, 8, 139-167.

Basurko Motriko, Felix (1993). "Euskara: Hezkuntz-sistemaren hezurdura". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 10, 23-35.

Bourdieu, Pierre (1997). *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Barcelona: Anagrama.

Dávila Balsera, Paulí eta Amezaga Albizu, Josu (2003-2004). "Juventud, identidad y cultura: el rock radical vasco en la década de los 80". *Revista interuniversitaria*, 22-23, 213-231.

Dávila, Paulí (1993). "Euskal alfabetatzearen ereduaren eraiketakako osagaiak". *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 9, 153-160.

Dávila, Paulí (2008). "Euskal Herria tiene forma de corazón. La escuela en la construcción de la identidad nacional vasca". *Revista interuniversitaria*, 27, 215-243.

Dávila, Paulí; Eizaguirre, Ana; Fernández, Idoia (1994a). "Elementos para la elaboración de un modelo de alfabetización vasco". *Ikastaria: cuadernos de educación*, 7, 101-110.

Dávila, Paulí; Eizaguirre, Ana; Fernández, Idoia (1994b). "Los procesos de alfabetización y escolarización en Euskal Herria (1860-1990)". *Ikastaria: cuadernos de educación*, 7, 63-99.

Del Rio, Josep eta Aduriz, Itziar (2009). “Errenteriako euskararen kokagunea”. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, 43, 1/2, 791-804.

Del Valle, Teresa (1985). *Mujer vasca, imagen y realidad*. Barcelona: Anthropos.

Del Valle, Teresa (1988). *Korrika: rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

Díaz Noci, Javier (1998). “Los medios de comunicación y la normalización del euskera: balance de dieciséis años”. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43/2, 441-459.

Díaz Noci, Javier (2012). “Historia del periodismo vasco”. *Mediatika-Cuadernos de medios de comunicación*, 13, 1-261.

Egia, Maria Luisa (1991). “Emakumea euskararen transmisioan”. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 3, 35-68.

Elkarlana (1990). *Alfabetatzea Euskal Herrian (1960-1990)*. *Kronika laburra*. Bilbo: Letrakit.

Erkizia, Joseba (2007). “HABE eta euskalduntze-alfabetatzea, 1981-2007: lehenak badu gerorik”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 62, 31-37.

Errenteriako Udala, Euskara Batzordea, Siadeco (1991). *Euskara Errenterian: azterketa soziolinguistikoaren laburpena = El euskera en Rentería : resumen del estudio sociolingüístico*. Errenteriako Udala: Errenteria.

Ertzibengoa Aizpiolea, Axun (2018). “Arantxa Erriondo Ertzibengoa. Euskararen hauspo”. *Errenteriako emakumeen aztarnak: narrazioak*. Errenteriako Udala, 143-149.

Escribano, Daniel (2018). “1974ko abenduko euskal borrokak”. *Jakin*, 2018/04/30. <https://www.jakin.eus/gogoeta/artikuluak/1974ko-abenduko-euskal-borrokak/274>

Etxeberria, Joxe eta Arexola-leiba, Juan Luis (1993). “Arrasateko Euskalan (AED) taldearen historia eta balorazioa”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 11, 47-56.

Euskal Kulturaren Batzarra (1991). “Euskararen kale-erabilpenaren neurketa 10.000 bizanletik gorako herrietan”. *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 3/4, 19-37.

Euskaltzaindia (1978). *Euskararen liburu zuria*. Bilbo.

Euskaltzaindia (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Ediciones Vascas.

Fernández Pérez, Zaida eta Maceira Ochoa, Luis (2015). "Errenteria, pueblo industrial: una historia que contar". *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Errenteria* = *Errenteriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 27, 25-82.

Fernández, Idoia (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Garaio Mendizabal, Beñat (2015). " 'Ez dago sinisterik, zenbat kanbiatu den' : Gasteizen 1950-1975 garaitik hona, euskarak izan duen euskararen bilakaeraren inguruko testigantzak". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 94, 93-129.

Gurrutxaga, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Anthropos, Barcelona.

Hernández, Jone Miren (2016). "Jarrera eta motibazio kontzeptuen haratago... Hizkuntza kultura, praktikak eta emozioak". *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 99, 179-195.

Herrarte, Elena (2007). "Txatxilipurdi Elkartearen esperientzia". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 63, 83-93.

Idiazabal, Itziar. "Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza. Zenbait gogoeta". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 10, 1993, 11-21.

Iñigo, Joxe Jabier (1992). "Helduen euskalduntze alfabetatzearen herri mugimendua". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 7-8, 187-208.

Iñigo, Joxe Jabier (1994). "Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian-EKBren neurketaren emaitzak". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 13/14, 50-76.

Irazabal, Eunete (2008). "Emakumea eta euskal irakaskuntza". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 69, 45-59.

Iriarte "Bikila", Joxe; Elberdin, Luis (1997). *Orereta: herri borrokalaria baten historia (1976-1983)*. Errenteria: J. Iriarte.

Isasi Balanzategi, Xabier (1991). "Euskararen hiztun-taldeak Euskal Autonomi Elkartean". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 3/4, 95-113.

Isasi Balanzategi, Xabier (1994). "Hiztun erroldak, labelak eta euskaldunak". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 13/14, 27-49.

Iurrebaso Biteri, Iñaki (2015). "Udaleri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan. EAE, 1981-2011". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 95, 71-101.

Iza, Iban (2010). *Ikastolen mugimendua. Dabilen herria. Ikastolen erredua 1960-2010*. Euskal Herriko ikastolak. Bilbo: Euskaltzaindia.

Lacunza, Juan Miguel (2002). “La Juventud obrera católica (JOC) de Rentería (1931-1975)”, *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Erreterria = Erreterriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 16, 95-147.

Lara, Alí eta Enciso Domínguez, Giazú (2013). “El Giro Afectivo”. *Athenea Digital*, 13/3, 101-119.

Larrea Mugica, Pedro; Maia Larretxea, Julian (2013). “La alfabetización y el aprendizaje de euskera en adultos del País Vasco en la segunda mitad del siglo XX”. *Enunciación*, 18/ 2, 29-38.

Larrea, Kepa (2003). “Euskara ikasteko metodoen bilakaera, 1956-1986”. *Hizpide*, 53, 3-20.

Larrea, Kepa (2005). *Euskalduntzearen atakan. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea: 1956-1986*. Donostia: Erein.

Larrinaga Renteria, Ane (2018). “Los movimientos sociales como contextos emocionales: el impulso emocional en la evolución del movimiento lingüístico vasco”. *Athenea Digital: revista de pensamiento e investigación social*, 18/ 1, 319-347.

Larrinaga, Ane (2008). “Kulturgileak mugimendu sozialen tradizioan: euskal intelektualak euskalgintzan”. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 66, 87-103.

Lasagabaster Madinabeitia, Jesús María (2007). “Sobre la historia de la literatura vasca: diagnóstico y perspectivas”. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, 41/ 1, 237-248.

Legarreta, P. M. (1977). “Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduaren orainaz... eta geroaz”. *Jakin*, 4, 102-108.

Lizartza, Ritxi (2003). “Euskalduna izatea delitu”. *Jakin*, 139, 39-42.

Llona, Miren (2002). *Entre señorita y garçon. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Málaga: Malagako Unibertsitatea.

López-Goñi, Irene (2005). “Las ikastolas en Navarra (siglo XX): búsqueda de un modelo de escuela propio”. *Revista interuniversitaria*, 24, 371-396.

López-Goñi, Irene (2008). “La cuestión de la formación del profesorado de las ikastolas navarras de postguerra (1967-1983)”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 16, 351-367.

Losada Urigüen, María (2016). "Ez ogirik ez askatasunik. Euskal antifrankismoaren garaiko feminitatearen birmoldaketa =Sin pan ni libertad. La recomposición de la femineidad en el antifranquismo vasco: XII. Koldo Mitxelena Ikerketa Beka / XII Beka de Investigación Koldo Mitxelena". *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Erretera* = *Erreteraiko Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 28.

Mariñelarena, Pello (2006). "Nafarroa Oinez: 25 urte". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 58, 101-106.

Marko Juanikorena, J. Inazio (1993). "Lan mundua eta euskara: gainbegirada orokor bat". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 11, 13-30.

Martinez de Luna, Iñaki (2010). "Framing: komunikazio teoretatik euskararen beharizanetara". *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 76/3, 2010, 53-67.

Mayordomo Pérez, Alejandro (2002). "La transición a la democracia: educación y desarrollo político". *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, 21, 19-47.

Mendizabal, Jon Mari (1992). "AEK. Historia eta gaurko egoera". *Karmel*, 201, 17-22.

Mota Zurdo, David (2017). "La música underground vasca en la década de los 90. La hegemonía del rock político y su eclipse a otras escenas musicales". *Vegueta. Anuario de la Facultad de Geografía e Historia*, 17, 515-543.

Mota Zurdo, David (2018). "He visto las calles ardiendo otra vez". La estabilización de la escena músico-política en el País Vasco durante la década de 1990. Del caso de Eskorbuto al de Negu Gorriak". *Historia contemporánea*, 57, 413-451.

Mujika, Mertxe (2007). "Helduen euskalduntze alfabetatzearen historia gaur egungo argazkia eta etorkizuna". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 62, 39-47.

Muro Arriet, Koro (1996). "Rentería en transición 1975-1982", Jiménez de Aberasturi Corta, Juan Carlos (zuz.) (1996). *Historia de Rentería*. Erretera: Erreteraiko Udala. (557-564)

Murua Cartón, Hilario (2008). "La formación del Magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975". *Ikastaria: cuadernos de educación*, 16, 241-267.

Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel. "Gipuzkoako euskalduntze-alfabetatzearen historia". Argitaratu gabea, 1980.

Odriozola, Joxe Manuel (1992). "Euskararen aldeko herri-mugimenduak: praktika eta teoriaren arteko uztadura". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 6, 25-41.

Odriozola, Jose Manuel (1993). “Koldo Mitxelenaren ekarpena soziolinguistikaren arloan (II)”. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. 38/1, 73-106.

Odriozola Lizarribar, Joxe Manuel (2013). “Gau eskolak: euskal nazionalismo kulturalaren emaitza” Anaut, Dabid. *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Aise liburuak, 612-613.

Odriozola, Joxe Manuel (2007). “Euskalduntze-alfabetatzearen zentzua”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 62, 49-54.

Ordozgoitik, Koldo (2013). “Irrati hotsak. 1983ko Madalenetako gertakizunak Donosti-Loiola Herri Irratiko Saiotetan = Ecos de radio. Los sucesos de las Magdalenas de 1983 en las emisiones de Herri Irratia-Radio Popular”, 25, 57-105.

Otegi Gelbentzu, Iñaki (2018). “Xebas Gelbentzu Olaiz. Auzo baten nortasuna eraikitzen”. *Errenteriako emakumeen aztarnak: narrazioak*. Errenteriako Udala, 119-126.

Pagola, Manolo (1977). “DEIA: Euskal Herriko lehen egunkaria”. *Jakin*, 3, 84-85

Pérez-Agote, Alfonso (1987). *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas/Siglo XXI.

Pérez Pérez, José Antonio (2004). *Los espejos de la memoria: historia oral de las mujeres de Basauri, 1937-2003*. Basauri, Basauriko Udala.

Picavea, Pedro eta Castrillo, Beatriz. “Hauteskundeak Errenterian (1977-1995)”, Jiménez de Aberasturi Corta, Juan Carlos (zuz.) (1996). *Historia de Rentería*. Errenteria: Errenteriako Udala. (527-552).

Picavea, Pedro. “Errenteria, ekonomia ea gizartea”, Jiménez de Aberasturi Corta, Juan Carlos (zuz.) (1996). *Historia de Rentería*. Errenteria: Errenteriako Udala. (428-526).

Recalde Rodriguez, Amaia eta Nieto Muñiz, Isabel (1991). “Ikastola Txingudi: Irún-Fuenterrabia”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 4, 219-228.

Rincón, Aintzane; Anzizar, Arantza (2014). *Ametsak egi bihurtuz: San Nikolas Ikastolako lehen andereñoak (1963-1969) – Caminando por un sueño. Las primeras andereños de la ikastola de San Nikolas (1963-1969)*. Getxo: Getxoko Udala.

Roman Etxebarrieta, Gorka (2018). “El Rock Radical Vasco. La constitución de los sujetos políticos a través de la música”. *Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria = Revista vasca de sociología y ciencia política*, 64, 24-40.

Ruiz de Olabuenaga, J.I. (1991). "Euskararen ezagutza eta erabilpen soziala". *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 5, 101-105.

Sánchez Carrión, José María ('Txepetx'):

___ (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión, relaciones de bilingüismo*. Pamplona, Institución Príncipe de Viana.

___ (1980). *Lengua y pueblo*. Donostia, Elkar.

___ (1981). *El espacio bilingüe: aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios*. Eusko Ikaskuntza.

___ (1987). "Euskararen berreskurapenaren teoria soziolinguistikoa eta hizkuntzen teoria soziala", *Jakin*, 42/43, 31-71.

___ (1991). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Pamplona, J.M Sánchez.

Sarriegi, Andoni (1999). *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin. Aurresaioak eta 1967tik 1975erakoak*. Lazkao: Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkarte.

Sarriegi, Andoni (2009). "Idazmakinetatik itzulpen memorieta", <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20091026/sarriegi>

Siadeco (1979). *Conflicto lingüístico en Euskadi / informe Siadeco; resumen elaborado por Martín de Ugalde*. Bilbao: Euskaltzandia.

Tejerina, B. (1998) "Lengua e identidad nacional. Cambios en la definición de la identidad vasca". *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, 267-309. Bilbo: Servicio de Publicaciones de la Universidad de País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Tejerina, Benjamín (2015). "Nacionalismo, violencia y movilización social en el País Vasco. Factores y mecanismos del auge y caída de ETA". *Papeles del CEIC*, 2015/3, <http://dx.doi.org/10.1387/pceic.15159>

Tejerina, Benjamín (2018). "Los movimientos sociales en la Transición Política: herencias, singularidades y transformaciones de la movilización social en la década de 1970". *Debats*, 131/1, 69-84.

Torrealdai, J.J. (1982). "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)". *Jakin*, 24, 5-73.

Txillardegi (1991). “Euskararen erabilpenaz oinarritzko ondorio batzuk”. *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 3/4, 53-92.

Uria Manterola, Iñaki (1990). “‘Txepetx’ekin elkar hizketa: ‘Gaurko egoeraren bi giltzak: kontzientzia pertsonala eta ekintza soziala’ “. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 2, 69-96.

Uria, I. eta Zumalabe, J.M. (1990). “Iñaki Larrañagarekin elkar hizketa: Normalizazioa ez da elebitasuna soziala”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 1, 51-73.

Zabaleta García, Mikel eta Pérez, Pilar (2002). “Las Elecciones de 1979 en Rentería un estudio electoral local en el marco de la transición”. *Bilduma: Revista del Servicio de Archivo del Ayuntamiento de Errenteria = Errenteriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria*, 16, 179-225.

Zabaleta Imaz, Iñaki (1993). “Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990)”. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 9, 5-26.

Zabaleta Imaz, Iñaki (2008). “Nazionalismoa eta Hezkuntza Euskal Herrian”. *Ikastaria: cuadernos de educación*, 16, 227-240.


Zabaleta Imaz, Iñaki; Garmendia Larrañaga, Joxe; Murua Cartón, Hilario (2015). “Movimiento popular y escuela en el franquismo: las ikastolas en Gipuzkoa”. *Revista interuniversitaria*, 34, 305-336.

Zalbide, Mikel (2010). “Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean”. *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, 77, 27-55.

Zinkunegi, J. Frantzisko (1995). “Euskararen transmisioa euskal autonomi elkarteetan”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 15, 75-88.

Zuazo, Koldo (1988). Euskararen batasuna = La unificación de la lengua vasca = L'unification de la langue Basque. Bilbo: Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zumalabe, Koro (1992). “Herrietako Euskara-elkarteak”. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 6, 53-66.



III. AHOTSAK

Proiektuan kontsultatutako testigantzak
(<https://ahotsak.eus>)

AHOTSAK

Proiektuan kontsultatutako testigantzak (<https://ahotsak.eus>)

- 1 Arzallus Lizarralde, Joxe Luix (Errenteria, 1929)
- 2 Egilegor Portugal, Maitxo (Errenteria, 1942)
- 3 Etxeberria Mitxelena, Fernanda (Errenteria, 1932)
- 4 Etxebeste Artola, Antonio (Errenteria, 1926)
- 5 Gaztelumendi Aiestaran, Joxe (Errenteria, 1925)
- 6 Getaria San Pedro, Juanita (Errenteria, 1927)
- 7 Goitia Zuloaga, Maritxu (Errenteria, 1923)
- 8 Goñi Galarraga, Iñaki (Errenteria, 1929)
- 9 Goñi Galarraga, Joseba (Errenteria, 1929)
- 10 Iburguren Amondarain, Maritxu (Errenteria-Orereta, 1934)
- 11 Iñarra Lizarazu, Seberiano (Errenteria, 1926-2013)
- 12 Iparragirre Perurena, Laxaro (Errenteria, 1929)
- 13 Jauregi Abarrategi, Garbiñe (Aretxabaleta, 1932. 14 urte zituela, Errenteriara)
- 14 Jauregi Burutaran, Arantxa (Errenteria, 1926)
- 15 Labandibar Retegi, Eustaki (Errenteria, 1920-2012)
- 16 Lizaso Eizmendi, Begoña (Errenteria-Orereta, 1922)
- 17 Mendarte Kasares, Miren (Errenteria, 1929)
- 18 Mendizabal Etxeberria, Mari Kruz (Errenteria-Orereta, 1933)
- 19 Otaegi Arrizabalaga, Mila (Errenteria-Orereta, 1926)
- 20 Paskual Zapirain, Mari Tere (Errenteria-Orereta, 1931)
- 21 Retegi Mitxelena, Xebastian (Errenteria, 1929-2018)
- 22 Sarasola Mitxelena, Begoña (Errenteria, 1938)
- 23 Zabaleta Gallarraga, Konsuelo (Errenteria, d/g)
- 24 Zapirain Etxeberria, Joxe Mari (Lezo, 1933. 17 urte zituela, Oreretara)

IV.
Resumen
Résumé
Summary

Resumen

Hacia la década de los sesenta la sensibilidad hacia la situación minoritaria del euskera se tradujo en iniciativas orientadas a su puesta en valor y recuperación, convirtiéndolo en un eje fundamental de la identidad vasca. Junto el batua, la puesta en marcha de un modelo escolar con el euskera como lengua vehicular y la euskaldunización y alfabetización de personas adultas fueron las principales herramientas para tratar de articular un nuevo proyecto nacional alejado de los cánones dictados por el franquismo. Unas piezas claves en el camino a la normalización lingüística que comenzaría a materializarse a principios de los años 80 y cuyo resultado aún resulta controvertido.

La euskaldunización y la alfabetización en euskera de personas adultas escolarizadas en castellano o francés constituyó un auténtico movimiento popular que aglutinó a miles de hombres y mujeres y que consiguió también implicar a otros agentes sociales procedentes sobre todo del ámbito cultural y asociativo. Gracias a esa red, el éxito de las “gau eskolak” fue no solo cuantitativo sino sobre todo cualitativo por lo que supuso en la paulatina ocupación simbólica del espacio.

El presente trabajo aborda desde una perspectiva etnográfica el fenómeno de las “gau eskolak” en Erreterria desde su aparición a mediados de los años 60 hasta la consolidación de los euskaltegis a comienzos de la década de los 80. A través de los recuerdos individuales se pretende contribuir a la memoria colectiva para reflejar las características de ese movimiento popular, su influencia en la visibilización del euskera en el pueblo. También cómo le afectaron otros fenómenos que trascendían el ámbito local, como el conflicto entre AEK y HABE.

Más allá del ámbito exclusivo de las “gau eskolak” se ha prestado atención al contexto en el que surgieron y evolucionaron, buscando las conexiones con otros agentes de cambio y prestando especial atención al papel de las mujeres en la transmisión del euskera.

Palabras clave: Erreterria-euskaldunización y alfabetización de adultos-mujeres-transmisión

Résumé

Dans les années soixante, la sensibilité à la situation minoritaire de la langue basque s'est traduite par des initiatives visant à sa valorisation et à sa récupération, en faisant un axe fondamental de l'identité basque. Le Batua, la mise en œuvre d'un modèle scolaire avec le basque comme langue véhiculaire et les cours de basque pour adultes (y compris l'alphabétisation en basque, car ils avaient été scolarisés en espagnol ou en français) d'où les principaux outils pour tenter d'articuler un nouveau projet national en dehors des canons dictés par le régime de Franco. Ces éléments étaient très importants pour réaliser la normalisation linguistique qui commencerait à se matérialiser au début des années 80 et dont le résultat est encore controversé.

L'enseignement du basque aux adultes est un authentique mouvement populaire qui unit des milliers d'hommes et de femmes et qui parvient également à impliquer d'autres acteurs sociaux, notamment issus du domaine culturel et associatif. Grâce à ce réseau, le succès du “gau eskolak” n'était pas seulement quantitatif mais surtout qualitatif en raison de ce qu'il impliquait dans l'occupation symbolique progressive de l'espace.

D'un point de vue ethnographique, cette recherche étudie le phénomène du “gau eskolak” à Errenteria depuis son apparition au milieu des années 1960 jusqu'à la consolidation des «euskaltegis» au début des années 1980. À travers les souvenirs individuels, elle est destinée à contribuer à la mémoire collective pour refléter les caractéristiques de ce mouvement, son influence sur la visibilité du basque à Errenteria et aussi comment d'autres phénomènes l'ont affecté.

Au-delà de la portée exclusive du “gau eskolak”, une attention particulière a été portée au contexte dans lequel elles ont émergé et évolué, recherchant des connexions avec d'autres agents et accordant une attention particulière au rôle des femmes dans la transmission du basque.

Mots-clés: Errenteria- enseignement du basque aux adultes-femmes-transmission

Summary

In the sixties, the sensitivity towards the minority situation of the Basque language was translated into initiatives aimed at its enhancement and recovery, making it a fundamental axis of the Basque identity. The Batua, the implementation of a school model with Basque as the vehicular language and the Basque classes for adults (including literacy in Basque, because they had been schooled in Spanish or French) where the main tools to try to articulate a new national project away from the canons dictated by the Franco regime. These elements were very important to achieve the linguistic normalization that would begin to materialize at the beginning of the 1980s and the result of which is still controversial.

The teaching of Basque to adults was an authentic popular movement that united thousands of men and women and that also managed to involve other social agents, especially from the cultural and associative fields. Thanks to this network, the success of the “gau eskolak” was not only quantitative but above all qualitative due to what it implied in the gradual symbolic occupation of space.

From an ethnographic perspective, this research studies the phenomenon of the “gau eskolak” in Erretereria from its appearance in the mid-1960s to the consolidation of the euskaltegis in the early 1980s. Through individual memories it is intended to contribute to the collective memory to reflect the characteristics of this movement, its influence on the visibility of Basque in Renteria or how other phenomena affected him.

Beyond the exclusive scope of the “gau eskolak”, attention has been paid to the context in which they emerged and evolved, seeking connections with other agents and paying special attention to the role of women in the transmission of Basque.

Key words: Erretereria-Basque classes for adults-women-transmission

EUSKARA
ARIKETAK

1

jo ta ke
fitxa osagarriak

JOSE JOAN G. DE TXABARRI

EUSKARA MITZA-PRATIKAK

jo ta ke

4

JOKE JOAN G. DE TXABARRI

IRAKASLEENTZAKO
MATERIALE
OSAGARRIA

EL DIARIO

EL DIARIO VASCO

1

EUSKALDUNTZE

EUSKARA
BATUAZ

IRAKASLE TALDE BATEK

1

EUSKALDUNTZE

EUSKARA
BATUAZ

IRAKASLE TALDE BATEK

NERE BORDATXOTIX
Por Basarri
CARRERAS

EL DIARIO VASCO

Rentería: suspendidas las fiestas

EL WAPFOR

El reo d'amor

JOKE TA ARIKETA BILDUMA
JOKE TA ARIKETA BILDUMA
JOKE TA ARIKETA BILDUMA
JOKE TA ARIKETA BILDUMA
JOKE TA ARIKETA BILDUMA
JOKE TA ARIKETA BILDUMA

aek
EL DIARIO VASCO

IRAKASLE TALDE BATEK

IRAKASLE TALDE BATEK

URRASPIDE 5

euskaldunen
euskaldunen
euskaldunen
euskaldunen
alfabetatzea
alfabetatzea
alfabetatzea
alfabetatzea

ALFABETATZE EUSKALDUNTZEK KOORDINATUKUNGA-BIZKAIA
Aldak Maderlari, 12. Guremu: Bilbo-14. Tfona: 467 10 25.

Jale

IRAKASLEENTZAKO
GIDA LIBURUA

1-12

Irakaskuntza

Occidente en la atención en Polonia

Novia
Hipódromo


Ikasleentzako
MATERIALE
OSAGARRIAK

BIZKAIA 1979.eko UR

Irakaskuntza

Occidente en la atención en Polonia

Novia
Hipódromo



ERRETERIA
UDALA

KULTURA
kreaktiboa

ISBN-978-84-608-7672-4



9 788460 876724